

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Azpeitia



Aurkibidea

Udalerria: Azpeitia

Sarrera



Urola Erdiko herri nagusia. Herriguneaz gain, hainbat auzo ditu eta horietako hiruk dute estatistiketan izaera ofiziala: Loiola, Nuarbe eta Urrestilla. Horretaz gain badira beste auzo hauek: Aratz Erreka, Eizagirre, Elosiaga, Izarraitz, Lasao, Landeta, Matxinbenta, Odria eta Oñatz. Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMAko kidea da.

Argazkia: [Wikipedia](#).

- **Biztanleak:** 14.354
- **Euskaldunak:** %95,0

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **94**
- Zintak: **104**
- Pasarteak: **1.254**
- Transkribatutakoak: **143**
- Audioak: **10**
- Bideoak: **1.110**

Proiektuak

- Alex Artzelus Mujika
- Atzoko Zegama
- Azpeitiko ahotsak
- Azpeitiko Euskara Beka
- Azpeitiko hitanoa
- Dialektologia-EHU
- Diasporako Ahotsak
- Ermuko Ahozko Ondarea
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskalkiak.eus
- Fondo partikularrak
- Gasteizko Euskararen Ahotsak
- Gazte gara gazte
- Periferiaren mugak
- San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen
- Urretxu eta Zumarragako ahotsak

Hizlariak

Joxe Agirre Esnal (1929-2012)



1929an jaio zen Azpeitiko Izarraitz auzoko Orandabekoa baserrian. Aita bertakoa zuen eta ama Getariako Aldazabal baserrikoa. Sei anai-arrebatan bigarrena zen. Eskolan Lasao ibili zen 11 urtera arte eta gerora lanbide askotan ibilia, basoan eta harrobian, besteak beste. Umetatik izan zuen gertuan bertsolaritza mundua, aitona zenak piztu baitzion langintza horretarako grina. 1952an hasi zen bertsoan publikoaren aurrean. Txapelketetan ere parte hartua eta bertsolari onenekin plazaz plaza ibilia.

Juanita Agirre Etxeberria



Juanita Agirre 1938. urtean jaio zen Lasao auzoko Badiolegi baserrian. Lehenengo eskola urteak Lasako auzo-eskolan egin zituen. Handik Enparan Gain aldeko baserri batera joan zen bizitzera familiarekin, eta urte batzuk geroago, berriz, Azpeitiko Eliz kalera joan ziren. Azpeitian, miseriakorian, egin zituen ikasketak. 13 urte inguru zituela ikasketak utzi eta anaiari baserriko lanetan laguntzen aritu zen. Gero, txapa-lantegi batean hasi zen lanean.

Inazio Agirre Perez Ederti (1922-2014)



Azpeitiko Erdikalean jaio zen eta han eman du bere bizi osoa. Aitona Aragues del Puertokoa zuen (Huesca) eta hortik datorkio Perez abizena. Maristetan ikasi zuen eta merkataritza ikasteko aukera izan zuen. Marraztea oso gogoko zuen eta klaseak hartu zituen Manuel Ferrer maisuarekin. Margotzeko zaletasun handia izan du eta inork irakatsi gabe, bere kasa, ikasi du pintatzen. Gaztetan musika ere ikasi zuen Julian Barrenetxea maisuarekin eta koruan ibili zen kontralto gisa kantari. Aroztegia eta ehorztetxea eduki zituen anaiarekin baina, artearekiko zeukan zaletasuna zela-eta, dekorazio munduan bukatu zuen. Azpeitiko danborradako karrozak egin zituen urte askoan.

Pedro Agirre Unanue (1938)



Aratz Erreka auzoko Aratz baserrian jaio zen 1938an. Aita Aratz baserrikoa bertakoa eta ama Igaratekoa zituen. Eskolan, Aratz Errekan bertan ibili zen 12 urterekin hasita. Baserriko bizimodua ezagutu izan du beti eta basoko lanean ere aritu zen 18 urtera arte. Sagardogintza gertutik ezagutu zuen auzoko dolare bakarra beraiek baitzuten etxean. 18 urtetik atzera etxetik kanpo zenbait lantegitan aritu zen lanean, Azpeitiko 'Urkizu' tornu lantegian, Azkoitiko 'Retimac'-en artezgailuak ("rectificadora") egiten eta Azpeitiko 'Zubiola Kooperatiba'-n. Elkarrizketa sasoiaren ere Aratzen bertan bizi zen.

Santiago Agirre Unanue (1926)



Azpeitiko Aratz Erreka auzoko Aratz baserrian jaio zen 1926ean. Aita Aratz baserrikoa bertakoa eta ama Igarate baserrikoa zituen. Aratz Errekan bertan ibili zen eskolan, denbora laburrean izan bazen ere. Gerra garaia ume zela, sei urterekin, ezagutu zuen. Umetan elizan akolito lanetan ibili zen. 13 urterekin basoan hasi zen lanean, okindegiatarako egurra ateratzen. Baserriko bizimodua ezagutu izan du beti. Etxe inguruan fruta arbola ugari zituzten, sagastiak gehienbat, eta auzoko dolarea beraiena zenez, sagardo ugari egiten zuten.

Anjel Alberdi Aldalur (1930)



1930. urtean jaio zen Azpeitiko Arauntza baserrian. 11 senide izan ziren. Umetan auzoko eskola batean hasi ziren, baina gerra etorri zenean eskolarik gabe gelditu ziren. Gerora, Azpeitiko kalean ibili zen eskolan. Alde batean eta bestean morroi ibilia da, tartean baita Tuteran (Nafarroa) ere, osaba jesuita zegoen lekuan haiei lagunduz. Ardiak betidanik gustatu izan zaizkio, eta beti izan ditu. 2011ko irailean, emazteari eta biei omenaldia egin zieten Legazpiko Artzain Egunean. Kooperatiba bat ere sortu zuten auzoko hiru baserrikoen artean, esne-behiak eta haragitarakoak izan zituzten. Elkarrizketa garaian, oraindik ere Arauntzan bizi zen.

Inixio Alberdi Aldalur (1936)



Azpeitiko Arauntza baserrian jaio zen, 11 senidetatik azken aurrekoa. Aita Arauntzakoa eta ama Beama auzoko (Errezil) Agerre baserrikoa zituen. Eskolan Azpeitian ibiltzen zen, baina ez zen asko joaten. Beti izan du ardiekiko zaletasuna, eta Izarraitzen ere ibilia da. Pinu sartzen ere ibilia da Mandubi aldean, baita Azpeitian bertan ere. Ezkondu eta gero ordea, tailerrean hasi zen lanean. Baina, beti izan ditu ardi bakanen batzuk.

Joxe Alberdi Aldalur (1931-2015)



1931. urtean jaio zen Arauntza baserrian, ama Errezilgo Agerrekoa zuen eta aita, berriz, Arauntza bertakoa. 11 senide izan ziren, baina ama gazte hil zitzaien eta ia denek atera behar izan zuten etxetik lanera. Umetan Izarraitzen artzain ibilia da, beste anaiekin batera, aitik han izaten baitzituen ardiak. Baserri askotan aritu izan da lanean, laguntza eskatzen baitzioten, gerora baita Azpeitiko zerrategi batean ere, baina urte gehienak eraikuntzan eman ditu. Azpeitian bizi zen elkarrizketa garaian, eta baratzean aritzen zen oraindik ere.

Mari Alberdi Aldalur (1933)



Odria auzoko Arauntza baserrian jaio zen 1933an. Aita bertakoa zuen, eta ama, berriz, errezildarra, Beamako Agerre baserrikoa. 11 senide izan ziren. Azpeitiko eskolabetan ibili zen eskolan, baina gazterik ama hil eta neskame joan zen. Azpeitiko Etxaun baserrira ezkondu eta bost seme-alaba izan zituen. Baserritik bizi izan da beti, senarra nahiko gazte hil zitzaion, baina hala ere ganaduekin jarraitu zuen koinatuen laguntzarekin.

Maria Bitoria Alberdi Aldalur (1925-2016)



Odria auzoko Arauntza baserrian jaio zen 1925ean. Aita Arauntzakoa eta ama Granada-Errekako Beamako Agerre baserrikoa zituen eta 11 anai-arreba ziren familian. Eskolan Odrian ibili zen baina denbora laburrean, gerra hasi zenean maistrak alde egin zuen eta baserrira bueltatu beharra izan zuen. Umetatik baserritik bizitzea suertatu zaio, ganadu ugari izan du beti. 12 seme-alaba izan zituen, eta Odriako Premietxeberri baserrian bizi da.

Narciso Alberdi Aldalur (1922-2015)



Azpeitiko Arauntza baserrian jaio zen, 11 senidetatik hirugarrena. Aita Arauntzakoa eta ama Beama auzoko (Errezil) Agerre baserrikoa zituen. Hasieran eskolan auzoko Orkazagirre baserrian ibiltzen zen, baina auzokoak haserretu eta gero beste bi eskola-etxe egin zituzten. Haietako batean jarraitu zuen, askotan joaten ez bazen ere. Anaien aldean, artzaintzan gutxi ibilia da, baina itulan aritzen zen baserri bat baino gehiagotan. Beizaman morroi sei urte eman zituen, eta gero Azpeitiko baita esklabetan ere.

Trini Alberdi Aldalur (1938)



Trini Azpeitiko Arauntza baserrian jaio zen eta 11 senidetatik gazteena da. Aita Arauntzakoa eta ama Beamako (Errezil) Agerrekoa zituen. Eskolan Azpeitiko esklabetan ibili zen. Umetan eta gaztetan baserrian lanean aritu zen, beste senideak bezalaxe. 'Artetxe' hotelean ere neskame ibili zen, berak dioenez, "camarera de oficio" da. Goiatz auzoko Agerreko Antoniorekin ezkondu eta Irunera joan ziren bizitzera, lana han bazegoela-eta. Gerora, Hendaia pasatu zen bizitzera eta bertan bizi zen elkarrizketa garaian ere.

Iñaki Alberdi Arruti (1934)



1934ko azaroaren 24an jaio zen Azpeitiko Erdi kaleko "Trastornoneko" etxearen bigarren pisuan. Ikasketak herriko eskolan egin zituen. 14 urte egiterako hasi zen 'Fábrica de muebles Garitano Alberdi' lantegian lanean. Aita lantegiko bazkide zen, eta hasierako urteetan "pintxe" lanetan aritu zen bertan. Jesuitinetan marrazketa ikasi zuen, eta, gero, egurra tailatzen hasi zen. Tailan taldean aritzen ziren, eta han sortu zitzaion kanturako afizioa. Lankide batek animatuta hasi zen Azpeitiko musika bandan solfeoa ikasi eta klarinetea jotzen.

Maria Luisa Alberdi Zendoia (1947)



Azpeitiko Izarraitz auzoko Urreta baserrian jaioa 1947an. Aita bertakoa eta ama Takolokoa zituen, eta 11 senide ziren familian. Eskolan denbora gutxian ibili zen auzoko hiru baserrian, Bildotsolan esaterako. Baserriko bizimodua eraman du beti, azokara tratura eta esne-saltzen umetatik hasi zen. Elgoibarren eta Azpeitian tabernako zerbitzari lanetan ibili zen gaztetan. 18 urterekin ezkondu zen Izarraitz auzoko Berastegi baserrira, bost seme-alaba izan zituen.

Inazio Albizuri Etxaniz (1928-2011)



Loiolako Torre-Berrosueta baserrian jaio zen 1928an. Hiru anai-arrebatan zaharrena da. Aita Beastein baserrikoa eta ama Torre bertakoa zituen. Eskolan Azpeitiko Olatz auzoan ibili zen eta ondoren "Errementarikoan" eta Azpeitiko maristetan. Gerra garaia gertutik ezagutu zuen; bonben beldurrez mendira ihes egin beharra izan zuten 15 egunez. Soldadutza garaian, Iruñean, Elizondon eta Oiartzunen egon zen. Oñatz auzoko Azpillaga baserriko alabarekin ezkondu eta bi seme-alaba izan zituzten.

Maria Aldalur Gabilondo (1917-2014)



Lakute baserrian jaio zen 1917an. Gurasoak azkoitiarrak zituen, ama Martirieta auzokoa eta aita Floreagakoa. Aita "Piteruenean" lanean ari zela joan ziren Lakutera bizitzera, eta Maria bertan jaio zen. Zazpi anai-arreba ziren. Umetatik baserriko bizimodua ezagutu izan du, eta Aratz Errekako mendian egoten zen artzain. Eskolan mixerikordian ibili zen mojekin, eta ondoren esklabetan. Josten ikasten ere ibili zen Urrestillan. Eskola amaitzerako ama hil zitzaion, eta baserrira bueltatu zen. 14 urterekin hasi eta 19 urtera bitartean neskame lanetan aritu zen Azpeitiko harakin baten etxean. Urrestillako 'Auntxa' soinu-jolearekin hasi zenean, 'Auntxa' tabernan aritu zen zerbitzari lanetan. Bertan ezkondu eta zortzi seme-alaba izan zituzten.

Orhantza Alegria Borda (1986)

1986ko urtarrilaren 22an jaio zen Orhantza. Aita nuarbetarra du, eta ama, berriz, azpeitiarra. Orhantza Azpeitian bizi izan da beti, eta seme bakarra da. Psikologia ikasketak eginak ditu. 2008az geroztik Egurra Ta Kitto! musika taldeko gitarra-jotzailea da. [Julene Frantzesena](#)rekin batera egin genion elkarrizketa, eta Azpeitiko gazteen arteko giroaz, gazte hizkeraz eta aisialdiko beste hainbat konturi buruz mintzatu zitzaizkigun.

Manuel Mari Altuna Bengoetxea Kanpaxa (1939)



Azpeitian jaioa 1939an. Gurasoak ere azpeitiarrak zituen. Bost senidetan gazteena. Dendaria izan da lanbidez; futbola eta pilota izan ditu zaletasun. 2015ean 50 urte bete zituen San Sebastian bezperan *Gure Ametsa* elkarteko danborradako taldea zuzentzen. Maria Pilar Larrañaga azkoitiarrarekin ezkondua; lau seme-alabaren aita.

Maria Altuna Bereziartua (1934)



1934an jaio zen Urrestillako Kale Txikin. Bost anai-arrebatan zaharrena da. Eskolan Urrestillan ibili zen 14 urtera arte. Bederatzi urte zituela hil zitzaion ama eta etxean makina bat lan egin beharra suertatu zitzaion. Eskola utzi ondoren, josten ikasten aritu zen Azpeitian. Urrestillako 'Larrañaga Mancisidor' abarketa-lantegian eta etxetik kanpoko joste lanetan aritu zen lanean. Aita Urrestillako alkatea izan zen.

Javier Altuna Larrañaga Kanpaxa (1966)



Azpeitiarra. Aita ere bertakoa; ama, berriz, azkoitiarra. Lau senidetan zaharrena. Donostiako San Ignacio Ikastetxeko irakaslea da eta bertako ikasleek egin zioten elkarrizketa.

Inazio Amenabar Ibarbia (1922-2014)



Azpeitiko Izarraitz auzoko Azkune baserrian jaio zen 1922an. Ama Goiatz auzoko Kuzman baserrikoa eta aita Azkune bertakoa zituen. Zazpi anai-arrebatan laugarrena da bera. Eskolan Azpeitiko Olazko mojetan eta maristetan ibili zen 16 urtera arte. Soldadutza San Markosen eta Irunen egin zuen 20 urte zituela. Etxean betidanik lan egin izan dute frutekin eta azoketan fruta saltzen ibilia da umetan. 'Azkune' fruta-denda zabaldu zuten etxean bertan eta elkarrizketa garaian Lleidan ere bazuten lantegia.

Jesusa Aranguren Olazabal (1910-2012)



Auzaraza "Azautze" baserrian jaio zen Jesusa. Aita Auzaraza bertakoa zen eta ama Oiarzabal baserrikoa. Umetan eskolara Olatzera joan zen. Ikasle ona zenez, 12 urterekin mojek jesuitinetara eraman zuten ikastera, eta urte gutxi barru bertako maistra izatera pasa zen. Oso maitea zuen klaseak ematea eta umeekin egotea. Baina gerra iritsi zenean utzi egin behar izan zuen, maistra erdaldunagatik ordezkatu zuten eta. Gerra ondoren Donostian jantzigintza titulua atera eta Azpeitian akademia bat zabaldu zuen ilobarekin. 40 urte baino gehiago egon zen jostun lanetan.

Joxe Mari Aristi Garate (1930)



Urrestillan jaio zen 1930ean. Gurasoak ere Urrestillakoak zituen eta hiru anai-arrebako sendia zuen. Taberna zuten Urrestillan, "Ezamakoa". Eskolan auzoan bertan ibili zen Valladolideko maisu batekin eta 14 urterekin Eibarko Armeria Eskolara joan zen ikasketak jarraitzera. Lanean Landetako 'Inlasa' lantegian ibili zen beste sei lagunekin elkartu eta tornuak egiten jubilatuta arte.

Inaxita Arozena Izeta (1919)



Zestoako Gexala baserrian jaio zen 1919ko ekainaren 15ean. Gurasoek Inazio eta Josefa zuten izena, eta lau ahizpatan gazteena zen bera. Aitaren omenez jarri zioten Inaxi izena; izan ere, ama zortzi hilabeteko esperoan zegoela alargundu zen. Alargunduta, lau alabekin Azpeitira bizitzera etorri, eta ile-apaindegia zabaldu zuen Inaxitaren amak. Miserikordian ibili zen eskolan 11 urtera arte, eta, gero, alpargatei zintak josten aritu zen lanean. 16 urterako, amari erreleboa hartu eta ile-apaintzaile lanetan aritu zen, erretiroa hartu zuen arte. 29 urte zituela Migel Bereziartuarekin ezkondu eta zortzi seme-alaba izan zituen (sei alaba eta bi seme). Elkarrizketan, bere alaba Mirari Bereziartuak ere parte hartzen du.

Migel Arregi Iturbide (1910-2000)



Loiola auzoko Iturbide baserrian jaioa. Panderojole ezaguna, Patxi eta Boni anaien antzera. Aitzindariak izan ziren panderoa soinuarekin nahasten. Hainbat soinu-jotzailerekin aritu izan zen, baina Antonio Aranaga `Auntxa´ izan zuen ohiko bikotekide. Oso mendizalea zen eta mendian ere aitzindaria izan zen.

Albina Arregi Urbieta (1910-2013)



Loiolako Etxearreta baserrian jaio zen 1910ean. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Mandiolatzakoa. 4 anai-arrebako sendia zuen. Eskolan Loiolan eta Miserikordian ibili zen Azpeitian. Josten ikastera Azpeitira joan zen. Baserritik bizi izan da beti eta Azpeitiko plazara ere joaten zen generoa saltzera.

Maria Jesus Arregi Uzin (1945)

Azpeitian jaioa. Milagrosa ikastetxean ikasi zuen, eta hantxe hasi zuen bere musika ibilbidea, ikastetxeko koruan abesten zuen eta. Aita enpresaria zen eta kontabilitatea ikastera bidali zuten 16 urterekin, berak musika gustukoago izan arren. Milagrosa ikastetxea utzi zuenean, kantuan jarraitu nahirik, "Coro de Camara de Radio Popular de Loiola" abesbatza hasi zen. 1965ean sortu zuten taldea ikastetxeko abesbatza ibilitakoek, On Migel Txapel zuzendari zutela. Baina ibilbide laburra izan zuen koru horrek eta, 1967an, sortu berri zen Juan de Antxieta abesbatza parte hartzen hasi zen, Joxe Mari Altuna zuzendari zela. Bertan zebilela, musika ikasteko proposamenak ere izan zituen, baina etxean ez zioten utzi. Hala ere, gitarra jotzen ikasi zuen bere erara eta bi lagunekin (Olatz Saldias eta Arantxa Frantzesena) Unai Hirukoa taldea sortu zuen 1964an. 1966an abestu zuten lehen aldiz jende aurrean, euren herrian bertan. Lehen kantaldi horren ondoren, Mari Karmen Otaegik hartu zuen Olatz Saldiasen lekua taldean. Geroago Arantxa Frantzesenak utzi zuen taldea eta Unai bikoak egin zuen aurrera, baita kantu lehiaketa batzuk irabazi ere. 1973 ingurura arte ibili ziren kantuan, dantzalekuetan, jaialdietan, herririk herri... 1977an diskoa grabatu zuten. [Mari Karmen Otaegi](#)rekin eta [Arantxa Frantzesena](#)rekin batera egin zitzaion elkarrizketa Maria Jesusi, Unai Hirukoaren inguruko kontuak jasotzeko. Berari buruzko [biografia](#) ere argitaratu zuen Eneritz Albizuk (datu asko bertatik jasoak dira).

Imanol Arregi Zubizarreta Iturbide (1935)

Loiola auzoko Iturbide baserrian jaio zen 1935ean. Ama Narzabal baserrikoa eta aita Iturbidekoa zituen eta 10 senidetan zaharrena da bera. Eskolan Ermentari baserrian ibili zen umetan eta gerora Azpeitiko maristetan; baita gau-
eskolan ere Loiolatxon. Loiolako belardietan aritu zen belardiak txukuntzen. Baserriko bizimodua izan du beti. Etxean osaba pandero-jolea zuen eta haren eraginez hasi zen panderoa jotzen 16 urte zituela. Txapelketetan ibilia da pandero-jotzaile moduan, baita erromeria ugari egina ere. 'Pikua', 'Errota', 'Epelde' eta 'Laja' soinu-joleak izan ditu bikotekide, besteak beste.



Julian Arruti Ezenarro Oriyo (1926-2014)



Azpeitiko "Oriyo" etxean jaioa, 10 anai-arrebatan gazteena. Eskola nazionalan egin zituen ikasketak. Gero, familiaren egur lantegian, 'Andres Arruti e hijos'-en, hasi zen lanean pintxe moduan. Mendirako zuen afizioa medio, [Lagun Onak mendi bazkunako lehendakari](#) izan zen 50eko hamarkadan. Azpeitiko danborradarekin sorreratik izan du harremana Arrutik; izan ere, danborradan [aurreneko aldiz atera zen gastadore taldeko kideetako](#) bat izan zen, eta 25 urtean jardun du [danborrak egin eta konpontzen](#). [Maritxu Olazubirekin](#) ezkondu eta bost seme-alaba izan zituzten.

Maritxu Arzuaga (1925)



Zazpi anai-arrebatan hirugarrena, 1925eko martxoaren 31n jaio zen Matxinbentako Arruti baserrian. Maritxuk 7 urte zituela Azpeitiko Odria auzoko Urrekasoro baserrira joan zen bizitzera familia osoa. "Mixikordia"-n eta esklabatan egin zituen ikasketak, eta 13 urterekin neskame joan zen "Karidadekora". Bertan, 17 urtean aritu zen lanean. Neskame zen bitartean jesuitinetako gau-eskolara joan ohi zen idazten, biderketak eta zatiketak egiten... ikastera.

Milagros Azkue Iraola (1940)



1940ean Azpeitiko Lasao auzoko Elorritzza-Barrena baserrian jaioa. Aita Elorritzakoa eta ama Bidanikoa zituen eta 11 senideko familia. Baserriko bizimodua eraman izan badu ere, gurasoak beti saiatu ziren ikasketak izan zitzaten eta eskolan Lasaoko "colegioa"-n ibili zen 15 urtera arte. Josten ikastera Azpeitira joaten zen Arratibelenera, baita Zestoako jostun batengana ere. 24 urterekin Imanol Iturbide pandero-jole ezagunarekin ezkondu zen Azpeitiko Loiolara, hiru seme-alaba izan zituen.

Inazio Azkune Aranguren (1914)



Azpeitiko Oñatz auzoko Oñatzaundi baserrian jaio zen 1914an. Aita zuen bertakoa eta ama Aizpuru baserrikoa; zortzi anai-arrebako sendia zuen. Umea zela hil zitzaion aita. Eskolan, Oñatz auzoan bertan ibili zen zazpi urterekin hasi eta 11 urtera bitartean. Baserriko bizimodua ezagutu izan du beti. 40 urte zituela hasi zen 'Patrizio Etxeberria' lantegian lanean, eta 65 urtera arte bertan ibili zen. Soldadutza Donostian egin zuen, baina handik frontera Madriler, Teruelera eta beste hainbat tokitara joatea tokatu zitzaion. Herri-kirol mundua gertutik ezagutu izan du, idi-probetan, harri-jasotzaileei harria jartzen eta segan ibilia baita.

Maria Jesus Azkune Zubiaurre (1934)



Oñatz auzoko Azpillaga baserrian jaio zen 1934an. Ama Azpillagakoa bertakoa zuen eta aita, berriz, Makastikoa. Bost anai-arrebatan laugarrena da bera. Eskolan, Milagrosan ibili zen Azpeitian 12 urtera arte. 12 urterekin neskame lanetara joan zen Gernikara eta bi urtez bertan aritu zen. Geroago, Azpeitiko Luis Lizasoren harategian aritu zen lanean, eta handik baserrira bueltatu zen. Loiolako Torre-Berrosueta baserrira ezkondu zen, eta bertan bizi da orduetik.

Lourdes Azpiazu Kerejeta (1950)

Manuel Bastida (1923)

Azpeitiko Urrestilla auzoan jaio zen 1923. urtean. Baserriko bizimoduaren gaineko azalpenak ematen ditu, batez ere fruta-arbolei buruzkoak. Soldadutza Donostian eta Orion egin zuen.

Joxin Beloki Uzin (1934)



Azpeitiko Eliz kalean jaio zen 1934ko azaroaren 9an. Miserikoan eta maristetan egin zituen ikasketak. 16 urte zituela, Zaragozara joan zen hilabete batzuetarako hango katedralean lana egitera. Gaztetatik izan du zezenerako zaletasuna, eta urte askoan soka-mutil ibilia da. Azpeitian egin zen helduen aurreneko danborradan parte hartu zuen, eta, orduetik, talde askotan atera da. Ceutan egin zuen soldadutza.

Alberto Bereziartua Gurrutxaga (1962)



Azpeitian jaio zen 1962an. Ama Nuarbe auzokoa zuen eta aita azpeitiarra. "Olargatarrak" deitzen zioten euren familiari. Hiru anai-arrebatan erdikoa. Gaztetan zerbitzari lanetan jardun zuen. Bere emaztea ingelesa irakastera etorri zen Boisetik Euskal Herrira eta hala ezagutu zuten elkar. Boiseran joan ziren bizitzera eta bertan sukaldari gisa lan egin izan du. Urtean pare bat aldiz egiten du bere jaioterrira bisita, okerrik ez bada.

Julian Beristain Bereziartua (1928)



Azpeitiko Odria auzoko "Orkazarre" (Orkazagirre) baserrian jaio zen 1928an. Eskolan, Barrenola baserrian eta Azpeitian, herrian, ibili zen. Baserritik bizi izan da beti, eta idi-probetan ere ibilia da. Azpeitiko Zunzundegin soroko lanetan aritua da.

Mari Karmen Beristain Bereziartua (1923)



Odria auzoko "Orkazarre" (Orkazagirre) baserrira umetan joana. Ama Abitaingoa zuen, eta aita Azkoitiko Susteta baserrikoa. Bederatzi anai-arreben artean zaharrena da. Baserriko bizimoduan murgilduta egon da beti, 11 urterekin hasi zen kalean esnea saltzen. Zazpi seme-alaben ama da.

Juanita Beristain Lasa (1937)



Elosiaga auzoko Miranda baserrian jaio zen 1937an. Zortzi senideko familia zuen, aita Mirandakoa eta ama Errezilgo Artxiola baserrikoa ziren. Eskolan Elosiagako abade-etxean ibili zen 11 urtera arte, eta, gero, Azpeitian ibili zen Elosiaga bertako maistra batekin. Baserritik bizi izan da beti. 20 urterekin ezkondu eta bost seme-alaben ama da.

Josefa Egiguren Odria (1932)



Azpeitiko Loiola auzoko Barrenetxe baserrian jaio zen 1932an. Barrenetxe baserrikoa aita eta ama Usandizagakoa zituen, eta hiru ahizpa ziren familian. Bost urterekin Loiolako Errementarikoa etxean hasi zen eskolan, eta gerora Loiolako jesuitetan ibili zen. Jaunartzea egin ondoren, Milagrosa eskolan ibili zen. Arratsaldetan, Aizarnako jostun batengana joaten zen Eliz kalera josten ikastera. Baserriko bizimodua eraman izan du, eta etxeko produktuak saltzera Zumarragara joaten zen. Sei seme-alaben ama da.

Migel Angel Elustondo Etxeberria (1958)



1958an jaio zen Azpeitian, baina 1990. urtetik aurrera Gasteizen bizi izan da. Lau senidetan bigarrena da Migel Angel. Guraso biak azpeitiarrak zituen. Bost urterekin Jesuitetara joan zen ikastera, eta Batxillergoa Nafarroan egin zuen. Kimika ikasketetako lehenengo bi urteak egin zituen Leioan. Euskal Filologia ikasi zuen ondoren Donostian, eta Nevadara joan zen Renoko unibertsitateko beka bat zela eta. Ikasketak amaituta, hamar urte igaro zituen Azpeitiko ikastolan lanean, eta Arabako ikastolen elkarteko koordinatzaile pedagogikoa izan zen beste bi urtez. Alfabetatze eskolako irakasle izandakoa. 6 urtez aritu zen EiTBn gidoilari lanetan. Idazlea da eta argazkilaritza ere pasioz bizi du (Zaldi Ero). Besteak beste, Gasteizko euskalgintzaren historia ikertu du; [Gasteizko Ahotsak](#) proiekturako elkarrizketatua.

Carmen Erkizia (1940)

Trinitate egunean jaio zen, ogiaren errazionamendua jarri zuten egun berean (gerra ondoren). 12. seme-alaba zen. Garaia eta egoera nolakoak ziren kontatzen ditu.

Begoña Errasti Agirre *Trukuman*



1939ko irailaren 18an jaio zen Amu baserrian, amaren jaiotetxean. Misericordian egin zituen ikasketak 18 urtera arte. Eskolaz kanpo, frantsesa ikastera joaten zen, eta, etxean, aitarekin ere aritzen zen frantsesez. Batxilergoko ikasketak egin ondoren, Bordelera joan zen hizkuntzak ikastera. Bordenetik bueltatu zenean, 'Telefonica'-ren Azpeitiko egoitzan hasi zen telefono-operadore lanetan. 32 urte egin zituen eginkizun horretan. Aitona petrikiloa, eta aita, berriz, praktikantea zituen.

Joxe Mari Esnaola Garmendia (1930-2014)



1930ean jaio zen Azpeitiko Oñatz auzoko Atxabaletazar baserrian. Aita Goiazko Gezarreta baserrikoa eta ama Zabale baserrikoa zituen, eta zazpi anai-arreben artean zaharrena da. Eskolan, Azpeitian ibili zen. Doktrina euskaraz ikasteko, Azpeitian bizi zen Elosiagako emakume baten etxera joaten zen. 11 urtera arte ibili zen eskolan, eta, ondoren, baserrira bueltatu zen. Betidanik baserritik bizi izan da. Gerra garaian, etxekoek ihes egin behar izan zuten, eta Goierriko Altzaga herrira joan ziren senitarteko batzuen etxera.

Juliana Esnaola Goitia (1927)



Itsasoko Itsaso-Errota baserrian jaio zen 1927an, eta, ondoren, Matximentako Isurola baserrira joan zen. Familian lau anai-arreba ziren. Eskolan, Matximentan ibili zen; baita laborea ikasten ere. Etxean, ganadua izan dute betidanik, eta baserriko bizimodua izan du.

Patxi Etxaniz Larrañaga Kinttela (1930-2012)



1930ean Azpeitiko Harzubia kalean jaio eta Goiko kalean bizi izan da beti. Aita azkoitiarra eta ama azpeitiarra zituen, eta zazpi anai-arrebako sendia zuen. Eskolan, maristetan ibili zen 15 urtera arte. 15 urterekin ama hil zitzaion, eta lanean hasi zen 'Agur' eraikuntza lantegian, tornuan. Soldadutza Burgosen egin zuen. 19 urterekin "asistente" lanetan aritu zen. Futbola eta txirrindularitza izan ditu zaletasun nagusi, eta Anaitasuna Azkoitiko futbol taldeko atezain izan zen.

Joxe Etxaniz Uranga Txikiye (1928)



1928ko urtarrilaren 22an jaio zen Azpeitiko Enparan kalean. Jesuitinetan eta maristetan egin zituen ikasketak. Umea zela, uda partean, Aizarnako Aranguren baserriko familiarekin pasatzen zituen oporrak; baserrian lagundu eta zerbait jate aldera, kalean gosete handia baitzen orduan. 10 urte zituela, "pelaioetan" soldadu ibili zen. Soldadutzan Donostia, Lezo eta Bera aldean ibili zen aurrena, eta maniobrak egiten Pirinioetan gero. Hainbat egur lantegitan ibilitakoa da; 'Imaz', 'Muxugorri', 'Euskalduna' eta 'Danona'-n. 13 urtean Urola treneko "kotxeratan" ibili zen mantenu-lanetan.

Juan Ezenarro Salegi *Berastegi* (1941)



Izarraitz auzoko Berastegi baserrian jaio zen 1941ean. Aita Berastegi baserrikoa bertakoa eta ama Otzaka baserrikoa zituen, eta bost anai-arrebatan zaharrena da. Eskolan Olatz auzoan ibili zen, maristetara joan zen arte. Gau-eskolan ere ibili zen Azpeitian. Azpeitiko lantegi batean ibili zen lanean enkofratuan, eta gerora ere beste lantegi batzuetan aritu zen langintza berean. Artzaintza munduari oso loturik egon da beti, eta grabazio egin zitzaionean ere bertatik bizi zen. 15 urte zituela soinua jotzen hasi zen, baina gerora panderoarekin hasi eta plazarik plaza ibili izan da. Soinu-jotzaile ugari izan ditu bikotekide: 'Sahatseta', 'Jauregi', 'Laja'... Trikiti txapelketetan ere parte hartu izan du, eta txapel batzuen jabe egin ere bada. Azken urteetan, Kupela taldearekin dabil plazaz plaza batera jotzen, eta hainbat diskotan parte hartu du.

Arantxa Frantzesena (1947)

Azpeitian jaioa. Gaztetan, Joxe Mari Altuna zuzendariarekin Juan de Antxieta abesbatzan zebilela, beste bi lagunekin elkartu (Maria Jesus Arregi eta Olatz Saldias) eta Unai hirukoa sortu zuten. 1966an abestu zuten lehen aldiz jende aurrean, euren herrian bertan. Lehen kantaldi horren ondoren, Mari Karmen Otaegik hartu zuen Olatz Saldiasen lekua taldean. Indarra hartzen joan ziren pixkanaka eta hainbat dantzaleku, jaialdi eta herritan abestu zuten. Geroago Arantxa Frantzesenak berak utzi zuen taldea eta beste bi taldekideek aurrera jarraitu zuten Unai bikoa izenarekin. 1977an diskoa grabatu zuten eta Arantxak ere parte hartu zuen. [Maria Jesus Arregi](#)rekin eta [Mari Karmen Otaegi](#)rekin batera egin zitzaion elkarrizketa, Unai hirukoaren inguruko kontuak jasotzeko.

Julene Frantzesena Zubizarreta (1990)

1990eko martxoaren 20an jaio zen Julene. Aita azpeitiarra du, eta ama, berriz, azkoitiarra. Julene Azpeitian bizi izan da beti, eta alaba bakarra da. Eskoriatzan egin zituen Ikus-entzunezko Komunikazioko ikasketak. Elkarrizketa egin genion garaian [Uztarría Komunikazio Taldean](#) ari zen kazetari lanetan. [Orhantza Alegria](#)rekin batera egin genion elkarrizketa, eta Azpeitiko gazteen arteko giroaz, gazte hizkeraz eta aisialdiko eta herriko beste hainbat konturi buruz mintzatu zitzaizkigun.



Iñaki Goenaga (1905-2005)

Miren Gurrunartetxe (1932)



Azpeitian jaioa, 17 urterekin Donostiara bizitzera joan zen. Gurasoak azpeitiarrak zituen biak. 7 senidetan helduena. Bizitza osoa eman du etxeko zereginetan eta jostea gustatzen zaio, adibidez. Donostiako Ramon Alostegirekin ezkondua eta 3 seme-alaben ama.

Francisco Gurrutxaga Iturralde (1935)



1935ean jaio zen Nuarben. Ama kaletarra eta aita Loreto baserrikoa zituen. Eskolan, Nuarben eta Urrestillan ibili zen. 14 urte bete zituenerako utzi zuen eskola, eta aitari otarregintzan laguntzen hasi zen. Kale-etxean bizi ziren, eta etxe azpian otarre lantegia zuten. Nuarben garai hartan otarregile asko zen, eta Patxik eta aitak ere lan ugari izaten zuten, inguruko herrietarako eta Espainia osorako lan egiten zuten eta. 40 urtera arte aritu zen otarregile lanetan, eta, ondoren, lana urritu zenean, lantegian hasi zen lanean. Azpeitiko 'Muebles Loiola'-n, Itsasondoko tailer batean, Azpeitiko 'Danona'-n, Berriatuko 'Cicautxo'-n, Arrasateko Garagartzan eta azkenik Oñatiko 'Fagor'-en aritu zen lanean.

Migel Gurrutxaga Lesaka (1929)



Urrestillan jaioa 1929an. Aita Eizagirre baserrikoa eta ama Arregikoa zituen, eta sei anai-arreba ziren sendian. Eskolan, Urrestillan bertan ibili zen. Baserriko bizimodua gertutik ezagutu izan du. 16 urte zituela, Urrestillako Santos Olazabal perratzaileak aukera luzatu zion perratzaile ofizioa ikasten hasteko. Halaxe hasi zen, Urrestillan bertan, langintza hori ikasten. Gazterik joan zen Zumarragako Eitza auzora perratzaile lanetara; bertako perratokian hasi zen lanean. Goizez perratzen eta arratsaldean 'Orbegozo' lantokian aritu zen urteetan lanean. Ganadu ugari perratu izan du idi-probetarako, asto-probetarako eta etxerako. Grabazio garaian, idiak eta bestelakoak perratzen aritzen zen inguruko herrietan eta Zumarraga-Urretxuko zenbait baserritan.

AZP-003 Hizlari ezezaguna

Emakumea. Zazpi senidetan nagusiena, txikitatik hasi zen aitari lanean laguntzen. Kandelak egiten zituzten Azpeitian, klase, neurri eta kolore guztietakoak. Hamasei urtera arte ibili zen aitari laguntzen lanbide horretan. Gero josten ikasi zuen eta jertsegintzan hasi zen.

AZP-004 Hizlari ezezaguna

Hiztunen inguruko daturik ez. Bi emakumezko dira hizlariak eta elkarri hika hitz egiten diote.

Maria Iburguren Iparragirre (1922)

Azpeitiko Odria auzoko Odriabidabe baserrian jaioa 1922an. Aita Odriabidabekoa eta ama Aizarnakoa zituen, eta 12 anai-arreba ziren sendian. Eskolan, auzoko Orkazagirre baserrian ibili zen. Baserritik bizi ziren, eta esnea eta arrautzak saltzera Azpeitira eta sagar salmenta egitera Eibarrera joaten zen 16 urterako. Eskola amaitu aurretik neskame lanetara joan zen Orandaundi baserrira, eta, ondoren, Azpeitiko "zapateiko" dendan aritu zen arropa saltzen. Donostiako 'Pension Lasan eta 'Casa Nicolasa'n aritu zen neskame, besteak beste. Franco eta bere soldaduak gertutik ezagutu zituen, haiek zerbitzatzea suertatu baizitzaion. 27 urterekin ezkondu eta Zumarragara joan zen bizitzera. Han, Toki Alai taberna zabaldu zuen.



Jose Mari Iriondo Unanue (1938)

Urrestilla bidean dagoen Elosiaga auzoko Larrañaga baserrian jaio zen 1938an. Zazpi anai-arreben artean gazteena zen. Urtebete besterik ez zuela hil zitzaion ama, eta amonak hazi zuen "Atxunberri" (Atxumarriaga) baserrian. Sei urterekin, Aratz Errekara joaten zen eskolara. 13 urte zituenean Burgosera joan zen gaztelaniaz ikastera eta handik gero Gabiriara barnetegira. Horren ondoren, merkataritza-peritu izateko ikasketak egin zituen. Afrikan egin zuen soldadutza, Sidi Ifnin. 18 hilabetez egon zen han, eta bankuan lan egiteaz gain bertako irratian ere parte hartzen zuen. Bere asmoa etorkizunean banketxeren batean lan egitea zen arren, Loiola irratian hasi zen lanean soldadutzatik itzuli eta berehala. 22 urte irratian egin ondoren, 1975ean TVE-ko 'Telenorte' saioan parte hartzeko deitu zioten. Urte batzuen ondoren, ETB sortu zen eta bertan lan egiteko aukera sortu zitzaion. Bai ETB-ko, bai Euskadi Irratiko zuzendari izana da. Hainbat biografia eta lan ere egin izan ditu.



Maria Itziar Kerejeta Zabaleta (1933)



Azpeitiko Madalena auzoan jaio zen 1933an, Motrailu baserrian. Aita Madalenakoa eta ama Elosiaga auzoko Iturralderdikoa baserrikoa zituen. Gerra garaia ezagutzea suertatu zitzaion umea bazen ere, eta etxez aldatu behar izan zuten. Eskolan, Elosiagan bertan eta mojetan ibili zen. Azpeitiko "Metrorean" ibili zen josten ikasten. 23 urte zituela, Gasteizko etxe batera neskame joateko gonbitea jaso eta halaxe joan zen. Handik bueltatu eta josten jarraitu zuen.

Mikel Labaka Zurriarain (1980)



Mikel Labaka, azpeitiar futbolari profesional-ohia da. Ikastolan, kirol ezberdinetan ibili zen (futboleant, pilotan, korrika...) Azpeitiako Lagun Onak klubean jokatzen hasi zen eta 16 urterekin Real Sociedad-era eraman zuten. B mailan hiru denboraldi eman ondoren, Real Union-en eta Murtzian jokatu zuen, Errealera bueltatu zen arte. 2013an futbol-jokalari izateari utzi zion.

Agustina Landa Mendia (1927)



1927an jaio zen Azpeitiko Matxinbenta auzoko Erdiko Ostatuan. Eskolan, Matxinbentan ibili zen. betidanik baserriko bizimodua eraman izan du.

Francisca Seberiana Larrañaga Zubiaurre (1922)



Olatz auzoko Otzokua baserrian jaio zen 1922an. Aita bertakoa eta ama Nuarbeko Lulute baserrikoa zituen, eta bost anai-arreba ziren familian. Eskolan, Olatzen ibili zen mojekin. Otzokua baserria erre egin zen, eta, halabeharrez, auzo bereko Olatxo baserrira joan behar izan zuten. Baserriko bizimodua eraman du beti. Amak osasun arazoak zituen, eta etxean lagundu beharra izan du umetatik. Anaiak gerran galdu zituen. Olazko mojetan ezagutu zuen gero senar izan zuena (erezildarra), bertan aritzen baitzen morroi lanetan. 10 seme-alaba izan zituen, denak etxean.



Alberto Larrea Usandizaga *Barnola*

Rosa Lasa Garcia (1938-2013)



Azpeitiko Eliz Kanean jaio zen. Aita andoaindarra zuen, Urolako trenaren lehenengo makinista izandakoa. Ama, berriz, bizkaitarra zuen, Plentziakoa. Amak lan egiten zuenez, txikitatik anai-arrebekin batera mojetan hazi zen, 18 urtera arte. Han denetik ikasi zuen, bai eskolako gaiak, bai etxeko lanak egiten. Kirola asko gustatzen zitzaion, eta mutilekin futboleak eta pilotan aritzen zen. Eskola bukatuta, lanean hasi zen egur fabrikan eta baita eskola garbitzen ere. Argazkilari batentzat ere lan egin zuen, gizonarekin motorrean argazkiak etxeetara partitzen. Gizona Xoxoteko egunean ezagutu zuen, eta handik bi urtera ezkondu ziren.

Joxe Lasa Gurrutxaga (1923)



1923an jaio zen Matximentako Marturio baserrian. Aita bertakoa eta ama Paolakoa zituen, eta bederatzi anai-arreba ziren familian. Sei urterekin hasita Matximentako eskolan ibili zen 13 urterara arte; gau-eskola ere bertan izan zuen. Marturio baserrian jaio arren, errenteroak izaki, Zuanetara joan ziren bizitzera, eta, handik, Isuolara (garai batean ola izana). Otarregile lanetan aritua da, eta betidanik baserriko bizimodua ezagutu izan du. 29 urterekin ezkondu eta zazpi seme-alaba izan zituen.

Imanol Lazkano Uranga (1936)



Azpeitiko Landeta auzoko Antzibarrena baserrian jaioa 1936an. Hamar senideko familian hazia. Eskolan, Azpeitiko maristetan ibili zen sei urtetatik zazpira. Bertsolaritza mundura gaztea zela sartu zen, hain zuzen 14 urte zituela kantatu zuen jendaurrean lehendabizikoz. 'Uztapide', 'Basarri', 'Txapel', 'Zepai' eta beste zenbait bertsolari handirekin batera ibilia. 1987an hasita, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko lehendakaria eta hainbat liburu idatzia.

Sebastian Lizaso Iraola (1958)

Azpeitian jaioa, ogibidez saltzailea da. Publizitate enpresa batean eta automobilen salmentan urte askotan jardun ondoren, gaur egun, higiezin arloan egiten du lan.



Joxe bere aitaren Landeta auzoko tabernan hasi zen bertsoan, Txapel, Lazkano eta Agirrerekin. Oso gazterik, hamar urterekin, kantatu zuen lehen bertsoa jendaurrean. 1980ko hamarkadan bertsolari ezagunenetakoa izan zen. Parte hartu zuen Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusi guztietan finalista izan zen, eta 1986koan txapela jantzi zuen. 1990eko hamarkadan ere maila bikainean aritu zen eta bere lagun Andoni Egañarekin batera bertso saio ugari egin zituen Euskal Herriko herrietan barna. XXI. mendean belaunaldi berrietara egokitzeko gaitasuna izan du.

Iñaki Lizaso Mendizabal (1935)



Azpeitiko Alde zaharrean, Enparan kalean jaio zen. Ama zuen azpeitiarra; aita, berriz, zestoarra. Bost anai-arreba zituen, tartean Joxe Lizaso bertsolaria. 14 urtera arte eskolan ibili ondoren, harategi batean hasi zen laguntzaile gisa, eta, aurrerago, anaia Joxerekin argiketari ("electricista") lanetan ibili zen. Mila Odriarekin ezkondu eta lau seme-alaba izan zituzten.

Manuel Loinaz Mendiola (1923-2012)



Landeta auzoko Ondarbide etxean jaio zen. Gurasoak Errezilgoak zituen, eta bost anai-arreba ziren. Maristetan ibili zen eskolan, baina ikasteko grinarik ez, eta 10 urterekin hasi zen lanean 'Damaso' lantegian. 'Ondarre' eta 'Fammic' lantegietan ere lan egindakoa da. Gurasoek taberna zuten etxearen beheko partean, eta jatorduak ematen zituzten. Baserritarrak eta inguruko lantegietako jendea ibili ohi zen bertan. Landetatik kale aldera egin zuen, eta alde zaharreko Etxe-Zuri tabernako alabarekin ezkondu zen.

Josefa Mendia Landa (1926)



Beizamako Erreiru baserrian jaio zen 1926an. Ama Suspain baserrikoa eta aita Erreirukoa zituen. Eskolan, Nuarben ibili zen 12 urtera arte. Aita "xexteroa" zen, eta etxeko guztiek ikasi zuten langintza hori, baita Josefak ere. Kanporako zestoak egiten zituzten. Garai batean, etxe guztietan zeuden "xexteroak" Nuarben. Azpeitiko Olatzen ezkondu eta bost seme-alaba izan zituen. Elkarrizketa garaian, Nuarbeko Zubitxon bizi zen.

Joxepa Mendizabal Basurto (1916-2017)



Itziarko Lasabe baserrian jaio zen. Bederatzi anai-arrebaren artean laugarrena, 13 urte zituela familia osoa Azpeitiko Berresueta baserrira joan zen bizitzera. Gazterik hasi zen lanean Joxepa: aurrena, Debako sagargotegi batean neskame; eta, gero, Azpeitiko familia batean umezain jardun zen. Gerra hasi zenean, berriz, Zarauzko etxe batean zegoen neskame. Donostian sukaldari ibilia, Loiolako jesuiten jostundegian zazpi urte eman zituen lanean. Jesuitinetako gau-eskolan ikasi zuen idazten. Ezkondu ondoren, "Zentenarioko" etxeetan bizi izan zen senarrarekin.

Manuel Odria Iburguren (1943)



Azpeitiko Odria auzoko Odria baserrian jaio zen 1943an. Aita eta ama Odria Nagusikoa eta Odria Barrenakoa zituen, eta sei anai-arrebako familia ziren. Eskolan, maristetan ibili zen zazpi urtetatik 12ra bitartean. 12 urtetatik 14urtera arte, Hondarribiko seminarioan egon zen. Soldadutza egin zuen Donostian, gastadore postuan. Baserriko lanetan ibilia Landa Garapenean, eta, ondoren, elkartean zein zinegotzi aritu izan da.

Benita Odriozola Aranberri (1936)



Azpeitiko Aratz Erreka auzoko Ibarrola baserrian jaio zen 1936an. Aita Ibarrolakoa eta ama Errastibasokoa zituen, eta sei anai-arrebako sendia zuen. Ibarrolan baserriko bizimodua ezagutu zuen beti, eta eskolara gari-ereitea bukatutakoan joan ohi zen, etxean lana izaten baitzuten. Aratz Errekako telefono bakarra Benitaren etxean zegoen. Auozan bertan ibili zen eskolan, eta 11 urterekin utzi zuen. 18 urte zituela joan zen lehenbizikoz etxetik kanpora neskame lanetara Azpeitira, eta bi urte egin zituen bertan. Zestoako bainuetxean ere ibili zen lanean, sukaldari lanetan aritu zen uda batez. 22 urterekin ezkondu eta sei seme-alaba izan zituen. Gaur egun, Urrestillako Eperkuan bizi da.

Juan Oiarzabal Abalia (1929)



Azpeitiko Santiago kalean jaio zen 1929an bost anai-arrebako sendi batean. Eskolan, Azpeitiko udaletxean eta maristetan ibili zen, besteak beste. Zazpi urte zituela, Zestoako Torraberri baserrira joan zen morroi lanetan, eta bertan bizi izan zen zortzi urtez. Aitarekin ibili zen arotz lanetan 'Damaso' lantegian, eta baita 'Genarorenean' ere. Soldadutza Burgosen egin zuen urte eta erdiz. Gaur egun Azpeitiko zaharren egoitzan dago.

Margarita Oiarzabal Garin (1941)



Nuarben jaioa. Gurasoak ere bertakoak zituen. Bi anai-arreba ziren. Ama berak 12 urte zituela hil zitzairen eta aita berriz ezkondu zen. Etxean saskigileak ziren, eta berak ere lan horretan jardun zuen ezkondu arte. Anaiak Herreran taberna bat hartu zuen eta bertan ezagutu zuen bere senarra. Donostiara ezkondu zen eta bost seme-alaba izan zituzten. Donostiako San Ignacio ikastetxeko ikasleek egin zioten elkarrizketa.

Imanol Olaizola Alegria (1912-2009)

13 anai-arrebatatik zaharrena izan zen. Azpeitiko maristetan 2. mailako batxilerra ikasi zuen eta eskolok amaitu ostean, notariotzan hasi zen lanean. 23 urte zituela, EAJko Gipuzkoako diputatuen zerrendan ordezkari modura joan zen. Prokuradore ikasten hastekoa zela, gerrak irten zuen. 'El día' eta 'Euzkadi' egunkari abertzaleetako Azpeitiko korrespontsala zen eta horregatik hiru urte kartzelan eman zituen. 1941ean etorri zen Ermura; Sallabenteko Bitxori Mallabiabarrenarekin ezkondu eta hiru seme-alaba izan zituzten. Anaitasuna ikastolako sortzaileetako bat, Loiola Irratiko Ermuko ordezkari, 20 urtez Batzokiko administrari... bere burdindegiko negozioak lagatako denboran inorendako boluntario lana egitea gustatu izan zaio. Ermuan bizi arren, azpeitiarrez hitz egiten du.

Juliana Olaizola Gurrutxaga (1928-2011)



Azpeitiko Oñatz auzoko Etxeizar baserrian jaio zen 1928an. Aita Etxeizarkoa eta ama Urrestillakoa zituen; 12 anai-arreba ziren. Eskolan, 11 urtera arte ibili zen Oñatzen bertan. 15 urterekin, Oñazko baserri batean aritu zen neskame lanetan. 19 urterekin, Gerranzuri baserriko semearekin ezkondu eta bertan bizi da. 14 seme-alaba izan zituen. Betidanik baserriko bizimodua egin du.

Maritxu Olazubi Etxeberria Lexia (1925-2012)



Azpeitiko Errebal kalean jaioa. Aita Leizia baserrikoa eta ama Odriakoa zituen. Aitaren baserriaren izenetik datorkio 'Lexia' ezizena. Maritxuk hiru urte zituela, familia Eliz kalera joan zen bizitzera, eta ezkondu zen arte bertan bizi izan zen. Esklabetan ibili zen eskolan. Zerbitzari eta neskame lanetan aritu zen aurrena Azpeitian, eta Zarautzen gero. Alpargata josten ere aritu izan zen lanean. 22 urte zituela, [Julian Arrutirekin](#) ezkondu eta estazio aldeko "Oriyo" etxera joan ziren bizitzera. Bost seme-alaba izan zituzten (hiru seme eta bi alaba).

Mari Karmen Otaegi (1946)

Azpeitian jaioa. Unai hirukoa taldeko kidea izan zen, [Maria Jesus Arregi](#)rekin eta [Arantxa Frantzesena](#)rekin batera. Hainbat dantzaleku, jaialdi eta herritan abestu zuten 60-70eko hamarkadan. Sari batzuk ere irabazi zituen; lehenengoa, Eibarren, Maria Jesus Arregirekin batera, Unai bikoa osatzen zutenean, 1969an. 1977an diskoa grabatu zuten. [Maria Jesus Arregi](#)rekin eta [Arantxa Frantzesena](#)rekin batera egin zitzaion elkarrizketa, Unai hirukoaren inguruko kontuak jasotzeko.

Inazio Rezabal Alkorta (1935-2011)



1935ean jaio zen Lasaoko Zabalia Berri baserrian, "Munatxon". Ama bertakoa eta aita Aiatik bertara morroi joandakoa, 13 anai-arreba ziren sendian. Eskolan, Lasaon ibili zen zazpi urtera arte; lehenengo, apaiza maisu zutela eta, ondoren, mojekin. Zestoako eta Azpeitiko maristetan egin zituen azkenengo eskola urteak. Eskola utzi ondoren, basolanean hasi zen auzoko batekin, eta, ondoren, Aizarnazabalgo paper-lantegian aritu zen jubilatuta arte. 34 urterekin ezkondu eta seme bat izan zuen.

Joxepa Rezabal Alkorta (1932-2013)



Lasaoko Munatxo baserrian jaio zen 1932an. Aita aiarra eta ama Munatxo baserrikoa zituen, eta 12 anai-arrebatan hirugarrena da. Eskolan, Lasaon apaizarekin eta, ondoren, mojekin ibili zen 13 urtera arte. 22 urterekin hasita, Lasaoko tren-geltokiko leihatilan txartelak saltzen egin zuen lan bederatzi urtez. 33 urterekin ezkondu eta Urrestillan bizi izandakoa da. Hiru seme-alaben ama.



Anastasia Sarasua Uranga (1920)

Juanito Unanue Aizpuru (1932)



1932an jaio zen "Anguen" (Aranguren) baserrian. Ama bertakoa eta aita Aratz Errekako Antxumarri baserrikoa zituen, 11 anai-arrebatan bigarrena da. Eskolan, Urrestillan ibili zen. Baserritik bizi izan da, ardiak eta ganadua izan ditu beti etxean, eta gazta saltzera Donostia eta Oiartzunera hamaika bider joana da. 16 urterekin, Donostiako San Ignacio eskolara bidali zuten, eta arotz eta sukaldari lanetan aritu zen erdara ikastearen truke. Soldadutzan Gasteizen, Arakan eta Huescan ibili zen.

Maria Pilar Unanue Arkaiz (1937)



1937an jaio zen Aratz Erreka auzoko "Sankristaukua" etxean. Halaxe deitzen zioten Pilarren etxeari aita sakristaua baitzen. Ama tolosarra eta aita Sankristaukua bertakoa ziren, eta Pilarrek anaia bat zuen. Eskolan, Aratz Errekan ibili zen lau urtetik zazpi urtera bitartean; gero, etxera bueltatu zen. Etxean, taberna zuten, eta Pilar amarekin jarduten zen bertan lanean. Aratz Errekan basomutil ugari ibili ohi zen, eta ez zuten sekula lan faltarik izaten. Bestalde, erromeria egiten zuten igandero, eta taberna izan ohi zen erromeriara zihoan jendearen bilgune. 15 urterekin hasi eta 24 urtera bitarte neskame lanetan aritu zen Azpeitiko 'Uranga', 'Izarra' eta 'Kiruri'- jatetxeetan, baita Debako 'Montreal'-en ere, besteak beste.

Maria Pilar Unanue Odriozola (1941)



Urrestillako Bikendi baserrian jaio zen 1941ean. Aita bertakoa eta ama Suola baserrikoa zituen, eta 10 anai-arrebako sendia zuen. Umetan, Urrestillan ibili zen eskolan. Jaunartzea egin ondoren, Donostiara joan zen neskame 17 urtera arte. Donostian neskame zebilela, bertako 'Sagrado Corazon' mojen eskolara joaten zen. 17 urterekin baserrira bueltatu eta berehala Beasaingo 'Castillo' hotelera joan zen neskame lanetara. 23 urterekin ezkondu eta senarraren jaiotetxera joan ziren bizitzera, Eizagirre auzoko Ibartzabal etxera. Negutegi ugari jarri eta landare eta barazkiekin lan ugari egin du urteetan. Euskara ikasi nahi duen jendea hartu izan du etxean uda partean, urte askotan.

Jesus Urbieta (1917)

Eskarne Urbietta Arruti



Azpeitiko "Oriyo" etxean jaioa 1935ean. 14 urtera arte jesuitinetan egin zituen ikasketak. 18 urte zituela, Enparan kaleko kooperatiban, janari-dendan, hasi zen lanean. Zortzi urtean aritu zen bertan dendari; ezkondu zen arte.

Basilio Urbistondo Lasa (1917-2018)



1917an jaio zen Urrestillako 'Txarabarrena' baserrian. Aratzerreka auzoko 'Ibarrola' baserrikoa zuen aita, eta ama 'Txarabarrena'koa bertakoa. Sei anai-arrebatan gazteena. Denbora gutxiz bazen ere Aratzerrekan bertan ibili zen eskolan, eta 13 urterako lanean hasi zen 'Dionisio Etxeberria' zume-lantegian. Segurako nagusi batekin baso-lanetan ere ibili zen. 1937an Santanderren preso egon zen, eta gero Afrikako "trabajadoreetan" 1943ra arte. Gerra garaia gertutik ezagutu zuen, eta anaia Otxandioko gerran galdu zuen. Bost seme-alaba izan zituen.

Juan Zabaleta Aramendi Txistu (1935)



Nuarbeko Txistu etxean jaio zen 1935. urtean. Aita zenarengandik datorkio 'Txistu' ezizena, ahoko soinua jotzen baitzuen. Aita Matxinbentako Bildotsola baserrikoa eta ama Nuarbeko Ixkiñanekoa zituen. Nuarbeko eskolan ibili zen, eta 10 urterako hasi zen aitari otarregintzan laguntzen Nuarbeko tailerrean. Nuarben otarregile ugari ziren, eta Juanek eta aitak ere lan ugari egin zuten Azpeitia ingururako, baita kanporako ere.

Jose Zabaleta Gurrutxaga (1925)



Matxinbentako Zuaneta baserrian jaio zen 1925ean. Ama Paolakoa eta aita Bildotsolakoa zituen, eta zortzi anai-arrebako sendia zuen. Eskolan, Matxinbentan ibili zen, baina baserritik bizi beharra suertatu zitzaion eta garaiz utzi zuen. Azokara joaten zen etxeko generoa saltzera, Beasainera, Ordiziara eta Azpeitira. Basoko lanetan aritu zen gaztetatik hasita, eta 62 urterekin utzi zuen.

Iñaki Zendoia Kerejeta (1935)



1935ean jaio zen Aratz Erreka auzoko Basajaundegi baserrian. Aita bertakoa eta ama Erraztibasokoa zituen, eta zortzi anai-arrebako sendia zuen. Eskolan, Aratz Errekan ibili zen 12 urtera arte. Gero, gau-eskolan ere bertako ibili zen apaizarekin. Afrikan egin zuen soldadutza, eta, handik itzuli zenean, basoan hasi zen lanean. Inguruko basoetan eta Frantzian ere aritua da lanean, besteak beste.

Maria Dolores Zinkunegi Aramendi (1937)



Urrestillan jaioa. Aita postaria zen eta ama etxeakoandrea. Lau ahizpata hirugarrena zen Maria Dolores; "Xinkon alabak" esaten zieten. Hainbat lanetan ibili zen: umezain, baserriko lanetan, tabernan eta arraindegian. 12-13 urterekin Segurara joan zen bizitzera, ahizpari laguntzeko. 18rekin, berriz, Irunera joan zen, beste ahizpa bati laguntzera. Logroñoeko gizon batekin ezkondu zen han, arraindegia jarri zuten; alaba bat izan zuten.

Pepita Zubiaurre Jauregi Lulute (1927)



Azpeitiko alde zaharrean jaio eta bizi izan zen urte askoan. Aita azpeitiarra zuen, eta ama, berriz, Zumarragakoa. Lau ahizpetan zaharrena zen bera. Azkoitian eta Elgoibarren neskame egon eta gero, zumea zuritzen aritu zen lanean. 17 urte egin zituen organo tailer batean lanean. 39 urterekin ezkondu eta eztei-bidaian Madrilera joan zen.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Herria, azpiegitura

1.1. Urrestilla herri famatua 'Keixeta'ri esker

- **Hizlaria(k)**: Bastida, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Bastida, Ana
- **Erref**: AZP-008/001
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:50
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- **Laburpena**: Urrestillaren kokapena. Garai batean herri ezaguna izan zen, bertako Jose Aranburu &Keixeta aizkolari famatuari esker. Apustu asko irabazia, mutil jator eta adarjolea zen Keixeta.

Transkripzioa

- Urolako herri txiki bat da. Hiru kilometroa o hola ta. Leno bastante famosu're bazan. Aixkulaye're auki gendun onen-onenetakue herriyen, "Keixeta" esaten ziyobena. Eztakit... hogeita zenbat joko jokau ta danak irabazi. Ehundoko gizon jatorra zan, gaiñea. Izugarri bromosue ta. Beti txistik kontatzen ta jarduten zun. Hementxe bizi zan Urrustilllen ondun. Hortxe dao ondiken haren basarriye. Haren familikuk hortxe bizi die ondik.

1.2. Erdikalea lehen eta orain

- **Hizlaria(k):** Agirre Perez, Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Odria, Haizea
- **Erref:** AZP-025/003
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:02:12. **Bukatu:** 00:03:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- **Laburpena:** Bera jaio zen kalearen izena aldatu egin dute denborarekin. Kale hori Azpeitiko kalerik garrantzitsuena dela dio.

Transkripzioa

- Ta ordun, Erdikalin jayo eta Erdikalin bizi?
- Erdi kalin jayo ta Erdikalin... bueno, ordun... ordun horrek "Calle Emparan" zauken, aizu.
- Bai?
- Ez, gaizki esaten dizut. Oin dake Enparan, karrerie han daukelako. Baiñe hau nere zean azaltzea "Calle San Ignacio" oseake aurreko zea horrek... horri, zen sasoi baten "Calle San Ignacio" aurreko etxie.
- A, bai? Beste izen bat zauken ordun?
- E... len Enparan, "Calle Emparan". Ta oin, berriz, hori o... Hor, len "San Ignacio" ta oin Enparan da. Enparan da.
- Oin ja ez du existitzen "Calle San Ignacio". Ja...
- Keba, Erdikalien... Eske, Erdikalie esan izen zayo beti, e!
- Bai... bai, bai. Nik...
- "Calle San Ignacio", eztakit nola... bai juzgau aldetiken o zea, baiño bestela Erdikalie... Erdikalie izen da hau Azpeitiyen.
- Ta Erdikalie Azpeitiko kale inportantiena izengoa, ez?
- Hala esaten zan e...

1.3. Azpeiti eta Zumarragako ferietara saltzera

- **Hizlaria(k):** Arregi Urbietta, Albina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-029/002
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:02:06. **Bukatu:** 00:04:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

- **Laburpena:** Plazara askotan joaten zen barazkiak eta fruituak saltzera: Azpeitira, Zumarragara... Hara joateko, otarrak ondo lotu eta trenean joaten ziren; tren-estaziotik plazara astoz eramaten zituzten. Goiz bueltatzen zirenean, Zumarragako taberna batera joaten ziren, eta bertako nagusiak ondo zaintzen zituen.

Transkripzioa

- Ta gero plaza juten ziñela esan dezu? [...] Zumarra ta...
- A, bai. Ni plaza hasi nitzen hayek jun baiño bi urte leno. Hayek... nik hemezortzi bet urtekin plazan, berdure saltzea ta zeara...
- Juten ziñen? Noa juten ziñen?
- Azpeitire noiznahi, baiño Axkoitire asko. Axkoitiyen benta hobi eoten zan zeatiken berdura gutxi biltzen zan ta. Ta Zumarra're juten giñen...
- Zumarra're bai, e?
- Bai. Auzoko, auzun nuen ama beti hola ibiltzen zana eta harek laguntzen zien. Ta biyok, biyok juten giñen. Hure bere berdurak saltzea ta ni neurik.
- Berdura eamaten zendun?
- Berdure o sagarra eo hartan dana.
- Ta nola juten ziñeten?
- Zea... trena, trenen eman. Bezperan lepo otarra haundiye beteta ipiñi, ondo lotute... otarrak eta estaziyoa ematen zizkuen etxekuek, eta hayek ematen zeбен. Eta geo, Zumarran eoten zien mutillek zai, hayek plaza hartu ta eamateko. Ta geo, hayek zenbat ber zeбен pagatzen giñon guk.
- Oseake mutillek e... trastek eamateatikan hainbesteko bat kobratzen zizuen?
- Bai. Ematen giñon ta gustoa. O sobrauko [zitzezku] berdurek o hare, hori... ta gustoa, ta gu're bai. Ta goizeo xamar, tamaiñen, libratzen bagiñen... hantxe... taberna batea, ba, estaziyoa giñezela pasaizuen zaun taberna bat.
- (Hiztuna 1) Urola?
- Bai, ta hango etxekoandriek e konprak iten zizkun, be, ta esaten zigun: "axkar-axkar sartu te etorri ta nik pronto saldie... eo zeoze, eta tabernan gerau be sukaldea etorri te". Sukaldea juten giñen eta han ematen zigun harek eta jan.
- Ondo zainduta ordun?
- Bai, halaxe iten gendun.

1.4. Ama Azpeitiko plazara baserriko gaiak saltzera

- **Hizlaria(k):** Urbistondo Lasa, Basilio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-031/007
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:16:23. **Bukatu:** 00:17:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena:** Goizetan ama tratura joaten zen Azpeitiko plazara, baserriko gaiak saltzera. Buruan otarrea hartuta egiten zuen bere amak baseritik Azpeitirako bidea. Batzuetan Basiliok laguntzen zion bidean.

Transkripzioa

- E goizien, jeneralien, e... trature juten zan.
- Noa juten zan? Azpeitia?
- Azpeiture. Goizeko xeiretako atie han irekitzen.
- Nun? Plazan?
- Plaza, plazan, plaza berduran.
- Bai.
- Goizeko xeiretan irekitzen, ta ordurako askotan juten emen zan. Nik e...
- Esan dezu tratura. Zenen tratue?
- E?
- Ze, tratura juten zala esan dezu.
- Bai, tratue. Bai, hoixe... baserriko... patatie o letxugie o koniflorie o zeuna bubuen hartu... astoik ez zuen, astoik'e ez zan hemendik Azpeitira buruben otarrie hartute juten zan gure ama.
- Otarran trastek hartuta, oinez.
- Bai. Otarrakaie, hola otarra borobil bat eiten zan, "tur-tur" kargau haure, gaiñien beste zapi bet e... izeraen bat e... zahartute, alderdi bat puzkautekue o holakon bat eta...
- Ta bakarrik juten zan.
- Bai, bai bakarrik juten zan.
- Zuek ez ziozuen laguntzen inoiz?
- Nik e... laguntzen niyon e... hemendik kilometro bat ingurure artien... goizien laguntzen niyon. Bai, batzuten e... nik'e ez beti e... Nik hemezortzi urte nitule hil zen gure ama.

1.5. Azpeitiko kaleetako giroa lehen

- **Hizlaria(k):** Lizaso Mendizabal, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k):** Odria, Haizea
- **Erref:** AZP-033/008
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:15:07. **Bukatu:** 00:16:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena:** Lehen Azpeitiko kaleetan zer-nolako giroa zegoen azaltzen du: baserritarrek janaria dendetan uzten zuten saltzeko, denak ezagunak ziren, kale bat astoz beteta egoten zen...

Transkripzioa

- E... hamen kalie nola akordatzen zea zu zala leno? Hemen ze denda zeuden eo?
- Dendak?
- Dendak... o nolakue zan kalie?
- Ba, oker haundi be... oain etxiek eta berritute daure, baiño bestela... oso kale earrak zin hauek. Atin-atin dendie, dana ezauna zan ba. Ta basarrikuk etortzen bazan dendan iuel lagatzen zitun porruk saltzeko. Arrautzek eta ze esanik ez. Hemen zan pentsu almazena, Irintzailleko hortan. Hor pasaizue badao, ba, Enpan kale... hemen Erdi kaletik hementxe... pixket aurreo... hori astoz beteta eoten zan.
- A, bai? Horreatik al da astotaye?

- (Hiztuna 1) Ez.
- Ez, astotaye plaza atzie.
- Bai.
- Baiño hauetan... hor... hauen etxe aldetik etortzen zienak hayek hemen zaukeben. Hor lotzen zituen astuek. Azoka jun, beren pasaizu in, astu kargau ta etxea.

1.6. Telefonoaren orde zuzenak

- **Hizlaria(k):** Agirre Unanue, Pedro; Agirre Unanue, Santiago
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-034/033
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 01:03:08. **Bukatu:** 01:04:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- **Laburpena:** Lehen telefonorik ez zenean, izara zuria zabaltzen zuten zuhaitzean, urrutitik jakin zezaten enkarguren bat bazegoela.

Transkripzioa

- Ordun telefonoik ez zan izango, ta nola moldatzen zifiaten? Hemen atzerrekan ez zan telefono bat?
- Oso erreza izeten zan: layeako o zeozer enkargu baldin bagenduken, holako gure arrebakin te, hor aurrian sagarran ondun izarie ipini.
- Izara zuria?
- Ta ordun ya bagiñakigun "ba, badek hor zeozer, o hori in ber diat, o hure jetsi", o zea, sistemie horixe.
- Gure amak hori zea hori neska hori [...] hori izugarri behekotzat hartu zuen, eta hamen zein zan? Ez zait akordatuko oain. Behiñik behin gaixotu o zeoze ein zeuen amai, gure etxeke zeien, eskola hamendik juten zan, eta eskolatik etorri gea ta ama kejauta o zerien ta, "jungo ez bahaiz gaur zera etxea"...
- Ta nik ezer pasauta ez nengola. ta ordun hara amena jun ber.
- Eta nei esan zian izerie hortxe zioke eta eraman ta han Txaaki esaten genun, punte hartan zabaldu izerie ta ipiñi ta hure zea in ezkeo, bestiek bazekiyen.
- Zeozen arrastua.
- Holaxe zian.
- Telefonua huaxe zan.

1.7. Baserrietara argindarra eramateko kudeaketak

- **Hizlaria(k):** Odria Ibarburen, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-047/026
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:46:44. **Bukatu:** 00:48:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Aisia » Taberna giroa » Elkarte gastronomikoak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
Baserría » Baserríko lanak

- **Laburpena:** Udaletxeek bazuten baserri-munduarekiko sentiberatasuna eta ezagutza, baina beharrak alde guztietan zeudenez, dirua izaten zen arazoa. Hala ere, proiektu bat onartzen zenean, proiektu handia izaten zen: hala nola, argindarra eta ura pasatzea. Mendian goian zeuden baserrietara argindarra eramateko, Iberduerorekin tratua egin zuten.

Transkripzioa

- Eiten zanak eiten zan herri baten o bestin proiektu haundiyek e? Ni akordatzan naiz Azpeitin argindarra jarri zanian, iya hirurehun basarri jarri zuean, zea, jarri zituen, berritu zitzaion e?
- Eta zentrala hemen nun zan? O nundik...?
- Iberdrola, Iberduero, Iberduero. Ordurako hemen behea indarra aillautu zeon, industriya ta kale inguruko basarritarrak eta bazaukaten argi ona, baiño gora, gora zauren lehengo alanbre xahar-xaharra arrastaka, erdiya txintxilika, eta haina den-den-dena berritu in ber zian. Eta aillatu giñen Iberduerokin zea bat itea, tratu bat itea, Iberduerok beak iten zun projektua, alta beak jartzen zun, ta transformadorik'e bai, ta geo distribuziyua, eta distribuziyu hori ordaintzen zan udaletxia eta Landa-garapen aldetiken diputaziyo dirutik ordaintzen zan eta geo basarritarrak beak, pusketa txiki bat, eta hola in zian e?

1.8. Atzerriko abeltzaintza-sistemetatik badugu zer ikasi

- **Hizlaria(k):** Odria Iburguren, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-047/032
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 01:03:39. **Bukatu:** 01:05:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
Baserría » Baserríko lanak » Baserríko animaliak
- **Laburpena:** Danimarkan ukuiluak etxeetatik aparte egoten ziren; hala zen haien ohitura. Haien aldean, hemen luxuzko ukuiluak egiten dira; han, ordea, ganaduan egiten dira inbertsio handiagoak.

Transkripzioa

- Ikuillue bea ere...
- Nahiko garbiyek eoten zien.
- Lehengo ikuillu bat oaingo ikuillu bat, zertan ezberdintzen zien?
- Beitu, hasteko ikuilluk etxetik kanpoa. Han Dinamarkan ta behintzet ikuillu eta etxia aparte zauden beti. Gertu e? Gertu iguel egongo zien berrogei metro, o hogeita hamar metro igual.
- Arrazoi jakiñen bategatik ala ohituraz?
- Ohituraz han, eske han etxie basarriye biziña zan hemengo txaleta bezela.
- Eta hemen berriz aldrebes.
- Hemen aldrebes, hemen ikuillue barrun, ikuillu barrun izan da hamen, han ez. Han ganau tejabana bat baldin bazan'e tejabana sentzillo-sentzillo bat

baldin bazan'e beti aparte zan. Eta etxebizitza etxebizitza iteko.
- Eta ikuillua bea barrutik?
- Barrutik ez die, lujoak gehio. Haiek baiño hamen geok tipo hortako ikuluk iten hasi giñenien gu, Pixkat teknikoek behartuta're bai, hayen alden ikulu lujosok iten ditugu guk e? Hemen ikuillu berriyek iten diru asko gastatzen da e? Ta zergatik? Teknikuk proiektun hura jarri dulako, eta hura itea behartzen zaituztelako. Baiño han? Hamen Frantzia aldea ta junda zea sentzillo-senzillo-senzilluk e? Obrak e? Obran ta hortan oso diru gutxi gastatzen due, eta "en cambio" ganauen bai. Ganaue zaitute, tratauta, raza meioratzen ta, hortan gu aldian... Oain hamen iten da e? Ordundiken hamen asko iten da, baiña han garai hartan behintzet guregandik zamakiten bentaja, baiño hola...

1.9. Aizpurutxoko erromeriara bizikletan

- **Hizlaria(k):** Albizuri Etxaniz, Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-049/027
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:36:56. **Bukatu:** 00:38:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Aizpurutxon dantza lotuan egiten zuen. Aizpurutxon bi zati ziren; batean, dantza lotuan egitea libre zen, eta Azkoitiko partean, berriz, ez. Bizikletak alokatuta joaten ziren erromeriara. Orduko bi erreal kostatzen zen.

Transkripzioa

- Dantza lotue ta...
- Eneee... bai... eiten gendun, bai, guk orduen dantza lotuen Aizpurutxon ta... Aizpurutxon [...] esangoizut, hau Aizpurutxo hamen dantzan itie libre ta hamen, hau Axkoitiko partie, ta hamen ez zaon, hamen pekatu e... mugarriye.
- Xelebreyek...
- Xelebreyek enee... Ta hor ibiltzen giñen... Bizikleta... bizikleta zaharren batzuk alkirretiken o hartu o inde ta, Azpurutxoa jungo giñen ta...
- Alkirreko bizikletak eoten zian?
- Bai, eoten zien orduen alkilerrien.
- Nun eoten zian?
- Bat hamentxe Uitti Azpeitiyen, eta Azkoitiyen, berriz, Gabino esateziyen: bi alkilerreko egon zien ta. Bizikleta mordoskie aukitzen zeban hayek hola alkilen, ta handitxi sostenitzen zien hayek'e... beti... ez zan... orduko bi erriel o kostatzen zan ordun zea... bizikletan ibiltzie.
- Orduko bi erreal?
- Bai... hayek falta, ordie!
- Eta zenbat denborako alkilatzen zenuen?
- Ze... [...] ordu paren bat, hiru bet o ze pasako giñuzen... zeara junde... erromeire junde ta.
- Gero bueltako garayen, atzea bertan...
- Atzea bertan laga ta pagau... zea... bi erriel hoyek eta...
- Osea ke gaeuz'e zabalik eoten zan?

- Eeez, ordun gabien... etzan zabalik eoten. Orduen hamarretan danak ixten zin.
- A, bueno, baiño erromeritik zuek goizo...
- A, gu etortzen giñenien? Bai, gu... guri alperrik esatie izeten zan... zortziretako ekarrizu o beatziteko ekarrizu o... Gustoa ibiltzen bagiñen beanduo igual ta... Hola ibiltzen giñen.

1.10. Otarregintzaren gailurra eta beherakada

- **Hizlaria(k):** Gurrutxaga Iturralde, Francisco
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-056/013
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:25:08. **Bukatu:** 00:26:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak
- **Laburpena:** Emakumeek saskiak egiteko prozesuan zer lan egiten zuten azaltzen du. Lehen Nuarbeko etxe gehienak otarregintzatik bizi ziren, baina plastikoa iristeak beherakada handia ekarri zuen.

Transkripzioa

- Eta emakumeek bazuen otarrea?
- Bai bai, emakumiek iten zuen zumitzek apaindu're bai askok ta baita otarra iten'e, otarrie ihotzen izaten da ba? Iho in ber izaten da hua, bueltan zea. Emakumiak askok ihotzen ta onak izaten zin emakumik e? Ihotzen. Bai. Bueno, ta otarria josi danak emakumik. Josi esaten zako zuk arua hasten diyozu, bueltako aru hoi otarriai, arua izaten da ba, goiko aro hua. Ta gero han tartie gelditzen da. Ta tarte hura egin ber izaten du beste zumitz batekin josi, ta hure emakumiek iten zun.
- Esan leike ordun Nuarben etxe gehienak...
- Bai bai, Nuarben danak zesteruak.
- ... otargintzatik bizi ziela.
- Hoixe. Ta garai bat'e izan zun fabrikan baiño diru gehio irabazten zana, osau ezinda're pediduek. Dana otarri ber. Baiño geo zea in zan, galtzen jun zan. Ta geo plastiko sartu zanen, ordun ta gehio galdu zan otarria. Plastikuk eman ziyon paliza haundiya.
- Zuk noiz arte segi zenuen otargintzan?
- Nik berrogei urte arte.
- Berrogei urte arte?
- Bai. Ta aitta, berriz, bere bizona guztiyan.

1.11. Beltzaran jartzeko moda

- **Hizlaria(k):** Altuna Bereziartua, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-068/037
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:59:13. **Bukatu:** 01:00:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider

- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- **Laburpena:** Lehen ez zegoen beltzaran jartzeko moda; medikuak aholkatuta bakarrik joaten ziren hondartzara.

Transkripzioa

- Eta gaurko afan hoi, azala beltza ibili behar hori ordun e bazan ala ez?
- Ez, ez, ez, ez, ordun "más bien" juten giñen zeak medikuek agindute.
- Beai...
- Bai, bai, bai, bai. Umetan behintzet hola, bai, hamar-hamaika-hamabi urtekin eta zeara, beatzi egunin segidun juten giñan, beatzi baiño hartzea, bai. Ta gero jayetan juten giñen, baiño lelengo zea. Ni akordatzen naiz gure tia batekin eta nola juten giñen, txandan juten giñen, bat zea batien ta bestin. Ta gero hamen beste emakume bat, hil zan hure're bai, hura aurrien bizitzen zan, hure oso... hure bai juten zala udara guztiyen emakume hura. Hari agindute zagon hori medikubak eta.
- Ze juten ziñaten, bazkaria hartuta?
- Ez ez ez, bazkaldu te ordu bat eta erdiko zeara, autobusea, o trenea juten giñen.

2. Familia eta harremanak

2.1. Umetako pikardiak; fruta-arbola ugari Urrestillan

- **Hizlaria(k):** Bastida, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Bastida, Ana
- **Erref:** AZP-008/002
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:00:50. **Bukatu:** 00:01:42
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Baserría » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak
- **Laburpena:** Urrestillan zuhaitz eta jardín ugari zeuden: zumarrak, udareak... Gaztetan, inoren lur sailetara sartu eta pikardiak egiten jarduten ziren. Sagastiak ere ugari ziren eta sagardo asko egiten zen Urrestillan, baita Manuelen etxean ere.

Transkripzioa

- Bertan, berriz, herriyen oin bezelako zea ez zan. Arbola asko ta. Ingurun bazin bi zea... oin'e badaure, baiño... hola itxitura bateko jardiñek holakuek. Baten, txakur haundi bat eoten zan, ta mutil koskorak harea jun nahi, baiño harea ez giñen sartzen. Bestin bai, bestin txermenak eta holakuek eoten zien ta ene... guk iten genduzen pikerdiyek han! Txermena ta, arana ta... Ja-ta mutil koskor zarra sartute... Gero, jakiten zebenien maixuek esan ta maixuk "bai, a castigar". [...] pasa gendun earrak. Gaiñontzien, arbolie, ba, oingo aldien arbola zea... asko zan; lizerra ta, zumarra ta, intxorrek asko ta, sagarre're bai... Sagarra kantidadie... danetiken, gaiñea. Sagardue iteko're bai. Sagardue're asko iten zan. Geuk etxien sagardo asko iten gendun. Etxien genduken tolarie sagarrak eta zea eiteko...

2.2. Aurkezpena

- **Hizlaria(k)**: Agirre Perez, Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Odria, Haizea
- **Erref**: AZP-025/002
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:00:27. **Bukatu**: 00:02:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: 1922an jaio zen, baina sasoiko dago. Behin beste elkarrizketa bat egin zioten, eta elkarrizketatzaileak ere egun berean egiten zituen urteak. Non jaio zen azaltzen du. Bi amarenak dira bera eta anai-arrebak.

Transkripzioa

- Lelengo, hasteko, zure izena eta bi abizenak.
- Inazio Agirre.
- Inazio Agirre?
- Perez.
- Perez, bale. Ta ze egunetan jayo ziñen?
- "El tres de abril del mil novecientos veintidos".
- Zenbat urte dauzkezula esan dezu? Larogeta zazpi?
- "Ochenta y siete". Baiño ondo nao, e?
- Oso ondo zaude. Hoixe baietz.
- Oso ondo. Ba... len hona etorri zitzatenak e... zean ein zien harek... gure dendako atzien ta paseillue, pasu badao ba? Hantxe in zien.
- Paseuen.
- Ta "noiz jayo ziñen?" ta "tres de abril" ta esan zien "ni're bai".
- A, bai? Kasualidadie.
- Bai. "Tres de abril... del veintidos". "Ochenta y siete años".
- Ta beti hamen bizi izen zea, Erdikalien? O baserriyen... txikitan?
- Ez, ni beti hemen.
- Beti Erdikalien.
- Aurreko etxe hortan?
- Bai.
- Biarrenguen... hortxe jayue.
- A, beitu. Ta bizi, juxtu aurrien.
- Bai.

- Beitu e...
- Hortxe jayo ni. Beste danak, ni gaztena naiz, ta beste danak Enparan kale barrenin, eta ni hor. Hor biarrengun, oseake aurrez aurre.
- Ta zenbat anai-arreba zeate ba?
- Gu bi amanak giñen. Ta hiru zarrenak, hayek bigarren apellidu zeben Oruesagasti. Ta geo, bi amanak, ta oseake hiru, geo arreba mojie... Gero, beste bost... Zortzi. Zortzi familiyen.
- Ta zu gaztena?
- Ni gaztena.

2.3. Bertsotarako gaitasuna aitonarengandik etorritakoa

- **Hizlaria(k):** Agirre Esnal, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-027/014
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:25:39. **Bukatu:** 00:27:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- **Laburpena:** Bertsotan gaztetatik ibili izan da, baina ez zen gazterik hasi plazatan bertsotan. Bere aitona zaletasuna eta gaitasuna bazuen bertsotarako, baina erreparoa ematen zion bere bertsoak kantatzeak, eta ez dituzte gorde ahal izan. Pena hori du Joxek.

Transkripzioa

- Eta bertsotan noiz hasi zihen?
- Bertsotan ez nitzen ni oso gazteik hasi. Bueno, bertsotan... Bertsotan gazteik hasi nitzen, baiño plazatan-ta ibiltzen ez nitzen oso gazteik hasi.
- Ta umetan? Ume-umetatik hasi zihen bestela bertson ingurun?
- Ba beti zea hori. Aittona zana emen zan gure etxin, e... Negu bat oso txarra izen emen zan, ta ardiyek behintzet akabau´re dexente in emen zien ta geldiu zinak´e, biziik geldiu zinak´e, exkaxak, eta haiei hamabi bertso jarri emen zitzen gure aittona zanak. Beatzi puntuko bertsuk e? Hamabi bertso. Ta gure aitte ta osaba ta... bai, haren semiek, hiru zien ta, hiru seme ta alaba zittun, ta iñok ikixi ez! Haren bertsoik.
- Ta ordun iñun ez zien geatuko.
- Kito. Ta kriston penie dauket nik horrekin e? Ta nik...
- Ta ordu arte sekula ibili gabea zan bea bertsotan? Orduntxe jarri zittun?
- Hura [zaille]... lotsatiye o, atrebitzen ez zana haure´re. Nik mutil koxkorra siheskan ta: "aittite, kantau! Udarregiñak eo". Udarregi famosue zan ta. Beriek ez zittun behin´e kantau nahi izeten, txarrak ziela ta.

2.4. Zumarragara goizean goiz feriara

- **Hizlaria(k):** Arregi Urbieta, Albina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-029/003
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:04:14. **Bukatu:** 00:05:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

- **Gaia(k):**

Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

- **Laburpena:** Jendea Zumarragako feriara gutxi joaten zen; bera goizean goiz joaten zen. Harako bidean, lanera zihoazen langileen aurretik pasatzean, trikimailu batzuk erabiltzen zituen haien albotik alde egiteko.

Transkripzioa

- Eta hemen ingurutik geyo're juten zian Zumarra?
- Bai, juten zien, gutxi Zumarra gutxi... bueno Santa Luxiyetan ta, bai, asko.
- Goizen ze juten ziñeten goizo?
- Goizeo, bai, goizeo, horrea goizeo ibiltzen zan. Axkoitire're ni langilik sartu baiño leno juten nitzen. Ni akordatzen naiz Epeldeneko langille danak kanpuen, eta ezautu iten ninduen ni hayek zergatik sagardonteye nere jayotetxin eon zan ta. Ezautu iten ninduen.
- (Hiztuna 2) Gaztie zan da.
- Eta ni orduen, ezta oin bezela gona motzak eta zea... aurrien manta, tapaute askotan ibiltzen gendun. Eta zai, ni tentatzeko zai hayek... eta nik holako zea puntepaxa ipinite zeai makilliei... eta "da, da!" iten niyon zaldiyei eta dotre... A, pasau!
- Bueno asmatzen zendun nola aldein ordun?
- Holakotxiek iten giñuzen!

2.5. Umetan denak batera jolasten pilotan

- **Hizlaria(k):** Arregi Urbietta, Albina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-029/010
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:12:25. **Bukatu:** 00:13:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena:** Bere ahizpa zaharrena ona zen pilotan jokatzen. Komentuko paretaren kontra jokatzen zuten denek batera, neskak eta mutilak. Jolas asko egiten zuten lehen.

Transkripzioa

- (Hiztuna 1) Pelotan'e bai zuek?
- Bai, nere ahizpe zaharrena... danak hausten zitxiñen, pelotan.
- Pelotan?
- Bai, pelotan... hori bai.
- Pelotan ibiltzen ziñeten? Nun itten zenduen pelotan?
- Hantxe... dana leyu ta zea daon tokiyen, danak hantxe ibiltzen giñen. Hantxe ibiltzen giñen.
- Konbentuko paretetan?
- Bai, bai. Geo ta geo'e bai. Ondi'e ez dakit, ibiliko die.
- Neska ta mutil?
- Danak.
- Danak.

- Pelotan...

- Ordun, neskak pelotan itten al zuen? Ateatzen al zien pilotarik hola neskak? Lagun arten bai, baiño bestela?

- A, bestela ez baiño lagun artien han... al zuenak al zuena. Geyena zana bien.

- Ta beste jolasen bat? Akordatzen zea? Tabakin o? Jolasten al zenuen, zuek ez dakit...

- Bai.

- Bai?

- Jolas asko iten gendun. Jolas asko iten gendun.

- (Hiztuna 2) Oinguek baiño geyo jolas ordun.

- Bai, hori bai. Ene...

2.6. Apustuak egiteko zaletasuna Azpeitian

- **Hizlaria(k)**: Lizaso Mendizabal, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Odria, Haizea
- **Erref**: AZP-033/012
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:23:51. **Bukatu**: 00:24:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- **Laburpena**: Apusturako ohitura zegoen lehen Azpeitian. Zer-nolako apustuak egiten ziren azaltzen du.

Transkripzioa

- Hamen geo zan ohiturie apuxtua.

- Bai, apustuzaliek.

- Laixtekan.

- A, laixterkan?

- Bai, pixkat parrandan zabilzenien ta muturre berotutekun... hemen goitik behera turbina bat zan, oin botata dao baiño eta... handiken bueltie o bestela galtzadatik galtzada esaten ziyoen. Axkoitire jun ta sarreran galtzadie hasten zan tokiyen han buelta hartu ta honea... Baiño asko apustuk e... gabin e! Bua! Earra zan hau garai hartan bizitzeko.

- Ta zeu... in al zenun apustun bat o? Akordatzen al zea?

- Ez. Laixtekako auki gendun guk bat preparauta, baiño...

- Bai?

- Bai...

- Entrenauta?

- Entrenatzen... gabaz hor ibiltzen giñen, "jendeik gutxina nun ibiltzea? Han" ta "hara jungo gaittuk" eta. Ba, ordun eske... beste eze ez zan da!

2.7. Aita alkate zenean, auzokoan artean liskarrak

- **Hizlaria(k)**: Agirre Unanue, Pedro; Agirre Unanue, Santiago
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZP-034/022
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:43:07. **Bukatu**: 00:44:07

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- **Laburpena:** Aita auzoko alkatea izan zen garaian, auzokoekin liskarrak izaten zituzten, giroa txartuta zegoen.

Transkripzioa

- Aitte alkate zen garai hartan, etxen izan zenduen auzokokin o izaten zan burrukaik?
- bai, bai, burrukaik ez, baiña, "etorri hai, hor baiño leku earragu zioik hamen burrukako. Oain probauko gaituk" eta...
- Lengu dana hola zan.
- Bai, azokatik gora ta artua jorratzen atxurrakin ai giñen ta "etorri hai honea, hamen [...] gaituk kamiyoa juteko", batek eta bestiek "hamen leku earra zioik hamendik zea ingo gaituk! etorri hai heu!". Bata bestiai. Aldemenen pasauta ezta [...] e! Ezta lehen esan deun guztie, layakin layai, ez hayei esan'e e? Ezta ezer'e horrelakoik.
- Leno zan nazionalistak eta karlistak.
- Zuen aittak alkate in zun?
- Bai, asko ez zun'e zea ingo.

2.8. Umetatik tabernako lana ikasi

- **Hizlaria(k):** Aristi Garate, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-036/002
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:00:40. **Bukatu:** 00:02:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Leturia, Ane
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena:** Gurasoak Urrestillakoak ziren. Lau urte zituela hil zitzaion ama. Aitaren arreba izan zuen zuen amatzat. Etxean eta tabernan laguntzen zien izebak. Aita tabernaria zen. Tabernak Zamakua izena zuen. Aitona-amonek ere taberna zuten.

Transkripzioa

- Gurasok, hemengok, aitte o ama hemengok zien?
- Bai, hemenguek zien bai.
- Bik zien hemengok?
- Bai, baiño ama justu-justu ezautu nun nik. Nik lau urte nitula o hil zan. Ta aitte ta, gero aitten arreba ta goien bizi zin ta haiek launtzea etortzen zin taberna ta zea itea. Ta ni txikiye ta ama bezela goiko Kontxexi, zea, aitten arreba.
- Aitte zenun kaletarra, Urrestilgoa?
- Bai, bai, hortxe kalekue bai.
- Eta esan dezu taberna zenduela?
- Tabernaie, tabernikin atea zun bizimodue gure aittek!
- Tabernarie zan. Beak zeuken tabernan bat?
- E? Bai, berie, bere etxin, tabernaie ta.

- Nola zun izena tabernak?
- Ezamakua, Ezama, Ezamakua.
- Hemen, Urrestilgo kalen zeon hori?
- Hortxe, hor zeon, kalin. Oto ba al dakizu nun daon?
- Ez.
- Eztakizu. Hortxe.
- Eta zer zien, zuen aittona-amonak o horkok? Ala aittek hartu zun taberna hori?
- Bai, bai, hortxe, aittona-amonak horkotxik, bertan.

2.9. Baserriko lanengatik ezin dotrinara joan

- **Hizlaria(k):** Odriozola Aranberri, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-037/002
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:02:03. **Bukatu:** 00:05:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
 Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak,
 kontakizunak
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- **Laburpena:** Baserrian lan ugari egin behar izaten zituen, eta horietako bat aitari egunero bazkaria eramatea izaten zen. Ezin izaten zuen dotrinara joan, eta behin apaizak errieta egin zion horregatik; gero, ordea, barkamena eskatu zion.

Transkripzioa

- Ibarrolan e... baserriko bizimodue ingo zenun...
- Bai, dudaik ez dao. Ardiyek, behiyek... txiki-txikitetik... hantxe... lanin. Senide gaztiouek eta... Nere anai zarra're pixkat atzeatue zan. Txikiten pasau zun zerbait, meningitis eo... ta geldiu zitzekeon... sekuelak geldiu zitzaizkon. Ta zarrena bezela ni nitzen. Hure han zeo, baiño... ni nitzen. Ta...
 - Hayek zaindu ber...
- Bai. Ta geo esaizu nei geo eskolan... Ni eskola juten nitzen gariyek eiti bukatzen zaniien nobienbrien e... ordun juten nitzen, hasten nitzen eskola eta ordun'e jun ber izeten nun lelengo ardiyek atea txabolatik eta mendire bialdu o larrea bialdu. Eta ordun ta... nere aitte basun ibiltzen zan asko iriyekin eurre kargatzen, ta hure nun zabilen hari bazkaye ematea hamabiyetan erten eskolatik eta juten nitzen txiki-txiki-txikiye... juten nitzen. Eta gauze horreatiken apaizek errita ein zien behin.
- Zeatik?
- A, komuniyu iteko dotriña han juten, eguardiyen ematen zun harek dotriñie. Eske... arratsaldetik eskolia goizetik bakarrik eoten zan. Goizeko beatziyatiken ordu bata arte o hola... juten zan... auzoko neska soltera bat zan eskolie ematen zuna. Eta... ordu batien eskolatik ateatzen zienien umiek, apaize eoten zan zai, bea bazkaldute ordurako... elizen umiei dotriñie emateko. Ta, klaro, ni hamabiyetan ertenda juten nitzen aittei bazkaye ematea ta ni ez nitzen juten dotriña! Eta egun baten aittei bazkaye eman ber ez niyonien, jun nitzen eta... beti neregatik galdetzen emen zuen "nun da? Ta nun da" ta "eske jun eitea, jun eitea"... Umiek ez zekiyeben, beste umiek, ni noa juten nitzen. Maixtriek bazekiyen, baiño

maixtriei ez ziyon galdeu. Eta egun baten jun nitzen, dotriñea jun nitzen... eta aber zeatiken ez nitzen dotriñea juten ta... hasi zitzaten erritan, ez zien hola goxo-goxo galdeu... Ta ni, klao, ni bildurtu ein nitzen ni... ezta ezerre ixil-ixilik. Jo ez nindunien, baiñe "todo lo demas". Ta ehundoko erritie ein zien, bea jungo zala nere amai esatea ez nitzela juten zeara... dotriñea eta ehundoko erritie ein zien. Ta ni ya etxea jun nitzenien... apaize... nik kulpi baneuken bezela... apaize jungo zala gure etxea amai esatea eta ein nuen ogiye eta intxaurrek hartu ta ardiyek zaitzea jun... apaize're juten zani en ez eoteatik. Eta baite jun'e apaize.

- Etxea jun zan?

- Etxea jun. Ta nere amai... "ze, ze pasatzea?" "hola ta hola ta hola ta hola... eta ez zat etortzen dotriñea ta". "Aaaa, ez al du hitz ein beorrek do... zeakin maixtrikin? Ba ez da bere, haren kulpie e! Hure juten da hola ta hola aitte bazkaye..." "Zeatik ez dit, ba, esan?" Esan emen zion. Oin esan niyon, baiño ordun ezin esan! Ta kito, horreatik...

- Zu nexka kokkorra, ta gaiñea, errita jaso ber...

- Bai, ta hurrengun esan zien... bai... zeatik ez niyon esan... ta... barkatzeko ta ez dakit zer... Ta ehundoko zea ein zien gero... Nere artien... nik pasau nun bildurre orduen... Bueno, ez jan ta ez lo!

- Honbre, gaiñea, ordun apaizan errita ez zan izango...

- Bua, apaize ordun zan apaize eta "todo lo demas... nada". Zan apaize, alkatie ta obispue ta kristo danak Atzerrekan (Aratz Errekan)! Osea... harei kiku ein ezkeo... Ta gaiñea, gurasuk'e halaxe; "apaize ze esan... ta apaize..." ta... Apaize! Gertu-gertun bizi gendun. Holaxe...

2.10. Elurretan jolasten zutenekoa

- **Hizlaria(k)**: Odriozola Aranberri, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZP-037/005
- **Iraupena**: 0:00:59. **Hasi**: 00:07:49. **Bukatu**: 00:08:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena**: Elurra egiten zuenean, elur-tiraka ibiltzen ziren jolasean, neskak mutilen aurka: talderen bateko norbaitek negar egiten bazuen, talde horrek galdu egiten zuen.

Transkripzioa

- Elurre iten zunien iten gendun elur tireka. Elur bola tirtzen. Mutillek alde batetik eta nexkak bestaldetik. Ipintzen giñuzen han zea zeon... ba, oin prontoie ta daure baiño bi baratzen erdiyen pareta altu bat... eta estrata hartan ipintzen giñuzen elurre iten zunien da ta... Bolikin jo mutil batek negar iten bazun neskak irabazi, eta mutillek tire bolie ta neska bat jo ta neski negarrez, neska neskatakon batek near iten bazun, mutillek irabazi.

- Negar in ber ordun... irabazteko?

- Bai... Eta oin akordatzen naiz... Ni txikiye nitzen, txiki-txikiye. Gero hazi nitzen oso. Eta txikiye ta ni txikiye ikusi ninduenien mutilek... danak nei tire, nei tire... nei negar negar erainarazi nahi... ta halako baten lertu eta buelta-bueltan ja-ta dana elurrez ein ninduen ta... buelta nitzen ta tire det eta jotzen det bat begiyen. Ta mutil hori negarrez. Hayek galdu, ba, ordun!

Ta bestik esaten zion ordun: "Hori dek eskaskeye in dekena! Hireatiken geldu diu!" eta "ez, halakotxe begiku eman zeak ba...". Ta hure negarrez.

2.11. Herrien nortasuna

- **Hizlaria(k)**: Unanue Odriozola, Maria Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZP-038/024
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:26:39. **Bukatu**: 00:27:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- **Laburpena**: Azpeitia eta Azkoitiaren artean beti egon izan da pikea. Bera Urrestillakoa da, eta lehen Urrestilla nolakoa zen azaltzen du.

Transkripzioa

- Bazeon pikeik azpeiti ta azkoiti arten?
- Bai, beti, beti egon da. Hasten baziñan "eske hau azpeitiarra ta hori axkoitiarra" ta... Geo esaten zeben, "ez, San Inaziyo erdi-erdiyen dao ta horrek iten ditu pakiek" esaten zeben. Bai, guk ez deu euki holako...
- Zuek nahiz ta Atzerrekako parten eon, beti...
- Ez, urrustildar, Urrustil da guretzako, hor batayautakuak gea, ta hori izen da guretzako...
- Nolakoa zan Urrestilla ordun?
- Ba oin baiño jende geyo ikusten zendun igual. Ez dakit, mezetan ta mezetatik ertendakun etxea bidien jutun ziñen ba kamiñue bete-bete jende hitz eiten, kontuk esaten... Eta andrak andrakin ta gaztiekin gaztiekin te... Bai.
- Dendak, tabernak... bazien?
- Bai, denda bat zan ba taberna ta dana iten duna. Gizonak jutun zien jai goizetik zerbait hartzea. Ta tabernak'e asko zauden e? Oain baiño geyo igual tabernak.

2.12. 18 urtera arte jolasean

- **Hizlaria(k)**: Kerejeta Zabaleta, Maria Itziar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZP-050/030
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:48:07. **Bukatu**: 00:49:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Umetan zertan jolasten zuten azaltzen du. 18 urterekin oraindik jolasean ibiltzen ziren.

Transkripzioa

- Frontoira jolasea ta jutun ziñeten?

- Bai, juten giñen, hoixe, ta zapatutan ibiltzen giñan geure edadeko... Hemezortzi urtekin gu Elosiyo bueltan ibiltzen giñen e? Ezta erromeitea ta're e? Gerotxuo arte.

- Zapoketan?

- Zapoketan.

- Ze izaten zan hoi?

- Hori, ba ixkututzen zea, ta geo ba tokatzen zakonai jartzen da begiyek itxite ta gu beste danak ixkututzen zien eta "bale!" hots eiten bazun baten batek; ba ertetzen zan hori, hola zegoan hori, ta gu billatzea.

- Izkutaketan bezela?

- Bai ba, hoixe, ixkutaketan.

- Eta beste zer jolas itten zenduen?

- Beste jolasiken ez, hoixe. hemezortzi urtekin'e hortxe ibiltzen giñen gu e?

- Ordun ezta jostailluik eta ezer'e?

- Ez, ba. Eta hemezortzi urtekin hortxe, aizu.

- Hemezortzi urtea arte hemen?

- Bai, bai, baiña hemezortzi urtekin gu hor ibilite gadela.

2.13. Lehengo eskaleak eta haien ohiturak

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Zubiaurre, Francisca Seberiana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-057/020
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:27:22. **Bukatu:** 00:28:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena:** Lehen eskale asko ez zen izaten, baina zeudenak ezagunak ziren. "Lepazorri" eskaleari buruz hitz egiten du. Etxez etxe ibiltzen ziren, baina otorduak jateko mojetara joaten ziren.

Transkripzioa

- Lehen esan dezu hemen eskalek izaten ziela, eskale asko izaten zan garai hartan?

- Ez, ez, Anttonitxo ta Lepazorri ta, holako batzuk.

- Ezagunek zien?

- Bai, bai, ya hor hori tarteku zeozer zebena lepazorri esaten ziyoen bat bazan, lapiko bat, jesus! Eta gure amak esan ziyon: "nahi dezu odolestiak?" ta "ez, ez, odolestiak lehen be nahiku izaten dau!", "ez daukak ordun gose haundiken!", esan ziyon ordun bestiak. Ala! "Ez daukek ordun gose haundiken". Ala.

- Eta ze ibiltzen zian etxez etxe otorduk?

- Bai, etxez etxe, generalin otordun kontu hori mojetan. Monjeta juten zin eskatzea. Ta Manttoni hori ibiltzen zan zotz mordoxka bitu ta pillak eiten. [...] "Manttoni eman diyous".

- Zertako itten zittun?

- Nahi zunak hartzeko ta halaxe da [...] zaukan jarrita nunbait eta segi. Hoixe. Hoyetxek, besteik ez zan hola hamen asko izan.

2.14. Neskak ezin tabernan sartu

- **Hizlaria(k):** Unanue Arkaiz, Maria Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-060/021
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:31:03. **Bukatu:** 00:31:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
Aisia » Taberna giroa
- **Laburpena:** Bikoteak ez ziren joaten tabernara jatera, neskek debekatuta baitzeukaten tabernan sartzea.

Transkripzioa

- Orduko neska-laguntzek eta nobio... Nobiotan hasteko garai hoik eta, tabernan ikusiko zittuzun makiña.
- Bai, makiña bai, enee, makiña bai.
- Diferentia izango zan.
- Bai, bai, bai, eske tabernatan ta ez zan oain bezela zea iten e? Egoten zien, baiña taberna gaiña ez zebeu uzten sartzen apaizek eta ordun neskaik'e tabernan. Gero hasi zan e? Baiña afaldu eta bazkaldu parejeik ez.
- Ez zan juten parejaik?
- Ez, ez zan juten, ez, ez zan juten.
- Eta tabernan normalen tente ala jarrita?
- Han jarrita. Jaten?
- Eta bestela, tragok hartzen.
- Bai, tente, tente, bai, bai, beno, sillak'e bazeden, eta danetatik, sillak'e bai te tente're asko, tente're asko, jai goizetan tente asko. Bai, halaxe.

2.15. Baserriaren eta familiaren historia

- **Hizlaria(k):** Unanue Aizpuru, Juanito
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-067/002
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:01:05. **Bukatu:** 00:02:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Baserriaren historiari buruz hitz egiten du. Gurasoak nola ezagutu ziren kontatzen du. 11 seme-alaba izan zituzten.

Transkripzioa

- Eta ordun hau bi bizitzakoa zan?
- Bai, bi bizitzako etxi zan. Ta...
- Ze bizi zien bi famili ala ez?
- Bai. Hamen leno... lenlen hemen zan e... bakarra emen zan bizitza...
Ordun e... kalin e... etorkizun haundik ez ta basarri haundiye zala batentzat eta... bi anayek ezkondu emen zien itxea, bat alderdi baten eta bestie bestia... jarri emen zien hemen. Bat hauzkaldien eta bestie alde honta jarri emen zien, nik aitu izen nun. Ta... geo... beayek... harek'e Aizpuru bizi zun eta hemenguk'e Aizpuru apelidue. Ta gero, hamengo nere ama beste

batekin e... ezkondu zan o ezkondu omen zan. Nik ez nun ezautu, baiñe ezkondu omen zan. Ta... zea... "viaje de boda"-tik etorri ta gizona ez omen zabillega burutiken... Behinik behin lanea orbela biltzea jun da ta ustet ixigita billau zebela. Nei amak ez zien hori ehundo esplika, baiño beste... aman ahizpak eta esplika zien hori nola... zea in zan. Ta geo... gure aitte, berriz, han Antxumarrin beste bizitza ezkondu omen zan. Ta andri hil ein zitzekon partuen, ta geo nola... beste alboko basarrita jun zan... Hue bialdu in zeben. Ta geo bi alargunek ezkondu. Ta hamaika ume izen giñen gu.

2.16. Anai-arrebekin zaintzaile lanetan

- **Hizlaria(k):** Unanue Aizpuru, Juanito
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-067/005
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:05:40. **Bukatu:** 00:08:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena:** Arreba zaharrena neskame joan zenean, Juanitok gelditu behar izan zuen ume-zaintzaile etxean, bera baitzen bigarren zaharrena senideen artean. Umeak zaintzeko nola moldatzen zen azaltzen du, eta orduko anekdotak kontatzen ditu.

Transkripzioa

- Ta alde in zuen arrebak, eaman zen. Arreba neskame o... beste zeoze eztakit jorjala ematen ziyela ustet... neskame eaman zen. Ta geo, umezai ni. Hainbexte ume... eote... bi urtetik bat iten zen ta! Ta...

- Zu zenbagarrena ziñen?

- Ni bigarrena, bigarrena. Zaharrena eaman zen, ez etxien paltaik iten ez zulako! Hayek azoka ta Azpeitira jutun zien, Azpeitira jutun zien azoka ta. Goizin goizeo erten ta hango enkarguk ein ta astukin. Geo Urrustildik Azpeitira're beste hiru kilometro pasa dade... Han enkarguk, saldu enkarguk eta geo hartu eta andra-gizonak etortzen zien etxea. Ta... geo ni umezai, ta esaten zien: "bueno, esni hemen lagako diat". Batin esan... udaberriyen o udarie zan ta: "esni hemen lagako diat eta gosetzen daniel hemendiken eman biberoye o holako... esne hau emayozue!". Gu... jakiñe, ba, atie zabalik eta... hauzkaldeko zerien... ati zabalik ta... txakurre pinto txikiye o esaten deuna bageunduken ta... geo umikin harea o honea erten det nik, eta beste umiek'e eongo zien han... eskola jutun ez zienak'e. Bestik eskola jutun zien. Ta... hala, ze in du esne dana eran... txakurrek. Umi gosetu da ta nik umiei emateko ezer ez. Ta behiyek... esnie bitzen banekiyen, mutil koxkorra ta banekiyen. Ta behiyek larrea bialdute... geo haek illuntzien ta gabin etxin eoten zien. Ta hala jun naiz larrea han esni bituko ote [zien] ontziye hartute ta larrin ez utzi nahi, behiye libre ta ez... aldein iten zien. Geo ardiye ekarri, bitu ardiyei... ta zea esnie egosi eta eman niyon ume horri ta eztakit nola... ez zan e... iñor e... akau!

- Nola ba? Txarra ez zan eongo?

- Txarra ez, baiña esnie fuerteegiye. Ardiyena fuerti izetia, fuerteegiye baiña... ez zan iñorre... Danak e... osasun gogorrekuek izango giñen!

- Zenbat urte zittuzun zuk hori pasa zanen?

- Ba, hori pasa zanien nik e... hamabost bat eo, hamalau-hamabost eo hor

izengo nitun. Bestiek, ume txikiyek, han ibiliko nitun nik giran. Ta eman ta... geo ze... azokatik ama're berotute etortzen zan, ama haundiye zan gurin... Ta zea, berotute etortzen zan... Ta jakiñe, umiek ama ikusten zuenin... Ama, titiyen erateko gogo hori ta. Beak esaten: "Ixxkuta, ixkuta umie!". Ta hartu umie ta juten nitzen hor hauzkaldea, baso aldea o pisten hauzkaldea. Haik eta bularra hoztu artien, esne beroik ematen baldin baziyon [beheratu] iten zan, ba, umie. Beherakue harrapatzen zuen ta! Berotute etortzen zien, ta haik eta hoztu artien... ta: "ba, etorri zaizte!". Ta etorri... ta bularrien ipintzen zun, ta titi batetik esni eraten eta bestetik "dzii" esni alde iten ziyon gure amai. Bai, alde iten ziyon.

3. Baserria

3.1. Sagardoa nola egin

- **Hizlaria(k)**: Bastida, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Bastida, Ana
- **Erref**: AZP-008/003
- **Iraupena**: 0:00:33. **Hasi**: 00:01:42. **Bukatu**: 00:02:15
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza
- **Laburpena**: Etxean dolarea zeukaten. Lehenengo sagarra bertan jotzen zuten, gero behera erortzean tina batean estutu eta horrela egiten zuten sagardoa. Ondoren barriketan jartzen zuten, gero handik botiletara pasatzeko.

Transkripzioa

- Sagardue're asko iten zan. Geuk etxien sagardo asko iten gendun. Etxien genduken tolarie sagarrak eta zea eiteko... Lelengo, matxakan sagarra jo, ta geo, behera erotzen zan. Beheyen ixtutu, ba, zea baten... tiñe baten, ta geo, sagardue ein ta barrikatan ipiñi. Geo, barrikak pixkat zea iten zienien, danak botillatan sartu. Batzuten, goxue ta "earra zioz hontxe ta... sartuko al deu ez al deu... Ba, bazpare sartu eingo diau".

3.2. Baserriko jaki goxoak

- **Hizlaria(k)**: Bastida, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Bastida, Ana
- **Erref**: AZP-008/006
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:04:35. **Bukatu**: 00:06:22
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Garia
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena**: Orduan dena baserrian egiten zen; ogia, adibidez. Ogia nola egiten zuten azaltzen du. Artoa ere egiten zuten, baita sagar erreak ere. Gustuko zituen orduko otorduak.

Transkripzioa

- Gaiñontzien iual-iual. Basarri asuntun, berriz, ba, dana etxin iten zan ordun ta! Labesube konparaziyo batea. Aste guztiko ogiye etxien. Gu bezela bestek e! Ta labesube ingo bazan, egur iherra perparaute euki. Ta geo, labie piztu ta... hortako lelengo ogiye prepara ber. Masie in da emakumie ja-ta eskuk... ez dakit nola jarduten zeben. Lagamiye (legami) bezperakotiken, bezpera illuntzien beratzen ipiñi, hurrengo goizien hure bitu-bitu-bitu ein ta lagami (legami) horrekin ogiye nahastu... Ta geo mutil koskor bat o beti izeten zan... ta opille esaten zitzeko, txiki-txiki batzuk ein in [zituban] ehundoko dibujukin. Hure izeten zan ogiye zapaltzeatik. Ogiye zapaltzie da hankak garbi-garbi ein udetan ta beheye ikutu be eskuetan hartu ta ipiñi... zeien ogiye iten zan aska hortan ta hantxe segi "zipi-zapa, zipi-zapa, zipi-zapa" ogi hori harro-harro in arte. Ta gero propiñie hure iten zunei. Gero, hartaka artue're iten zan. Ta artue iten zan masien ein ta ogiye baiño ordu erdi bat lentxo o... labin sartu. Harek denbora gehitxo ber izeten zun ba! Labin sartu. Ta geo ogiyek itten zien sasoierege-sagarra izeten zan asko hemen. Oin gutxi dao baiño. Errege-sagarra tarterie o hortako zea haundi bat bete-bete inda ipiñi ta hure sartu labien. Hayek izeten zein gauze gozuk. Ez pentsau oingo ekonomikan hola erretzeieniken ta e! Sagarrak gozuek! Ta gero iten zan sagar hoyek... ba, puxkat jaten zan ta lagatzen zein labin bertan ta... ondorengo egunetan jun ta hartu ta jan. Hartu ta jan hotz-hotza, baiño bai gozue labesue!

3.3. Hiru hilabetez artzaina etxean

- **Hizlaria(k):** Bastida, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Bastida, Ana
- **Erref:** AZP-008/007
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:06:22. **Bukatu:** 00:07:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** 200 arditik gora zituen artzain bat eduki zuten etxean eta gazta hark egiten zuen. Gazta nola egiten zuen azaltzen du. Aste Santuan alde egiten zuen beraien etxetik, 3 hilabete pasa eta gero.

Transkripzioa

- Geo artzaye. Artzaye guk leno ez gendun behiñe euki, baiño gero hori. Artzaye hamentxe gure etxin erretiratzen zan. Artalde haundiye zeuken. Berrehun ardi baiño geyo zauzken. Illuntze... Mutil gazte bat zan artzaye. Ta illuntzien, ba, goizien bituteko esnieki... zea iten zun gaztaye illuntzin'e bai ta goizin'e bai. Baiño gaztaye iten gure etxeko andri ta txokaute eoten zien gaztaye ze txukundarekin ein leikien. Esne haure lelengo bitu ta dana pasaran pasau. Gero, aukitzen zun beste pasadora haundi bat eta hareako iten zuen asune bitu. Asune ez dakit... belar zea... eskuk eta erretzeitun belar berde hori... Bitu ta hure ipiñi enbutun. Ta geo, gaiñea bota esnie ta gaiñea esnie bota ta jo-ta dana garbi-garbi-garbi-garbi iten zun esne hori. Gero, botatzen ziyon gatzaye o dalako hori ta... gatzayek earrouek iten zitun! Ta geo ontziyek garbiu, berriz, bueno hure da brillue hure. Ixpilluei bezelaxe ikusten ziela ipintzen zitun ontzi danak. Gero, Aste Santun... alde hortan eo... laiste, artzayek alde in iten zun. Ya mendire jutun zien hayek'e. Hemen hiru bat hilebete o hola pasatzen zitun.

3.4. Sendatzeko bideak: etxeko botikak eta medikuak

- **Hizlaria(k):** Olaizola Gurrutxaga, Juliana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-013/014
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:25:07. **Bukatu:** 00:26:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Leturia, Ane
- **Gaia(k):**
 - Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
 - Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
 - Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
 - Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikak eta sasimedikuak
- **Laburpena:** Etxean belarrak erabiltzen zituzten botikak egiteko, bai eurentzat, bai eta ganaduarentzat ere. Gaixotuz gero, Azpeitira joaten ziren medikuarengana.

Transkripzioa

- Eta bazenuen ohitturaik, belarrak-eta oain hemen aittau deu ta, botikaik o itteko etxen?
- Botikaik ez, ordun botikaik ez zan ezerrekin ebaltzen. Guk ezerrekin botikaik garai hartan...
- O belarrak zeoze sendatzeko o...
- A, hori bai! Bai, belarrak norbeantzako bai! Hoiiek bai. Pasma belarrak ziela ta berbenak eta gero beste zea asko're bazien. Neuk asko ez nun hori ebaliz izen, baiña askotan aitu izen zien behintzet, bai.
- Berbenak eta, zertako izaten zien?
- Berbenie izeten da, ba, infekziyuntzako. Pasma belarra're bai. Ganauei're bai gaixotzen zani. Pasma belarra bilau eta egosi eta ure eman ganauei're. Bai, hare asko. Ordun betenaiue're ez zan asko ibiltzen eta pasmo belarra. Behie, umie eiten zunien, ta ordun gaixo antzien zeonin ta ordun, pasmo belarra ganauei're ematen zitzekon.
- Ta norbea gaixotu ezkeo? Meikuna noa jutun ziñeten, Azpeitia?
- Bai, Azpeitire. Bai, urruti izeten zan, baiño medikuk'e... Oain hainbete gaixo ez zan izeten ta ederra, bestela ez zan giro izeten hara.

3.5. Azpeitiko azoka eta feria

- **Hizlaria(k):** Agirre Perez, Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Odria, Haizea
- **Erref:** AZP-025/006
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:06:28. **Bukatu:** 00:08:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Azpeitian bizitza handia izan dute azokak eta feriak. Zer giro egoten zen garai batean aipatzen du. Azokara joaten ziren baserritarren bizimoduari buruz hitz egiten du.

Transkripzioa

- Gero bizitza haundiye Azpeitiyek izan du, Axkoitiyen aldin, ta bizitza haundiye izan du zeak, azokik. Azoki ta feriyere bai.

- Nun iten zan? Plazan?

- Plazan. Baiño ganauz beteta e? Oin ganauk ez e? Ta txerriyek, ganaue eta txerriyek. Eta geo ahuntzek "o lo que sea", baiño ganauek iguel, iguel hogetaka ganau're ta... oin bat'e ez dezu ikusten! Eta nei poza ematen diabe baserritarrak hor juntatzen dianien, zergatiken, hombre, baserrikuek'e, baserritarragatiken kaletarrak askotan gaixki hitz ein izan deu, baiño nik ez desde luego, e? Zeatik aitte're baserrikue nun ta. Nere aittek ez zekiye tutik'e erderaz e? Ta "ni tute". Ta zeak, baserritarrak periyen ta. Ganaurik pe 're, netzat hainbeste ber debela. Jayetan ta han beti baten bat eon ber du arratsaldi itten e? Ez da kalin bezela. Han ganaue zaitzen baten bat eon ber du. Ta geo honutza etorri ta alkarren zeak eta... baserritarrentzat hitz eitte zea hori ikeragarriye daukebe hori. Hori hori merezi debe baserritarrak: periye. Ta oin lehengo ganauekin ta, bo...

3.6. Estraperloko errota garia ehotzeko

- **Hizlaria(k):** Agirre Esnal, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-027/008
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:15:18. **Bukatu:** 00:17:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Garia
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Errotak itxita egon ziren garaian, Joxeren osabak errota txiki bat ekarri zuen estraperloan, eta harekin ehotzen zuen garia. Errota hark nola funtzionatzen zuen azaltzen du.

Transkripzioa

- Estraperloa ezautuko zendun baita?

- Ezautuko ez nun ba!
 - Zenen estraperloa eiten zan hemen? Ze... jatekona bakarrik o?
 - Jode, gu... gure osaba oin esan detan osaba hoyetako batek ekarri zun errota txiki bet. Gariye etxien ta errotak itxite, ta gosik amorratzen. Pentsau zazu ze pasau giñuzen! Ta errota txiki bet ekarri zun, ta han ihotzen gendun... e... hola aker txiki bet ekarri zun, txikiye... ta harei eraitie nahiko zalle zan; akerra, eraitekua.
 - Akerra deitzen diyozue zuek? Bai?
 - Bai... zuek eztakit nola deitzen diyozuen?
 - Eztakit sekula izenik jarri diyoten, bai... baiño eraiteko hari akerra esaten diyozue.
 - Bai, bai. Gero, gure osaba batek ein zuen, ba, gurdi... lengo gurdiyek jakingo dezu nolakuek zin? Zeak e... burnizko, burnizko...
 - Burnizko gurpillakin?
 - Bai, kurtuola esaten zitzekon hari. Halako bati oholak josi, zea... gurutzea josi hola... eta lehen esan dizuten aker hari soldiaute jarri hola beste hiru hanka. Hayek josi hari danak, ta harekin askoz'e errezo eraiten zitzekon. Nola buelta haundiyo [zitzon] harek. Askoz errezo eraiten zitzekon harekin. Ta... hure're, hure're estraperlokue zan hure'e... jakin ezkeo auskolo ze ingo ziguen, baiño jan be ez zeon, ba, eoteik!

3.7. Etxea errekisatzera etorri, baina zorte ona izan

- **Hizlaria(k)**: Agirre Esnal, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZP-027/009
- **Iraupena**: 0:00:51. **Hasi**: 00:17:02. **Bukatu**: 00:17:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Etxera errekisatzera etorri izan ziren, baina ez zieten abererik eraman. Lehen zer ganadu izaten zuten azaltzen du. Ez zitzaion gustatzen artzain lana.

Transkripzioa

- Etxea rekisatzea ta ez zien etortzen?
 - Ba, bai. Izen zien. Bai, bai, bai. Izen zien. Oin gure etxetiken behik eta holako zeaik eta ez zuen eman, e! Baiño, bai, bai etxie... joder!
 - Zuek ganadu asko zenduen... hemen?
 - Ez, asko're ez. Oin geyo, ordun baiño. Oin geyo eukitzen deu.
 - Ordun ze ganadu eukitzen zenduen? Behiek?
 - Ordun eoten zien gure etxin, ba, lau-bost bat behi. Ta geo ardiyek. Beste ardi mordoxka bat. Hirurogeita hamar bat ardi o larogei bet ardi o... hola. Aittek afiziyo haundi zun ardiyetako, ta nik ez det behin'e izen afiziyoik ardiyetako.
 - Zu ez ziñen artzain behin'e ibili?
 - Bueno, ibili nitzen, bai. Ibili bai baiño ez gogoz, gogo haundiyeekin e!
 - Ez zan zure... gustoko.
 - Ez, ez. Ez nun gogoik.

3.8. Lehen gutxiago zaintzen ziren zuhaitzak eta hobek izaten ziren

- **Hizlaria(k):** Agirre Unanue, Pedro; Agirre Unanue, Santiago
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-034/013
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 00:27:55. **Bukatu:** 00:28:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
Baserría » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak
- **Laburpena:** Sagastiak zaintzeko zorua garbitu baino ez zuten egiten. Zuhaitzak bi urtean behin ematen zuen fruitua. Lehen ez zegoen gaur adina gaixotasun zuhaitzetan.

Transkripzioa

- Eta gero sagastik zaintzeko ta ze itten zenduen?
- Zaintzeko...
- Ezer'e.
- Bakarrikan sorue pixkat garbiu ta simaurre baten batzui faltatzen bazitzakon flora re batez, gurin ez behintzet. Arbolia hazi ta kito. Bi urtetik behin ematen zun e? Baiña eman? Zea, oain bezela sufrie ta? Hoyen beharrik ez zun izeten.
- Ordun gaitzik ez zun izaten
- [...] Oin bezela, oin badauzkagu, baiño...
- Oin doble klase arra o piztiye harrapatzen da.
- Ta ordun ezer ez?
- Ordun ezerren beharrik ez zun izeten horrek.

3.9. Dolarearen gaineko zerga jarri zutenekoa

- **Hizlaria(k):** Agirre Unanue, Pedro; Agirre Unanue, Santiago
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-034/016
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:31:19. **Bukatu:** 00:32:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Sagardogintza
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Sagardoa ez zuten saltzen, eta dolarea erabiltzeagatik ere ez zuten kobratzen. Gerora, dolarea zuenari zerga jarri zioten. Inspektorea miatzera etortzen zenerako, barrika handiak garo artean ezkututzen zituzten.

Transkripzioa

- Sagardoa saltzen zenuen?
- Ez, ez, hamen Olalde o harek'e harek'e, eneee, zazpi barrika zortzirehun litrokok eramaten zitun harek urtero, urtero eiten zanién.
- Zuei hainbesteko diru bat o ematen zizuen uzteagatik tolarea? Bai, ezta?
- Ez, ez.
- Gero ipiñi ziyoen sagarduai inpuéstua, inpuéstua sagardua iten zebenai.

- Tolarie zeukenai.
- Dolarie zeukenai, sagardua iten gendun ba? Ta geo etortzen zien sagardue zeon edo ez errejistratzea. Ta ordun in ber izeten zan barrika hoiek ukuillun ipini, garotan tapau ez ikusteko, ordun barrika txiki bat edo bi erakutsi, holaxe moldatzen giñen.
- Inspiktorie etorri eta "etxe honetan gehio dao sagardua! gehio dao!"
- Baiño kriston garo pillakin tapauta egoten ziela, [...] han ze in? Inpuestua ipintzen ziyoen, inpuestua ipintzen ziyoen, bai.
- Bai, bai, inpuestua.
- Dana izkutuka ibili behar.
- Dana izkutuka, dana.

3.10. Lanagatik bidaiatu eta kanpoko aurrerapenetatik ikasi

- **Hizlaria(k)**: Odria Ibarguren, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZP-047/028
- **Iraupena**: 0:02:48. **Hasi**: 00:50:39. **Bukatu**: 00:53:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Baserria » Baserriko lanak
- **Laburpena**: Landa-garapen elkarteko eta udaletxeko lanari esker, Manuelek kanpora bidaiatzeko aukera izan du. 21 lurraldetara iritsi da: Kanadara eta Israela, besteak beste. Frantzian, Erresuma Batuan eta Kanadan aurreratuago zeuden hemen baino; baina haien teknologia ezin zen aplikatu hemen.

Transkripzioa

- Kanpoa're juna zea zu behin baiño gehiotan.
- Askok. Nik ibiltzeko suertea izan det nik dexente ibilli beharra.
- Beti're landa-garapen elkarte hontatik.
- Bai, bai, bai, bai.
- Noiz hasi ziñen?
- Edo bestela landetxetik'e bai.
- Noiz hasi ziñen?
- Bueno, nik larogeian o larogeita hamarrean hobeto esanda, larogeita hamarrean, baiño aurretik zeara udaletxetik. Zeatik nik udaletxien sartu nintzan hirurogeita hemeretzi. Ta geo gehiena landa-garapenetik e? Hori bai. Urtero ibiltzen giñan, ta urtean igual bi o hiru biaje. Nik izen ditut, izen det suertia hogeita bat lurraldez iristeko. Potzuz bestaldea bakarra: Kanada; eta beste hauek danak hemen Europarako. Ta bestia Israel.
- Gehienbat zuen kanpoako biaje hoik izaten zien gero honea ekartzeko aurrerapenen bat o?
- Bai, hayek [...] enterau hayek landa-garapenak nola, landa-garapena o halako zerbait nola antolatuta zaukeben ta geo nola funtzionatzen zuten ikastea juten giñen. Ta hemen gora, ba, gure modu samarren ibiltzen zien, hor'e nekazaritza txikiya, ba... Alde haundia kentzen ziguten zeak, frantsesak, inglesak, Kanadak oaindik ze esanik ez... Haiek zien han basarri txiki bat esaten ziyoten berrehun behi zaukenai. Eta ikasi ikusitik adelantuk eta ikusten ziñuzen baiño hoiekin gertatzen zitzaigun zea: honea ezin zala,

hamen ezin zala aplikau haiek zeukaten teknolojia. Hamen sei-zortzi hektareako basarri baten milla dauzkenan teknolojia ezin da aplikau, edo bostehun dauzkenana. Ezin da aplikau. Hori, hutsune hori gelditzen zitzaigun. Eskozia batea ta jun ta bi lagun, bi lagun aittonak ta beste bi gaztiak... Berrogei urte zazpiko lau lagunek eta larehun behi, bi milla ardi, ta "explotaciones familiares", "ez, guk lau lagunen artian eramaten ditugu habek", baiño ze herramienta ze leku... Ta klaro zuk hure nahiz ta ikusi harek errez iten zula hure ezin da hamen, ezin da, hamen ezin da jarri.

3.11. Lurraren ongarriak

- **Hizlaria(k):** Zabaleta Gurrutxaga , Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-048/019
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:30:29. **Bukatu:** 00:31:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena:** Lurrari simaurra eta hautsa botatzen zioten ongarri gisa. Hautsa erosi egiten zuten.

Transkripzioa

- Lurrei ongarrin bat botatzen ziozuen? ongarrin bat botatzen ziozuen lurrei?
- Ximaurra're bai, ta geo hautsa're bai.
- Hautsa? bai
- Ze hauts?
- Oain zea, zeaik e oin erabiltzen da hautsa belarditan.
- Baiña ze hauts zan, kare-hautsa o zer zan?
- Karie're bai, bota, gu're botata genden... Baiña holaxe tartetan, kareia, baiño gutxi. eta zeakin, berriz, hautsa etortzen... Hautsa almazenetan eoten zan.
- Handik erosten zenuen?
- Ta pagauta egoten zan hua ta ematen ez bazitzakagun, lurrek ez zun ematen.

3.12. Plazara tratura egunero

- **Hizlaria(k):** Albizuri Etxaniz, Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-049/002
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:02:15. **Bukatu:** 00:03:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Leturia, Ane
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroztera
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Plazan egiten zuten traturak; letxugak, tomateak, piperrak... saltzen zituzten. Lursail handiak dituzte. Labrantzarako lur ona zuten

baserri inguruan. Garia, artoa eta baba lantzen zituzten. Ganadura ere bazuten.

Transkripzioa

- Ze esango det /esangot/, tratue iten gendun hemen gehiena. Nola plazan ibiltzen giñen egunero, ta dana, letxugek, ta tomate ta piper ta klase danak, iten [giñuzen] guk. Ta... Lana galanki!
- Terreno haundie zeukezuen hemen ingurun?
- Ba, [nahiko haundikuk] bai. Oïñ pixket lagata gaure [berde ipini] ta zea baiño... Oïñ´e [nahiko haundikuk] badauzkeu bai.
- Ta zu umea ziñala, hemen buelta hau dana zuena zan? Hemen inguruko terreno hauek?
- Ez, ez zien, danak errepartidutakuek. Pusketa batzuk bestienak´e bai ta danak eta, bai. [Holakuk] giñen.
- Hemen, gaiñea, toki ona eukiko zenduen labrantzako, ezta?
- Bai, bai, ona, ona, oso ona. Bestela ez gendun jarriko ona eon ez balie! Onak zeuren ta... Hamen jarri gendun geure denpora guztiyen.
- Ze eitten zenduen, garie, artoa...?
- Gariye lehen bai eiten gendun guk gariye! Ta artue´re bai. Artue oaiñ´e bai, e? Artue ta babie. Oaiñ gariik ez deu /ezteu/oain iten. Artue ta babie. Lehen ganaue eukitze giñuzen, ta ganaue oaiñ dana kendu in giñuzen.

3.13. Azokako lanak

- **Hizlaria(k)**: Albizuri Etxaniz, Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZP-049/004
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:06:13. **Bukatu**: 00:07:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
 - Baserría » Baserriko lanak » Garia
 - Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
 - Baserría » Baserriko lanak » Artoa
- **Laburpena**: Garia egiteko urte sasoi azaroa izaten da. Artoa maiatzean egiten zen. Berdura azokan saltzen zuten. Astearte, ostegun eta larunbatetan joaten ziren azokara. Esnearekin egunero joan behar izaten zen.

Transkripzioa

- Eta... Urte sasoi jakiñekon bat behar izaten zan artoa ta garie itteko? Noiz itten zan?
- Bai, udazkena, udazkena. Gariye iteko zean "noviembre". Oantxe, sasoi hontantxen iten zan gariye. Artue iten zan berriz maiatzean, "mayo".
- Maiatzean.
- Ta... Hoixe, sasoi sasoi in ber izeten zan.
- Gero, ordu, berdura ta azokan saltzen zenduen.
- Bai, gero [berdurek...], sorue labratzen gendun, gero labrau ta, ipintzen genduen berdure´re dana, o piperra, tomatie, baiñie, klase danak ipintzen giñuzen. Tratue, egunero tratue.
- Egunero juten ziñeten?
- Egunero ez, gaizki esan det! Juten giñen asteartie, ostegune ta zapatue.
- Hirutan. Hirutan izaten zan azoka?

- Bai. Ta geo bezeruk´e euki giñuzen, ta esniekin egunero jun ber izeten zan, e? Baiñe hola plazaa saltzea ta berdurie saltzea ta astin hiru egunin.

3.14. Baserriko errenta eta nagusia

- **Hizlaria(k)**: Albizuri Etxaniz, Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZP-049/014
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:20:39. **Bukatu**: 00:21:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Baserriko errenta dirutan ordaintzen zuten. Baserriko nagusia Azkoitikoa zen. Nagusi ona eduki zutela dio. Gariaren prezioa nagusiak jartzen zuen.

Transkripzioa

- Etxeko... etxea zer zeukezun errentan?
- Bai, gu errentan.
- Bai, eta errenta pagatzeko're beharko zenuen...
- Bai... errentie pagatzen gendun ta...
- Baiño esan nahi det garie o eskatzen zizuen... errentan...
- Ez, ez ,ez, ez... diruten pagatzen gendun guk.
- A, bai?
- Eta... puf... hola ibiltzen giñen... geuk e...a hola pixket... asko ez zebe-
kentzen, baiñe... nausiyek asko ez ziun kentzen, baiñe errentie harexekin
pagatzen gendun, eta gero, beste diru pixket'e emate giñon ta... errez
ibiltzen giñen harekin.
- Hemengo nausie nungoa zan?
- Axkoitikue o... Irizar eo... esaten ziyoen.
- Aaaa...
- Ta... nausiye ona auki gendun, eta ez ziun guri ezerre... ez giñuzen
molestatzen gu harek...
- Beak eskatutakoa ondo eman ezkeo beak [...].
- Ez harek... geo ze iten zun... gariyek ze iten zun, estaduek gariye jiyotzen
baldin bazun, hemen'e jiyo iten ziun. Ta hola. Ez giñen gu geuk... ez
gendun guk geuk nahi gendun preziyuen ta ez, ez... harek ipintzen zun.
- Beak jartzen zun?
- Bai, ta hantxe errendiu ber. Gariyekin te ez giñen gaizki ibiltzen ez, ogiye
ibiltzen gendun guk... ez gendun sekula ogiyen faltaik izen, baiñe... jo...
kalien ta giro zan ba ordun...

3.15. Baserriko arropak

- **Hizlaria(k)**: Kerejeta Zabaleta, Maria Itziar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZP-050/008
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:15:14. **Bukatu**: 00:16:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- **Laburpena:** Lehen baserrian zer-nolako janzkera izaten zuten azaltzen du: hau da, soinekoak eta abarkak.

Transkripzioa

-Normalen, baserrin, ze jantzi ibiltzen zenduen ? Esan nahi det, eguneroko bizimodun.

-Ene ba, soiñekuek. Nik, guk, geo lehen bazien txanbrak-eta ibiltzen zituen, amamak.

-Txanbra?

-Txanbrie, gure amamak txanbrie esaten...

-Zeri esaten ziozuen txanbra?

-Ba zuk´e... ikusita eongo zea, hori, zea... A, hau ez da /ezta/ kendu ber. Esto... Nola esango dizut /esangoizut/ ba...? Baserritar jazten die /jazteie/ ba? Pues jazkera hoixe. Bueno, guk ez e? Guk soiñekuk-eta ibiltzen giñuzen. Baiño zeak, ia gureandik´e ya hasi zan soiñekukin ta. Baiño amamak-eta ibiltzen zeuben, ba, hori, txanbrie ta. Izekok-eta´re ez txanbraik, soiñekuk-eta mas bien; amak´e bai.

-Eta... Abarkakin?

-Bai. Ta nei, gaiñea, abarkie gustatzen zitzaten, e? Hankie sujeto lagatzen dizu /lagatzeizu/, ta geo, gaiñea, lehen esan dizutena, ba, nik ontziyek jaso ta josten eo nauela aittitten zain eoten nintzen. Ta gero beak´e zea iten zin, ni gaztie ta "Guk ibili beharko diñau baserriye hamen, guk ibili beharko diñau /berkoñau /!" esaten zin aittittek, eta... Gu lehelengo biyok behintzet sorora biyok beti.

3.16. Errotara joateko, astoak erakutsi bidea

- **Hizlaria(k):** Kerejeta Zabaleta, Maria Itziar
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-050/024
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:43:07. **Bukatu:** 00:44:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Errota
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Behin errotara joan behar izan zuenean, astoari jarraitu eta ondo iritsi zen.

Transkripzioa

- Ta errota ze jun ziñan?

- Aittittek esan zian: "aizan, errota jun berra zeon". Eta karo, besteik eta hola juteko modukoik ez, anaye're artien'e gaztetxuo, ta ni pixkat beti zeago, neuk esatie ez dago ondo baiño, ta esan zien: "hara, ipiñiko diñau zakukin astue lotute eta hik astuei segiu, beak emango hau errota ta", ta "bai! Zea eramango nau!" esaten niyon, ta "baietz ba, baietz!" esaten zin aittittek. Hamen erten kamiñoa, ta kamiñue kruzau eta hartzen da Zabala eta geo Zabalan behera jun eta Errezil kamiñuen zeuen onduen errotie.

- Nola izena zun errotak?

- Estra, Estra Berri ta Estra Zahar zien. Ta Estra Berrin zeuen errota. eta

esan zien zeak, esto, "ze, zuzen jun al zan?", ta "bai, bai, bai, zuk esanda bezela nik segitu diyot astuei ta ni han zean errotan azaldu naiz". Ta geo gaiñez zeuan aldapa bat, zeak, hor ez Azpeitin behera junda, eta biretxur ixtu-ixtua, ta "hantxe jun ber den kontuz e?" esan zin ta nere artien "bai bai, kontuz etorri beharra zeok hamen".

3.17. Baserrien jabetza eta inguruak

- **Hizlaria(k):** Zendoia Kerejeta, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-066/012
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:18:15. **Bukatu:** 00:19:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
 - Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
 - Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Baserrí inguruan basoa zen dena. Inguruko baserrí gehienak duke batenak ziren, baina lñakiren familiaren baserría ez, hori familiarena berea zen.

Transkripzioa

- Ta bueltan esan dezu basoa zala dana?
- Bai, hombre, oin'e hala dao.
- Zuen etxen aitte ta basotik bizi zien, bason itten zuen lan?
- Bai, hamen basuen, diruik geyena hartu generalin. Etxiek hamen geyenak zien maizterrak, dukie nagusi, hamen basarri geyenak Aitzemarri eta hamen Erreztik eta etxe asko baiño, auzuen beona o bertaku o basojabiek.
- hau bea basarri zenena zan?
- Bertakua, bai.
- Zure aittena zan?
- Bai, bai, lehendikan hala izengo zan edo ta gero erosi're terreno dexente erosi zittuen itxurie ta baso asko zeuden ta beti're basuakin, zeakin, labrantziakin baiño diru gehiyo hartu o zeoze dukia esan dezu. Nungoa zan dukia?
- "Duque de Granada" o zer zan ba zea hori. Ta horren basarrik zin hamen, ba Oiñetzen ta Atzerrekan ta Matximentan (Matxinbentan) ta danak horrenak zien hamengo zeak, basarriyek danak geyenak, geyenak ta onenak. Gure aitte zanak esango zizun dukiena ehizako baxtar batzuk bestalden hor Txagorri te ez dakit zein te... Bai, bai.
- Bueno, baiña zuena izan behintzat.
- Bai, kaxkarra bazan'e.
- Hoi da, zenbat urte euki lezazke honek, Basandik?
- Ez dakit, ez dakit zenbat eukiko ditun, baiño bostehun o hirurehun o arrastua da zihero, zeoze.
- Baiño bostehun buelta hortan.
- Seguru, pentsatzen det nik edo. Ez dakit. Hola beitute're ez dago ikusteik, baiño zaharra da.

3.18. Laneko istripuak eta aseguruak

- **Hizlaria(k):** Zendoia Kerejeta, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-066/035
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:55:49. **Bukatu:** 00:57:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena:** Egurra mozten izandako istripuak aipatzen ditu: 65ean hanka hautsi zuen egur bat erori zitzaiolako gainera; 92ra arte, ordea, ez zuen istripu gehiagorik izan; eta 92an berriro hautsi zuen hanka bera kamioitik salto ginda. Lehen ere baziren istripu-aseguruak.

Transkripzioa

- Makiña bat eskapada ingo zenuen egurretan?
- Bai, latzak bai. Nik "año" sesentaizinkon hankia hausi nun lenengo, goitik egur bet etorri o tronko bat eta azpin pasa nindun; ta handiken'e "de sesenta y cinco a noventa y dos" ez nun akzidenteik ezer euki. "Sesenta y cinco a" nobentaidosea ez dakit zenbat urte dan, hogeita zazpi o. Ta ezer'e. Ta geo nobentaidosin berriz kamionetik saltau ta hankia hausi nun berriz, bea, hanka bea.
- Ordun lanen zenbiltzaten garaien, seguroik eta ez zan izango?
- Bai, akzidentekuk bai.
- Bazeuden?
- Bai, bai, akzidenteku seguru beti pagatzen gendun. Leno zeaik ez, oain bezela, zeaik ez zan egoten beste seguro familiar eo, ez dakit zer. Garai hoietan hamen ermandadie bezelako basarritarrak inde ta zeeze ta eukitzen zeben, baiño ordun seguro sozialik eta zeaikan, beste autonomoik eta bedeinkaziyok eta den hau gerora hasitako sistemak die hoyek. Ta hola.

3.19. Etxeko lanen banaketa eta morroia

- **Hizlaria(k):** Unanue Aizpuru, Juanito
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-067/006
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:08:31. **Bukatu:** 00:11:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena:** Ama Azpeitiko azokara joaten zen enkarguak erosi eta baserriko produktuak saltzera; oinez joaten zen, 12 km inguru. Hainbeste ume izanda etxean, morroia ekarri zuten laguntzeko. Morroia, ordea, alfer xamarra zen eta hari buruzko anekdotak kontatzen ditu.

Transkripzioa

- Azoka juten zan ordun?
- Azoka... enkarguk, astekuk ekartzea...
- Ta saltzea're bai?
- Saltzea're eamaten zuen; arrautzak eta oillaxkuek... eta ostontzien zerbait'e bai gaztayek diela o... eamaten zuen saltzea.
- Azpeitia juten zan?
- Azpeitia, Azpeitia. Ta han barrotie pasau, merkaue pasau ta... handiken hiru kilometro [...] eta beste xei bat kilometro e oinez... Hamabi bat kilometro ein iten zituen. Ez zebeu zea... makala izeten hayek'e! bizimodua orduan latza zan. Oso latza.
- Bai?
- Bai, oso latza. Ta kalin'e gezki. Eskolan ikusten gendun. Eskola juten giñenien...e kalin bizi zienak ogiye palta. Eibertik eta etortzen zien honea arto-iriñeta.
- Eibartik?
- Eibartiken ta etortzen zien arto-iriñeta. Ta geo, morroi bat ekarri zuen. Jakiña, ba, ni ume zaitzen ta eskola're... askotan itxin gelditzen nitzen... Morroi bat ekarri zuen... zea horrek... gure aitte horrek. Ta bastate majaderue zan. Ta ordun itxin udik'e ez genduken. Ez zeuen artien korrienteiken eta dutxaiken ta ez zeuen. Ta hor bertan genduken potzu, baiña txahalentzako ude aska ekarri ber izeten gendun. Ta lehor urti zan, ta bastate jan sekue zauen. Ta egarriye're geyo izeten zen txahal hoyek. Ta hala, esan zigun: "behiyek larrea bialdu ditxiat eta zea... txahalentzako ude ekarri!". Ta "bai". Ta morroyek'e "bai" ta. Hala behinik pehin, morroie alper zamarra're pixkat bazan. Eroso zamarra. Zea "behiyekin ekarri ta behiyekin batea eamangoittu iturrira". Ta sekula txahalak askau be katetiken. Ta hala, ekarri ditu behiyek, ikuillua sartu die, txahalak askau ditugu... ta behiyekin batea iturrira txahalak. Ta hola potzu haundi bet zan. Oin'e sukalde hau aiñekue ez, baiño[...] erdi tamañokue o hola. Ordun oin baiño haundiyo zun. Ta hala, txahal bat haundi zamar bat. Ta ez sartu nahi. Ude... egarriye bazauken, hola udei ikutzen ziyon... ta ikutzen ziyonien, atzea iten zun. Ta morroi hori sartu da azpira, gu mutil koskorak, sartu da azpira ta bizkerrien jasotzen hasi da aurea juteko ta... salto in diyo ta ja-ta, ja-ta udetan morroi hori.... dana... holako ondu zauken... udetan, potzuten. Gu atzetik parrez. Ta...
- Zenbat holako pasau...
- Ta... geo etorri ta aittek txahalai ude ekarri al diyo zue? Ta morroiye ixilik. "Ez, ez diyou ekarri". Beak eaman ditu. Ta "nola eamandituzue?". "Behiyekin ekarri ta behiyekin batea". Ta ze... "atzea etorri al die ikuillua?". Ta ikuillua, aldau baiño leno ikuillua ikustea! Ta batematek zeoze ein... Geo esplikau niyon, ba, seitu-seitun ez ta... nola zea... "Txahal beltzak", bat beltza zan, "txahal beltzak ez zun sartu nahi ta udei ikutzen ziyon ta atzea iten zan... ta azpire sartu ta bizkerrakin jaso ta aurea ez zea iteko hasi ta Joxe bea bota du potzura!". Ta "zuek ondik ingoitzue haundiyouek!". Eta behi... txahal hoyek ikuillun ikusi zitun ta gustoa.
- Ordun ya lasai.
- Bai, ta ordun ya gustoa. Zenbat ibillera in ber izeten zan!

3.20. Baserriko bizimodu gogorra

- **Hizlaria(k)**: Unanue Aizpuru, Juanito
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber

- **Erref:** AZP-067/007
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:11:37. **Bukatu:** 00:12:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
 Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
 Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
 Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Lehen ganadu asko izaten zuten: behiak, ardiak...
 Ganadua haragitarako izaten zuen. Lursail dezente zituzten, eta haiek landu egin behar izaten zituzten. Bizimodu gogorra zen hura.

Transkripzioa

- Ganadu asko zeukezuen?
- Ba, orduen'e... mordue. Mordue eukitzen gendun. Ta gero geyo euki det nik.
- Ze euki zenuen?
- Zea... behiyek eta ardi batzuk'e bai ta behiyek eta... oin berrehun bat ardi badaure... ta oin ganaue gutxitude dauket. Oin beste bati eman dauzket e! Nik...
- Eta ganadue ze eukitzen zenduen haragitakua?
- Haragitakua, bai haragitakua. Etxin gaztaen batzuk ein, etxeko familiko esnia, txahalak hazi ta... haragitakua. Behi pintoik ez deu ikusi ondik.
- Terreno asko zeukezuen hemen?
- E?
- Terreno asko?
- Bai e... hemen... hau... hemen bi bizitzeko terreno... ordun bizitzeko bat... terreno juxtukuk zien. Geo goyen aitte zanak eositeko beste hor e... Urrakiko gaiñaldien ta're belardiye erosita ta han'e belarretan ta... bizitze gogorra ematen zan ordun. Oso gogorra. Oso gogorra. Goizin e... hamengo lanak ein bezperan ein ganau zea... ganajatekuk ta... Gure aitte zanak e... behin baiño geyotan beanda junda're ez zan akziko haundik eiten ta... Hala behinik pehin, lanak ein goizin goizeo jaikite ta... eune zabaltzeako askotan belardira belarra ebaitzea. Segikin ebaitzen zan ordun! Oin dana makiniz eiten reu (deu), baiña, segikin ebaitzen zan...
- Segaz?
- Segaz. Ta bizimorue e... ordun e... ta kalin'e gaizki e!

3.21. Errotara ezkutuan joatean pasatako beldurrak

- **Hizlaria(k):** Unanue Aizpuru, Juanito
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-067/008
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:12:50. **Bukatu:** 00:15:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
 Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
 Baserria » Baserriko lanak » Errota
 Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Lehen Urrestillatik Azpeitira oinez joaten ziren, bizikleta gutxi baitzeuden. Nuarbeko errotara joaten ziren ezkutuan, eta horretarako nola moldatzen ziren azaltzen du.

Transkripzioa

- Hamen Urrustildiken langilliek Aizpeitira juteko bizikletie ona zan, baiña askok ez zeuken ordun e... bizikletaiken. Oinez jutun zien. Ta eunien pezetie kostatzen emen zala bizikletie ta... bildurrez amorratzen bizikletie erosteko jendie! Ta... ogiye're rasionamentun zeuen, eoten zan. Gariye ta etxin iten gendun. Ta hala're errota juteko bildurrez ibiltzen giñen.

- Ze pasatzen zan ba errotan?

- Zeak... kontrabandistak o zea delegauek ibiltzen zien ta! Delegauek, delegauek... Hoinbesteko zea batetiken gora ez zeuen eamateiken. Zea... delegauek ibiltzen zien ta.

- Neurtzen ibiltzen zien?

- Ta han bertan, azpikaldin bertan... errotie genduken, Urrustillen erroti genduken. Urrustildiken... geure auzo dana erroti zeuen...ta hoyeta ez giñen... Juten giñen Nuarbea. Nuarbea jun, karretera kruzau gabe, hamen menditik jun astukin. Ta hala behinik pehin, lelengo bagene(ki)un, trikimailluek hartute geneuzken. Karretera sartu be astue atzin lotu, atzin lotu ta jun ta galdeu: "Hola ta hola etorri naiz artuekin o gariyekin, etorri naiz" ta "eon pixkaten". Harek ihota eukitzen zun ta harek e... zea... goyen ta jasota aukitzen zitun, beheyen errotak geldik harek'e! Askotan gabin ta ibili jotzen... ta geo ibili ez dan bezela zakarrakin ta zikindute ta eukitzen zitun: "hala, eon pixkaten...". Ta goyen, gutxi gorabehera "hemendiken zenbat zakuko kilo junda" ta... beheyen zakuka bat preparatzen zuen. Geo, hemengue pixau ta geo... deskuentue eztakit ehuneko eztakit zenbat kentzen ziun zea... ihotziena. Ta "di-da!" kargau ta ixkututik "aide!" behetik gora. Ta gabien... ta gero mutil koskorak e... hamalau urte ta ta... Gurien asto lerdo bat bazan, asto ar haundiye zan... ta aurretiken pasaute baldin bazauen bide hortan... Hemen geyo're jutun zien, ba, harea! Usaye aitzen zun asto emie o arra zan "puf, puf" ein ta "au, au, au!". Gu makilka ixilik eoteko ta ez zan eoten! Ta gabien'e orbela mugitzen baldin bazitzekun'e sustue hartzen gendun mutil koskorak. Ibillerie ikusgarriye ein gendun guk! Ta beste... bestek'e bai hemen'e! Nahiz ta etxeko jeneru euki! Ta Eibertiken'e arto einin honea etortzen... Han'e mixeriye. Han'e mixeriye...

3.22. Lehengo otorduak: arraina merke eta barazkiak ugari

- **Hizlaria(k):** Unanue Aizpuru, Juanito
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-067/019
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:33:44. **Bukatu:** 00:35:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Lehen olioia falta zenez, arraina merkea izaten zen. Bakailaoa asko izaten zen garai hartan, eta amak nola prestatzen zuen azaltzen du. Ama ez zen arrainzalea, baina aita bai. Normalean zer jaten zuten otorduetan aipatzen du.

Transkripzioa

- Baiña garai hartan arrayik jaten al zun jendek?

- Bai, gure itxin ama...

- Arraye... arraye garestie izengo zan ba?

- Ez, ez zihero merke. Ordun, oliyu falta zan ta arraye errez harrapatzen

zan. Ordun angulie ta noiznahi gure amak'e itxea ekarri ohi zun. Itxea, itxea ekarri ohi zun zea itea...

- Bai, e? Jan ohi zan arraye etxen...

- Bai, bai, bai. Bakaillua asko. Ta gure ama arrai zalie ez zan. Aitte bai arraizalie zan. Baiña bakaillua amak jan ohi zun ta ipiñi're bai. Ta bakailluei iten ziyon, jeneralien, osoik ekartzen zitun bi o hiru eo ekartzen zitun astiartien. Ta harek ipintzen zuen e... ba(ra)tzuri zopie iteko're buzten aldie o hegatsak eo ipintzen zitun ba(ra)tzuri... bizitasuna ematen ziyon, ba, ta! Ta hala, bakaillau hori hurrena tomatiei ipiñiko zuen, tortilla're bai batzutan asko gazitu... gazi asku're bai batzuten... Ta behinik pehin, bakaillaue asko gastatzen zan. Arraye gastatzen zan. Baiña ama ez zan arraizalie, aitte bai. Aittei txitxarrue ta danetik... harek hezurreaño dana txupatzen zun... ta amak ez, ama... Geo geo're, geo gero're... zea... ama ta biyok bizi giñen hemen. Anayek eta ezkonduete ta hure morroie're bai... ta Donositiken "mediana" ear bat ekartzen ziyon, buztenin lotu ta... arrebak eta, nere arrebak ta ekartzen ziyon ta... Ta hala behinik pehin, estimaziyo haundik ez ziyon ematen, baiña: "bueno, hau jan in ber du!". Ta hala behinik pehin, zea... burue ta buzten aldie ta lagako zitun periodikun ta beste erdi alde hori ipiñiko zuen. Ta han usteltzen zien, geo katuentzako ber izeten zan. Zea hoyek... buzten alde hoyek. Ez zan arraizalie. Aitte bai.

- Bestela normalen jatordutan ze jaten zan?

- Ba, potajie beti. Baba gorriye asko! Ta garbantzue jayetan ta arroza're bai! Baba zuriye're bai, etxin iten gendun hori. Ta baba zuriye're bai ta. Ta geo, iluntzien porru-patatak diela o azelgak patatakin diela o tipo horta... Ta gaiñin arrautzan bat ta katillukan bat esne.

3.23. Menda-erratzak saltzen

- **Hizlaria(k):** Iburguren Iparragirre, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-071/003
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:03:54. **Bukatu:** 00:05:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
Natura » Meteorologia
- **Laburpena:** Menda-erratzak egiten zituzten, etxeko garbiketa egitean menda-usaina uzteko. Menda-erratzak nola egiten zituzten azaltzen du. Azokan ez zuten leku finkorik. Asteartetan izaten zen azoka, eta goizean goiz joaten ziren.

Transkripzioa

- Eta basarrin plazan beste zerbait baldin bazeuen, erretzak ordun eiten zien, mende-erratzak. Ordun etxeako etxia pasatzeko ta menda-usaiñe lagatzen zula eta iten gendun mordue eta haiek'e plazara eramaten giñun.

- Haiek'e saldu itten zittuzuen?

- Bai, bakizu, ez zeon ba nundik ba.

- Nola itten zituzuen menda-erratzak?

- Menda-erratzak? Jolin, mendia zelaietan egoten zan ta hartaka hartu, dana bana-banaka ipiñi, lotu.
- Zerekin lotzen zittuzuen?
- Beakin.
- Beakin?
- Beakin, nola zailla zagon hura etetzen, ta harekin lotu eta zea, menda-erratz mordue. Zenbat eta gehio in ta nahio, ta ordun basarritar mendia asko juten zan zelaira. Ta holaxe bizi giñan.
- Dirue ateratzen zan?
- Bai, hoixe, besteik ez zeon ta, ahal dan bezela ordun.
- Eta azokan pueston bat bazeukezuen?
- Ez, kargaderu... lekue zegon lekun.
- Jun eta jarri itten ziñeten?
- Bai, lekue zegon lekun jarri ta...
- Ze egunetan itten zan azoka?
- Astearten.
- Asteartetan?
- Bai, egunero ez zan eitten.
- Goizean goizo jun beharko zenduen ez?
- Bai, goizen goiz edo ahal dan goizena.

4. Ekonomia eta industria

4.1. Urrestillatik Azpeitira lanera

- **Hizlaria(k):** Bastida, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Bastida, Ana
- **Erref:** AZP-008/004
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:02:15. **Bukatu:** 00:03:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- **Laburpena:** Urrestillako gazteak Azpeitira joaten ziren lanera bizikletaz. Damaso eta Agirre ziren lantegi ezagunenak. Astelehenetik igandera arte egiten zuten lan. Igandean erromeriara joateko alpargatak erosteko adina diru ateratzen zuten.

Transkripzioa

- Geo leno Urrustillen dana basarri koskorra ta. Batzuk taillerrea Aixpeitire, geyenak gazte jendie, danak bizikletan illeran jarri ta Aixpeitire batzuk... Damasonekue ta Agirrenekue ta bi tailler zien hola inportante samarrak... Ta geo ertendakun danak batea itxeakun. Kamiñue bete-bete-betin. Ez zaon kotxiek harrapau bildurriken, ez zan ibiltzen da! Ta hor bazaon Urrustillea iye ailleauen aldapa txiki bat, hutse aldapie... danak jaitsi han ta kontubek esanez aldapien goraiño oinez etorri. Etorri Urrustillea, bazkaldu ta atzetik danak batea... atzea taillerrea. Oin baiño egun luzeo izaten zan ordun. Xei terdik arte o uste ze jarduten zan negun. Uderan'e... beatzi ordu, hamar o behintzet. Ta jaire arte e! Astelehenetik hasi ta jaire arte! Ez zan izeten "sabado inglés" ta holakoiken. Aitu bai "sabado inglés" ta izeten emen ziela, baiño iñok ez zakiyen hemen. Jaire arte. Aste guztiye taillerrien pasau ta jairako nahiko dirue. Alpargatak erosteko lain batzuk! Ta egualdi

txarra iten bazan... Gogun daket geuk'e Oñetzea jun ber gendula erromeire ta...

4.2. Ama etxez etxe josteko makinarekin

- **Hizlaria(k)**: Urbistondo Lasa, Basilio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZP-031/006
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:14:07. **Bukatu**: 00:16:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
Ekonomia eta industria » Lantegiak
Lanbideak » Sastreak, jostunak
- **Laburpena**: Aita zorrez beteta gelditu zenez, amak ere gogor egin behar izan zuen lan haiek ordaintzeko: etxez etxe josteko makinarekin ibiltzen zen arropa konpontzeko, eta arratsaldeko bost erreal irabazten zituen. Urrestilla inguruko etxeetan ibiltzen zen. Josteko makina nolakoa zen azaltzen du.

Transkripzioa

- Gero, zorrez beteta geldiu zen ta, aitte ta... Ama, josteko makina txiki bat zuen, zea beheipe... hankaipetue hure hartute etxeik etxe ibiltzen zan. Atsaldeko bost erriel...

- A bai, etxez etxe erropak e... konpontzen?

- Bai, bai... zeoze... konponketak eta, erropa zaharrak konpontzen makiniekin te. [...] Bota ta berriyek inde dauden hortan andra batek: "aizan, gurea noiz etorriko haiz?" te "honek'e biyerkue bazaken ta hurrengo astelehenien etorriko naun" te holaxe.

- Eta arratsaldeko bost erreal?

- Atsaldeko bost erriel, "una veinticinco".

- Eta...

- Ta... hure geyo eite zula. Amama...

- Baina esan nahi det... bazan diru pixkat. Bost erreal zenbat zan?

- "Una veinticinco pesetas". Pentsau zezu euro batek "ciento sesenta y cinco", zenbat zan...

- Pentsau...

- Bost erriel e... ba ordun hiru kilo babak baliyo zeven xei erriel eo hola; "una cincuenta". Hiru kilo baba gorriye, baba gorri earra, "una cincuenta".

- Hiru kilo baba konsegitzeko atsalde baten lan in ber.

- Bai.

- Makina bizkarren hartuta etxez etxe.

- Hantxe gaixuk.

- Eta ze ibiltzen zan hemen inguruko etxetan, Urrestil ingurun ta?

- E?

- Hemen, Urrustil inguruen ala Azpeitira?

- Ez, ez hementxe inguruen... izeten zan, batek eta bestiek eta... erropa zaharrak konpontzeko, berriyek itie baiño... lan, diru ez zun iñok eukitzen ta.

- Eta gogoatzen zea nolakoa zen makina?

- E?

- Makina, esan dezu pedalik gabeko makina zala, eskuzkoa zala, ez?

- Eskuzko makina.

- Nolakoa zan makina? Gogoan daukezu?
- Holakotxe bat eta holaxe erain-erain "txarra txatxatxatxa" ta....
eskuekin erain eta bestiek erropie zuzendu... "Txatxatxatxa" josten zun
harek eta segi te, gero eskuz'e... danea ein ber.

4.3. Hoteleko eskupekoak eta soldata

- **Hizlaria(k):** Unanue Odriozola, Maria Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-038/020
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:22:25. **Bukatu:** 00:23:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena:** Hotelean eskupekoak jasotzen zituzten; itsulapiko batean sartzen zituzten; eta hilabete bukaeran, zerbitzari guztien artean banatzen zuten han zegoen dirua. Handik lortutako diruarekin hainbat gauza erosi ahal izan zuten. Soldatan irabazitako dirua etxean ematen zuten, eta gurasoek libreta batean sartzen zuten, gero ezkonduetakoan emateko.

Transkripzioa

- Eta propinak eta izango zien?
- Bai.
- Bai?
- Bai.
- Kamarera bakoitzei ematen zizuen zuen propina?
- Ez, normalki mahaiyen uzten zeben o fakturakin batea uzten zeben propinak, eta hoyek danak juten zien itxulapiko batea, leku batea. Eta hillien bukaeran partitzen gendun neskak, neskak partitzen gendun. Bai, bai, bai, oin baiño propina gehio. Ni propinakin akordatzen naiz ezkontzeko in nitun izerak eta... Ni akordatzen naiz gauza asko erosi nun propinakin. Eta lehen'e pentsa zazu ze mentalidade: gordetzen gendun hilleko soldata hori, gordetzeko ekartzen nun etxea, eta propinakin ba pasatzen giñen gure gauzak erosi, erropak o zapatak o...
- Irabazitako dirue zutzako ala etxan entregatzen zenun?
- Etxea, etxean, etxean entregatzen nittun. Nik etxien entregatzen nun. Baiña aittek gordetzen zigun guretzat gure kartillan e? Bai, bai, bai. Ta gero ezkontzeakuen, ba, " hor zurie, zure kartilla".

4.4. Gerra oatea: miseria zegoeneko garaia

- **Hizlaria(k):** Unanue Aizpuru, Juanito
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-067/010
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:17:13. **Bukatu:** 00:19:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

- **Gaia(k):**

Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

- **Laburpena:** Lehen diru gutxi zegoen. Argindarraren posteak zuritzen zituztenei duro bat ordaintzen zieten orduko, eta ikaragarria zen hura. Euria egiten zuenean, euritatik babesteko nola-hala moldatzen ziren etxean. Kalekoek gosea pasa zuten gerra ostean, eta baserrikoek janaria noiz emango zain egoten ziren.

Transkripzioa

- Zenbat denbora da, ba, oindiken orduko durue... gu gogortu ezkeo, hazi ezkeo... guk hogetaka urte giñuzela orduko durue hasi emen ziela postie zuritzen, postiek zuritzen. Ta hor...

- Nola postie zuritzen?

- Postiek, oin hor hormigoizkuek eta izeten die zeak Iberdrola ta zea...

Telefonica ta hoyek. Baiña leno ordun iten zen piñu bota, zuritu... geo baiñu baten pasau zea baten... ipiñite zaukeben pistina haundi bet... han eztakit zenbat ordun euki, ez usteltzeatiken. Ta poste... eta hango lanien orduko duru pagatzen emen zebela. Barnolako "Hankaundi" ardozalie izen ber zan ta "eztakit zenbat tanke erdi eratan emen zitik (ditxik)". Auzokue gure aitte zanak eta "eran letxeskek orduko duru kobrau ezkeo!". Ordun'e jornalak... orduko durue... ikearriye ordun! Hoi geotxo, geo. Leno gauzak hemen eskas zien, oso eskas. Ta nik eztakit, hainbexte... hamaike ume ta gurin neskak guardasola ta gu zakuekin juten giñen eskola. Ta beste tokiten halaxe... o okerro iual.

- Bate be iual?

- E?

- Bate be iual?

- Bate be ez zien iño zeoze... hau o hori eamango zeben, zakube o hau-hori. Ta ordun oiñetakoik'e abarkaik'e ez zan gomazko zeaik... beste zea kubiartakin ta indekuek izeten zien. Oin bezelako katuska ta xiraik eta ez zan ordun. Ordun ez zan. Ordun e... gauzak oso gogor zien. Ta hor e... kalien pixu bat badauket nik zeien...ta oin "Sartunahikue"-n ama pamilikue... zeatu nun. Hayek arta-alie ogik ez ta errekreoko denporan guk'e zeoze eamaten... ogiye o zeoze eamaten genun basarrin indeku o... ta guk puxketa bat eman zai eoten zien hayek. Eta hayek... amak ipintzen ziyen labin tostaute arta-alie errekreoko denporan jateko. Kalin ordun geizkiyo zan basarriye baiño. Ta basarrin gezki, baiña ondiken.

- Baiño baserrin bizi zana betire...

- Jana zeuken, jana zeuken... itxeako esnie ta jana zeuken, jana zeuken. Ta holaxe bizimorue eaman gendun hamen.

4.5. Neska gaztea izategatik, kontuz ibili behar Donostian

- **Hizlaria(k):** Iburguren Iparragirre, Maria

- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber

- **Erref:** AZP-071/017

- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:26:46. **Bukatu:** 00:28:58

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider

- **Gaia(k):**

Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
Lanbideak » Neskameak

Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

- **Laburpena:** Azpeitiko dendan urtebete egin zuen lan; handik Donostiara joan zen eta 7 urte egon zen han lanean. Beldurra pasatzen zuen Donostian, neska gaztea izanda entzun behar izaten zituenengatik. Laneko nagusia oso zorrotza zen. Militarrek egoten ziren Donostian eta Mariak lan egiten zuen ostatuan egoten zirenek mehatxu egiten zieten neska gazteei.

Transkripzioa

- Azpeitin denda hortan egon ziñan eta Donostia jun ziñan?

- Bai, handikan Donostin billau ziaben geuk zea neukan, auzoko neska bat zeuan zean Pentsion Lasan: [...], zazpi in ezkeo, zortzi urtekin han. Eta harek eraman niñun eta zazpi urte in nitun han bertan. Baiño gogorrek iikusitta.

- Maria, ordun Odriako neska bat hain gaztea ta Donostia neskame, bildurrik ez al zizun ematen?

- Bai, geiñea, hemezortzi baiño lehen, hemezortzi urte baiño lehen ez neukan juteik. Ta ordun gaiñea han zeuan zeak, militarra zeuan dana. Ni ez oain esaten detalako, baiño neska gaztiek nintzen "joe, vaya rubia, vaya esto...". Bildurrik etxekoandriei zan holakue, Pension Lasakua, nik neukan etxekoandrie. Eta hola baten batekin gelditzen bagiñan hitz eiten'e, hola egoten zan zai e?

- Ez zizuen uzten?

- Bai, bakizu ze pentsatzen zun? Ta gu neska gaztik ignorantek, ezer ez gendun in ta.

- Ta militarrek eoten zian han?

- Uff, geo gauza hoiyek eskatzen zizkiguen habitaziyota, ta hura zan txarrena. Tableru bat esan, ta tinbria jotzen, "oye, tal sitio" esaten genun, gosaiya, eta atia jo ta igual "pasa" esaten zeuen, ta atia itxi igual eiten zizuen, eta barroa hartu eta bueno! Ze jaleo. Geo [...] jun pentsiyua, ta esaten zin, "oye, oye" esaten zun beak, "si no quieres sentar le voy a decir a tu jefa, tú no pero yo le diré". Ta dana hola, holakotxe konbersaziyuk.

- Amenazak?

- Amenazak, baiño hola e? Hor. Ez dakit nola salbau ere eiten giñan hainbeste militarrekin ta hainbeste granujakin e? Ez dakit, ez dakit nola, ez gendun bazpareko [...] ez genduken.

5. Aisia

5.1. Erromeriara oinutsik alpargatak ez bustitzearren

- **Hizlaria(k):** Bastida, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Bastida, Ana
- **Erref:** AZP-008/005
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:03:20. **Bukatu:** 00:04:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Urrestilla ondoko Oñate auzoan gertatutako pasadizo bat kontatzen du: erromeriara hanka hutsik joandakoa,

alpargatak ez bustitzearren. Festetarako poz handia izaten zuten.
Nahiko ondo bizi ziren.

Transkripzioa

- Aste guztiye taillerrien pasau ta jairako nahiko dirue. Alpargatak erosteko lain batzuk! Ta egualdi txarra iten bazan... Gogun daket geuk'e Oñetzea jun ber gendula erromeire ta... ebiye hasi ta besteku ta gu biyok ta: "Hi, oin alpargatak bustite ze in ber diu?" ta "hanka-hutsik jungo gaituk!". Erantzi alpargatak eta hartu eskuen ta... iyiye Oñetzeaiño... Oñetz zea da... barriyo bat. Urrustil ondun daon barriyo bat. Harea ailleau giñen, iye ailleau giñen... han jantzi alpargatak. Han ibili ta etxea etortzeako busti ta puskau ta. Hurrengo astin... Bagendun bat, lagun bat, "Keixeta" esan detan horren ondokue Daniel zana o... Goizin erosten zitun alpargatak toki baten; toki jakiñien eoten zien. Ta meza ondun, bigarren meza ondun... alpargatak erosten zitun eta atsaldien beste parie erosten zun, danak puskatzen zitun atsaldeako ta! Gaiñontzien, ba, San Juanetako poza ta're oin baiño haundiyo ordun! Ez, ba, gauze ikearri eongo zalako gaurko eunien konparaute baiño! Meza nausiye ta erromilletie gonbi... zea bedeinkaute. Ta geo, arbolie ipiñi. Ta arbolie ipintzeko poza. Ta San Jun suk eta... Ba hortxe, Urrustillen... bestela jendie nahiko ondo bizi zan! Oin'e bai e! Oin'e badauzkeu geure erronkak!

5.2. Karrozarako materiala

- **Hizlaria(k)**: Agirre Perez, Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Odria, Haizea
- **Erref**: AZP-025/040
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 01:03:57. **Bukatu**: 01:05:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk
- **Laburpena**: Karrozetarako gurdia Azkoititik ekarri zuten hasiera batean. Baina gerora, Azpeitian bertan sortzen zituen. Karrozetarako ideiak egunerokotasunetik hartzen zituen.

Transkripzioa

- Hori, esan dezu... hori lelenengo karrozak izen ziela ganuekin, gurdi bat... eta gero, zuek dekoratzea.
- Bai, bai. Eta lelengo karruek Axkoititik ekartzen zien. Axkoitiyen karro bat bazauen hemengue baiño ixtuoue ta zea... Axkoititiken ekartze zan urte batzutakue, eta gero, bertan in zen karrue, bertako... in zen karrue. Ta gero, ideak eukitze nitun nik, ba, "por ejemplo" hor daon bat bezela... Bolobolo zabillen jendien artien, bolobolo zabillen, gizona illergire alleauko zala... Baietz ta ehundo bolobolo zabillen, eta orduen, koño, bueno, karrozie. Ta hortxe azalduko da. Zea, "media luna" bat, "media luna" bat e... "media luna" bat ein... oseake guk lenuo jiyo genun pertsonie harutz. Bai, geo, bai zean... herriyen ze zea zabillen ta asko beitzen niyon nik.

5.3. Lehen bertsoan erabiltzen zituzten gaiak

- **Hizlaria(k):** Agirre Esnal, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-027/023
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:38:23. **Bukatu:** 00:39:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- **Laburpena:** Orduko bertsoak adarra jotzeko izaten ziren gehienbat. Hala ere, gai serioez ere jarduten zuten. Uztapidek eta Basarrik elkarri zer-nolako bertsoak botatzen zizkieten kontatzen du.

Transkripzioa

- Ordun kantatzen zien bertsoak gehio adar jotzekok izango zien, ez?
- Bai, asko, ordun hori gehio zan oain baiño, bai.
- Gai seriotan-ta jarduten ziñeten ordun ´e?
- Bai, bai, ordun ´e jarduten zan, bai. Bai, jarduten zan, bai. Gero Baxarri zen, zea, hola alkarri gaixki esatien kontrakue ta, hola, gizon formal hoitakue. Ta harek asko zeatu zun, kanbiyau zun bersotie. Baiño haiek ´e esaten zixkoen alkarri earrak, e? Uztapidek eta Baxarrik-eta e? Nik ez dauzket hola bertsoak osuk gogun, baiño Uztapidek Baxarri esandako gauzak eta, baserritarra zala behintzet bea ´re ta baserrire hola bertsoa junda ta, "honen etxien apenas dagon ez gurdi eta ez lera, animalia bat bakarra eta honutz etorri da bera". Hori aituta eongo zea beharbada. E?
- Ez, ez!

5.4. Lehengo bertso-saioak nola prestatzen eta nolakoak izaten ziren

- **Hizlaria(k):** Agirre Esnal, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-027/026
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:43:16. **Bukatu:** 00:45:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Zinema
Aisia » Kultura » Bertsolaritza
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- **Laburpena:** Lehen ez zegoen telefonorik, baina hala ere, nola edo hala abisuak iristen zitzaizkion bertsoetara joateko. Lehen balkoitik balkoira kantatzeko ohitura bazegoen. Lehen bertso-saioak zinetan izaten ziren.

Transkripzioa

- Ta normalen nundik deitzen zizuen? Esan nahi det, udaletxetik o ezaunek o...
- Hori da gogorra! Ez telefonoiken ta ez maria santisimaiken. Ta nik abixue hartzen nun ordun nola-hala. Nik ez dakit nola baiño hartzen nun nik abixue!
- Tabernan baten o nunbaiten uzten zizuen?
- Oain baiño gehio. Ez, ez, honea berta abixue. Nola-hala alleatzen zin. Elgoibarko San Lorentzotik-ta ´re propiyo handik erten ta hona, zea, kamiñoik ez zeon artin ´e.
- Abixue ematea zuretzako.

- Bai. Bai, bai.
 - Eta gero aittau dezu bertson bat o kantau zuna balkoitik balkoira kantau zula o. Lehen aittau dezu.
 - Ze, Azpillaga? Azpillagak eta zeak, Uztapidek.
 - Ordun balkoitik balkoira kantatzeko ohitura bazan?
 - Bazan, bai. Ta ondiken ´e Axkoitin-ta segitzen diyo ohitura horrek!
 - Bai, ta Getarin ta... itten da.
 - Bai, bai. Axkoitiyen neu ´re izenda nao behin baiño gehiotan, ta, uste det oindiken ´e segitzen diyoela. Bai, urtin e... udaberriyen izeten da hori zea baten, jai eguarte baten. Ez dakit zenbat aldiz izen naizen, baiño izenda nao behin baiño gehiotan neu ´re.
 - Eta, normalen, bertso saiok ze izaten zien, plazan, antzokin, o... Nun izaten zien?
 - Hor bolara bat izen zan, dexente, oain dala urte asko, zinetan-ta, jai eguardiyen bertso saiuk jartzen zituen bolara bat ´e izen zan. Nik Xalbador ta Mattin zanakin ta hor behe alde hortan, Errenteri aldea ta hor zerien ta, hola, jai eguardiyen, bolara bat izen zan. Oain ez det aitzen hori!
 - Eta entradaik kobratzen zan? O libre izaten zan?
 - Berez kobra ingo zeбен, kobrauko zeбен.

5.5. Gustuko bertsolari zaharrak

- **Hizlaria(k)**: Agirre Esnal, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZP-027/027
- **Iraupena**: 0:00:42. **Hasi**: 00:45:19. **Bukatu**: 00:46:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- **Laburpena**: Bertsolari zaharren artean, gustukoenak zein zituen aipatzen du Joxek.

Transkripzioa

- Zuk gustokona? Bertsolari gustokona, lehengo zahar haietan, zein zenun?
 - Lehengo zaharretan?
 - Bai.
 - Ba... Ze esango dizut ba?
 - Bueno, bat igual ez da izango, bat baiño gehio izango die, baiño...
 - Bai, bai. E... Baxarrikin ez nitzen... Baxarrikin askotan tokau nitzen, baiño beakin bakarrik [eguna] oso gutxitan pasa nun Baxarrikin. Uztapidekin zeoze gehio. Ta haiek biyek ´e bai, oso gustokuek. Ta Latasa ´re bai, ze esanik ez, gustokua. Ta Joxe ta, Lizaso ta! Danak gustokuk.
 - Bakoitzek zea bat, ezta?
 - Bai.
 - Bakoitzek gauz bat eukiko zun.

5.6. Azpeitiko taberna giroa eta "tanke erdia"

- **Hizlaria(k)**: Lizaso Mendizabal, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Odria, Haizea
- **Erref**: AZP-033/010

- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:18:57. **Bukatu:** 00:20:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Aisia » Taberna giroa
Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena:** Lehen txikiteoan ibiltzea oso ohikoa zen. Azpeitian "tanke erdia" asmatu zuten, hau da, edateko neurri berri bat, baso erdia baino gehixeago betetzen zena. Horixe eskatzen zuten diruz juxtu zebiltzanek. Azpeitian taberna asko zeuden, eta batzuk aipatzen ditu.

Transkripzioa

- Ta ordun... txikiteue ta hori ohitturie izengo zan, ez? Txikiteoa ertetzie ta... Oin baiño geyo, ez?
- Txikiteue... besteik ez. Ta ardu eateko moru zaukena, ondo! Horreatik atea zebeñ hemen, beste iñun ez, tanke erdiye.
- A, neurriye?
- Baso espezialak zien, hola takie esaten zitzatenak. Eta diruz juxtu zabilenak, ba, tanke erdiye... Ta tanke erdiye, nunbait, iten zuen erdiye baiño pixkat geyo ematen zuen ardue. Eta orduen, tankie eskau berrien, bi tanke erdi. Geyo eateatik. Diru falta. Baiña taberna asko zan artien e!
- (Hiztuna 1) Tomasenekue.
- Hor plaza atzien Tomasenekue zan, Hartzubiyen Munateñekue, Errebaliñ Zabalana...

5.7. Danborradaren sorrera eta bilakaera Azpeitian

- **Hizlaria(k):** Lizaso Mendizabal, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k):** Odria, Haizea
- **Erref:** AZP-033/041
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 01:04:00. **Bukatu:** 01:05:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena:** Danborradak nola hasi eta bilakatu ziren kontatzen du. Hasiera batean, Iñakiaren garaian, norberak josten zituen bere jantziak danborradarako.

Transkripzioa

- Leno tanborradi nola izeten zan?
- (Hiztuna 1) Hauek zien "los fundadores".
- A, bai?
- Ba, izen zan donostiar bi apaiz tokau zien Azpeitiyen. Ta ordun, "accion catolica" ta bezela Oargi zan. Ta nunbait hango gaztiekin te hasi te... Handik hara hasitekue zan tanborradie, baiño geo sozidadiei eska ziyoen, sozidadiek danak itsuli zin. Hamen urte pare bat hiru bat kenduz geo beti in da tanborrada ona. Ta oin, berriz, ze esanik ez daukezu. Baiño garai hartan, guk danborrak eta danak geuk in giñuzen e!
- Bai, e? Trajiek eta're bai?
- Trajeik ez gendun. Merkena, alkonda zuriye gutxi o geyo... geyenak zaukeben, ba, etxin. Ta aurreko mantala in ber zan. Aurreko mantala iteko

jostundei batea jun. Ta han neskak ibiltzen zien josten ikixten ta: "Faore bat eskauko giñuzeko, ba, ta...". "ze?" ta "Tanborradako..." "Geuk ingo dizugu!". Neurriye gutxi gorabehera hartu, ta danantzako iuala. Aurreko mantala hayek in zizkuen.

- Kozinero jantzita?

- Bai.

- (Hiztuna 1) Kantinerak, perriz, Irunetik ekartzen zituen.

- Lelengo, bai... zea neskantzako!

- (Hiztuna 1) Neskantzako, bai.

- Bajiña bat aldiz jun giñen Irunea.

- (Hiztuna 1) Urtiitan.

- Hango konserjiei eman propiñie ta harek ematen zizkun erropak eta...

Atzea tanborradie pasatzen zanién, handiken bi-hiru eunea o astebukaeran hayek jun ta entregau ta...

- Ta zenbat talde izeten zien hasieran?

- Haseran bi-hiru... ta geo pixkena ugeltzen jun zien.

5.8. Kanpora egindako bidaiei esker asko ikasi

- **Hizlaria(k)**: Odria Iburguren, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZP-047/029
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:53:27. **Bukatu**: 00:54:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Aisia » Taberna giroa » Elkartea gastronomikoak
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Kanpora egindako bidaietan gauza asko ikasi zuten, ganadua tratatzeko sistemak batez ere: behiak jezteko makinak, hala nola. Lehen dena eskuz eta banan bana egiten zen.

Transkripzioa

- Hola aurreapenen bat honea ekarri zenduena ta...

- Ba beti ikusten zan, beti ikusten [...] "por ejemplo"...

- Ta fruitue eman zuna ta ikusten dezuena hari eskerrak...

- Batez ere ganaun tratamendun, tratatzeko sistemak eta... Guk asko kopiau genduna zan ikuilluko amarriek eta behiak jezteko makinak eta hola. Eske ikusten dezu makinak behiak jeiztekoak edo behiak lotzekoak edo ikusten dituzu, ta klaro, nahiz ta berrehun eon, hogeirentzako're baliyo du hayek alkarrei zatika juten die ta. Ta holako asko.

- Zuen garaien dana eskuz izango zan?

- Dana eskuz. Dana eskuz ta behi bakoitzak bere aska eta garbitu ber zendun banaka, eta geo hasi zian ba, zu, danak batea zea iten, ta banakako aska hoiek kendu ta danai.

5.9. Mendi-erromeriak

- **Hizlaria(k)**: Albizuri Etxaniz, Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber

- **Erref:** AZP-049/026
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:35:39. **Bukatu:** 00:36:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Bere gaztaroan Loiolan ez zen erromeriarik egiten, baina mendi-erromeriak izaten ziren. Martite, Urrategi, Kurutzeta, Aizpurutxoko erromeriak aipatzen ditu. 18-19 urterik hasi zen erromeriara joaten. Erromerietara oinez joaten ziren, pentsatu ere ez autoz joan zitekeenik. Salto batzuk egin, ahal zuenak neska-laguntza egin... bat ere txarrik egin gabe bekatua omen zen.

Transkripzioa

- ... Hor'e erromerik eitten zan Loiolan? - Ez, mendi erromeyek bai. - Nun? - Mendiyan. Tokiyan-tokiyan Martiteta, Urrategi te Kurutzeta ta, Aizpurutxo ta holakuek tokiyan tokiyan tokiyan... - Zuek hauntza jutun ziñaten? - Bai, hemezortzi urte alleau zizkunien bai, hemeretzi. Orduen, bai, jutun ginen, baiña harta bitartien dana hementxe. - Hemezortzi urtekin kotxeik bai? Ez, arten ez... - Bai, kotxiñek... ezta iñok'e! Ezta... guk kotxie... guk kotxie ekarri gendule... - Mendi sail earrak oinez bai ordun, erromeira juteko? - Hoixe ba! Ezta gaiñea, ezta gaiñea... dana holaxe zala pentsaute! Ordun iñok inbirik ez gaiñea kotxeik eta... ezta... [bazenkiyan etzeune] ekartzeik eta kotxeik eta... iñok ba al zaken ba diruik ordun!?... Ta hoixe, erromeye in de ta hantxe, ze soñue jotzen zen da... salto batzuk ingo geñizen da... geinontzien, al zunek neska-laguntzea ta, bestiek berriz, ezin zunak [segiu] hantxe. - Bai? Ez al zan pekatu hoi dana? - Pekatue... orduen pekatu asko zan e!? Bajina bat pekatu indekuek gea gu... jesus!! Baiñe.. - Eze txarrik eiteke? - Bate txarrik eiteke, pekatu! - Dana pekatu? - Dana pekatu.

5.10. Azpeitiko zinea eta bekatua

- **Hizlaria(k):** Aranguren Olazabal, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Odria, Haizea
- **Erref:** AZP-061/043
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:59:32. **Bukatu:** 01:00:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Zinema
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Lehen Azpeitian zinea bazegoen, baina bekatua omen zen hara joatea. Antzerkia zenean bakarrik joaten ziren.

Transkripzioa

- Ta azpeitin zinie ba al zeon orduen? Zinie, ba al zeon?
- Zinie? Bai, "zine luminor"...
- Luminor?
- "Potxolo timador". "Zine Luminor".
- Zeatik esaten zikon hori ba?
- E, gu zinea behin'e ez. Bai, zinea jutie pekatu zen.
- Bai?

- Hoixe, zinea jutie kartelak ipintzen zituen han, zeatik mezetatik erten [...], ta han ixikinen kartelak zineakok eta... Guri esaten zigun amak zinie pekatu zala ta ez zala jun ber ta ez giñan juten. Antzerkin bat zanin bai, antzerkiye zanin.

- Hori bai?

- Ordun bai.

5.11. Gerrako borroka gogorak Eibar eta Erreterian

- **Hizlaria(k):** Iburguren Iparragirre, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-071/030
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:49:04. **Bukatu:** 00:50:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Gerrako berriak irrati bidez edo kalean entzuten zituzten. Eibar eta Erreterian gerra gogorragoa izan zen. Etxetik entzuten zituzten hegazkinak, eta baratzean ezkutatzen ziren orduan.

Transkripzioa

- Zuek nundik enteratzen ziñeten, radioik bazenuen? Radiotik enteratzen ziñaten?

- Nik ez dakit jendiak [...], jendiak badakit radiotik segiu ta abar ta ibiltzen giñan. Baiño enteratzen giñan, bai.

- Bazuen radioik etxen?

- Radio [...] bai, izango zan, baiño bestela jendie o...

- Jendek kalen o...

- Bai, kalen esaten zeben, o periodikun eo... zeozer esaten zeben.

- Azpeiti nola geldittu zan gero?

- Azpeitiyen ez zan honbesteko [...] izen e? Hor zeon Errenteie o zan Eibarren ta hoyetan zien... Zean, ze esango det, San Antoniyoko frente hartan ze tiroteo eon zan ez zeon eoteik gure etxien, hango tiroteua aitzen zan, abiaziyu...

- Zuen etxetik aitzen zan?

- Abiaziyu hola [...]... Ta artapea etxetik ertenda, arto artan sartuta gaba pasatzen giñun, etxetik ertenda. Hola e? Dana haura ikusten giñun rrrrrrr iten abiaziyu hoi.

- Nolakok zien abioiak?

- Abioi [...] hoik, zean ibiltzen zian... bata bestiei tiroka goian ta dana [...].

5.12. Inauteriak eta zezena

- **Hizlaria(k):** Alberdi Arruti, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k):** Frantsesena, Eñaut
- **Erref:** AZP-073/017
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:25:28. **Bukatu:** 00:26:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Leturia, Ane

- **Gaia(k):**

Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Aisia » Jai-giroa » Zezenak

- **Laburpena:** Lehengo inauteriak nolakoak izaten ziren azaltzen du. Inauterietako astelehenean eta asteartean zezena arratsaldean ibili ohi zen pilotalekuan. Zezenak ihes ez egiteko Damaso Azkue lantegiko kamioia eta barrikak jartzen omen zituzten; zezena libre, soka gabe, ibiltzen baitzen.

Transkripzioa

- Baiño lehen izeten huan oingo diferentie. Ordun oain iten dan bezela astelehena ta asteartie jai ta? Ordun astelehena [...] lana iten huan. Jaie bai, jaie ya karnabal zelebratzen huan baiño ez zea, oingo... oingo zeaik ez. O trajie jantzite ertetzen huan o korbatikin-ta igual ertetzen huan ta zezena izeten huan, baiño ez... oingo festaik ez huan eoten. Zezena, zezena ta zezena. Ta astelehenien ta asteartien eoten huan arratsaldin zezena. Baiño zea, frontoi txikiyen, frontoi txikiyen, hola jardín inguruen. Oain ´e han zeok, baiño oain diferente zeok, lehen petrillekin ta zeoan, ta han izeten huan zezena. Itxite ipintzen zien buelta osuen ta Damasoneko kamiona ta barrikek eta ipintzen zitien ez eskapatzeko zezenak eta... Baiño sokaik be, e! Han... han libre ibiltzen huan zezena, e?

- Ta heu ibiltzen al hitzean zezenin?

- Bai, ni nola ibiliko nitxean, ba? Gu zean, petril gaiñien. Ez, ni zezenien... Bai, ibili izen nauk baiño urrutitiken.

5.13. Santo Tomas egunean, plaza mutu

- **Hizlaria(k):** Lazkano Uranga, Imanol
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-082/013
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:18:47. **Bukatu:** 00:19:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**

Aisia » Jai-giroa » Santo Tomas

Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- **Laburpena:** Mutil koskorra zela, Santo Tomas egunean Azpeitiko plazan izaten ziren bertso-saioak gogoratzen ditu. Bi-hiru bertso buruan hartu ohi zituen; gero, etxean kantatzeko. Saio horietan, Basarri eta Uztapide jakinekoak izaten ziren, eta hirugarrena, berriz, Txapel, Zepai edota Loidisaletxe izan ohi zen.

Transkripzioa

- Santo Tomas eguneko lehen esan detan udaletxeko argazki hori... hori zeukat nik itsatsita...

- Santo Tomas egunean, Azpeitin...

- Azpeitiko plazan hamabiyak puntuan. Eta Azpeitiko plazan, altura hartatik plazia mutu geratzen huan hayek hasten zienin e! Entzun iten huan ondo e! Oin aiñe kotxe trafiko ez huen eoten ta... Eta ni mutil koskorra jun ta entzun ez, jan iten genizkin bertsuak. Eta pare bat hiru bat buruan ekarri're bai gero etxian kontatzeko ta...

- Zeintzuk dauzkazu goguan e...

- Baxerri, Uztapide... jakiñekuak.

- Bai.

- Ta geo, izeten hittuan beste hirukote hortatik batzuten bat... batek faillatzen bestiak... Txapel, Zepai eta Loidisaletxe, urte morduan. Neretzako haiyek hituan gaiñea ez zekiat /etzekiat/ nola iteun lana koko honek... Haiyek... aurpegitan'e billatzen nitxoan nik haiyei beste jende arrunta ez zun /etzun/ irudi berezi bat, hola... bersotako berezi indako personak bezela. Neretzako haiek hituan jainkok.

6. Ohiturak eta bizimodua

6.1. Aste Santuko ospakizunak

- **Hizlaria(k):** Bastida, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Bastida, Ana
- **Erref:** AZP-008/008
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:07:40. **Bukatu:** 00:09:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena:** Aste Santuan jende asko izaten zen. Ostegun Santuz, eguerdian mezetara eta arratsaldez sermoira joaten ziren. Ostiralean, berriz, kilometro inguruko buelta egiten zuten kalbarioak eginez eta baita arratsaldean ere. Hilerriraino joaten ziren eliz-doinuak kantatuz eta ondoren gizonak sagardoa edatera joateko ohitura zuten. Gaueko "funtzioa" ez zen egiten garai hartan, gerora hasitako ohitura da.

Transkripzioa

- Gero, Aste Santun... alde hortan eo... laiste, artzayek alde in iten zun. Ya mendire jutun zien hayek'e. Hemen hiru bat hilebete o hola pasatzen zitun. Geo beak alde iten zunien, ba, hemen Aste Santuen... ze esangoizut hemengo Aste Santuko kontue. Jende asko izeten zan funtziyun ta! Ostegun Santu eunien sermoera atsaldin. Eguardiyen'e bai. Eguardiyen geyenien meza nausiye o... meza izeneko hori. Ez emen da nausiye baiño. Ta gero, atsaldin funtziyue. Gero, ostirelin eiten zan Urrustillen bueltan hor... kilometro bat ingurun o... atzeko bide batetik bueltan ostirel goizin kalbayuek. Ta geo, eguardiyen funtziyu izeten zan ta atsaldien berriz galbayuk itten zien. Kanposantura jutun giñen. Illeran jarrita galbayun kantauez-kantauez kanposanture jun. Ta han atsaldie han akabatzen zaniene sagardandeye bazan Urrustillen... ta danak, emakumiek ez, baiña gizonetzuek antxoa jan ta sagardu edan, antxoa jan ta sagardu edan. Traje berriye estrenau ostegunien ta ostirelin geyenak mantxaute izengo zeben itxea... traje hori... sagardukin. Geo, ez zan itten, ordi, gabeko funtziyo hori. Ez zan iten ordun. Hori gero hasi zan. Baiña aurten'e jende asko ibili da zea hoyetan danetan bai galbayotan, bai gabekotan ta... Daneako lain dao nunbait jendie ta kanpoa jun ez danak nunbait herriyen'e denborie pasau ezin de o... Ez dakit elizea juteatik o... Jende asko ibili da aurten e!

6.2. Soldadutzan Donostian eta Orion

- **Hizlaria(k):** Bastida, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Bastida, Ana

- **Erref:** AZP-008/010
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:15:00. **Bukatu:** 00:18:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena:** 21 urte bete aurretik soldadutzara joan zen eta Donostian eta Orion egon zen. Orduko kalabozoetako kontuak kontatzen ditu. Asistente lanetan jarri zuten aurrenetik eta gerora paisano ibili zen. Hasieran bizikletan ibiltzen zen eta gero treneko bonua atera eta etxera egunero bueltatzen zen. Orduko gertaerak kontatzen ditu. Otordua kanpamentuan egiten zuen eta lotara hango ezagun baten etxera joaten zen. Soldadutza osoa bi lagunekin pasa zuen.

Transkripzioa

- Soldau're jun gitxiñen ta! Ordun... pixket gazte samar [...] gu hogeta bat urte kupliu baiño leno jun gitxunen gu. Urte hartan hogeta bat in ber. Lelengo Donostire. Ta geo, han bi hillebete o pasau ta Oriyoko gaiñea. Zarauztik Oriyoa daon tarteko kanpamento batea. Han pasau giñan denborale puxkat eta... Gero, han'e nahiko okerra. Egun baten ez zakit, ba, nik ondo ez ibili o ze in o ze... kapitanak illi moztu! Ta kalabozun sartu ta lau eunin euki! Han kalabozu izeten hunan txapitula zahar bat. Tejabana zahar bat. Ta handik ertendakuen berriz hots ein zean. Nere bildurre. Zertako ete zan: "Ba, berriz'e ein izango diat zeoze". Aber asintente jartzeik nahi al nun galdeu zeanan. Ni ja-ta txokaute: "Honbre, beak hala iruitzen bazitzekon". Hortarako, ofizininistie bilbotarra zeonan ta bilbotar harek esan ezkondu in ber zula ta asistente bat hartu nahi zebela... bizikletan ta zekiyena ta bizikletie zaukena ta nahi zukiela... Harek esan: "Ba, hortako Bastida bezelakoik ez da konpaiñi guztiyen!". "A, ez?" ta "Ez". Baiña ez zean nei zer esan ofizininistik. Hala, hori esan zienin: "Bueno, beak hala nahi bazun". Bueno, poltsikotik eta ta itxiko giltzie eman zeanan. Abitaziyue nola zakeben hartute Bastida zea... alkilerzale hori bizi zen itxe hartan bertan. Maletan ailleauko ziela Bilbotik andregayenak ta hayek itxe hartan sartzeko. Hiruretako trenien ailleauko ziela, hayek itxe hartan sartzeko. Hala sartu ta... gero esan zean giltzi nik aukitzeko beti. Hala beti auki niñen soldautze guztiyen haren giltze hori poltsikun Geo ezkondu in ber zula, ba, ta... ezkondu hunan ta ni eun batzutan jayekin etxea permisukin. Gero ezkondu zaniyen etorri hunan ta : "Oin ze lan dauket?". Ta esan zeanan: "Oin, ba, nahi baek paisano ibili, ez daukek soldau jakin beharriken". Ta Getaiko baserri batetik esnie ekartzen zonan autobuse... ta aubusekin esne hori hartu ta ekarri. Ta gero, gora kanpamentura jiyo ta ogiyek ekarri... itxe hontako. Ta gero gaiñontzien-gaiñontzien, zeoze apartekue baldin bada [...]: "baiño hoixe dazkeu oingo lanak". Hala, banatxabillen denbora askun ta itxin lan asko zaola ta pentsau nun egunero etortzen hasi ber nula etxea. Hala, bizikletan eunero etorriyez ibili nitxiñen denborale baten. Ta gero, esan nitxonan: "aber garanti bat". Bizikletan aspertu in nitzela ta treneko abonu ateako nula. Merke ertetzen zila oso ta. "Baietz" ateatzeko. Xei hilabeteako trenan abonu atea niñan. Hutse kostatzen zitenan! Goizin jun ta hango zea hoyek iten nitxiñen ta atzea hamaike terditeko trena hartu ta etxea etorri. Etxin pasatzen niñen atsalde guztiye. Hola ibili zitzen denborada baten ta geo negu etorri zanin ba... Portaleko... nik ezautzen nitxiñen Zamaiko Miel ta Prudentxi hamen Urrustilgo matrimoniyo bat, baiño beak ni ez natxinan ezautzen. Egun baten, jai atsalde baten, han ikusi ta: "Honbre, Prudentxi! Zela [...] gu?" "Hi nungu haiz ba?" "Ni Kataingua". "Ene Kataingua! Eze ber baek behintzet

etorri hai gure etxea!", esan zeanan. Bai nik gogun hartu'e! Ta geo, ondorengo baten esan nitxonan: "Aizu, hola ta hola esan dit nahi deten lo iteko ta zea... ta lo iteko tokiye pagakoizut nik eta emango al zizuke?". "Jesus, emango ez diat ba! Bai, etorri hadi!". Harea lo itea juten nitxiñen. Porke jan iten niñen kanpamentun bertan. Ta geo, pixkana-pixkana jaten hasi han ta geyo kanpamentura ezta jun'e. Harrezkeo beti Miel ta Prudentxi horrekin pasa niñen nere soldautzie dana.

6.3. Eskola bukatu zuenetik ezkondu zen arteko ibilerak

- **Hizlaria(k)**: Olaizola Gurrutxaga, Juliana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZP-013/022
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:39:01. **Bukatu**: 00:40:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
Lanbideak » Neskameak
Lanbideak » Sastreak, jostunak
- **Laburpena**: Eskola bukatutakoan, etxean ibili zen lanean. 15 urterekin neskame joan zen bi urterako. Eta geroago, josten ikasi zuen Azpeitian. Azpeitira oinez joaten zen, eta egun osoa han ematen zuen, baserrian behar izaten ziren gauzak josten ikasten.

Transkripzioa

- Eta esan dezu eskolan hamaika urte arte ibili ziñela, eta gero lanen hasi ziñen nunbaitten?
- Etxien.
- Etxen?
- Basarriyen, ardiyek zaitu, behiyek zaitu.
- Neskame edo joaten ziñen nunbaitea?
- Gero hamabost urtekin hortxe baillera bertara bi urte pasa nitun han, eta gero bi urte pasau eta gero ba jostea. Ordun ezkontzeako jostea ikixi ber izaten zan eta josten pixkaten ez nun ezer asko ibilli're, ordun lana besteik ez zan izaten. Noizin pixkaten jostea're juten giñan ta hantxe, beste urtebete o hantxe buelta bat kalea buelta batzuk josteko izenien ta basarriyen gero honea.
- Azpeitia jun ziñen josten ikastea?
- Bai, urtebete baten.
- Zer zeon, akademin bat?
- Bai, hantxe ibiltzen giñan, eta gero hemeretzi urte hogei urte baiño leno ezkondu, ta gero gure bizimodue hamentxe larogei urte artekue.
- Josten ikastea Azpeitia nola juten ziñen, oiñez?
- Bai, goizin jun eta kalin bakaldu ta illuntzien etxea.
- Kalen nun bazkaltzen zenun?
- Ba, koiñeta baten etxea jun ta han bazkaltzen nuan, eta illuntzien etxea.
- Eta ze josten zenduen?
- Danetik, prakak eta alkondarak eta batak eta holako korriente gauzak. Holako tokire jun nintzen e? Toki fiñea ez nintzen jun. Baiño basarriyen gero josten ikixi ber zela, ez nun denbora ezta izen josten ikisteko hamen josten jarduteko, baiño behintzet ikixi ber izaten zan. Basarriko gosie, alkondarak eta prakak eta hoyek ta batak eta etxin ibili ber zan gauzie.

6.4. Aitaren eskolako anekdota

- **Hizlaria(k):** Ezenarro Salegi, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-015/020
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:41:27. **Bukatu:** 00:42:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- **Laburpena:** Aitaren eskolako anekdota bat kontatzen du.

Transkripzioa

- Gure aitta zana [...] o, hamen hazitakua zan, ta hayek'e Olatzea eskola, ermitea, ermite haren gaiñin horrek eskolia du ta, ermitea. Ta moja hori, katona esaten ziyoen ordun, ta ipiñi dittu hor bere zerien.

- Katona izaten zan liburu bat?

- Libru bat, ta han ipini mantalin, moja hori, moja horrek, ta bea segi jertsia o puntue iten moja hori, ta harek antzemango zuan, zea, letran bat nola ez zun ondo esan eo, puntua komi o izango zan... "Ez! Esan berriz hori!", segi harek berriz'e, ta petrala militarra, gure aitte zanak esaten zun hori. Ta, la ostia, amorra in zeon nunbait, ta jata hartu zioke bere jertse hori, bere zea burniya ta dana txikitu zioke aurreko aldin, ta martxa. Ez omen huan geyo eskola jun.

- Monja gaixua.

- Monjia, monjia ikusita, harek ze jeniyoetan jarriko zan hua. La ostra!

6.5. Ikasteko zaletasuna eta gogoa

- **Hizlaria(k):** Arregi Zubizarreta, Imanol
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-015/024
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:45:58. **Bukatu:** 00:47:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- **Laburpena:** Imanolek beti izan du ikasteko zaletasuna eta gogoa. 14 urterekin gau-eskolara joan zen.

Transkripzioa

- Joe, nei, berriz, aittek, aittek, aittek miñe hartu zun beyak hanki zapaldu ta hola bihurritu ziyon, ta zea, hanki dana haundi-haundi inde, ta "Imanol, eskolatik alde in ber dek". Eta nik ikasteko gogo haundiye nun, zea, estudiatzeko gogue. Ta nere ondorengo arrebak'e bai, ikasteko gogue. Ta geo're gau-eskolatan, ta neure kasaka, beitu nola gustauko zitzadan, Loyolako ataiyen zauden letrero danak letzia nahi nitun. Ta ikasten nun

handiken ortografiye: “silbar”, “koño, b-kin eskribitzen dek hori”. Ta beste bat zeon “prohibido aparcar vehículos”. Ta lehenagotik galde in ber “vehículos zer da?”. “Vehículo” beyen ipurdiye ematen [...].

- Behi “culo”!

- “Vehículo”, beyen ipurdiye ote zan nik pentsatzen, ta nik galdetu, galdetu, ta galdetu, ta holaxen, “joiño, hori h ipintzen zayok erdiyan...”

- Handik ikasteko.

- ... prohibido're bai , ta geo beti tipo horretan asko sayau nintzen. Eta gero, hamalau urtea arte gau-eskolaik ez zuen uzten, zeon, jesuitetan illuntzien eoten zan, ta hamalau urte...

- Hamalau urtekin gau-eskola?

- Gau-eskola.

- Noa?

- Loiolatxoa, lehen soziedadie zan harta. Lehengo soziedade zaharra zan, ta asko sayatzen nintzen. Beti ikasteko afiziyo haundiye. Geo oportunidadie eukiko banu igual ez nun eukiko, baiña asko sayautzen nintzen ikasten. Beitu, nik askotan esaten diyot nere semiei ta esan “zuek” (hayek gogoik ez estudiatzeko), ta “beittu nola ikesi nun. Hori dek fijatzia, ta aitu, ta sayau. Ez zea...”. Aber ba.

6.6. Erljioak sortutako beldurra

- **Hizlaria(k)**: Arregi Zubizarreta, Imanol
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZP-015/029
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:52:11. **Bukatu**: 00:53:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**: Imanolek beldur handia pasa zuen, bai elizarengatik, bai amarengatik. Ama oso sinestuna zen, eta hari nahigaberik ez ematearren, Imanol ez zen joaten elizaren arabera "bekatua" zegoen lekuetara.

Transkripzioa

- Nik, geo esaten debe bildurre. Nik aiña bildur pasautakue, ta nei askotan ikusi nauen bezela ikusi hor, panderuen ta juergan ta, nik uste det bildur horrek eman zitela indarra holako izeteko. Bildur pasa nitun...!

- Bai, Elizakin dana...

- Elizakin, ta geo gurasuek, gure ama zan.

- Halaxe huan, ba!

- E? Gure ama zan, ordie, gure ama zan. Ta gure pekatukin beak inpernura jungo zala apaizen batek esango zion, ta dana siñistu in zun. Aitte ez, aitte total desberdiñe, baiño ama...

- Eskubitarra hue.

- Ama... Bai, ama zan... zuk pentsauko dezu hemezortzi urte etorri, ta amai penaik ez emateatiken, Loyolan beste danak Aizpurutxoa, erromeire, ta han nik banekiyan jun ezkeo baltzeun ingo nula. Ta baltzeun iten banun, ta ama enteratzen bazan, beantzako izengo zan gizona hiltzia bezelakotxia. Ta jutun nintzen Errezillea Zurruntzola, han sueltua bakarrik iten zan. Ta Aizpurutxon'e taberna baten sueltua; ta Bergarako parteko tabernan

baltzeu iten zan. Ta ordun amai, harek “zuen pekatuagatik inperua jun berko diat nik!”. Eta holaxe mentalizauta zeon, ta urte morduan. Geo azkenin...

6.7. Konfesatzean gertatutako anekdota barregarria

- **Hizlaria(k)**: Arregi Zubizarreta, Imanol; Ezenarro Salegi, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZP-015/033
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:57:31. **Bukatu**: 00:58:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- **Laburpena**: Hilero joan behar izaten zuten konfesatzera. Absoluzioari buruzko anekdota kontatzen dute.

Transkripzioa

- (Elkarrizketatzailea) Konfesatzea ta, derrigorra izaten zan?
- (Imanol) Bueno, ordun...
- (Juan) Derrigor.
- (Imanol) Bueno, guk behintzet.
- (Juan) Hilero hilero.
- (Elk.) Hilero juten ziñeten?
- (Juan) Bai.
- (Imanol) Zu Loyola?
- (Elk.) Ta hoi kongregazion barrun sartzen zan?
- (Juan) Loiola, o Azpeitiyen geyenin gu, zeara, parrokira.
- (Imanol) Bai, nik Loiolan hau gutxitan ikusi det ta Azpeitire, ta Lasaoira ta.
- (Elk.) Ta zuek Loiola?
- (Imanol) Jo, Loiola! Hoi zan, inportantie hori zan. Loiola zan, bueno!
- (Elk.) Eta apaizak ze, ze kastigo, osea ze absoluzio ematen zun?
- (Juan) Absoluziyue, bolaatan ematen zun.
- (Imanol) Neuri ez zait gertau, baiño kontauko dizut. Merezi du, oain edozer gauze esateko garaye etorrita. Behin, edozer esan ber zitzan ba! Zuk jun, ta “neskakin pentsatzen eon al zea?” ta hayek pentsamento txarrak zien hoyek, pentsamentu txarrak zien hoyek. Ta...
- (Juan) Kriston dixkurua.
- (Imanol) Ta neskiei heldu o in deun, ta batek esaten diyo, apaize jun da konfesatzea ta esan diyo “In det, ba, pekatua”, “ta ze in dezu?”, eta “neska bati tititik heldu diyot” esan zuan, ta “ze, erropa gaiñetik en do barrutik?”, ta “gaiñetik”, apaizek esan omen ziyon “hau tontua, penitentziya berdin-berdiña daukek”. Haura apaiz naturala izengo huan!
- (Juan) Bai, bai!
- (Imanol) Loyolako harei esan baziyon garai baten...!
- (Juan) Kondenauta!
- (Imanol) Jesuuus! Ezta esan’e! Ta gero kezkoa, hori’re kezkoa eukitzen zendun geo. Juten zea konfesatzea, ta hasten zan, ta kaben diola, kezkatan!

6.8. Mojetan edo maristetan ikastearen arteko aldea

- **Hizlaria(k):** Amenabar Ibarbia, Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-022/002
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:01:20. **Bukatu:** 00:03:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- **Laburpena:** Umetan Olatzeko eskolara joan zen. Eta gerora, 16 urtera arte maristetan ibili zen. Neskak eta mutilak batera ibiltzen ziren Olatzen. Mojen eta maristen arteko aldeaz eta eskolako zigorrez hitz egiten du.

Transkripzioa

- Eskola noa jun ziñen? Hemen ingurua?
- Eskolan, hementxe barriyuk zun lelengo Olazko moja batekin. Hermana Felisa, Lakuntzeko, Naparruko Lakuntzekue o zan zea emakumiekin ta... gero, ya, "Hermano Maristas" o ibili nitzen hamaxei urte arte o. Gero, gerrie erten zun, eta ya erretira giñen, baiño ordun [garai hartako izeteko] eskola.
- Olazko mojetan ibili ziñen, ordun?
- Aurrenien, bai. Ta gero, "hermano marista"-kin.
- Hor zein zien maixu? Nungo mojak zien? Hemengok?
- Bai, Olazko... zea "catequistas" eo bai...
- Baiña azpeitiarrak ala kanpotarrak zien?
- Bueno, kanpotarrak eta azpeitiarrak baten batzuk bai... Hementxe komento eder hori badao ba? [...]
- Neska eta mutil ibiltzen ziñeten... elkarrekin?
- Bai, danak alkarrekin, bai, bai... txikiyek giñen ta.
- Bueno, etxetik bertan zeukezun zuk ezta? Eskola?
- Bai, bertan zaon etxie ta.
- Ta geo, maristata jun ziñen hemendik?
- Geo, marixtatan hasi giñen. Oin bezela kotxien ta ez giñuzen ematen. Praka mo-motxakin eta hotz galantakin negun ta udaran ta... hor ibiltzen giñen. Ez zauen ordun oin bezela "umiek eskola eman ber ditxiat" eta kotxeiken ez zauen, baiño hobiok ez zauen ta beira...
- Molda in ber holaxe.
- Bai, hobiok ez zauen ta.
- Ze diferentzi mojetan ta maristatan? Oso diferente zien?
- Bai. Marixtek beti're beak errespeta... gizonak die ta... Emakumie onien ta danielien ta... alegretasunien ta badu... baiño petralien petrala jartzen da. Eta marixtetan eiten zun kastigu ipintzen zun. Lelengotik grabilla beheyen, errez esaten da e... belauniko han jarri.
- Grabillan?
- Bai, grabillatan belauniko.
- Osea eskolatik kanpoa?
- Bai, eskolatik kanpoa. Eta gero, bi esku zabalik ta harekin kargaute bi eskuek.
- Harrikin? Liburukin ta aittuta neon, baiño...

- Baiño... naparra zan hermana Felisa esaten zikon, este Lakuntzakue [...] giñon oso, baiño eakusteko asko baliyo zun. Asko baliyo zun eakusteko. Gero, ya, beatzi o zortzi urte o alleau zitanien “aitte ni hor ez naiz jungo, e?” Zeatiken, jode, horrek ematen zitun palizek eta horrek ematen zitun eskutako hoyek eta ... Marixtata jun nitzen, ta ya “era otra cosa”. Beti e... beste bat zan.

6.9. Maristetan kalitate oneko irakaskuntza

- **Hizlaria(k):** Amenabar Ibarbia, Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-022/003
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:03:42. **Bukatu:** 00:05:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- **Laburpena:** Maristetan ikasteko, ordaindu egin behar izaten zen, eta oso ondo ikasten zen. Han izandako irakasle bat oso ona zen, eta enpresari onak izateko aholku baliagarriak eman zizkien. Gerra garaian, maristek irakasteari utzi zioten, eta Inazio bera baserrian aritu zen lanean.

Transkripzioa

- Maristetan e... zeozertako preparau ziñen? Gero zeoze ikasteko o ez? Danantzako obligatorioa zana, huexe...

- Ez, hola marixtetan pagau in ber izeten zan xei pezta, duro zillerreko haundi hure ta pezetie... eta ordun, danak ez zen hure oso... zea ta geo, herriko hauetako ayuntamentuek batzuentzako subentziyuek eoten zan... eta maixtetan oso ondo eakusten zebeñ. Ta geo, gaiñea, nik izen nun suertie, ikearri izen nun, zeatiken profesorie toka ziun... giñen berrota hamar, berrota hamar justuen, eta berrota hamar justuek danak enpresayuek erten zien, klase bat o bestie, bestie... zan. Baiño haren, haren... emandako konsejuek ez zebeñ fallatzen, ta gauze bat nei pasa zatena: “Mira, cuando esta bien nunca pretendais a busca de mejor. Porque mejor no existe”, ta nik earki nauken hau, oso ondo, baiño “a busca de mejor” eta prakasa in dit haren konsejue. Eta...

- Begiengatik esaten dezu?

- Bai. Eta gero, esaten zuen pertsona bat ezautzen ta zer eta a... “nola hala txikito bat o kafe bat hartzea jun hadi te dirue ateatzen... nahikue dek ezautzen pertsonie” . “Ze sentidotan?” “Paiñolo artien ta pezetie billa ezin de ta [...] Operaziyo gutxi ein harekin ze dirue dana ordenaute gauze [...]”

- Gustokoa da.

- Detalletsu ta osea... gauze askotan. Ikearri ona tokau ziun, bai. Ikearri ona tokau ziun.

- Ta esan dezu hamasei urte arte ibili ziñela maristekin?

- Bai, bakarrik... gerrie erten zun ta, gerrikin ta gero erritirau ein in ber izen gendun. Baiño geo gaiñea...

- Zeatik erretirau? Maristak ya utzi in zuen erakustie?

- Ez, ondiken'e segitzen diobe.

- Baiña gerra atea zan garayen?

- Ez, ez.

- Utzi ein zuen?
- Bueno, batzuk gerrik'e harrapu zitun, baiño ez. Gerrikin'e segi in zioben, gerrikin'e segi... Baiña guk gero auzun... este etxin laneako ta abar ta... Etxea erretira giñuzen. Ta gaiñea, baserrireko(z) hori ya nahiku zan.

6.10. Soldadutzan guardia egiteko probak

- **Hizlaria(k):** Amenabar Ibarbia, Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-022/007
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:09:27. **Bukatu:** 00:10:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena:** Soldadutza non egin zuen aipatzen du. Guardiak egiteko proba gogorak egin behar izan zituzten, baina postua lortu zuen azkenean.

Transkripzioa

- Soldauska ein zenun, ordun, San Markosen?
- San Markosen.
- Zenbat urtekin?
- Ba, hogei urte o hola izengo zan ni han jun nitzenien. Geo San Markosen, geo Irunen, ta geo Elitxun ta hango barriyotan ta hola [...].
- Eta ze puesto tokau zitzaizun soldauskan? Zure lana zein zan?
- Soldausken este... lelengotiken, ba, guardiye ein ta guardiye ein, ta guardiye itie bildurgarriye zan, ikearri kastigaute [...] guardiye... Eta deportiek eskau zituen, ba, zortzi ber zien ta presentau giñen berrotaka, bai! Eta laixtreka. Ta Burgosen erten ber genun, ta ondo ertetzen banun hiru hilabete ude, barkaziyota. Halaxe, sarjentue jarri saillen ta hartzen zigun, eta zortzi ber zien eta zortzi barruen erten duen, erten nuen. Asike barruen. Zortzigarrena nitzen hola... laixtreka, baiño juxtu-juxtu harrapa nindun. Ta...
- Ta ze proba jarri zizuen?
- Este... lelen... zeatiken, Donositiken Herrera ta juten giñen.
- Korrika?
- Bai, korrika.

6.11. Soldadutzan maldizioka ibiltzeagatik zigorra

- **Hizlaria(k):** Amenabar Ibarbia, Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-022/008
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 00:10:32. **Bukatu:** 00:11:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena:** Soldadutza garaian, Herreran gertatutakoa kontatzen du: lagun bat maldizioka ibili zen, eta zigortu egin zuten.

Transkripzioa

- Geo ze pasau zen Herreran? Mutil koskorak jun zien bere maistro... zea hoyekin. Eta harea jun zani en zea Laixtrekai txikiye o esate ziyoben, errezildarra. Ta maldiziyo... zea bota zun maldiziyoue... eta ordun, atentziyu eman ziyoben zea horri laixtrekai horrei ta... Ordun umildu balu eta barkauzu ta istoriye esan balu... jota hi beai berriro ta... Loiola [...] regres egunien bazkaltzea ba: "tu, zuek, hasta este... nueva orden segi guardia itea ta abixauko dizuegu". Ondik ez digu abixau, onuzkeo ez digu abixauko. Eta bestie hartu eta kalabozoa sartu zeben, hilebeteako sartu zeben. Gero hor ordun guardiye iten, hantxe guardiyen...

6.12. Eskolako prestakuntza

- **Hizlaria(k):** Agirre Perez, Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Odria, Haizea
- **Erref:** AZP-025/009
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:12:24. **Bukatu:** 00:14:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Zer eskolatara joan izan den azaltzen du. Prestakuntza ona eman zioten Maristetan. Kaputxinoen eraikuntza duela gutxi bota dutela aipatzen du.

Transkripzioa

- Ta zu txikitan noa jun ziñen eskola, hemen Azpeitin?
- Ni lelen parbulotan. Parbuluk zauden, oin gigantiek ta ateatzen ditube ba? Hortxe, hortxen behien zauen, parbulutan. Geo parbulutatiken pasa giñen zeara, goiko eskola. Oin aiuntamentuk alde hontatiken bigarango zea pisu badauke ba? Hortxe gendun guk maixue, osea, eskolie. Ta geo handiken belaxe samar ya Maristeta pasau nintzen. Ta nik Maristetako zea, neure formaziyue Maristek. Ordun Maristek zea haundiye zaukeben hemen e? Ze pena ematen dun. Ta atzo leetzen nun [...] ta azpeitiarrak badie han ikasi zebenak. Maristek hor beste batzuek zien, zean, Naparruen hamen goialdetiken, Goizuetan o ez dakit nun zien, Kaputxinos. Ta Azpeitiko jendie're bazien haruntz jundakuek, han estudiau zebenak. Ta lengokuen, atzo periodikuk o heraiñeukuk esango zun, dana bota in debela [...]. Ta kritika jartzen zuen: historian eta hainbeste herriyei eman diyon zea bat, etxe bat, nolatan... dana bota debela. Ta Azpeitiyen badie han estudiautekuk. Dozena erdi bat eo.

6.13. Eliza lehen eta orain

- **Hizlaria(k):** Agirre Perez, Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Odria, Haizea
- **Erref:** AZP-025/021
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:33:07. **Bukatu:** 00:35:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena:** Elizak lehen indar handia zuen, eta elizatik kanpo zeuden kontuetan sartzen zen. Gaur egun bizia hobeto dagoela dio. Herriko erretorea aipatzen du. Lehengo apaiz ezagun batzuk aipatzen ditu.

Transkripzioa

- Ordu eliziek'e indar asko zauken ez?
- Bai, bai, gaur hobeto dao. Orduen, nik ze esango dizut... nik horregatik esaten det gaur hobeto daola elizie. Zeatiken orduen elizie, nik uste det elizetik kanpoa geyegi sartzen zala. Ta gaur hobeto dao. Gaur nik "por ejemplo" Azpeitiko erretorie asko maitte det, asko baliyo du te. Ta horrek ez du bat'e herriyen zeatzen, ez da zeatzen bat'e, e? Ze gizon sentzillu ta zea daukeun. Ta langillie. Leno zeago zan, hombre, aizu, apaizen bat ikusitakuen, ta hamendiken Banco San Sebastian horta, ta apaiz bat ikusitakuen lasterka, ta "ave maría purísima". Oin?
- Ta akordatzen zea hola garai hartako apaizen bat hola pixket ezagune o?
- Orduen?
- O pasadizon bat?
- Orduen famie... parientiek? Parientie... orduen famoso zegon hamen, honbre, Kasiano Garaialde erretorie, zea, bestie, don Modesto Madariaga, takarra, takarra... batien batien korun eman zin koskorreko bat, kank!
- Ze in zenun ba?
- Takarra! Hitz eiten ai nintzen! Hitz eiten ai nintzen ta! Bai, geo... Bai, gaur gaur elizie herritiken han. Elizie han jokutzen du gaur geyo. Lehen, orduen beste zea bat zan, "demasio".

6.14. Eskolara joan nahi eta ezin

- **Hizlaria(k):** Agirre Esnal, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-027/003
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:04:38. **Bukatu:** 00:06:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Eskolan mutilak bakarrik ibiltzen ziren. Apaiz frankista bat zuten maisu. Eskolan oso gutxi ibili zen, etxean lanean geratu behar izaten zuelako, baina eskolara joateko gogoia izaten zuen.

Transkripzioa

- E... eskolan neska eta mutil alkarrekin?
- Ez.
- Mutillek bakarrik?
- Bai.
- Bai, aaa.
- [...] ingo geldula bestela ta...
- Bazpare aparte. Ze maixu zittuzuen?

- Ba, guk apaiz bet.
 - Apaiza?
 - Apaiz eosgoor bat.
 - Hemengoa, Lasakoak?
 - Ta frankistie gaiñea, hain zuzen.
 - Al zan?
 - Bai. "Cara al sol" ta dotriñie ikixi giñuzen guk!
 - Derriorrezkok hoik?
 - Bai, derriorrezko hoiek. Ni eskola hasi nitzeneako beatzi urte o banittun e... Badakizu hamendiken zihero umie... Oin bai, oin kotxiekin ematen ditue zearaiño ta, oin txikiten hasten die, ta utzi niyon hamaika urtekin ta ni ikeragarri gutxi ibilitekue naiz eskolan. Etxien ardiyek-eta bazien, eta gure aitte zanak izeten zun ardiyek zaitu ber ziela o beti zeoze... Goguen daket amona zanak aitte zanai erritan jarduten ziyola nik eskola jun nahi ta uzten ez ta nearrez ta [...] mutil kokkorra.
 - Zuk jun nahi... jun in nahi?
 - Jun in nahi nik. Ta "gu zuek bieldu ezinda ibiltzen giñen eskola, eta horrek jun in nahi te ez diyozu utzi ber?" ta gure aittei bere amak esaten zizkon hoiek, nere amonak. Holaxe ibiltzen giñen. Baiño ni oso gutxi ibilitekue naiz eskolan e!

6.15. Eskolako ikasgaiak eta debekuak

- **Hizlaria(k):** Agirre Esnal, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-027/004
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:06:04. **Bukatu:** 00:07:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Ohiturak eta bizimodua » Katak » Kantei buruzko azalpenak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- **Laburpena:** Eskolan Cara al Sol abestu behar izaten zuten egunean bitan. Eta dotrina ere ikasi behar izaten zuten. Dotrina ezik, gainerakoa erdaraz ikasten zuten. Euskaraz ez hitz egiteko zer zigor jartzen zieten azaltzen du.

Transkripzioa

- Esan dezu 'Cara al Sol' kantau ber izaten zenduela?
 - Hori bai, derrior.
 - Goizeroko lana izaten zan?
 - Eunien biten.
 - Eunien biten?
 - Eunien biten.
 - Goiz ta atsalde juten ziñaten, eskola?
 - Eee... bueno atsaldien bakarrik ibiltzen giñen gu, jeneralien.
 - A, bai? Atsalden bakarrik?
 - Gu bai, baiño 'Cara al Sol' pare bat aldiz kantatzen gendun hala're. Ta geo, dotriñie. Ordun dotriñie ikixtie zihero beharreko gauzie zan, badakizu? Ordun dotriñie ikixten ez baldin bazan ez zaon salbaziyoiken. Ta... hoixe, gaiñontzin ze ikixi gendun ba guk! Zeoze, eskribitzen ta're... baa,

defenditzeko aiñe ikixi gendun baiño...oin jardun ez ta ahaztu ikixiteko [...]

- Zuek dana erderaz ikasiko zenduen gaiñea?
- Guk... bai, bai. Bueno, dotriñie euskerazkue zan e...
- Gaiñontzekoa erderaz?
- Bai. E... zea bat ibiltzen gendun, medailla zahar haundi bet. E... euskeraz hitz eiten ikusten zanai hure eman ber. Zeukenak, nik banauken, nik ikusten banun beste bat euskeraz hitz eiten, nik hari eman ber, kastigu bezela.
- Kastigu bezela?
- Bai. Ibiltzen gendun... ta nik... uste det gaiñea neuk ibiltzen nula... euskeraz iten nun beti ta!
- Ba, besteik ez jakin ta!
- Jakin'e ez ta... hoixe ba.
- Ze ingo zendun ba!
- Hoixe ba, hoixe ba... hoixe ba.

6.16. Eskolan jesuitekin eta abadeekin

- **Hizlaria(k)**: Arregi Urbietta, Albina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZP-029/005
- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 00:06:57. **Bukatu**: 00:09:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena**: Lehenengo komunioa Loiolako eskolan jesuitekin zebilela egin zuen. Gerora, kalera joan ziren ikastera, Azpeitiko Karitateko Miserikordiara. 11 urterekin bigarren komunioa egin zuten. Hango apaizak jesuitak baino gogorragoak ziren, eta haien beldur egoten ziren. Jesuitak eta apaizak euskaldunak izaten ziren.

Transkripzioa

- Eskolan nun ibili ziñen?
- Eskolan... Loiolan, lelengotik. Lelengo komoniyue Loiolan ein nuen, Etxe Santuen e! Iten genduen xei-zazpi urtekin, iten gendun.
- Bi in zittuzun? Bi komunio...
- Bai. Ta geo, kalea hasten giñen eskola ta etortzen. Lelengotik jesuitek erakusten ziguen dotriñie lelengo komoniyo hori iteko. Eta hure iten gendunien, geo Azpeitire, eskola.
- Azpeitia, noa?
- Azpeitire e... ni zea kadi, karidadeko zeara...
- (Hiztuna 1) Mixikordire.
- Mixikordire.
- Mixerikordia.
- Eta...
- Ze mouzko eskola garaie?
- Geo, horrea etortzen giñen. A, ta geo zea... dotriñie ikixi in ber, ba, berriz, hamaike urtekin beste komoniyue. Ordun, apaiñe. Txuri-txuri jantzite, apain ordun. Eta abariekin, abariek hartzen ziguen zea...
- Lezioa o...

- Guk bildurre abare hoyekin. Izen'e, jesuitekin xuabe-xuabe ohitute geunden e! Xuabe-xuabe, jesuitek!

- Ta abadek gogorro?

- Abadik gogorro!

- Ta dotriña derriorra izango zan ordun, gaiñea?

- A, bai berko. Eta aldamenekue asmau ezinik o zea ai bazan... zeoze hitzen bat o esaten baziñon "aizu, ixilik e! Bestela zeuri...".

- Bestela kastigue norbeai. Oseake abadek gogorrao zian jesuitak...

- Bai, neretzako bai.

- Bai. Ze izaten zian hemengok abadek eta jesuitak? Ala kanpotarrak?

- Jesusitek? Ez, tokatzen zana.

- Euskaldunek?

- E... bai, bai... bai, bai. Euskaldunek, jesuitek. Ta abarik'e bai, ezautzen giñuzen baiño ez gendun hola tratatzen eze ta. Gu jesuitekin beti umil-umil ohitute geunden.

6.17. Azpeitiko tabernak eta kasinoa lehen

- **Hizlaria(k)**: Lizaso Mendizabal, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Odria, Haizea
- **Erref**: AZP-033/009
- **Iraupena**: 0:02:42. **Hasi**: 00:16:15. **Bukatu**: 00:18:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
 Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
 Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak
- **Laburpena**: Lehen Azpeitian zer taberna zeuden aipatzen du. Kasino bat ere bazegoen hotela zuena. Bittorren tabernari buruz hitz egiten du, eta Bittorren ateraldi batzuk aipatzen ditu.

Transkripzioa

- Eta... ordun ba al zauen hemen taberna... hola ezaunik?

- Tabernak? Aurreko hau beti ezautu det. Euzkitza ez zan. Baiño... hor zien, oaintxe bezelaxe; Takolo Txikiyenekue, Pedronekue, Ustarriñeku ta Olkiñeku. Lau erreskan. Gero hor behera Galtxanekua... Erdi kalin taberna gutxi zan.

- A, bai?

- Ta geo...

- (Hiztuna 1) Barberiye hamen aurrin.

- E?

- (Hiztuna 1) Hamen aurrin estankuko... barberiye.

- Beti, hor bai.

- (Hiztuna 1) Olkiñekue ta Aureliñeko dendie...

- Gero, hure gero.

- (Hiztuna 1) Gero?

- Bai. Ta goyen zien beste... bi-hiru taberna. Antonenekua... oain "Fideo de mileto" o dao... Geo, oin banku ta dauren plaza txiki hartan, han kasinua.

- Kasinu al zaon Azpeitin?

- Hor?

- Bai, e?

- Haundiye, hotel da guzti.
 - Ez nekin nik hori.
 - Bai... Hori dana zan... Hasi hortiken ta Bitorreneaña bitarteko hori... tartien beste etxe bat, eta hotela. Ta beheyen tabernie ta komedorie ta... goyen'e bai. Bodak eta danak iten zien hor.
 - A, bai e?
 - Eta goyen zeuzkeben... jardiñe oso earra! Ta frontoie, oin daon hori? Kasinoko frontoie zan. Oso kuriosu zan hori! Geo, Azilonenekue ta hurrena Bitorrena. Mundun tabernaik famosuna!
 - Ze ba zan famosue ba?
 - Famosu, bea zalako halakue.
 - Bea...
 - Horko nausiye nik ez nun ezautu, errena emen zan. Ta horreatiken omen zuen Tojuneku izena. Ta geo, Bidaniko bat etorri zen horrea, Bittor. Ta... hark dana haundiye zun ba... hola hizketan hasten zaniyen ta erokiye zan... Ta kemiona ekarri zun semintzako... ta garai hartan oin bezelako erreztasunik'e ez... Kamion haundi zamarra zan, bai, garai hartako ta galde diyo: "Jo, Bittor, hori dek kamiona ekarri dekena..." "Kamiona ez dek hau!" "Zer dek ba?" "Hau trena dek!". Holako ateraldi asko zittun. Ta beak esaten zun bi gizonen erten zebela Bidaniyen. Obispu zan bat, Bereziartua o, hamen Donostin eon zan. Hure ta bea.
 - Bi gizon bakarrik?
 - Bi gizon bakarrik.

6.18. Valladolideko maisua eta falangeko kantuak

- **Hizlaria(k)**: Aristi Garate, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZP-036/003
- **Iraupena**: 0:03:35. **Hasi**: 00:02:00. **Bukatu**: 00:05:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Eskola eliza aurrean zegoen. 64 mutil inguru ibiltzen ziren maisu bakarrarekin. Maisuak atzamarka egiten zuen, eta zigor txiki batekin hanka-zainetan ere jotzen zien. Maisua Valladolidkoa zen, eta ez zekien euskaraz. Igandetan mezatan hitz eginez gero, eskolara joandakoan zigorra izaten zuten. Eskolatik irtetean falangeko kantuak abestera derrigortzen zituen.

Transkripzioa

- Ordun zuk ume-umetatik taberna ezautu zendun?
 - Tabernan. Eskolan 'e ibili giñen pixket eta... Hamen eskolan ta...
 - Hemen, nun zan eskola?
 - Hortxe, hortxe bertan, hortxe aurreko elizien azpiyen, hola, tejabana bat. Maisu batekin ibiltzen giñen hiruroeta lau lagun edo, mutil kozkorrek.
 - Hiruroeita lau?
 - Bai, maisu batekin danak hantxe. Gero maisue gogorra zala ta esaten gendun baiño baita behar ere hainbeste mutil kozkorrek! Zea, hola atzamarka ta iten zitun. Zigor txiki bat eukitzen zun ta harekin 'e ematen zigun hemen hanka-zaiñetan. Ta...
 - Nungoa zan maisue?

- Maisue zan Valladolidzkie. Ordun hamengo maisuik ez zeuen /etzeuen/. Ordun danak kanpokuk zien, danak kastellanuek. Ta gero oso elizgoie zan eo, behintzet ematen giñuzen jaietan meza nausire, danok meza nausire jun ber. Ta bea han eoten zan. Ta iñor ikusten bazun hola hizketan eo hurrengo egunien, zea, eskola jundakuen, kastigue.

- Derriorra zan ordun?

- Derriorra, jun ein ber! Jute ez baziñen e, hoixe, hizketan o ikustie nahikue zun hurrengo egunien eskola jundakuen "da!", kastigue. Belauniko eo, belauniko eonaldiye ein eo atximurkan bat eo zeoze holakon bat.

- Sekula jo zizuen?

- E? Jo? Bai, zeakin bai, zigorra... hola, zumie o zigor txiki bat eukitzen zun ta hamen, hanka atzien ta jotzen zun, bai.

- Eta erderaz ikasiko zenduen.

- Erderaz, harek ez zekiye /etzekiye/ tutik´e euskeraz, erderaz. Ta gero atsaldeko laurek o eztakit ze ertetzen gendun, gero kanta in ber zea, "Gloria a España" o: " Gloria, gloria, tu nombre llevaremos donde quieras tú, que honrarlo [es la] ley". Kantu hori kantau ein ber gendun gero!

- Eskola sartzeakon o ertetzeakon?

- Hori erteteakun. Erteteakun. Hori ta beste... batzuten hori ta bestin beste kantuk eta, gehiyo´re bazien hor falangekuek eta.

- Besten bat badakizu? Gogon daukezu?

- "Por dios, por la patria y el rey lucharon nuestros padres. Por dios, por la patria y el rey lucharemos nosotros también."

- Ta kanta in behar.

- Kanta in ber. Ta hoixe. Gero izeten zan hor "novenas de..." konzeziyotako nobenak eta re izeten zien, ta ordun iten gendun nobenie ein, erteteakuen edo, nobena hori, letu ta errezau, aita gure bat eo zea ein ta ala, "a la calle".

- Goiz ta atsalde izaten zenun eskola?

- Bai, goiz ta atsalde, bai. Baiño, pentsa zazu, maisu batekin hirurotaka ibiltzen giñen, e! Danak hantxe. Batzuk hamar urte, bestiek sei urte, bestiek hamaike... Askok lagatze ziyoben hamabi-hamahiru urtekin, basarrikuk eta.

- Zu zenbat urte arte ibili zinen?

- Ni ibili nintzen hamalau urte arte ibili nintzen hor. Ta gero Eibarren ibili nintzen, zerien, "Escuela de Armería"n.

6.19. 'Don Quijote' eta irakurketa

- **Hizlaria(k):** Aristi Garate, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-036/004
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:05:35. **Bukatu:** 00:07:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Leturia, Ane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Irakurtzen, idazten eta geografia ikasi zuen. Don Quijote de la Mancha liburua zuen irakurtzen zuten gelan.

Transkripzioa

- Ze ikasten zenduen hemen Urrestillan?

- E?

- Ze ikasten zenduen, dotrina o?
- Ze ikasten zan? Joño, ze ikasten zan? Ba letzen, irakurtzen, letzen, eskribitzen ta hoixe, base natural hoiek. Letzen ta eskribitzen ta. Gero mapie haundiye eoten zan ta mapan ´e "aquí está esto, Guadalajara". Hamen zera dao, Valentzia, hamen Sevilla ta geografía zea hori.
- Euskeraz hitzik itten bazenduen?
- E?
- Euskeraz hitzik itten bazenduen, kastigun bat?
- Ez.
- Hala uzten zizuen?
- Uzte uzte eztaikit uzten zun, baiño hitz eitie izengo gendun. Gu mutil kozkorrak erderaz ez gekigun ta! Hitz eitie izengo gendun euskeraz. Ta gero bere liburue zun 'Don Quijote de La Mancha', zea liburu haundi bat da, holakoxe loriye. Jartzen giñen ileran hure pupitrin hola, hure bea erdiyen dala, ta ileran jartzen giñen zazpi o zortzi mutil, bakoitzek liburu bana hartu ta hure irakurri in ber, zea. Ta "A ver tú! Empieza". Ta letze zun ta gero uste ez zendula, "a ver tú!", esaten zun ta aber segitzen ziyozun o ez ziyozun /etziyozun/ haren lektura horri. Ta batzuk segitzen ziyoben baiño beste batzuk... beste zea ta... Ta gero ordun badakizu.
- Ordun ´e kastigue.
- Zeoze kastigue, bai ba. Hola.

6.20. Apaiza txiza egiten

- **Hizlaria(k):** Aristi Garate, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-036/006
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:07:31. **Bukatu:** 00:08:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Leturia, Ane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Jendeak eskolatik irteteko presa izaten zuen. Eskola atzean, txizatokia zegoen; eta, bertan, apaiza txiza egiten ikusi zutenean, harrিতuta geratu zirela kontatzen du algaraka.

Transkripzioa

- Hoixe. Ni akordatzen naiz behin eskolatik lau terditan o erten gendun mutil kozkorrak eskaillerak goitik behera jo-ta batzuk hankaz gora ta erteteko amorratzen eoten zan, ba, jendie! Ta batzuk lehen o erteten zebe ta bestik lehen o ta. Behin gu eskaileatatik, ni ordun, ni ta bestiek eskailleretan behera guzela lehelengo erten zebe haiek, hamen atzin zea zeuen... hamen atzin zea zeuen, pixe iteko toki txiki bat zeuen, txiki-txiki bat. Holaxe aurrin ta hola [...]. Etorri zagu lehelengo aurretik erten zuna, "Hi,hi! Zea, apaize txixeiñin ai dek, hi, txixeiñin ai dek!" ta "bai?" ta jo-ta danok jun ta hari beire, zea, apaize txixeiñin ai zala txokaute danok! Ta holakotxe kontuek.
- Apaizak errespetua emango zon gaiñea garai hartan.
- Jolin, baiño guk ez gendun... ignorantziye gendun! Apaizek txixe in ber zunik ez gendun ba guk pentsatzen. Ta "Apaize txixeiñin ai dek" ta hortxe gitxitxik danok hari beire, hure ikustea!

6.21. Apaizari "ave maria purisima"

- **Hizlaria(k):** Aristi Garate, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-036/007
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 00:08:37. **Bukatu:** 00:09:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Leturia, Ane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa
- **Laburpena:** Apaizarekin gurutzatutakoan "ave maria purisima" esan behar izaten zen. Apaizek sotana luzea ibiltzen zuten; Goierri aldeko On Tomas Telleria apaiza gogoratzen du.

Transkripzioa

- Apaiza ondoren pasatzen zaren reberentzin bat o zoeze eitten ziozuen?
- Bai, "Ave maria purisima" ein ber zitzekon. "Ave maria purisima". Beaiiek sotana haundiyekin ibiltzen zien.
- Zer zan hemengoa apaiza?
- Ez, ez, hamengue ez. Hamen inguruko herri hauetako ingurukue. Zeakue ta, goierrikue ta, Goierriko Don Tomas Telleria, eztakit ze herri dan, hor Goierri aldekie.

6.22. Eskolara gutxi joan ahal izandakoa

- **Hizlaria(k):** Odriozola Aranberri, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-037/003
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:05:16. **Bukatu:** 00:06:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Baserrian lanik ez zegoenean joaten zen eskolara. Eskolako maistrari buruz hitz egiten du. Eskolan gutxi ikasi ahal izan zuen.

Transkripzioa

- Ordun eskola... juten ziñen... gari ittea bukatzen zenunian.
- Gari iti bukatzen zaniñen juten nitzen, eta, berriz, udaberriyñen e... lurre, patati iteko o lurre preparatzen hasitzen zaniñen... Akabo! Itulie o zea o... hautz ta honutz ganauen aurriñen.
- Nungo maestra zenuen?
- Maixtrie... hemen zean... basarri batekie. Hemendik Atzerreka (Aratz Erreka) birien, eztao... kamiño ixkiñen. Altsasu o baserriyñe. Felisa Korta, Alkor... nola zan? Felisa... Korta. Korta zan, bai.
- Ta nolakoa zan zuen eskola garaie?
- Gure eskola garaye... hantxe. Dotriñie ikixi ezkeo dana bale zan. Ordun dotriñie, eta letzen ta eskribitzen... ta holako gauze batzuk ikixi te... Geo

geyo ibili zinak ikixi zituen zeak'e matematikak'e, baiño nik ez nun matematikaik ikixi... "restar"... "dividir"-eaño ez nitzen ailleau. Baiño nik errezt kontau ditut izen dituten diruek eta gauzak e!
- Bai, ez ta!

6.23. Euskaraz ez egiteko, eraztunaren zigorra

- **Hizlaria(k):** Odriozola Aranberri, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-037/004
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:06:09. **Bukatu:** 00:07:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
Euskara » Euskararen egoera
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Eskolan ezin izaten zuten euskaraz hitz egin, nahiz eta gaztelaniaz ez zekiten. Eraztunaren zigorra jartzen zieten euskaraz ez hitz egiteko. Hala ere, ez ziren beren artean asko haserretzen zigor horrek zekarren areriotasunarengatik.

Transkripzioa

- Leitzen ta eskribitzen ta ikasi zendun.
- Bai, letzen ta eskribitzen... ta hoyek. Ta gaiñea, euskeraz ez genduke hitz eiteik eskolan. Hori zan beste gauza bat! Geo danak euskaldunak, tutik ez genekuin erderaz ta ezin, ezin hitz ein euskaraz. Eoten zan anillue, hola alanbre bat... erderaz, euskeraz hitz eiten bazenun hure ematen zizuen. Eta beste batek euskeraz, erderaz... eo euskeraz hitz eiten zun arte hure zuk... hari azkar ematea. Astebukaeran zeakin... anillo horrekin gelditzen baziñen erriel bat eman ber astelehenin eskola.
- Errial bat... ordaiñetan?
- Bai, ordaiñetan... eaman ber. Pentsau zazu gu ze erdalduñek giñen Atzerrekan (Aratz Errekan)! Akordauta're...
- Maestra bea're euskadune zan...
- Euskadune, euskaldune... baiño... harek obligaziyo hoixe zauken. Guri erdera, euskeraz... eo erderaz erakustekua. Letu're erderaz eiten gendun. [...] Letzen gendun. Dotriñie euskeraz, klaro. Hure euskeraz.
- Eta anillo hoi zenek aukitzen zun?
- A, hure eskolan eoten zan. Eskolan eoten zan, baiño astebukaeran gelditzen zunak etxea eman ber izeten zun. Eta, zean... tonteriye geo zenek esango ziyoen hayei... euskeraz hitz ein geldule o ez gendule. Nik behintzet iguel-iguel hitz eiten nun astebukaeran euskeraz. Errealta eaman astelehenin ta ya esta. Baiña askotan ez giñen... alde in'e... sayatzen giñen zeakoen bati ematen... basarri... urrutiyokon bati ematen. Horixe.
- Hoi komerik.
- Gure... bai, eta...
- Zuen arten'e haserrek izengo zittuen, ba, alkarri anilloa eman ber ta...
- Hasarre, ez. Zai eoten giñen batematek hitz eiten zunien, euskeraz hitz eiten "ta!" azkar eman. Hasarrau etsi-etsiyen [...]. Bai hasarratzen giñen, jo jolasien o genbiltzela o alkarrekin hasarraute baiño... udera... Hola iñokin haserre haundik ez gendun izen...

6.24. Eskolako metodologia eta ikasgaiak

- **Hizlaria(k):** Odriozola Aranberri, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-037/008
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:10:09. **Bukatu:** 00:12:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- **Laburpena:** Eskola nolakoa zen deskribatzen du. Adin desberdineko jendea ibiltzen zen, denak batera. Liburu bakarra erabiltzen zuten, denetarako balio zuena. Dotrina goitik behera ikasi behar izaten zuten. Beraiek ez zituzten bi komunioak egin, baina hala ere, dotrina ikasi behar izan zuten.

Transkripzioa

- Nolakoa zan eskola? Mahaiek eta...
- Bai, mahayek eta tinteruek zeuzken hola, tinte... badakizu zean bustite... plumie tintetan bustite ta eskribitzen zan.
- Ta hue mahaien izeten zan?
- Mahayek zuluak eukitzen zitun. Zuluak eta zulueta pinteruk. Bankue. Zu jartzeko bankue. Mahai bat aurrien, oin bestela pupitre daona ez, luzien. Eta geo mahai handi bat zeuen eta haren buelta txikiyek, txiki jendie... eukitzen zitun. Bea exkiñan jarri eta buelta letzen erakusten ta...
- Edade diferentetakok...
- Bai, danak. Edade danetakuk. Osea... ez zan hamabi urte o hamalau, hamahiru-hamalautik aurea iñor ez zan juten, klaro, eskola. Ordun, badakizu, hamalau urtekin lanea zan. Baiño, gaiñontzien neska ta mutil edade danetakuk. Eskola hasi're ordun iten zan, pues, sei bat urtekin eo hola, ez zan txiki-txikik hasten. Han bertan, kale gertukok eta igual... gure bestekuk eta mutil koxkorak pixkat gaztetxoik hasi zian, baiña ez... Ez zan, sei urte arte ez zaon obligaziyoik eskola umi bialtzeko.
- Liburuk?
- Liburube? Liburue ze izengo zan. Liburu zan... entziklopedi bat... bazan gure etxin danak zauzkena zea guztiyek... [...] oin hainbeste liburu zea bakoitzeako.
- Dana baten?
- Dana batin, bai, bazan. Eta guk... besti letzeko liburue "Para mi hijo" ipintzen zuna zan. Erdal, erderaz letzen zan, erderazkue. Eta gaiñontzien, kuadernuk eta lapitzek o plumie eskribitzeko. Eta holaxe, ez gendun zea haundiken. Dotriñie... hure bai. Haure "aquello habia que aprender de pe a pa".
- Ta hue... apaizak ematen zun.
- Bai, baiño eskolan'e bai.
- Eskolan'e bai?
- Eskolan'e bai. Geo...
- Ta dotriña euskeraz zan?
- Geo... bai, euskeraz dotriñie. Ta zazpi urte arte, txikiye... osea lelengo komuniyue ein arte. Eta gero, handi aurea haundiye. Atzerrekan ez zan komuniyo haundik iten, e! Ez zan... toki batzuten hamabi urtekin ta geo komuniyo haundiye... komuniyo general esaten zitzekon, han ez zan iten.

- Ez zan eitten?
- Ez zan iten, baiño dotriñie ikixi bai, e! Dotriñie, eskola... zea geo-geo arte. Dotriñi ikixi...
- Eta dotriña horrek normalen komunio handie eitteko balio zun.
- Bai, bai.
- Zuen kasun zertako...
- Ikixi, dotriñi ikixteko.
- Ta lezioa hartzen zizuen.
- Leziu hartzen zigun, bai. Baiño, klaro, nik behin eskola jutie utzi niyonien hamaika urtekin ez zien geyo iñok hartu. Hori ez.

6.25. Emakumeen estilismoa lehen

- **Hizlaria(k):** Unanue Odriozola, Maria Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-038/015
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:17:07. **Bukatu:** 00:18:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena:** Lehengo janzkeraz, orrazkeraz eta makillajeaz hitz egiten du.

Transkripzioa

- Esan dezu gona plisatuk, mediak...
- "Medias de cristal", horrekin akordatzen naiz.
- Ordun gona jazten zenuen ordun?
- Bai, bai, bai, gona plisatu bat banun, gorrixka hola, ez dakit, "Príncipe de Gales" ez, baiño ba, zerbait hola, eta beste soiñeko gris bat peto batekin hola, ta bai, bueno.
- Eta orrazkera ta makillatu ta hoik?
- Ke ba, bueno, illie moztu, moztea pelukeire, moztea, baiño hortik aurea...

- Makillajeik izaten zan? Ez?
- Ezta ezpaiñek pintau're, ezta ezer'e. Hori gero ya haunditu nintzenien, pixkat nere kexa, baiño han ezta ezer ez nun ein.
- Pelukeria ta juten ziñaten?
- Hori, illie moztea bakarrik.
- Ze eramaten zan: ille motza o luzea?
- Bai, motza, geyena motza zan, ibiliko zan ordun eta gero ya haunditzen,ta pixkat hasi nintzen nere kexa baiño, han ille motza.

6.26. Baserritarrak vs kaletarrak

- **Hizlaria(k):** Unanue Odriozola, Maria Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-038/027
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:31:29. **Bukatu:** 00:32:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- **Laburpena:** Arropak anai-arreben artean konpartitzen zituzten. Kaletarrek burla egiten zieten baserritarrei.

Transkripzioa

- Makiña bat erropa ibiliko zenduen, batek utzitakoa o ondo geratzen zitzaiona [...].
- Ahizpek behintzat, bueno, ahizpek alkarri: "ai, nik hau jantziko niken ba, ta, hori jantziko niken ba, ta"... Eneee, bueno, ta iñok emandako erropakin eukitzen gendun holako nobedade bat bezela eukitzen gendun hola.
- Nahiz ta ibilitako zaharrak izan?
- Bai, bai, bai, bai.
- Antzematen zenuen baserritarrak eta kaletarran arteko burla hori, edo baserritarrak ziñatelako?
- Bai, bai, baserritarrak beti pixkat hola, ze esango dizut ba? [...] ez, baiño bai. Ta oin esaten debenin, "ala! Beitu baserritarrak halakuk" eta "baserritarrakin kontuz e?" esaten diyobet "zeatik ez die, ez die atzea beira etekuk eta e?". Holakuk esaten dizkobet e?

6.27. Eskolako ohiturak norbait hiltzen zenean

- **Hizlaria(k):** Azkune Zubiaurre, Maria Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-043/003
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:02:32. **Bukatu:** 00:03:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- **Laburpena:** La Milagrosa kolegioan ikasi zuen Azpeitian. Oinatzenean bazegoen eskola. Norbait hiltzen zenean, Oinatzeko eskolako umeak hildakoaren baserrira joaten ziren arrosarioa errezatzera. Santa Ageda egunean, baserrian norbait hil bazen urte hartan, abestu beharrean errezatu egiten zen.

Transkripzioa

- Ta eskolan nun ibili ziñen?
- Milagrosan, "colegio de la milagrosa", mojakin.
- Azpeitin?
- Azpeitiyen.
- Oiñatzen bertan ez dao... eskolaik ez zan?
- Bai, ordun ez, baiño gerora egon zan basarri baten. Ez zan eskola bapue izengo.
- Basarri baten?
- Bai. Ta ni akordatzen naiz, gure aittitte hil zanienean, maixue zan [...]. Ume danakin, baten bat hiltzen bazan, eskolako ume danak errosariyue errezatzea juten zien hildako etxea. Bai, bazan han basarri baten eskolia. Baiña ze eskola izengo zan ba?
- Oseake ume danak juten zian basarri hartaa.

- Bai, ta errosaiyua errezatzen zebeu. Bai, ta Santa Ageda egunien, urte hartan hil baldin bazan, Santa Ageda egunien errezaue itten zebeu. Kantau ez, errezaue.
- Errezaue.
- Politte zan e [istoriye].
- Ta zer jutun zien maixukin beakin errezatzea?
- Bai, bai, maixukin, ume danak hartute, basarri hortaa, hildekue zeuen basarri hortaa.

6.28. Erregeek ekarritako opariak

- **Hizlaria(k)**: Azkune Zubiaurre, Maria Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZP-043/026
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:41:10. **Bukatu**: 00:42:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena**: Beraiek Erregeek bakarrik ospatzen zituzten. Izeba bati behin turroi formako harri bat oparitu zioten, eta disgustua hartu zuen orduan. Ikatza ere oparitzen zen lehen. Gabon-eskea ere izaten zen, baina gizonezkoak bakarrik ateratzen ziren.

Transkripzioa

- Ze izaten zan ordun, erregek, olentzero ta holakoik ez zan eongo?
- Ez, ez, ez, erregiek bakarriken. Eta honek'e badauzke kontu polittek. Esto, izeko batek hamen artin soltera, aman ahizpe honena eta holakotxe kuadrau-kuadraue, ez dakit papeliu biltute. Ene, turroia zalakuen hau eta harriya, harri pusketie. Honek'e kontaktzen ditu polittak. Hure emen zan disgustue, turroie zala pentsau horrek eta geo harriye.
- Izaten zan ikatza ta?
- Ikatza're bai, bai. Oin'e bai e? Iketzak eta hoiek. Hoixe.
- Zeozertako ilusioa beharko zan.
- Bai, poza, ezer ez ta poza.
- Geo abon-eskea ta...
- Bai, ibiltzen zien hauek gabon eskien ta ta. Gure anaiyek'e bai.
- Zu ibiltzen ziñan?
- Ez, ez, behin'e ez. Gu ez.
- Oiñatzen ez zan ibiltzen
- Ez, ez, gizonezkuak, mutillek, soiñukin. Esan dizut ba, ta geo baten bat urte hartan hildeku baldin bazan urte hartan, errezaue. Soiñu triste-tristie jotzen zebeu ta errezaue itten zebeu.

6.29. Aitona eta maristak izan zituen irakasle

- **Hizlaria(k)**: Odria Ibarguren, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZP-047/006
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:06:41. **Bukatu**: 00:08:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Manuelen gurasoak eta anaia Odriako eskolan ibili ziren, baina bera ez: 7 urtera arte etxean aitona erakusten zion, aitona baserritar ilustratua baitzen. Aitonarekin nola ikasten zuen azaltzen du. Gerora, maristetara joan zen ikastera eta han ibili zen 12 urtera arte.

Transkripzioa

- Ta zuk esan dezu ez ziñela haruntza jun eskola, nun ibili ziñen ba?
- Han ez. Nik esango dizut, zazpi urteko komuniyoa in arte etxea, aitonakin. Aitona, nik aitona nuan ni han zehar ibili naizen bezela ibilitako bat, oain esaten duen bezela, basarritar ilustraue esaten digue guri. Ta nik zazpi urte arte aitona, egunero basarrin. Eta ni egoskorra esaten die, ta hura ni baiño egoskorro zan. Nik hainbete ontza txokolateik ikusitakoik ez da izango, o karameloik ikusitakoik: jartzen zian egunero ikasteko lezio bat, eta hura ikasi arte beti bistan karamelue o ontza txokolate bat. Ta ordun ontza txokolate bat eta karamelu umeak estimatzen zuten, ez zan oain bezela e?
- Bai oain'e!
- Eta ikasi arte, gaur ez banun ikasten bihar'e bea e? Leziyua're bai, ta karamelua're bai e? Beharko ikasi. Ta geo eskola maristeta. Maristak zien.
- Maristeta?
- Bai.
- Nun zian maristak?
- Hamentxe, plazan, zuk kotxie laga dezun gaiñekaldeko etxe hortantxe. Hortxe zian. Ta hor ibili nintzen ni hamabi urtea arte, eta gero sartu nituzten Hondarrabin, fraille [...], hamabi urtekin Hondarrabira.
- Hamabikin?
- Hamabikin.

6.30. Matematikak egiten eta irakurtzen jakin bai, baina gaztelaniaz hitz egiten ez

- **Hizlaria(k):** Odria Iburguren, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-047/010
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:12:00. **Bukatu:** 00:13:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- **Laburpena:** Eskolan hasterako, Manuelek bazekien idazten eta oinarritzko matematikak egiten; gaztelaniaz ez zekienez, ordea, zigorrak jasotzen zituen.

Transkripzioa

- Eta hori baiño, geo barrun hori baiño gogorro izaten zan umeentzako.

"Por ejemplo" nik eskola juteako, jartzen bazidazun zuk idatzite zerbait nik hure idazten nun, zazpi urtekin e? Ta lau operaziyuk: "sumar, restar, multiplicar" ta "dividir" eiten nitun nik, eskola juteako, lehendabiziko aldiz eskola juteako. Eta baiño kuriosue zan, "venga, me tienes que copiar esto"; ta aurrena, "ze esan dit?" ezta arrastoik'e. Ta bueno, azkenen behintzet nolabait entenditzen zun ta hasten ziñen kopiatzen ta kopiatzen nun; ta esaten dit, "ahora me tienes que decir lo que pone ahí", "nei [...] diak ba", ezta arrastoik'e, ezta arrastoik'e, ta bla! igual. Ta bueno aleluia.

- Jotzen zizuen, bai?

- Bai, jata belarri ixkiñondoko bat emango zizun. Ta ni bezela denak e? Herri hontan garai hartan, oin'e, oin'e herri hontan'e erderak oso indar txikiya daka. ordun batez. ordun herrin eongo zien lau o bost erderaz zekitenak eta bestelako denak...

6.31. Tifusa etxera nola iritsi zen

- **Hizlaria(k):** Kerejeta Zabaleta, Maria Itziar
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-050/037
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:58:13. **Bukatu:** 00:59:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- **Laburpena:** Tifusa nola harrapatu zuten etxean kontatzen du: izeba batek tifusa zuen gaixo bat zaintzean, etxera itzuli eta berekin ekarri zuen gaixotasuna.

Transkripzioa

- Ordun gaixotasun gehio're izaten zian tifusa bezela? Beste gaixotasunik?

- Nik tifus hori zeatu nun, ta ... a! Hori esan ber ziun: izeko horkua, añorgan, zeak, este, bere zean semin andrien ahizpa, semin andrie kalin bizi zana eon Añorgan zaitzen ahizpa, ta harek ekarri honea tifusa, ahizpa horrek. Ta gero gaixo zeuela ta izeko hori jun da zea hori zaitzea, errege hori zaitzea kalea, ta gero harek ekarri zun etxea. Eta etxin'e lehen'e hoyen aman illoba o neskame o eon zan hor luxea, ta harek'e ke inklimankada ibili zan, baiña hola harrapau "de todo" ez ta gaztik'e hala pasa izengo zebe. Baiño gero gure izeko're ibilli zan han, gure izeko ber izeten zun aldeko izeko harek'e, ta han ibilli zan ta gero harek etxea ekarri zun. geo nik harrapau nuen, ta ni "cuarenta" kalenturiek. Geo anayek'e bai e? Baiño harek arintxeo pasa zuan. Baiño nik? Joe...

6.32. Eskolan lehen zigor gogoragoak

- **Hizlaria(k):** Gurrutxaga Iturralde, Francisco
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-056/003
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:04:16. **Bukatu:** 00:05:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider

- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Euskara » Euskararen egoera
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Lehen eskolan zigorak orain baino gogorragoak izaten ziren. Euskaraz hitz egiteagatik ez zieten zigortzen.

Transkripzioa

- Zemouzko eskola garaie?
- Zemouzkua?
- Gogorra?
- Zea, hola, orduen, gaur, hori bai, joe. Oin bakizu ze iten diyoen umiak eta eskola juten dienai? Orduen bli bla!
- Eskue azkar.
- Bai, ta gaiña hola jarriarazi eta regliekin takateko earra bihetz puntan, da!
- Reglakin jotzen.
- Bai, hoixe, ordun gaur oain baiño gogorrok zian zeak e?
- Izaten zenduen euskeraz hitz eitteagatikan kastigun bat?
- Hori nik ez nun hori zea in, kastigorik. Ez nun zeaik izan. Bat izen zan hamen maixua, zamorano zala uste det, bai, ta hua zan zea hori, klase... izeten da ba frankista edo tankera hortako hue zan. Zea, Don Vicente esaten giñon ordun, maixubei izena ere don esaten zeon. Hoixe, ta bestela holako gogorketa haundirik ez.

6.33. Etxea erre zietenekoa

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Zubiaurre, Francisca Seberiana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-057/013
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:17:09. **Bukatu:** 00:18:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- **Laburpena:** 1930 inguruan erre zitzaien etxea, ustez norbaitek su eman ziolako. Etxea erretakoan, nola-hala moldatu behar izan zuten beste nonbait bizitzeko.

Transkripzioa

- Noiz erre zan etxea?
- "El año treinta, creo". "El treinta" uste det /usteet/.
- Zuk zortzi bat urte ordun.
- Xei.
- Eta nolatan erre zan? Ez dakizue.
- Badakiyebe batzuk, esate alde. Baiña, gu genbiltzen txerri zain, ania ta biyok. Hamen, azpikaldin. Egurdiko ordubiten erre zan. Eta etorri zan hurrengo ez dakit zein egunetan, kandeliekin arrautzeta jun ta su eman ziyobela. "Eso también hay que poner, ¿eh? Mecaguenla..." Puf! Ez dakit / eztakit/ gure aitte nola demonio geldiu zan geldik, jo-ta lehertu be batenbat. Ene...
- Eta hue erre zanen nora moittu ziñeten?

-Hemen beheraoko etxe txikire. Eta hamen, hamen beste batzuk zien Larrañaga. E... Hauen lehengusuk die, baiño Zumarran... jardun nahi zun harek kontuk zea iten... Juan Larrañaga. Uztargillia, Zumarran. Ta, haiek bizi zin hor behien, eta haiek beste neska zahar bat´e bazeukeben ta gurin beste neska zahar bat zeon ta haiek alkarrekin ta batzuk hamen ta bestik han. Holaxe, ahal zan bezela.
-Moldau in behar nolabait.
-Klaro!

6.34. Eztul motak eta armiarmaren pozoia

- **Hizlaria(k)**: Larrañaga Zubiaurre, Francisca Seberiana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZP-057/039
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:49:56. **Bukatu**: 00:51:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikiak eta sasimedikuak
- **Laburpena**: Behin, armiarma batek kosk egin zion arta-zuritzen zebilela, eta denbora dezente egon behar izan zuen lepoa lotuta zuela. Bere ahizpa batek kukurruku eztula izan zuen, eta ito egin zen hala. Eztul mota batzuk aipatzen ditu. Eztul gorria arriskutsuena omen zen.

Transkripzioa

- Ta ni bastante nolabait egon nintzen, eta ez dakit oaindiken'e ez ote ditan hamendikan zea iten. Armarmik heldu zin lepa gaiñetik, arta-zuritzen.
- Armiarmak?
- Armarma beltz haundi batek.
- Eta ze pasa zitzaizun?
- Eon in ber izan nun dexente denboran lepue lotuta.
- Eta lehen esan dezu baita...
- Benenua izeten du, hola esan ohi da, armarma beltzak eta.
- Lehen esan dezu baita kukurruku eztule, zure ahizpan batek izan zun.
- Ahizpa, bai, haure zan.
- Ze izaten zan kukurruku eztule?
- Eztulke ezin bueltaua, ezin bueltau. Itxuria danez, hure ito in zan azkenien.
- Gaixo asko izaten zan ordun?
- Kukurruku eztule dexente.
- Ta bestela ze gaixotasun izaten zien?
- Ba gorniyik eta hoyek. Baiño gurin gorriye danak batea pasau zeбен, danak. Hamen danak batea. Medikua oso jatorra genduken, zea hori, Allberdi, eta oso jatorra gaiñea. Ta harek esan zin: "Kontuz, Pakita, kontuz. Peligroik haundiyena gorriyak izaten du jueran, e? Ta ondo zaitu. Begiyek eta ondo garbitu umiei". Bueno, ta geo berriz etorri zan rebisau zitun ta ondo daude, ez daukebe ezerren zeaiken.

6.35. Hiletak eta apaizak

- **Hizlaria(k):** Unanue Arkaiz, Maria Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-060/015
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:22:57. **Bukatu:** 00:24:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena:** Lehen ere hiletetan meza-dirua biltzen zen, eta apaizarentzat izaten zen. Norbait hiltzen zenean, gorpua bizkarrean eramane, eta elizan egoten zen.

Transkripzioa

- Ordun'e entierrotan itten zan meza-dirue biltzea?
- Bai, mezan dirue bildu ta apaizentzako.
- Apaizantzako izaten zan?
- Apaizentzako. Bai, bai, mezan diruk eta oin'e [...] biltzen zaniene ta mezak ateratzeko apaizei batzui emango zaizkitzu, ez dakit, nik batzui ematen dizkot, beste batzuk beste zeara. Baiño ordun dana apaizai. Baiño diru bitzen zebiniko zean, zakun, apaizentzako izeten zen. Ta geo etxekuk'e etxiai ematen badiyote, etxekuk'e bai, orduen mezie badakizu, mezien dirua eman in ber ta apaize... Ordun apaize egoten zan ondo, bat hil zai, diru pixkat egiteko. Nik hori esaten nun, apaizek ondo bizi ziala hemen eliza bertan zenuen e?
- Bai, hementxen bertan. Hementxe entiarrue eta kanpo santu bertan dago goyen.
- Baten bat hiltzen zanene gorpue nun egoten zan?
- Elizen. Mahai baten gaiñien, igual-igual, oaindik egoten zan bezelaxe igual-igual. Bai, bai, ondun igual-igual.
- Gorpue gaur bezela, bizkarrene eramaten zan?
- Bai, bai, bizkarrin, bai, bai, bizkarriene ekarri mendiz eta [...] zean, bizkarrez.
- Oiñez ekartzen zan?
- Oiñez, bai bai, lau lagun etortzen zien ta laurok hor. Ta gero kanpo santun halaxe eramaten zeben kanpo santue nun zan hemen?
- Hamentxe hortxe goyen dago, bistan dago, kamiyotik bistan dago.

6.36. Eskolan abesten zituzten kantak

- **Hizlaria(k):** Aranguren Olazabal, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Odria, Haizea
- **Erref:** AZP-061/009
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:12:14. **Bukatu:** 00:13:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Leturia, Ane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

- **Laburpena:** Umeei kantak eta antzerkiak erakusten zizkieten. Kanta bat abesten du erdaraz.

Transkripzioa

-Ta kantuek eta hola erakuste al zizuen?
 -Baite, kantuk´e bai.
 -Akordatze al zea?
 -Baita antzerkiyek´e eiten giñuzen.
 -A bai?
 -Baita antzerkiyek e, ene ba...
 -Ta kantun bat akordatze al zea?
 -Kantuek? Ene ba... Gehiyenak kantuek erderaz kantatzen giñuzen, e?
 -Akordatzen zea kantun bat hola, kantatzeko?
 -Oseake, eskolan sarreran: "Niños en fila manos atrás, con marcha tranquila vamos a entonar. De clase la salida, de clase la salida, de clase la salida que acaban de tocar". Hori ertetzeakuen.
 -Bai, bai, bai.
 -Ta eskolan sartzeakuen berriz: "A la escuela placentera vamos todas sin tardar, con..." ahaztu. "Venir, llegar, la escuela abierta está. Venir, llegar, la escuela abierta está". "To..." Hori luzie da. "To..." bueno, hori, erderazko hoiyek mojak eakusten [zeben].

6.37. Auto hori niretzat!

- **Hizlaria(k):** Aranguren Olazabal, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Odria, Haizea
- **Erref:** AZP-061/046
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 01:01:15. **Bukatu:** 01:01:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
 Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
 Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Umetan jolas bat zuten gogoko: inguruan autoak pasatzen zirenean bakoitzak gustukoena zuena "aukeratzea"

Transkripzioa

- Ta kotxeik eta ordun ez zan ikusiko?
 - Kotxiek? Jesus, makiñe bat ibiltzen zan.
 - Ez, asko ez.
 - Bai, oin aiñe ez behintzet. Eta guk gaiñez umiek hor [...], hor basarri hortatik, horko zelayen, hor juntatzen giñen ume pillua, araneku danak juntatzen giñen, ta han puntan jarrita geundela kantun ta ibiltzen giñen, ta pasatzen zin kotxiek, eta ikusten genuin, "han, non datorren [...]" gorriye, hori neretzako, hori neretzat, hori neretzat!"; hurrena beste bat "ez, beltza, hori neretzat!". Holaxe jarduten giñun, kotxe bakoitzien neretzat edo besta neretzat. Baiño kotxik ibiltzen zin.

6.38. Eskolako garaiko oroitzapenak

- **Hizlaria(k):** Zendoia Kerejeta, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-066/017
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:28:06. **Bukatu:** 00:29:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Eskolako kontuei buruz hitz egiten du: non ikasi zuen, eta nor izan zuen irakasle eta ikaskide. Eskolan neguan hotza egiten zuen, eta sua pizten zuten berotzeko; horregatik, ketan egoten ziren.

Transkripzioa

- Eskolan nun ibili ziñen?
- Eskolan? Atzerrekan hor, zeakin, Pilarrekin ta batea.
- Atzerrekan bertan?
- Bai.
- Zenek ematen zizuen eskola?
- Hoi jakingo dezu, Pelixa eo, Pilarrek esango zizun ez? Danak batea. Hori zuk etorri ber dezu, ze [...] hoi iten degu. Zuk Iriondo ezaugutuko dezu ba ondo, Joxe Mari?
- Joxe Mari Iriondo? Bai.
- Hure gure laguna da, eskolan alkarrekin ibiliye, ni baiño hiru urte gazteo baiño hamen hazi zana izan bai hura're, han larrañagan jayo ta hamen hazi; han bazuen hamengu ta ama hilde, ama ume txikiya zala hilde.
- Ze rekuerdo dauzketzu eskola garaikok?
- Ze rekuerdo? Kea ta pasatzen giñuzela, negun ta hotzakin te estufe zahar hortan ta sue in han ta ketan ta hantxe. Eskola asko ez gendun ikesi baiño behintzet.
- Etxetik anai-arreba gehiokin juten ziñan batea?
- Bai. bai, ni tarte dexentia ni baiño tartekua hil in zan, ta ni baiño lau urte pasa zaharrague beste anaye, ta harek laga ziyonen nik bakarrik. Ta gero arreba hasi zen berriz, hura hiru urte gaztio degu ta hola. Ta etxe bakoitxetik hiru-lau te hamen ordun umie pilli zegon garai hartan. Ta mordue atzeneako hor. Ta eskola zea hori, Altsasu basarriyan.

6.39. 11 senide eskolarako bidean

- **Hizlaria(k):** Unanue Aizpuru, Juanito
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-067/003
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:02:22. **Bukatu:** 00:04:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** 11 senide izanda, eskolara joateko eta otorduak jateko nola moldatzen ziren azaltzen du. Eguraldi txarra zenean, komeriak

izaten zituzten. Aita dotorea zuen, eta maisuarekin ondo konpontzen zen.

Transkripzioa

- Hamaika anai-arreba ziñeten?
- Bai, hamaike bai. Hamaika hazi giñen. Ta...
- Earra tropela!
- Bai, ta... geo... hemen kuadrillie... hauzkaldeko alderdiyen hori. Ta... koadrillie... zea... haundiye giñen ta... eskolan'e pillie ta... eskola juten'e hemen ez zan bromie e! Neskak guardasola bazitun eta gu zakukin juten giñen zeara... eskola! Ta hamendiken Urrustillea... ta hiru bat kilometro eongo die pistatiken zeatiken... hiru bat kilometro eongo die ta... Udara partien... bero haundiye ta ez gendun e... dana agotauta etortzen giñen ta jateko gogoik ez gendun ekartzen ta han beste dendie zan baten pagau hemenguek eta udara partien han jaten gendun. Eta geo, negu partien geu etortzen giñen, baiña eskolan askotan aldadoriekin ta, txingorakin da ta, aldadoriekin... zakuek bai, baiña emakumei're guardasola puzka iten zitzeten. Gu juten giñen zakuekin, askotan bustite... ta Urrustillen eoten zien e... maixu bat eoten zan. Eskola haundiye zan. Maixu bat eoten zan ta... Hala behinik pehin pilla bat aukitzen zun... Eztakit ba... larogei te alleaute izengo zan... eoten. Oin gutxitude dao jendie baiño...
- Larogei ume?
- Larogei ume maixu batentzako. Ta eskola asko're ez gendun ikixi. Ta geo ni zaharrena, mutilletan zaharrena nola nitzen... itula're in ber izeten gendun basarriyen... Ta maixukin gu ondo, gu ondo, gure aitte zana ondo etortzen zan. Txarri hiltzen zanien'e eamaten ziyon errealue...
- Errealua...
- Sagarra bitzen zanien eamaten ziyon ta patatie're eamaten ziyon... ta harentzako ona izeten zan. Ta gurikin ondo etortzen zan. Ta gaiñea, bastante... gure aitte basarritarra izeteko ta gure aldien e... "don" zan, gure aitte "don" zan. Jazten... guk ez deu elusiyo hori izen. Honek hala esaten dit. Eta harek uderako zapa, zapa sandaliak... zapatak zearako, botak negureko. Ta txapela're bat zea... bestie elizkizunetako ta guardasolak iual-iual. Ta... bere kapritxoso, hortan kapritxoso dotorie zan... baiña guk ez deu izen, guri ez zion asko erantsi. Honek hala esaten dit.

6.40. Donostiako eskolan janaria soberan

- **Hizlaria(k):** Unanue Aizpuru, Juanito
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-067/026
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:47:18. **Bukatu:** 00:48:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
 - Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena:** Jan eta lo Donostiako eskolan egiten zuen. Han janari gehiegi zegoela iruditzen zitzaion, baserriko bizimodura ohituta baitzegoen.

Transkripzioa

- Jan ta lo bertan eskolan?

- Bai, bai, bai, bai. Jana zeuen e... hemen basarrin ohituta... derrotxe bat iruitzen ziten nei. Hernania jun da hermano zea enkargau horrek eta beste Hipolito len esan deten... txahalak erosten zituen Hernani aldean jun da, txahal gazteak hor e... esnientzet txahalak. Ta xerradak eta txuletak eta solomillo ta hoyek aprobetxatzen zien eta egosteko haragiye... saldie iten zen eta iñoi ez zitzekon komedorea egosteko haragik eamaten. Ta hemen egosteko haragiye garai hartan ona zan. Saldie ein, basura juten zan hua. Arrayekin iual-iual. Nei hamendik ohituta... derrotxe bat zeola iruitzen ziten. Ta geo, han Salaberria o bazan barkuk zauzkena Errenteyen o Pasayen o barkuk zauzkena. Hue legatzeta ta ibiltzen zan. Ta furgoneta bat zauen ta Salaberriagandik etortzen zanie... ekartzen zeuben furgoneterie ta legatza labien... ta fri... [zea ein da]... danea legatza're sobre...

- Nahi aiña...

- Jana, jana sobre zeon han!

6.41. "Bandera española" jateko

- **Hizlaria(k)**: Unanue Aizpuru, Juanito
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZP-067/031
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 00:58:27. **Bukatu**: 01:00:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
 - Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena**: Soldadutzan, behin "bandera española" jarri zuen bigarren plater gisa: hau da, tomate artean tortilla. Asko gustatu zitzaien ideia soldaduei.

Transkripzioa

- Ta beste baten'e akordatzen naiz... zea... minuta... eguardiyen papela ipintzen ziguen bakoitze... letu ta eztakit ze ta bigarrenko plater behinek pehin "bandera española".

- Hara, zer zan hoi?

- Bai, neuk ze ipiñi ez naikiyen, ta "bandera española" ipiñi nun. Ta geo eztakit, ba, "piletas con patatas fritas" o eztakit ze ta... geo postrie. Ta... hala behinik pehin, teniente enkargauek, ez kapitán enkargaue zan, kapitán enkargauek zea... Villegas. Ta hala behinik pehin kabuei hots ein diyo. Zeak e... bi zerbitzen ibiltzen zien goante zuriyekin, bi mutil ibiltzen zien nahi det esan o... hamazazpi bat lagun eo geyena eoten zienien, ta bost'e bai... ta bi ibiltzen zien zerbitzen. Ta hots ein diyo zai... kabuei enkargauek... sukaldekiek eta: "¿Qué es esto de bandera española?"... ehundoko azentu... andaluze zan ba...

- Harrituta...

- Bai, "¿Qué... eso bandera española?"... "¿Pues?" ta "Aquí pone..." zea... "ensaladas, segundo plato, bandera española, filetes con patatas fritas y postre... pone. Y, ¿qué... qué es esto?". Ta "Pues no sé lo que es". Ez zekiye, ez zekiye harek eta! Neuk indeko minuta zan, neuk erainazitako minuta zan. Ta geo nei hots ein zien ta... nik jakin'e erderaz ikearri ez ta dardarraz... ta "tranquilo, tranquilo, tranquilo... ¿Qué es, esto bandera española?" ta "A... esto es una chorrara. He puesto eso..." eta "Pues, ¿qué?" ta "bueno, en vez de poner... tortilla con..." zea tomatikin tortillie

"en vez de poner tortilla con tomate, le pones los dos lados tomate rojo y medio, en medio amarillo, tortilla. Y pone... hace bandera española". Ta "Bueno a ti... te quitamos galones y te ponemos, te vamos a poner a ti" esan zien. "A ti te..." kabuei esan ziyon "a ti quitar galones y le vamos a poner a ti". "No, no hace...". Jakiñe, ba, tortillie bi exkiñetan ipiñi zea...

- Tomatia...
- Tomati ta erdin horiye ta...
- Bai, ba, "bandera española"
- "Bandera española" ipiñi nik ta...
- Beitu!
- Holako txorradak ibiltzen giñuzen..

6.42. Lehengo plantxak

- **Hizlaria(k)**: Altuna Bereziartua, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZP-068/018
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:33:06. **Bukatu**: 00:34:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- **Laburpena**: Bi eratako plantxak zeuden: baporezkoak eta ekonomikaren gaineko txapazkoak. Plantxa nola egiten zuten kontatzen du. Arropa gehiena plantxatu egiten zen.

Transkripzioa

- Ordun plantxa bat baporezkua eta bestea?
- Eta bestia txapazku, txapan ekonomikan, ekonomika gaiñin, oin ekonomikaik nola ez daguan ba, ekonomikin gaiñin egoten zin beti, zea, plantxak.
- Eta plantxa mahaien gaiñen eukitzen zenduen?
- Bai, mahayen gaiñin, bero-bero-bero eiten zin plantxa hayek eta earki.
- Haik zapin bat o zeozer jartzen ziozun, o trapun bat?
- Bai, bai, bai, azpiyen jartzen zan plantxako mantie izaten zan ordun beti, plantxako mantie beti egoten zan, ta haren gaiñin trapu zuri bat jarri eta geo plantxan hasten ziñenin ba trapube o erropie bustitzeko trapube, trapu bat busti eta hure jarri eta gaiñetikan plantxekin.
- Eta ze itten zenduen, denbora guztin su gaiñen egoten zan plantxa?
- Erabat. Etxe guztietan plantxak egongo zin. Jesus! Hiru-lau plantxa.
- Erropa dana plantxatzen zan?
- Geyena.
- Barruko erropa ere bai?
- Bai.
- Galtzerdik eta're bai?
- Ez, galtzerdiyek ez, baiño barruko erropak eta bai, jo bat eman behintzet, doblaute jarri te gaiñetik bada're pasau bai eiten zan. oingo aldin lan asko, enee.

6.43. Dantza lotuan egitea bekatua zeneko anekdota

- **Hizlaria(k):** Altuna Bereziartua, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-068/029
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:49:07. **Bukatu:** 00:50:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena:** Lehen dantza lotuan egitea bekatua zen. Behin bere anai-arrebek dantza lotuan egin zuten elkarrekin, eta hori are bekatu larriagoa zen. Aita, hala ere, liberala zen, eta ez zien errieta handirik egin.

Transkripzioa

- Ta izango zenuen ordun'e heldun dantzik ezin in ta?
- Buenooo, heldun? Bueno, gure jaungoikue. Heldun akordatzen naiz San Juan txiki egunin zea izaten zan, dantza sokien neskak eta mutillek. Ta dantza soka hortan prazuelatik buelta iten zan han Azpeiti aldea guzela, taillerran [...] bueltie hartzen da ba? Palaziyo haundi bat badao. Handik bueltie iten zan danak eta aillau gora eta etorri gea Zemako sagardondeiye esaten zan, ta harea etorri te han hasi gea zea iten dantzan ba, eta baltziruko piezi jo. Ta nere ahizpek eta anayek biyek in baltzin. Eta jesus! Hure zan pekatu mortala. Ze ta gaiñea anai-arrebak baltziun, pentsa zazu, anayekin dantza in arrebak. Ta hure pekatu haundiyo zan kanpokukin itie baiño.
- A bai?
- Garai hartan bai, garai hartan bai. Haundiyogue pekatue.
- Eta ze pasa zitzairen, ze kastigu o ze?
- Ezer, etxea etortzeko bildurrez, baiño gure aittitte liberala gendun e? Aittek ez zigun holako zeaik iten, holako... askotan bai [...] esango zizkiun ingo zizkiun, ezta, ez entendi in ta kito.
- Etxekon [...] askotan kanpoko jenden esanagatik seguru.
- Bueno, baltzirun ta? Bueno, bueno, bueno, berehala.

6.44. Bere aitak, alkateak, dantza lotua libre utzi zueneko

- **Hizlaria(k):** Altuna Bereziartua, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-068/030
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:50:38. **Bukatu:** 00:52:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena:** Urrestillan dantza lotua egitea libre utzi zutenean, bere aita zegoen alkate. Apaizak mezan alkatearen kontra hitz egin zuen, eta Maria zeharo aztoratuta iritsi zen etxera, hark esandakoarekin

beldurtuta. Etxekoek lasaitu egin zuten, eta aitonak berak ere aitari esan zion dantza lotua uzteko.

Transkripzioa

- Hamen zea baltziue libre laga zuenin, nere aitte zegon hamen alkate, bai. Eta aurreko urtien Tolosa jun zien nere anaye ta kuadrillie San Juanetan ta hurrengo urtin pues baltziue, o zea, baltziue ba. Eta goizin jun nintzen mezeta, zazpiretako mezeta eta apaize don angel zegoen ta Don Angel horrek "gaur Urrustillen baltziue libre laga dun gizon horren barruan ez nuke hiltzeko ordubean egon nahi". Nik hure aitu nunien etorri nintzan etxea eta etara ber nitun danak ipurditik: "Aitte!" "Zer den?" ta "Prohibiu zazu baltzirua", "Ze ba?" ta "Don Angelek hau ta hau esan du", "Ixilik eon hai, ixilik eon hai!", "Ezetz ba, ta ezetz ba!" ni, ta akordau dia anayek "Ze pasatzen da?" ta "Hau te hau esan dik ta baltzirun prohibiu in ber dik", ta "Hi, ze nahi den, Tolosa jutie hi ez bezelaxe?" anayek esan zin "ze nahi den, hi ez bezelaxe Tolosa jutie? Ba jungo gaitun e? Ta aurten gaiña autobuse tratauko diñau" esan zin. Ta hala ai giñela aittitte jeiki zan, ta aittitte horrek "Ze pasatzen da ba? Ze builla da hau?", "Hola ta hola aittitte, hau ta hau esan du te...", nik uste nun harek'e prohibiu ingo ziela, prohibiu ingo ziyola, ta esan ziyon "Hara, gizona baldin bahaiz laga zak, plazan dantzan itia oso ondo zeok eta". Ta ni han inoxente geldiu zan, "Hau dek markie, danak neure kontra, hau dek ona erten ditena!".

- Baiño ze txorakeriagatik?

- Bai, baiño ba al dakizu ze zea eman zin nei bildurre o bildurre o biyotz ondokua eman zin, ezin nun han sermoitik aurrea ezin nun mezaiken entzun ordia, hure zan egoneziña euki nuna. Ta klaro oain pentsatzen jartzen zea ta... Baiño ordun gauzia halaxe hartzen gendun ta...

6.45. Ostatuan entzun beharrekoak

- **Hizlaria(k)**: Iburguren Iparragirre, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZP-071/020
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:31:53. **Bukatu**: 00:32:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Lanbideak » Neskameak
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena**: Ostatuan militarrek ibiltzen ziren gehienbat. Ostatu hartan etxekotzat hartu zuten nagusiek.

Transkripzioa

- Eta zer zan aberats jendea ibiltzen zan? Esan dezu militarrek eta ibiltzen ziela.

- Militarrek danak, danak abiadore ta hortan zeuan... Komedoren zabiltzan zu serbitzen eta plato bat jaten zeuben ta "oye", "por ejemplo un filete edo zeozer" ta "oye, a mí no me has traído", zea, bigarren aldiz, ta esan "¿no te he traído?", "no, no, a mi no me has traído", ta jun sukaldea ta berriz eskau ber izeten zendun. Eta "un desastre". zenbat pasau gendun? Banun nik [...]

- Ta zazpi urte in zittuzun han?

- Han, bai, baiña zan [...], ez zien onea etxeko bezela hartuta neukeben,

etxeko bezela, eta ni giltzak armayun ta dana giltzapin eukitzen zebe
fruta ta dana holakue, eta nik giltzak nitunin, hartu ta ni ez nintzen[...]. Ta
neskai neure lagunai askotan pasatzen niyon jana ta asko.

7. Natura

7.1. Fruta-arbolen txertaketa

- **Hizlaria(k)**: Bastida, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Bastida, Ana
- **Erref**: AZP-008/009
- **Iraupena**: 0:05:40. **Hasi**: 00:09:20. **Bukatu**: 00:15:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
Natura » Meteorologia
- **Laburpena**: Santa Ageda bezperan gerezia txertatzen zuten baserrian. Nola egiten zuten azaltzen du. Aita zenarekin joaten ziren horretara. Martxoaren azken aldera sagarrarekin gauza bera egiten zuten. Arantza zuriarekin ere egiten zuten txertaketa, mizpirak etor zitezten. Beste fruta batzuk ere aipatzen ditu. Mahatsa, menbriloa, udarea, etab. Eguraldiak sortzen dizkien aldaketak.

Transkripzioa

- Geo, frute asuntu're oin baiño geyo sayau're ustet eiten zala. Oin aspaldiko urtetan frakaso eman iten du bai! Lorie izeten da, baiño egualdi txarra dala ta ez dala ta... Jun den urtin oso gutxi izen zan. Leno, gogun daket, gure aitte zanak eta: "Keixi txerta ber da!". Ta Santa Agedatan, bezperan eo, Santa Agedak hilen biyen o hilen bostin izeten die, otsailin. Keixi txertatzeko eoten zan hemen txokolateri moduko zea bat... ta surtin ipiñi, ta han berotu iten zan, erretxiñe ta ez dakit ze... Ta nahastute halako likido zea bat iten zan. Pomada bat bezela iten zan. Ta suten bero-bero ein ta geo keixi txertatzeko, ba, zein arbola zan earrena leno... Keixe klase asko zan, zein arbola zan earrena, harexi kendu mentue ta... Gu mutil koskorak aitta zanakin atzetik hartu txokolatera hori ta han jutun giñen ta iten zun zerrotikin lelengo moztu adarra. Adar zuzen samarra. Gero, erdiyen pitzau burni batekin, trintxikin o. Ta geo, mentuiyek ipiñi. Mentuiyek izeten zien, ba, hor... hamar zentrimetro inguruko txotx batzuek, baiño kimube zaukebenak ber izeten zebe ta kimu harez gora txorrotx-txorrotx ein ta hayek sartu. Bi bakoitzei. Gero igurtzi pomada horrekin dana bueltan-bueltan, ta gero, trapu batekin lotu berriz haizeik hartu ez dayen. Hori eiten zan keixi lelengo ta gero sagarra. Sagarra geotxo iten zan jeneralin. Martxuen azken aldea o hola. Baiña sagarrai're, keixiei ta bezelaxe ya lan berdin samarrak in ber iten zizkon. Moztu ta len esan detan bezela sagarrik edarrena zein dan ikusi. Batzuek [...], sakon sagarrak, beste batzuk errege-sagarrak, beste bat atxabaleta-sagarra o esaten ziyobena're bazan izugarri earra. Hayek eta... sagar hoyek'e txerta iten zien halaxe. Gero, beste bat zan arantzie, arantza zuriye o esaten zakona... Han mixperie ipintzen zitzekon hari. Arantzatik etortzen zan mixperie. Arantzie moztu, arantza zuri haundi hori, ta mixperien mentue ipintzen zitzeizkon. Beste hoiei bezelaxe, moztu ta pitzau ta beren pomada horrekin. Beste bat'e bazan, berriz, idi-sagarra esaten zitzekona. Oin gastau da. Oin ez da ikusten hemen. Baiña haura menbrillu iteko ta gastatzen zan. Izugarri earra zan. Jateko ta ez zan ona, baiña bestela oso

earra zan. Ta oin ya desapareziute dao. Hemen ingurun ez det ikusi're iten nik oin hure. Ez dakit ze iten [...]. Ta frute asuntun... mahatsa're bai. Mahatsa geuk'e badeu ta oindik'e badeu. Mahats moskatela, itxeko paretan. Ta moztu ta sufratzen ta jarduten deu ta urte batzuten dexente ona hartzen deun, gaiñea, mahatsa! Ta aurreoko baten jardun gendun esaten mahatsak urte askoko biziye izengo dula, gaiñea! Horrek onuzkeo hirurota hamar urte baditu ta ondiken e... ondiken sasoeko mahatsa dao. Txermena're, mixperie bezelaxe arantzatiken zea iten da... Hure're nun daon earrena ikusi ta... Txermenak klase asko die: bat behintzet San Migel txermena o esaten zakona, oso earra. Beste bat negu-txermena hure ya gero heltzen dana da, baiña ale haundiye ta izugarri earra da. Hoyek'e, sagarrai ta bezelaxe klasie, zeuk nahi dezun klasie... arantzie moztu, pitzau ta sartu zea hoyek eta... gero, bestiei bezelaxe uendu (ukendu) o horrek ein ta ipiñi ta... Txermena, gaiñea, beste eozar gauze baiño errezoue zan zea iten. Bestiek geyo frakasatzen zeuben, txermenak eta baiño. Gero, gaiñontzien... dana mixurkie ta, melokotoie ta, arana zan gurin asko. Baiña aranak oin ez die ikusten klase hau, klase haure. Aran klauri gorri batzuk bazien, hor arrautzin formako luze batzuk. Ta nik ez dakit desapareziu... Hure zan gure ama zanak eta beti plaza eman oin zeuben saltzea. Astin bi aldiz o hiru aldiz eo juten zien. Goizin bitu ta otarrakaie hartu ta... beste klaudi berdi're bai, baiño gorri harek zun famaik geyena! Ya hare desapareziu in zan! Ta gero, izen die urte batzun hamen landarie sartueatik... pixkat hasi ta ihertu. Keixi're bai. Hemen gu gaztiak giñela keixe arbolak izugarriyek zien! Hogeia lagun jiyota iual ibiliko zien han besteko egon zan keixa baten gaiñea. Batzuk honutzouen ta bestik honutzouen ta... Ze keixa pilla! Gure etxie altuba da, baiño gure etxin doblie baiño altuo zan gure etxe parin gora. Keixi asko izaten zan ordun. Ta oin urte hauetan udeberri txarra o arbolak'e gutxi daure e baiño... Udeberri txarra iteula, lori ta hartzeu... ta geo jotzen du... Jun den urtin izotza in zuen ta danak galdu zitun. Intxaurre daukeu guk asko, baiña intxaurre're hoixe in ziyon jun den urtin. Aleik'e ez genduken!

8. Politika

8.1. Errazionamendu garaiko debekuak, zigorrak eta trikimailuak

- **Hizlaria(k):** Olaizola Gurrutxaga, Juliana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-013/006
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:09:41. **Bukatu:** 00:12:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Leturia, Ane
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean Lanbideak » Polizia
- **Laburpena:** Estraperloa zerekin egiten zen azaltzen du. Errotara gaez joan behar izaten zuten, garia ehotzea debekatuta baitzegoen. Errotariei nola ordaintzen zitzaizen aipatzen du. Inoiz ez zieten harrapatu beraiei, baina bai beste batzuei. Baserrietan janaria ez entregatzeagatik kartzelara eramandako jendea bazegoen.

Transkripzioa

- Ta estraperloa zenena itten zan, gauza hoiena danena?
- Dana, dana. Estraperlue? Jateko gauze guztiye dana estraperlue izeten

zan. Ez zan libre izeten ez gariye ehotzeik, ez gariye saltzeik eta ez babie ta... Ordun, gaiñea, baserrikuei danak kendu eiten zixkoe ta ematen zituen, herrire banatzen zituen, famili bakoitzeko horrenbesteko bat tokatzen zala ta eztakit zenek ordenatzen zitun haiek. Eta etxeako [...] be gelditzen giñen.

- Esan dezu errota izkutun jun behar izeten zenduela.

- Bai.

- Gaez?

- Gaez.

- Ba hemendik Martittea...

- Hamendik Martitea menditik buelta, ba, orduak eta orduak.

- Orduk.

- Handik buelta, mendi batetik... han goiko mendi hartatik goitik behera... bua... ! Oso, oso.

- Eta behin errota juten ziñetenen ta ehotze zizuenen hainbesteko bat kendu eitten zun.

- Bai, hori ´re bai. Beai kentzen ziyon, irin hari beai kentzen ziyon. Haiek... bere jornala han in ber zebe haiek ´e, eta hari... hantxe laga ber zendun hure ´re ta ez zan izeten pilla haundiye etxea ekartzeako, baiño hantxe, ahal dan bezela, ahal zan bezela.

- Sekula tokau zitzaizuen batenbat zaintzen o, guardia zibilek o?

- Harrapautekoik ez, gurin ez zan tokau iñor, baiño izeten zien, e! Harrapautakuk, guardia zibilek harrapautakuk eta.

- Estuasun earrak ibiliko zittuzuen.

- Bueno... Bai, hara juteko lasai ezin jun, aizu.

- Eta gaiñontzeko gauzak, baba ta hoiek? Nundik... nun eitten zan estraperloa hoina? Babana ta.

- Zeuk ez zenduken saltzeiken, eman ber zendun herrire, ta herrikuek jasotzen zebe ze, babak eta artue eta danak. Danak. Eta haiek beak ordenatzen zebe. Ta zuri ez dakit /eztakit/ ze familitakue ta zuri horrenbeste tokatzen zazu ta zuk eman in ber zendun. Ta gaiñea bazien hamen auzuen kartzela emandakuek ez zebelako ematen, herrire eman ez zebelako. Herrire eman ez zebelako kartzelan eondakuk bazien, gure koñae ta beste auzoko bat, entregau ez zebelako. Baserriyen norbeak jateko behar zan gauzie hara entregau ber zendun. Eta ez bazendun entregatzen, ba, kartzela.

- Lehenoroko gutxi ta gaiñea entregau ein behar.

- Bai, bua, bai.

8.2. Gerran etxeke gizonen izandako zoria

- **Hizlaria(k):** Olaizola Gurrutxaga, Juliana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-013/026
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:47:24. **Bukatu:** 00:49:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena:** Gerra hasi zenean, 9 urte zituen. Anaiak ihesi joan behar izan zuen, gorriak baitzetozen. Aita nazionalista izan arren, ez zioten ezer egin. Bi anaia gerran hil zitzaizkion.

Transkripzioa

- Gerra denbora... Nola akordatzen dezu, akordatzen zaizu, gerra denbora?
- Buf... Hemen izen zan gerra denborako garai hure, ene... Bai, ni ordun gaztie nintzen, baiña akordatzen naiz e...
- Zenbat urte zeuzkezun gerra hasieran?
- Beatzi urte nitun. Eta nere anaie ba jun zan Beasaiña, amabirjin egun baten, ihesi, naparrak... Ez, ordun gorriyek zien, eta gorriyek gaixtuek zien, eta bestien baimena... Bestiek gorriyek hemen zeuden bitartien ba eztakit ze ingo ziyobela ta [...]
- Alde ein behar izan zun.
- Alde in behar izen zuen, eta [...]. Nere anaie zan... karlistan aldekie izengo zan, karlistie izengo zan. Eta aitte nazionalistie. Eta gu ondo arreglau giñen. Hare... ordun alde in zuan, eta, gero, hure alde in zunin, ba, ez ziyoben... aitte nazionalistie zan ta aittei ez ziyoben iñungo zeaik ein. Gorriyek hemen geau zinin, ba, aittei ez ziyoben ezer... ezertan ez ziyoben zeatu. Eta gero in zin, etorri zan berriz handik bueltan etorri zien naparrak honea sartu zien, eta, haiek danak sartu zinin, geo gorriyek alde in zeben, eta aitte´re libra in zan. Semie zauken karlistie o izenekue, ta ordun... Bi anaie´re gerran hil zin, e! nere bi anaie. Ta...
- Nun?
- Bat Otxandianon, ta bestie Lemonan. Lemona hor... Bizkai alde hortan. Hoietan hil zin.
- Hemen e... Akordatzen zea tropak sartu zianen o?
- Ene... Bai. Hor Elosiyaga aldin goitik behera nola sartu zin akordatzen naiz.

8.3. Karlista etxean ezkutatu zutenekoa

- **Hizlaria(k)**: Olaizola Gurrutxaga, Juliana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZP-013/027
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:49:02. **Bukatu**: 00:50:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Tropak sartu zirenekoa gogoratzen du. Egun hartan karlista bat etorri zen beren etxera, gordetzeko eskatzen. Lasto pila artean ezkutatu zuten, eta harengatik galdezka etorri zirenek ez zuten harrapatu.

Transkripzioa

- Zu nun zenden ordun, etxen?
- Bai.
- Eta etxe ingurua etorri zien?
- Ez, gure etxe ingura ez zan etorri hola, ez. Behin akordatzen naiz ordun amenaza in zauren, ba ordun hure zer zan, karlistie izengo zan bea, karlistie izengo zan itxurie danez. Eta gu ai giñen soruen ai giñen arbiye eiten edo, udazkena zan ta, arbiye iten edo eta gizon bat nola etorri zan eta esan zion aittei: "ezkutu nazu, gorde nazu nunbaiten, sapaian gorde nazu". Ta laga ta jun zan etxea, eta lastua zegon ordun, ta lasto pillen sartu zuen eta gordeta laga zuen, eta etorri zan berriz, soruen hasi zan eta kabaillo batekin bi kabaillokin bi gizon: "hamen gizon bat ikusi al dezue?"

ta "ez, nik ez diat inor ikusi hamen. Eta orduntxe sartu zun beak. Ta zin lasto pillen ipinita han zeuen gizajue, eta ez debe ikusi, ta halaxe pasau zan. Eta gero gabien hartu seme batek, eta hartu ta eraman zuen han [...] zea, hor Matximenta hamendik pasa zun ta gero Matximentatik (Matxinbentatik) barrun ta beste batek eta holaxe orduko ibillierie.

8.4. Gerran fusilatutakoak

- **Hizlaria(k):** Olaizola Gurrutxaga, Juliana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-013/029
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:51:48. **Bukatu:** 00:53:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Gerra garaian fusilatutakorik egon zen. Denen begi bistan fusilatu zituzten, apaizak konfesatu eta gero. Hil eta gero, haien zapatak kendu, eta hiletara joan zenik ere bazegoen. Garai hartan, amorr handia zegoen jendearen artean.

Transkripzioa

-Fusilautako jendeik-eta, izan zan hemen?

-Ba fusilautakuk bai, bazien fusilautakuk´e. Gure gizonak hemen behin baiño gehiotan esan izen zun, bea´re eon zan hure´re, hure nazionalistie zan ta, kartzelan´e eon omen zan, Azpeitiko kartzela baten. Eta beak esaten zuen, bi ein omen zituen atea, esan... batenbat jun omen zan eta apaizek konfesatzea nahi baldin bazeben, ta gero bazekiyen beak hil in ber zebela, eta bi gizon behintzet konfesau zitun. Beakin batea zeuen, apaize´re nere gizonakin batea zeuen kartzelan.

-Apaiza kartzelan zeon?

-Bai

-Zeatik zeon?

-Hure´re jakiñe ba, hure´re politikue zala ta! Kartzela. Eta gero hantxe kartzelan aber apaizik ba al zeon ta baietz ba, ta hala jun omen zan. Ta gero harek esan omen zun: "Bat behintzet seguru-seguru zerure jun dek, bestie´re hor nunbait, baiño gizon jatorrak dituk". Ta in zeben goizaldien, eta gure etxien aurrien, urruti zeuen e, baiño kamiño bix-bixten eman haraxe ta bota, tirotute. Kartzelatik atea ta hantxe. Gure bixten, etxetik bixten, bi gizon han botata. Eta... Urrestildarra zan gizona behintzet. Eta, aitu nuen, haren zapatak jantzi ta bean entierroa jun zala, ta holakuk aitze zin ordun´e. Lehenengo tiruk eman, gero gizonan oiñetakuk hartu ta bean entierroa jun ta. Oaiñ´e badala baiño orduntxe´re bazan...

-Isilago pasauko zien gauzak ordun.

-Ene... Bai baiño ordun elkarrentzat amorrue earra zan ba.

8.5. Gerra eta kartzelak vs gerraostea eta gosea

- **Hizlaria(k):** Olaizola Gurrutxaga, Juliana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-013/030
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:53:23. **Bukatu:** 00:55:15

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Azpeitiko kartzela non zegoen azaltzen du. Txikizio handirik ez zen izan orduan, baina egoera zaila izan zen. Goserik ez zuen pasa gerraostean. Baserrian beti zuten zerbait prestatzeko, baina ezkutatu egin behar izaten zuten, bestela entregatu egin behar izaten zuten eta.

Transkripzioa

- Esan dezue kartzela. Kartzela nun zan Azpeitin ba?
- Oin kartzela, ba oin betarramistetataneko aurre hortantxe. Betarramista alde hortantxe, e... Ordun kartzeli zan ba, taberni ta daon hortxe.
- Ze taberna?
- Em... Pastorkua o taberna bat?
- Bai.
- Hortxe.
- A, han zan?
- Bai. Hortxe. Hortxe, gero edifiziyue zaneke hortxe [...]. Hortxe zeon kartzelie.
- Txikizio haundik izan zien hemen?
- Ordun txikiu txikiu, hola, txikiu ez zan eiten, hola txikiziyoiaken. Ez zeon ordun... Baiña ordun... parin harrapatzen zebena ordun´e... jakiñe. Harrapau iten zan ordun e... Lehen esan dana, batzuk lehenengo ihes in behar izan zebeñ karlistak, ta ordun aurrin harrapatzen zituenak harrapau ta eman iten zuen, ta gero hurruna bestie berriz, ta hurruna bestiek hartu ta ematen zituben ta. Ordun majiña bat etxe ezerre be gerau zien kontuk, eta etxetiken muebliek eta danak harrapatzen zitubela ta.
- Denbora asko iraun zun?
- Hiru urte gerra harek iraun zun. Bai. Nahiko luzi izen zan bai. Nahiko luzie izen zan.
- Goseik pasa zenuen?
- Basarrin goseik ez zan izeten. Ni ogi zale haundiye izen naiz ta orduntxe fallo haundiyena ogiye, baiño goseik ez baserriyen, beti ite genun zeoze, ta patatie ta babie ta etxeko... Lehen esan detana, etxeako gordetzen jarduten genun, gorde ber etxeako, gorde behar bagenun´e, lur-zulue in eta han zeak barrikak sartu ta han jan...
- Hori zertarako?
- Han sartu ber izen giñuzen babie ta! Jango bagendun gero! Gariye ta! Hoiiek. Bestela etxea jun ta errekonozitzen zebeñ eta ematen ziun kastigue, aizu! Hamen daukezuelako. Ta geuk indekue izen! Geuk jateko ber! Ta entregau in ber izeten zenun derrior. Ta entregatzen ez bazenun, ba, oso txarra izeten ziñen.

8.6. Soldadu zeudela, ezin euskaraz hitz egin

- **Hizlaria(k):** Amenabar Ibarbia, Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-022/005
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:06:15. **Bukatu:** 00:08:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
Politika » Euskara eta politika
- **Laburpena:** Soldadu zegoela, guardia egiten jarri zituzten bera eta beste gizon bat. Ezin zuten euskaraz hitz egin, eta San Markosen horregatik jasotako zigorraz oroitzen da.

Transkripzioa

- Zuek, zuk gerra garaie... osea gerra atea zen garayen hamasei urte zeuzketzun?

- Bai, ez e... "treinta y seis"-ien ertetzen zun da, nik "treinta y seis"-ien... "veinte", "veintidos"-ien jayo. Ez dakit zenbat urte izengo nitun, hamabosten bat o hamalauen bat o, ez dakit.

- Ta guardia itten gartzelako atarin eoten ziñen?

- Bai [...].

- Zu bakarrik?

- Ez, bakarrik, ez. Beste zeaen batekin, kasteillanoen batekin ta... esto ahopien hitz eiten zun, erdiye ez nun entendiun iten. Ta badakizu, erderaz gutxi ginduken... eta geo, ya, euskerie bastante kastigau zeben. [...] Ta rekuerdo bat dauket, sekule bizik ahazte ez zatena. San Markosen eon nitzen geo soldau, ta Axkoitiko este... zeakue, Urriakue, Jose Azkoitia, eta bestie Txulotakue Ramon Jauregi, eta bi hoyek ez zekiyen erderaz ezta ez "si" ezta "no", ez zekiyen. Izeten da, ba, tartien txoko baten jarrite... ta gu, ez bixtie auki... urrutiyen jarri bagiñen, ordun, urrutiyen jarri bagiñen... urrutire ikusiko genun "sarjentue bazitorrek" eta euskerie hitz eittie laga ingo giñon, baiño txokun gure ustez iñok ikusi... Hare "da!" kontura zen euskeraz hizketan ari giñela. Bazkaldu berriye zan, zaldi gaiñien jarri zen ta latigukin... Sekula akabatzen ez zan birie Puente de Santiago, este San Markos... borobille da kamiñue. Ta Latigukin, benga ta... gu belaxe jateko danak botatzen... ta ez zigun inporta. Ja ta lurrea. Lelenengo, este... Urriakue eroi zen, bigarrena ni eroi nitzen, eta hirugarrena, Jauregi zea hori... este Txulotakue... oso txiki... zea zan. Eta "mecachis la mar serena", ta izeten da, ba, tipo hure... Ordun halaxe zan gauzie. Halaxe zan.

8.7. Gerratik bizirik txiripaz ateratakoa

- **Hizlaria(k):** Oiarzabal Abalia, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Badihardugu Euskara Elkarte
- **Erref:** AZP-024/021
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:36:50. **Bukatu:** 00:38:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- **Laburpena:** Gerra garaian, bere ondo-ondoan bi pertsona hil zirenekoa kontatzen du.

Transkripzioa

- Lehen esan dezu umetan gose asko pasatutakok zeatela. Gerra garaie ezautuko zendun.

- Jolin, iye hil nitzen ta, hori esaizu gaiñea. Iye hil in nitzen. Ondo-ondun holaxe bi lagun hil zitzen nei, holaxe, holaxe. Bi. Bat tio, tio bat eta beste bat, holaxe. Hemen kanposanto bidien, hemendik zureana baiño hurrero

bonbie lehertu ziten nei. Holakotxe koska bat nauken ta haretzek salbau!
Artien umie nitzen, karo, treintaiseisin eo.

- Bai, zuk zazpi urte.

- Sei-zazpi urte, holakotxie nitzen ta. Juxtu-juxtu petrilla, harexek salbau!
Haiek ni baiño haundiyo nola zin, holaxe harrapau zitun haiek. Bi lagunek.
Hantxe hilde. Hartu nitun besun, han beste bat bazaon, haure itsutu in
zeen. Eman nitun etxea ta, hantxe.

- Kalen izan zan hori?

- Bai.

- Kalen.

- Kanposantu bidin, hasi ta seitun, matadeiyen onduen.

8.8. Gerra eta orduko beldurra senitartekoen zoriarengatik

- **Hizlaria(k):** Agirre Esnal, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-027/006
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:09:39. **Bukatu:** 00:12:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939)
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Gerra atera zen eguna gogoratzen du. Espainiako bandera ez jartzeagatik, aitzak erreketekin zer elkarrizketa izan zuen kontatzen du. Etxean ez zuten soldadurik izan, eta inguruan bonbarik ez zen egon. Hainbat senitartekok gerran ibili behar izan zuten soldadu. Etxean Elgeta inguruko bonbak entzuten zituzten, eta senitartekoak gaizki egongo ote ziren beldur egoten ziren.

Transkripzioa

- Nola goatzen zu e... gerra atea zan garaye? Gerra atea zan eunen zu
hemen zeuden?

- Bai, bai.

- Eta... honea tropaik eta alleau zan?

- E... honea reketiek eta alleau zien honea, ta bandera espainola zean
hemen balkoi... Bueno, etxe hau ez zan hola ordun... Etxe hau oin dala
hamalu urte o berritude dao, antzemango ziñon etxe hau eztala lengo
etxetakue... Ta leyun eukitzeko bandera espainola, ta... gero behintzet,
reketiek eta etorrite ya gure aitte zanak gordeta zauken hure, gordeta o
ixkutaute... ta reketiek etorri te ia zeatiken ez zun hure leyun, ia zeatiken
ez zun... ta joe, bildurre ematen ziyola... alegiye, bazien orduen'e, ba, CNT-
kuek o esaten ziyobenak eo, bestealdekek hola...

- Nola esan diozu?

- CNT.

- CNT?

- CNT, bai... esaten ziyobenak'e bazien... Ta hayek etorri te bandera
espainola hamen harrapatzen baldin baziguen danok garbiuko giñuzela
ta....

- Bai, aitzakien bat jarri ein ber.

- Bildur hori ez zun aukiko, baiño hori esan behintzet eta. Holaxe... ibili
giñen.

- Euki zittuzuen etxen sartuta, reketek o?

- Ez... ez, ez.
 - O soldaduik o hemen?
 - Ez, hamen inguruen ta ibili bai, baiño ez.
 - Bonbaik eta halakoik?
 - Ez.
 - Hemen ingurun ez zan izan?
 - Ez. Hamen ingurun ez. Baiño nik bi osaba nittun Bizkaira junda. Ni akordatzen naiz hayek nola jun zin. Bi osaba...hamen, nere bi osaba hamendik eta beste bi anai Garatxabalkuak. Gero erakutsiko dizut. Gure amona Garatxabalkua zan, ta hangyak bi, lau lehengosu, ta beste bi o hiru o eztakit ze zien Bentaberritik, beste bat Lastaolatik, ta hure hil in zen gaiñea, bat hil in zen. Bestiek bizik ertetzeko suertie izen zen, kartzelak eta trabajadoriyek eta kristuek eta pasa zittuen, baiño bizik etorri zien bestiek. Ta gu nere aitte zanakin mutil koxkorra mendire jun da ardiyek... bille o izetea, ba, ardiyei beitzea o... ta, behintzet, aitzen zien ba, kriston danbatekuk, kaiñozazuek eta... hor e... Arrate alde hortan ta, Elgeta inguru hortan ta... hor kriston frentie eon zala ustet. Gogorra izen ber zun hor. Ta aitte zanak nola esaten zien goguen daket nik: "gure tio Joxe ta tio Luix te biziko ote dituk? Hortxe ibiliko dituk ba hayek! Ta biziko ote dituk?". Ta, jo, bildurrez amorratzen, izeten da ba. Ba, hiru urte pasa ta etorri zen bat, e! Gerrie bukau ta gero trabajadoratan eon... ta hiru urte pasata etorri zen bat. Bestie pixket lenuo etorri zen.

8.9. Garia entregatzeko pasatako komeriak

- **Hizlaria(k):** Agirre Esnal, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-027/007
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:12:54. **Bukatu:** 00:15:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
 Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Baserrian bizi arren, gosea pasa zuten; izan ere, gari mordera entregatu behar izaten zuten. Gariaren uzta urte batean ez zen ona izan, eta entregatu egin behar izaten zuten, estutasunak pasa zituzten etxeko denei jaten emateko. Garia entregatu ahal izateko, batzuetan erosi ere egin behar izaten zuten.

Transkripzioa

- Goseik pasa zenduen?
 - Joder! Asko ez, bakarra.
 - Ta bea nahikoa.
 - Bai.
 - Bueno, baserritarrak hala're pixka bat defendittuko ziñeten...
 - Bai, baiño gariye entregau ein ber izeten zan mordera kalea... Goiko Errotie o zan... oin botata han itxiek inda daude baiño..
 - Nun zan... Goiko Errota?
 - Kartzel... Oin anbulatoyue badao ba?
 - Azpeitiko anbulatorioa?
 - Bai.
 - Bai.
 - Hortikentxe, hortxe gertu zen Goiko Errotie... Hoi baiño pixket hautzo

izengo zan eo, eztakit ze... bai, bai, hautzo izengo zan zeoze, hortxe inguru hortan.

- Eta hautza juten izaten hemendik?

- Eamanazi eiten ziguen garaye. Entregau ein ber izeten zan gariye.

Mordua... hamabost [...] gari o... ta hau're basarriye hain haundiye ezta...

Gari urte ona zanian ondo arreglatzen giñen, bastante baiño... Urte bat

tokau zen aiñua o... Zuk eztakit aitu dezun behin'e? Aiñua esaten zan...

hori izeten da gariyei burue beztu, beztu eiten zako. Ta...

- Zer da gariiek aukitzen dun gaixo bat? Gaixoa o...

- Gaixua, bai, bai. Ali izeten du ikearri exkaxa eta gutxi gaiñea. Zea

lastazue hartu eta ipurdiyen karga geyo, buruen baiño. Ta, ikearri gari gutxi

izen zan behintzet eta, entregatzeko're baiño gutxiyo... ta pentsau zauzu,

hamahiru lagun inguruko familiye itxin ta... Nik hamahiru lagun ezautu

nitun itxien, e!

- Hamahiru?

- Bai, urte hartan artien eongo giñen, baiño hamahiru ezautu nittun, bai!

Ta, gure aitte zanak nola esaten zun goguen daket: "Hauek, txerri hauek

hauek... ez daukeunai're kendu ite zoabe... Nunbaitetik gariya erosi itea?

Dirua eongo zan ba [...] etxin? Ta, nola hala eaman behintzet ta... Gero

etxien ze jan ber zan?

- Bai, hamalau lagun betetzeko...

- Hamahiru... hamahiru, hamahiru lagun ezautu nittun nik. Eztakit... oin

esaten detan urte hortan... urte hori leno iual izengo zan... Esan nahi nuke

osabak ta etorri baiño leno izengo zan hori, eztakit hori.

- Asike kanpotik erosten zenuen garie eta gero entregau?

- Bai, entregau.

- Ze izaten zan estraperloan erositako garie?

- Estraperluen?... Ez.

- Bestela?

- Bai.

8.10. Burdinazko Gerrikoa egitera Sodupera

- **Hizlaria(k)**: Urbistondo Lasa, Basilio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZP-031/022
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:45:33. **Bukatu**: 00:47:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Lekeition egon ziren apopilo hiru anaiak 20 bat egunean. Handik Sodupera joan ziren Burdinazko Gerrikoa (Bilboren defentsa) egitera.

Transkripzioa

- Eta zuek? Ondarrutik nora jun zineten? Zumaitik Ondarrura, ta?

- Lekeition egon giñen apopillo hogeien bat egunien eo. Eguneko hamar erriel kobratzen ziguen, pentsiyo baten, ta...

-Pixu baten?

-Hiru anaie. Beste laugarrena, hure... harek kintue zauken gaiñin ta hure

boluntariyo zera... Nazionalistan batalloi baten zea in zeen, afiliatu zeen

ta... Geo, han gendela, "cinturón de hierro" itea jun giñen gu, hiru anaie,

zeara, Sodupea. Bai.

- Zer zan "cinturón de hierro" hori?
-E?
-Zeini deitzen ziozuen...
-Bilbon defentsie ipini zebeu, zanga bat, zanga bat, besteik ezer ez. Han tropak haraiño etortzen zinin hure "inexpugnable" izengo zala ta. Zanga bat besteik ez. Ordun, habek zeuken, Francok zeuken armiekin harek bate ez zun baliyo. Errezena hauxe pasau zebeu. Hura hasi Sodupetiken eta, bueno, hasi itsasotiken, ta Sodupetiken buelta Orduña aldetiken zeara, Mungia aldea ein zeen buelta. Berrogeita hamalau kilometro eo ein zeen, ta.

8.11. 'Pirenaica' irratsaioa ezkutuan entzuten

- **Hizlaria(k)**: Lizaso Mendizabal, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Odria, Haizea
- **Erref**: AZP-033/006
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:10:54. **Bukatu**: 00:11:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- **Laburpena**: Andorratik Pirenaica irratsaioa ematen zuten, eta Euskadiko albisteei buruzkoa izaten zen. Guardia zibilen batek hura entzuten harrapatuz gero, kuartelera eramaten zuten jendea, eta han egurra eman. Iñakiaren anaia eraman zuten batean.

Transkripzioa

- "Andorra la Vieja"... Hayek ematen zituen, ba, Euskadiko gorabeherak eta... Baiño guardia zibillen batek eo aitzen bazun ordun kontuk.
- Ze iten zebeu ba?
- Zea!?
- Fuera?
- Fuera! Zu kuartelea. Ni ez niñuen behin'e eman, baiño hori bai!
- Anaye?
- Geo, egurre.
- Ta harrapatzen bazizuen aitzen hori?
- Zein?
- Hori aitzen harrapatzen bazizuen...
- Etxien radiyue obserbatzen bazuen, zu "Pirenaica" o holaku aitzen ai ziñela... Jolin!
- Ordun ixkutuen aitu ber hori're?
- Bai...
- (Hiztuna 1) Politikuk, partik ematen zituen ta.
- Harek ematen zitun hemengo politikunak. Garai hartan igesi junda zaurenak. Monzon ta hoyek Frantziyen bizi zien ta.

8.12. Enparan Gaingo mutiko bat tirokatu

- **Hizlaria(k)**: Esnaola Garmendia, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber

- **Erref:** AZP-058/029
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:35:06. **Bukatu:** 00:36:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- **Laburpena:** Soldaduek Enparan Gain aldean zebilen mutiko bat tirokatu zuteneko kontakatu du. Joxe Mari eta etxeok zuhaizpean egon ziren ezkutatu.

Transkripzioa

- Ordun, beste gauz bat da, ba, e, gaztie, gu baiño zeoze sasoe... Enparango... hauen tarteko zea, mutille. Zea, mutil koxkorra ibili ganau-zai o zea, ta hortiken, kruze hortatik, hor goitik pasa zin mordo bat, hauzkaldetik. Beste pixkat honea ta beste pixkat hamendiken. Bai, ba. Zea, herriye hartzeko. Ta mutil koxkor hori nunbait bildurtu da /bildurtua/, behi-zai emen zebillen ta bildurtu da, ta [...] sartu ta tiro iten debe /iteebe/ bestiek -bai, ba, militarrek eta- ta ja-ta bertan hil.
- Izkutu nahien jarriko zan hue ´re.
- Bai, bai, bildurtu! Zein bildurtu behar zan ordun, zein bildurtu behar zan.
- Zuek hemen egon ziñeten, etxen.
- Bai, gu hortxe zea arbolapien ikusi giñun. Gu arbolapien egon giñen.
- Bildurra izango zan.
- Jo, bildurre, bai.
- Bonbaik o bota zuen hemen?
- Ez, ez, ez, hamen ez, hamen bonbaik-eta ez zan eze bota.

8.13. Gerra hasi eta andereño lana galdu euskalduna izateagatik

- **Hizlaria(k):** Aranguren Olazabal, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Odria, Haizea
- **Erref:** AZP-061/005
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:05:56. **Bukatu:** 00:06:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Gerra hasi zenean, hamar urte zeramatzan andereño lanetan. Baina euskalduna zenez, eta bera bezala beste batzuk ere, lanetik kendu egin zituzten. Beren ordean andereño erdaldunak jarri zituzten.

Transkripzioa

- Ta geo gerrie erten zanien, ni euskaldune nintzen ba!
- Ta fuera?
- Bota. Ta hamar urte namatxiyen e? Ta erabazten nun "una miseria", baiña neu nola gustora nebillen, umiei gustatzen, nere gustora, ni [...] "no me aspiraba a nada a mí", ezer ez zala kanpoa juti're ez, ez, umiekin [...], umiekin, umiekin zorutzen. Gero gerrie aillau zen, ta aillau zien tropak eta gu euskaldunek giñela ta kalea. Ta nerekin batea monja bat egoten zan naparra, haure're kendu in zeben. Beno, gero konbentu beak destinau zun kanpoa, baiño eskolatik kendu in zuen. Eta geo, zea, erdeldune, erdeldune. Ta geo señorita bat hori ihesi eta horretako bat, señorita bat'e uste det eon zala, señorita Katalina o ez dakit zer, umiei erakusten egoten ziyona.

8.14. Etxeko jeneroa entregatu behar zeneko garaia

- **Hizlaria(k):** Unanue Aizpuru, Juanito
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-067/009
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:15:08. **Bukatu:** 00:17:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Etxeko jeneroa erabiltzeko, lehen ezkutuan ibili behar izaten zuten. Behin ama etxeko jeneroa entregatzera joan, eta isuna ordaintzetik libratu zenekoa kontaktzen du.

Transkripzioa

- Estraperlo asko eitten zan?
- Estraperlue... geuk e... geure jeneruekin ihotzeko estraperluen ibili ber!
Gariye ihotzeko ta artu ihotzeko ta... estraperlun ibilli ber!
- Zen estraperloa eitten zan? Ze jenerona?
- Estraperlue... itxeko jenerua, itxekua, hure estraperlukua ez da. Itxekua da. Hure ihotzea eamateko're ixkutun ibili ber.
- Bai, baiño esan nahi det estraperloko jeneroa ibiltzen zan?
- Ez, ez, ez, ez, ez... ez, ez hori nik ez det ezautu hamen. Hamen ez det ezautu estraperloiken gai hortan. Etxeko jeneru ibiltzeko ixkutuka ibili ber. Estraperlun ibilli ber. Ta...
- Sekula konfiskau zizuen....
- E?
- Iriñik o konfiskau zizuen sekula?
- Ez, ez, ez...ez.
- Ez zizuen harrapau?
- Zea... beste baten e... ama jun da oillaxko pariekin ta gazta batzuk ... ta esnie're bai... Ta Aizpeitiyen zaintzen zeak... delegauek. Azokie saltzea eaman ta delegauek zaintzen. Ta gure amak ordun e... hartu te kantin esne hoyek e... eta eaman dizte grupua eta delegauek eta han kanti hoyek ta delegauek eta andra geyo're hartu ta bestiek geyo eamatea. Ta gure ama horrek aldein ta ayuntamientoa jiyo. Ta zan ordun e... nola zun izena... han e... Printzipalienen eoten zan zea bat gizon batek esan diyo, mutil zarra zan, ta: "Hola ta hola in die. Ta... ze in ber det nik oin?" esan emen ziyon. "Ta aldein in al diyozu?" ta "bai, bestiei ekartzea jun zien ta trastik han laga ditut; gazta, esne ta patatie're baietz ustet ta arrautzek'e bai. Han laga

ditut... Ni jakitea etorri naiz honea ze in ber deten". Ta "bueno, exkuta zure burua!". Ta hartu exkuta, handik alde in. Ta astu hartu ta etxea utzik etorri zan. Etorri emen zan! Ta ordun e... etxeko jenerua eman ta delegauekin munta (multa) zenduken. Ta munta (multa) zenekin pagau? Ordun diru're gutxi izeten zan!

- Urri...

- Bai, bai oso urri. Kalin'e bai e!

8.15. Aitaren ganadu onari esker, etxean goserik ez

- **Hizlaria(k)**: Unanue Aizpuru, Juanito
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZP-067/016
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:27:44. **Bukatu**: 00:29:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Gerra garaian ez zuten goserik pasa etxean, aitik ganadu ona baitzuen, eta hura saltzean dirua lortzen baitzuen. Dendan erosketak egitean, ordaintzeko hainbat modu zeudela azaltzen du. Aitaren ganaduak sariak irabazi zituen, eta ganadu haiekin zer egiten zuten kontatzen du.

Transkripzioa

- Goseik pasa al zenduen?

- Ez. Gose... gose-gosik ez. Itxin eukitzen gendun e... ardiyek etxin eukitzen giñuzen. Ta akordatzen naiz batien... Nik eztakit nundik sortzen zun, baiñe gure aitte zana ganauzale ona zan. Premiyotan ta ibiltzen zana zan... Ta urtien e... behi bat eo saldu're iten zuen ta diruten saltzen zitun. Ta dirue... eztakit... hainbeste ume izeteko... ta neu ta [hau ta hare]... hamen beste auzokuei beira jarri, hor lerta ta basarrikuk ta hoyek... gu dirue... ogiyeta juten bagiñen'e gu diruekin bialtzen giñuzen mutil koskorak, kalea ogitea juten bagiñen. Ta auzokuek, denda juteko lakai babie ta... lakai... ta hola ematen zituen pagatzeko. Nik hori goguen daket. Gurin beti... ganau ona aukitzen zun gure aitte zanak. Oso ona, premiyotan ta ibiltzen zana. Ta oso ona aukitzen zun.

- A, bai. Premiotan ibiltzen zan?

- Bai, bai. Oso... oso ganauzale ona zan.

- Eta... nola preparatzen zittun... premiotako ganadue?

- Ba... kargu ein, raza ipiñi. Gorriyek eukitzen zitun. Raza ipiñi, kargu in... ta

- Ze ipiñi?

- Raza, raza ona...

- Raza ona?

- Raza ona ipiñi. Ta geo... ixko... hayen umiek ixkotako hor zea oin haziye ipintzen ibiltzen die... Ordun eoten zien hermandadiak hor Elosun e... baillera baten ixko batek ipiñiko zun, handik bi o hiru urtea beste bati tokako zitzekon. Ta ixkotako ta saltzen zitun. Ta hemen ibiliteko gure behiyek... salduteko... Madriden'e premiyotan izenda emen dao.

Hayenetakue.... A hor Zeler eo Axkoitiko basarriko zea batena... Nik ezautu nun hango aitte zana, geo ezautu nun baiña... harek nola etortzen zan honea ta behi... zea horren umiek eta nola eamaten zitun ixkotako ta nola

8.16. Gerran hildakoak plazan jartzen zituzten

- **Hizlaria(k)**: Iburguren Iparragirre, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZP-071/029
- **Iraupena**: 0:03:09. **Hasi**: 00:45:55. **Bukatu**: 00:49:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- **Laburpena**: Eraso militarretan ikusitakoak gogoratzen ditu Mariak. Bonbak ezagutu zituen etxetik gertu. Anaiak nahi ez bazuten ere, gerrara joan behar izan zuten. Gerran hildakoak herriko plazan jartzen zituzten familiartekoak beren bila joan zitezen; Maria beti joaten zen anaiak han ote zeuden begiratzerara.

Transkripzioa

- Denbora asko in zuen?
- Nun? Zeak, gerriak?
- Bai.
- Ordun e... Urte pare bat eo iraun zun, e, gerrak.
- Baiña tropak zuen etxe inguruan?
- Ez, ez. Ez.
- Egun baten jun ta bertan aldein ala egon zien egunetan?
- Ez. Atakiek iten zituen Elosiyako zeatik, eta beste aldetik frentik zeuden, eta martxa zea in arte. Makiña bat gixajo jun zan, hilda, Herniyoko zeatik, Zelatundik, behera, `traka, traka´. "Eta horren laguna nun dezue?" esaten giñon. Ta "han geldiu da". [...] batek eo bestik.
- Hernio aldea juten zien?
- Hernio bidetik sartzen zian tropak eta bestik beste aldetik, bai. Eta gure etxen bazeoan pandero bat, alkoba baten. Makiña bat dantza in zun / intzun/ `tak tak tak tak´, ametralladorak saltatzen zun, panderuek! Ez pandero jotzen [...], hango troteuekin, etxien.
- Dardara harekin?
- Bai.
- Bonbaik sekula gertun o?
- Etxe inguruan ez baiño hurrian bai. Bai. Hurrian bai.
- Jendek´e baserritatik-eta alde egin zun?
- Guk´e anaiak eutsi ezin etxen. Bazijoaztela ta bazijoaztela ta eutsi giñun eta azkenian gerra. Soldautzia otsein ziyobenien jun in ber. Etortzen zienien, "oantxe herrire etorriko dittuk ba, hilde ekarriko ditxiabe". Ta esneta jaisten nintzarian ni esniakin, etxea ez nintzen juten ni baserrira ikusi arte, hildakuk aiuntamenture ekartzen zittuen ba. Hola. Azpeittin, ezta? Ta hola ipintzen zittuen aber zein ote zan. Eta ni ez nitzen /enitzen/ juten, anaiak bat ekarri ote ziguen, etxea ez nitzen juten ni ikusi arte. Ta etxea juten nitzenien amai esan nion: "Ama ez debe gureik ekarri". [Hildako...]. Tristie
- Oso.
- Tristie zan hure, bai. Eta hoixe.
- Afusilautako jendeik izan zan? Eo urkatutakoik eo?
- Ez, han bertan ez. Ez det uste, ez. Bestela tiroz [...]. Beno, nik kanpon ez

dakit /eztakit/ ze ingo zittuen, hildakuk kamion baten zeak bezela ekartzen zittuen.

- Kamionen ekartzen zittuen?

- Hildakuk bai! Azpeiti inguru hortakuk ekartzen zittuen hildakuk aiuntamentura Azpeitira. Ta ipintzen zittuen Azpeitiyen aiuntamentun. [...]. Eta bakoitzek berie jasotzen zun. Hau gurie da, bestie bestiena, ezautzen zunak...

- Lurren egoten zien?

- Ez, mahai gaiñetan ipintzen zittuen hildekuk.

- Askok izan zan? Hildako asko?

- Bai, bai. Askok izan zan bai. Tristie zan hure. "Ama gure etxeok ez debe ekarri. Hurrengo egunin zein ekarriko ote debe? Hil emen dittue han, bai."

8.17. San Pedroko tiroketa

- **Hizlaria(k):** Arzuaga, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Frantsesena, Eñaut
- **Erref:** AZP-081/009
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:09:26. **Bukatu:** 00:11:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- **Laburpena:** Mezatik bueltan, Maritxuren anaia eta beste bi auzoko San Pedrorra zihoazela soldaduek tiro egin zien. Maritxuren anaia arto-soroan ezkutatu zen, beste lagun bat zauritu egin zuten eta hirugarrena, berriz, hil egin zen. Isuna jaso zuten nazionalistak izateagatik. Behin tropak Azpeitira sartu zirenean, soldadu batzuek egunak pasatu zituzten Maritxuren etxean.

Transkripzioa

- Gerra aurreko atzen hauteskundik.

- Bai.

- Eta gero buka zazu, ba, ama, istoriye.

- Eta, gero, gero gerra ondorenin ikusitzea erten gendun. Ya bazetozen tropak sartzea eta jun giñen San Pedroaiño. Ba al dakizu nun daon?

- Bai, Martzieleneko zea daon hortan.

- Hareaxe giñuzen, ta [ekiten dizku tiroka]; tiro bakar batzuk izen zien, e? Zuen tio hil zana, Joxe.

- Bai, bai, bai.

- Bai. Eta gure anaie, batea zijuzen kaletik etxea, zijuzten. Kalien mezetan izenda etxea. Eta etzanda zeudela tiro hoietan, nunbait, gure anaie, artue zeuen soruen, ta artasoroa sartu zan, nunbait. Eta Joxe hil zan, Nikolas eritu zan, ta beste bizitzekue, bost, hirurek zien, bai. Eta hoiekien akordatzen naiz, ene... Ondo, oso ondo, atzo pasaute bezelaxe. Eta gero ondorenen, sartu zien zeak eta nunbait botue, multak bota zizkun nazionalistak giñenai, eta, holakotxe gauzek. Gero gerra ondorenen akordatzen naiz nola eon zien soldauek´e gure etxin, egunek pasa zituben hantxe. Tropak ya sartu zienien honea, Azpeitiyen sartu zienien.

- Eta zertan egon zien?

- Ez, hantxen, bijilaziyuen, bigilatzen bezela, bai.

- Baiño zeuek bijilatzen eo herriye bijilatzen eo...?

- Herriye bijilatzen, bai, guri ez ziguben /etziguben/ ezer´e... Oso jatorrak

tokau zin gaiñea, behiñ´e ez zigun /etzigun/ ezer esan ta, oso ondo porta zin gurekin.

- Ta nunguk zien?
- Ezta ideaik´e.
- Erdaldunek o euskaldunek o?
- Erdeldunek, erdeldunek zien, bai.

8.18. Fusilamenduak Urrestillan

- **Hizlaria(k):** Gurrutxaga Lesaka, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-091/004
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:01:40. **Bukatu:** 00:04:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- **Laburpena:** Azpeitiko parrokoak ez zuen bertan inor hiltzen uzten. Baina Urrestillan faxista bat zegoen apaiz eta, horregatik, bertara eramaten zuten jendea fusilatzerara. Bonbak botatzen zituztenean, ukuiluan babesten ziren. Bidania gainean bota zituzten bonbak. Soldaduak Beasaindik sartu ziren, Mandubitik.

Transkripzioa

- Asike gerra denbora ondo ezautu zendun ordun.
- Gerra denpora ondo ezautu noan. Ondo ezautu noan gerra. Makiña bat hildeko ikusi gendun guk. Afusilauta, hilde ez, afusilauta.
- Baiño hori Urrestillan kalen ala zuen etxen´e bai?
- Urrestillan. Azpeitin e... zeon parroko zahar bat, ta harrek ez zuan uzten Azpeitiko partian iñor hiltzen; beno, Azpeitiko herriyan iñor hiltzen. Baiño Urrestillan zeon faxista bat, falangista bat apaiza. Harek esaten zun "Honea ekarri ta hamen hil". Ematen zituen gauero-gauero Urrestillara bi-hiru, bi-hiru ematen zituen. Han hiltzen zituen ta gero han enterrau. Enterrau ez, erdiek bistan eoten zian kanposantuan. Tristia zan oso. Gu hantxe mutikuak, bildurrez. Abioia, aeroplanoa etortzen zanian e ikuillua jun ta hango baztarrian gordeta.
- Zuen etxe ingurutikan pasatu zien soldaduk?
- E?
- Zuen etxe ingurutik, zuen baserri ingurutikan, pasatu zien soldaduk eta? Ala kaletik?
- Bai, bai. Kamiñun pasatu zian baiño, han e, pf... Han karlistak gaiztuak zian. Oso gaiztuak. Ordun zan kriminala ordun. Ordun hiltzen zituen...
- Nun refugiatzen zien eak?
- E?
- Nun refugiatzen zien o nun eoten zien eak?
- Eak nun?
- Bai.
- Herrikuek zian!
- Han herrin bertan eoten zian?
- Herrin bertakuek. Ezautzen zituen zein zian naziolanistak eta zein zian karlistak eta.
- Baiño esan nahi det herrin bazeukean tokin bat...
- Hiltzeko?

- Alkartzen zienak eak.
 - Herrian e... Nunahi hiltzen zituen! Kamin baztar batea eman, han bota ta gero hurrengo egunin juten zan enterradorie, karretillakin eamaten zitun kanposantura. Ordun errez hiltzen zuen pertsona.
 - Nundik sartu zien?
 - Sartu Beasaindik. Beasaindik, Mandubitik, Matxinbentatik, Nuarbetik pasau zian Urrestildikan "Batallón Loiola", Azpeitira.
 - Bonbaik eta?
 - Bonbak, gureandik aparte, "Alto de Bidania"-n , han bota zituen bonbak. Ta gure amama ta... Beno, guk `amama´ esaten deu, e?
 - Bai, bai.
 - Gure amama ta izera zuriye zabalduite pakie zea iteko ta, bonbak hasi zienien bildu ta danak, aitte ta aittona, aittitte, ta danak ikuillura, ikuillu baztarrin gordeta. Abioiek aldein zuen ta ordun... Hamen, Elgetan´e bonbardeue ein zuenien ere gure etxeko kristelak "trrra" moitzen zian. Bonbardeue. Bildurre ez genduken, zazpi urtetik zortzira, ta...

8.19. Soldaduek ganaduak eraman

- **Hizlaria(k)**: Gurrutxaga Lesaka, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZP-091/006
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:07:02. **Bukatu**: 00:08:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
 Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
 Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- **Laburpena**: Osaba gerratik ihesi zihoala hil zuten. Soldaduek ganaduak kentzen zizkieten baserritarrei, batailoietan zer jan edukitzeko. Karlistek herri bat hartzen zuten bakoitzean, eskola-umeak kanpaiak jotzera joaten ziren.

Transkripzioa

- Jendek alde egin behar izan zun herritik, Urrestildikan kanpoa ihesi?
 - Ihesi, nere osaba´re ihesi zihoala garbitu zuen. Solterue. Ordun errez hiltzen zuen.
 - Ganaduik o, etxetikan...
 - Bai, kentzen zizkuben. Kentzen zituen txahalak eta, batallioiak badakizu zenbat, zenbat jende! Eak han, karnizeruek eta eak hil ta eak preparau ta eak jan, ta. Txahalak-ta ematen zituen, hartu baserritik sokatik, ta ez pagatu ta ez ezer ein gabe.
 - Zuenetik eaman zuen?
 - Guretik bat eaman zuen. Ba ordun ez zeon ezer esaterik, bestela...
 - Ixilik eon behar.
 - Bestela [...]. Hola zan gerra denborako haseria. Ta gero bukatu zan. Gero gu eskola juten giñan pixkat bat, asko ez. Juten giñan ta, herri bat hartzen zuenian karlistak, herri bat hartzen zuenian, kanpaiek jotzea juten giñan. Ordu bete bat eo. Maisua, maisua´re karlistia zan ta "Benga, eman horri!". Sokai, kanpaiei "tan-tan-tan-tin-tan-tan". Ta baserritan galdezka "Ze herri hartu due? Ze herri hartu due?", "Ba holako herrie hartu due".
 - Eta zuek nundik enteatzte ziñeten ze herri hartu zuen?
 - Hori enterauko ez giñen ba! Beak jotzen zitun kanpaiak!

- Baiño esan nahi det ze herri zan, gaur bezela ez telebisio, ez radio, nola enteratzen ziñeten?
- Kanpaiek aitzen zianian "Zein herri hartu due?".
- Herrin bat hartu zuela bai, baiño zein hartu zuen?
- Bai, bai. Seitun zabaltzen zan.
- Zabaltzen zan?
- Bai.

8.20. Soroan lanean ari zirela hil omen zituzten zenbait herritar

- **Hizlaria(k):** Alberdi Aldalur, Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirre, Eli
- **Erref:** AZP-092/012
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:11:30. **Bukatu:** 00:13:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- **Laburpena:** Ez da gerraz oroitzen, hiru urte besterik ez zituen-eta. Baina gogoan du amak nola esaten zien, hegazkinak sumatzen bazituzten etxera azkar etortzeko. Antoniok, anaia zaharrenak, zazpi urte eman zituen gerran, Madrilen, ia etxera etorri gabe. Enparangainen soroan lanean ari zirela nola hil zituzten zenbait herritar kontatzen omen zuen aitak.

Transkripzioa

- Gerrie [...] zeoze...?
- Ez, ni gerrie, zaonien, nik hiru urte o eukiko nitun. Ni akordatzen naiz gure amak-eta esaten ziguela: "Etorri zaitetzke aguro etxea, etxea etorri zaitetzke azkar!". Hola, abioien-ta zea sentitzen zanin ta. Baiño bestela, ez naiz / enaiz/ akordatzen. Gero, lehenenguen, eskursiyuen jun giñenien, erakutsi zizkun Gernikako zea hoiek. Ze txikiziyo inda ta. Ba bai.
- Ta senide zaharrouek esanda o zeoze?
- E?
- Senide zaharrouek-eta kontauta o gerrako garaie...
- Bai, Antonio, anaie, eon zan urte... zazpi urtin eon zan hure, gerran. Bai.
- Inguru hartatiken jende asko jun zan?
- Eztakit nik zenbat jende jungo zan. Gure aittek esaten zun, zea, sorun ari zila´re nola hil zituen, ta eztakit ze ta jarduten zuen. Enparangainen ta.
- Enparangainen?
- Bai. Eta gurie Madril alde hortan eon zan. Zea, Antonio. Eta harek zazpi urte pasa zitun. Iye bate etxea etorri be. Han bazauden Alabierkuk o parientiek, eta haien etxea erretirauez, libratzen zanin. Bai, gogorra, gogorra. Ba hoixe!
- Ta ordun goseik zuek ez zenuten pasau.
- Ez. Ni ez naiz akordatzen zeakin. Oiñ zaharrouek gogun eukiko debe / eukikobe/, baiño, nik ez. Nik [horixe] dauket, umetako kontu horixe. Eta... Gero esan iten zituela eztk danak, baiño...
- Aitzie bakarrik.
- Bai, holaxe.

9. Bestelako kontuak

9.1. Txikitako aisialdia

- **Hizlaria(k):** Agirre Perez, Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Odria, Haizea
- **Erref:** AZP-025/016
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:22:59. **Bukatu:** 00:26:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena:** Koruan ibili zen. Maristetatik ateratzen zenean, solfeoa ikasten zuen. Eta gerora Tipleetan (koruan) sartu zen. Kilkerak harrapatzen ere ibiltzen ziren. Asko jolasten zuten paketerokara. Nola jolasten zuten azaltzen du. Gaur egun gazteek ez dutela jolasten aipatzen du.

Transkripzioa

- Ta eskolatik ertenda ta ze ite zenuen? Lagun artien juntatzen ziñeten o...
- Bai.
- Jolastea ta jute ziñeten?
- Bai. Bai, geo jai, baiño gu asko zeatze giñen... tipletan ibilli nitzen ni. Tiplie, zea koruen. Eta maristetatik erten, ta gosaldu o meriendau te... Zineako sarrerie badao ba?
- Bai.
- Hantxe zea lokal bat zan, eta han gaukenun solfeue, organistie... Don Julian Barrenetxeakin. Eta han solfeue ikixi, ta gero, triple. Ta tipletzako nik "segundon" kantatzen nuen, "segunda voz" ta "contralto". "Segunda voz". Ba, geure bizimodue hoixe zan. Bitartien jolastu pixket. Zearaño eskapada bat ein... kilker denboran ta... zea kanposantun gañin bada zelai bet holaxe zea ta... kilker krixton pillie izete zan. Kilkerreta!
- Kilkerrek harrapatzen ibiltzen ziñeten?
- Kilkerrek harrapatzen! Bai, kilkerrek harrapatzen.
- Ta ze jolas iten ziñutzen? Akordatze zea hola... jolasen batzuk?
- Jolasa hamen asko izeten zan paketeroka.
- Eta nola zan hori ba?
- Paketeroka? Ba, hainbeste kontatzen zendun e... eta iuel hamar bagiñen, "rast" eskapatzen zan, eta ibiltzen gendun Enparan kalea, ez. Erdikalie eta Elizkalie. Ixkuta eta haure nun zaon harrapatzen. Jolastu asko iten zan ordun, e! Gaur gaztie ez du hainbeste jolasten.
- Gaur, etxien.
- Ez, ez, egiye. Bai... bai, bai, bai. Hori egiye da. Hori egiye da. Baiño leno jolas? Bueno, pentsau zazu holakotxe... hau baiño... holakotxe loriye soka bat banuen nik... Zuk pentsau zazu eskolako zarrenak e... ta neguen, soka haundi bet zan ta, ematen nun... eta soka dantzan, aizu; "kank, kank...".
- Mutillek'e bai?
- Mutillek. "Veinte donde va el primero" ta... ze ta, zer da ta... iuel... pelotalekoko zeai tantu... faltan... burniyei ikutu te... "Tak, tak, tak, tak" soka dantzan da. Gero, jolastu asko iten zan len. Gaur baiño geyo. Gaur baiño... Gaur nik... beste zea batzuek... Zeatiken nik neure illobak eta ikusten ditut, eta gaur beste zea batzuek dauzke, beayen zea hoyekin de ta. Len jolastu askoz geyo. Eta orduen kuadrilletxuk izeten zien.

10. Lanbideak

10.1. Harategiko haragia nondik eta nola lortzen zuten

- **Hizlaria(k):** Azkune Zubiaurre, Maria Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-043/016
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:23:10. **Bukatu:** 00:24:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
 - Lanbideak » Negozioak, dendak
 - Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Ganadua lehen Azpeitiko hiltegian hiltzen zuten, baina orain Iraetara eramaten da. Haragia erosteko, harategiko nagusiak tratua nola egiten zuen azaltzen du. Haragia ekarritakoan, txikitu egiten

zuten: haragi mota batzuk eskuz, eta besteak makinaz. Haragia garestia zen.

Transkripzioa

- Nun hiltzen zittun ganadue?
- Matadeiye, Azpeitiyen mataderiye zan. Bai. Oin Iraeta jutun da, oin Iraeta joaten die.
- Ta ordun Azpeitia?
- Bai, Axpeitiyen zan mataderiye, Axkoitiyen'e bazan. Oin, oain iñun ez dago, oain danak Iraeta.
- Ta ze in ber izaten zan, mataderia eraman...?
- Eta gero han hiltzen zituen, eta gero pixua hartu, zenbat pixau zuen ta etxea. Baiño dirukin e? Ez zitzakon gustatzen gure nausiyai hurrungo eguneako ta lagatzie. Basarritarrai hainbeste kostata hazi txahala ta dirukin etxea esaten zun harek. Eta gaiñea gibel pusketia're bai. Oin ez da ezer ematen. [...] "muy bien", ta kito.
- Ze itten zenduen gero, zuek txikitu?
- Bai, dana txikiu, bai, makinan, bai.
- Makinan?
- Makinan, makinan, bazan makine zahar bat, haundi samar bat eta gero odolkiyak iteko ta eskuz eta makina txikitzekoa zan.
- Bai, bai, bai. Txorixuk eitekue makinan txikitzen zan, baiño olkiyek itekua ez.
- Baiña ganadue txikitzeko eskuz ingo zenduen?
- Bai, eskuz, eskuz, eskuz, bai. Mataderiyen preparaute eramaten zenun etxea.

10.2. Lehengo telak josteko trebetasuna

- **Hizlaria(k)**: Kerejeta Zabaleta, Maria Itziar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZP-050/007
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:14:16. **Bukatu**: 00:15:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Sastreak, jostunak
- **Laburpena**: Josteko telak non erosten zituen eta nolakoak izaten ziren aipatzen du.

Transkripzioa

- Eta telak nundik ateratzen zittuzun?
- Tela berriyak? Ene, ba, ehunenetik, ta kalin erosi, dendatan, dendan, saltzen dituen tokin. Eta ba gero ba aurre berriyak in. Oain ez da aurre berriik eta ibiltzen, bueno, tergale're zaillegue're bada puskatzen, lengo tejidu baiño.
- Lengo telak zer zian, meheagok?
- Mehieguek ez, nahi bazun kruzau antzekuk eta lori xamarrak'e bai, baiño errezo, neretzako errezo puskatzen zienak e?
- Ibilli're bai, beste era batea, puskatzeko're ta.
- Bai, nik aurre berriyak nik botatzen nixkon. ta ez dakit zenek esan zin, "hik botatzen dixkon earki aurre berriyak prakai!" esaten zien. Nik bestiei

ikusi ta...

- Aurre berrik esaten dezunen ze izaten zan, dana goitik behera?
- Bai, bueno, ez gerritik nahi badezu, hamendik edo hola, eta barren-barreneaiño're, pixkat goratxeo igual.

10.3. Otarreak neurtzeko moduak

- **Hizlaria(k):** Zabaleta Aramendi , Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-055/016
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:27:09. **Bukatu:** 00:28:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak
- **Laburpena:** Otarreak zer neurritakoak izaten ziren aipatzen du. Orain, ordea, neurtzeko modua aldatu egin da.

Transkripzioa

- Zenbat neurri die otarranak, asko? Lehen aittau dittuzu zortzikua, laukua... zenbat artekuak izaten da?
- Zenbat iziten den oin? Eskatzen dunak zenbat zentimetroku nahi dun. Lehen hoyek eiten nitunan kuartokua, "cinco", "seis", "siete", ta dos ta uno ta... Tiro haundiye nuan garai batien. Ta oin hoyek ia ahaztu ditun oain. Oin holako otarre nahi det, honbeste zentimetrokua. Ta eskubekin askotan hau itten ba, neurriye holakua. Hori ez, ez, zentimetrukin.

10.4. Otarre-erosleekiko tratua

- **Hizlaria(k):** Zabaleta Aramendi , Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-055/023
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:38:05. **Bukatu:** 00:39:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak
Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- **Laburpena:** Otarreak eginda zeudenean, Azpeitiko estaziora eramaten zizkieten erosleei eta eskura jasotzen zuten haien ordaina.

Transkripzioa

- Eta ordun enkargatzen zizkizuen garaian otarrak, beraiek etortzen zian otarran billa o zuek eramaten zittuzuen?
- Hayek, hayek eskau iten zizkiñan
- Eta otarrak zenek eramaten zitun: beraiek ala zuek eurai?
- Ordun azpeitiko estaziyo.
- Azpeitiko estaziyoa. Nun eramaten zittuzun?
- Hamen zea zunan, transportisti o, ta harekin.
- Harei hainbesteko bat pagatzen ziozuen?
- Bai, bultoko beste.

- Zumarragako estaziotik gero, trenen?
- Bai, gero...
- Zuek kargatzen zenuen bagoietan?
- Ez, ez.
- Han bazeon hortan aitzen zanen bat?
- Gu hamendik aterria ta kargau eta bialdu ezkeo transportistikikin, harek iten zixkiñan danak.
- Nola pagatzen ziozuen garai hartan?
- Nola pagau? Eskura.
- Etorri itten zien patzea?
- Bai.

10.5. Egurra putzutik atera eta labean sartu

- **Hizlaria(k)**: Gurrutxaga Iturralde, Francisco
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZP-056/011
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:21:10. **Bukatu**: 00:23:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak
Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- **Laburpena**: Egurra putzutik ateratakoan, hartarako prestatutako labe berezi batean berotzen zuten. Labeko sua egiteko, zer egur klase erabiltzen zuten aipatzen du. Egurra labean berotutakoan, zumitza nola ateratzen zuten azaltzen du.

Transkripzioa

- Gero egurre... egur horri ze itten ziozuen ya putzutik atera ta gero?
- Putzutik etara eta etxea ekartzen zenun.
- Zeozer ematen ziozuen?
- Labien berotu.
- Berotu?
- Bai, labien berotzen zan.
- Ze labetan?
- Labe, aproposak labiek, izeten zan ba basarriyan ta ogiya erretzekuek?
- Bai.
- Tankera hortakotxe labik zien. Jartzen zenun egurra, bueno aurrena labie berotzen zenun, geo egurre sartu ta egurre berotzen zanién, bigundu iten da eta ordun zumitzek ataratzen dia.
- Laben sue emateko egurre ze egurre ibiltzen zenun?
- Ba sobratzen zan zea, bakizu sobrau iten da ba geo, Zea, pusketie ta zea, bakizu, xirbilla ere ta iten da ba, hazikin ta apaintzen zumitza ta ta, harekin behintzet beste sos batzuk eta, nola hala berotu zea eta berotutakon zumitza atera.
- Bai, zumitza atara.
- Nola ateratzen ziozun zumitza?
- Zumitze? [...] ikusi? Baiño egurra ataratzen ez al diazu ikusi?
- Zuk esplikatzea nahi det nola itten zenduen.
- Nik nola esango dizut ba. egurra hartzen dezu, egurra hartzen dezu ezta? Eta da! mozten diyozu puntie egurrei. Ta matxatak izeten zien, matxetia, apropos egindako matxatak. Puntan da! jartzen ziñon erdi erdiyan egurrei,

ebagiez ta, ta epaitertzian hola jartzen ziyozun epaitertzian. Ta erdi-erdiyan han, zea jo ber dezu, este, matxetiekn. eta beste, zea, mazeti esaten zaio, egurrezko mazeta batekin da! jotzen dezu matxeta hua ta sartu eiten diyozu egurrei. ta geo hura sartutakon ra ra ra.....

- Pixkana-pixkana.

- Ta harriyen juten da zea iten, bai. ta batzuk onak izeten die, beste batzuk zakarraguek egurrek.

10.6. Gerra garaian, guardia zibilekin tratu ona

- **Hizlaria(k)**: Larrañaga Zubiaurre, Francisca Seberiana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZP-057/014
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:18:56. **Bukatu**: 00:20:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Polizia
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Gerra Zibilari buruzko oroitzapenak kontatzen ditu: guardia zibilak astero etortzen zitzaizkien etxera, eta ondo moldatzen ziren haiekin. Kuartela non zegoen eta zertarako pasatzen ziren guardia zibilak aipatzen du.

Transkripzioa

- Gerra garaie ezautu zenun?

- Sobre, geyegi.

- Eta ze rekuerdo dauzketzu ordukok?

- Guardia zibilla ugari ta... Mekatxis! Guardia zibillak astero pasa ber zien etxez etxe.

- Astero?

- Astero

- Eta zerta etortzen zien etxea?

- "Firmas". Pasau ziela. Ondo arreglatzen giñan e? Guardia zibil bat bazan, hamengo basarritar danakin ondo arreglatzen zana. "¿Cómo se llamaba?" Jesus... Ez giñan besteiken ta, eta haure beti [...] zan. Danakin ondo arreglau baizen ta arre. Haure danakin.

- Rekisatzen zizuen etxea? Beidatzen zizuen?

- Ez, ez, ez, firmia hartzen zeбен, hamendik pasau gea, ta yasta.

- Otorduik o eman behar izaten ziozuen?

- Ez, ke ba, kuartela Azpeitiko estaziyun ondun zeukeben, eta kartillak, zeako soldautzako kartilli, pasau ber izaten zeбен urtin behin [...]. Ez, ez, guardia zibilekin ta edozeiñekin ondo arreglatzen zan.

10.7. Asko jositako emakumea

- **Hizlaria(k)**: Altuna Bereziartua, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZP-068/007
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:12:38. **Bukatu**: 00:14:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Sastreak, jostunak
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Ingurukoei eta herrikoei arropa asko jositakoa da Maria. Behin, tela baten neurriak hartzen ari zirela gertatutako anekdota kontatzen du. Zer arropa klase josten zuen azaltzen du.

Transkripzioa

- Nik neuk josten nitun danak etxekunak, ta nere ahizpe ezkondu zanienek soñeku're neuk in niyon e? Ordun ya lagata neon zeai Azpeitikuei, ya etxin neuk josten nuan. Nik erropa asko josi nun hamen herriyen. Enee, hamentxe hor basarri batekuk'e anaye ezkontzen zitzakola ta hiru ahizpe zea jostea ta gaztena hasi nintzen zea iten, eskotie ebaitzen, eta gora ezin in ta graak! tira in niyon. Ez zat ahazten behiñ'e. Esan niyon: "Ene! Maku! Katie ebagi diñet ta", "Ez zako inportaik, ez zako inportaik, arreglau bestia".
- Dabillena pasatzen zaio ta.
- Enee, enee, zenbat holako ordia.
- Ze jazkera ibiltzen zan ordun?
- Ordun? jazkerie? Normal.
- Ze josten zenun gehienbat, ze erropa itten zendun?
- Abriguk'e bai te, soñekuk'e bai te, ahizpei're bati baiño geyoi, zeai hamen baserri bateako're hiru ahizpei trajiek ta josi nizkon, ta hayei etxe hartan zeak'e bai, abriguk eta're, hamen panadeiyan ta.
- Nolako abrigok?
- Abrigok, polittek. Ordun bolara hure zan flojuen zea doblikin, pase doblikin eta kuello pixkat hola desbokau xamarra.
- Luzek, abrigo luzek?
- Ez, ezta motz-motzak'e e? normalak. Ya motza baiño pixkat hola belaunek tapaute eiten zien ordun. Ta solapakin te, trajik'e bai normal, ointxe bezelakotxe trajek.

10.8. Lehengo eskoteak

- **Hizlaria(k):** Altuna Bereziartua, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZP-068/008
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:14:26. **Bukatu:** 00:16:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Sastreak, jostunak
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- **Laburpena:** Lehen eskoteak nolakoak izaten ziren eta nola joan diren aldatzen azaltzen du.

Transkripzioa

- Eta esan dezu leno eskotea itten ai ziñela, moztu in ziozula katea. Ta eskotea nolakoa?
- Eskotie redondue. Eskote redondue.

- Eskote pikoik ez zan izaten?
- Baita izeten zan, baiño eskote redondo zun harek, eta oso potolini zan ba, eta soiñeko hure in niyon flojo-flojo-flojo hola pixkat behera ebatzen zula, aurrien holako pare batekin o josi ta gero enkuentru goitik behera. Hamen laxo batekin ta...
- Enkuentrua zenei esaten diozu?
- Zea, enkuentrua hau izeten da, gonan izeten dia ba, jartzen dia ba gonan, enkuentru...
- Pliegek bezela.
- Bai, zuk hor zea pliegik dauketzun bezela, barrure daukezun bezela, o kanpoa daukezun bezela, hor tablie ertetzen du ta hure ertetzen du enkuentru, enkuentruak.
- Artista ordun.
- Bai, josten dexente iten nun, ez neuk esaten detelako, baiño dexente josten nun.
- Eskotek erabiltzen zien.
- Bai, ibiltzen zien, eskotik geo hasi zan hola barko ta, eskote barko ta hasi zien. Pixkat hola, asko ez, baiño ba, eskote barko ta bai ibiltzen zien.
- Zenbat eskote klase zien?
- Ba, redondue eta gero herradura o esaten zitzakon hamen pixkat hola borobillague, ta gero itxi iten zana hamen gora, "escote cuadrau" e? Eta pikue, eta zea, este, barko hori. Oin ibiltzen dan barko hori hortaiño ez zan ibiltzen, baiño pixkat hola.
- Pixkat sorbalda...
- Zea, sujetadorien zea tiri ikusi bai ez, haren ez ikusteagatiken zea jarri, automatikue, hola tira txiki bat, zeakin, kortxetikin, han sartu te... Oin danak bistan ibiltzen dituzube, plastikuk edo ez dakit zer, baiño ordun ez, ordun dana ixkutun ibiltzen gendun.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Soroko lanak eta tresnak (AZP-013/003)

Soroan artoa, garia eta arbia lantzen zituzten. Lehen behiak eta astoak erabiltzen zituzten garraiorako. Belarra lehen gutxi lantzen zen.

2. Etxeko ogia egiteko, egurraren garrantzia (AZP-013/004)

Ogia etxean egiten zuten. Labea nolakoa zen eta nola funtzionatzen zuen deskribatzen du. Egurraren arabera, ogia hobeto edo okerrago ateratzen zen. Egurrak suari zer ukitu ematen dion azaltzen du. Ogia astean behin egiten zuten, eta aste osorako balio zuen.

3. Errazionamenduaz gain, janaria lortzeko bideak (AZP-013/005)

Gerraostean kaleko ogia jaten zuten: nolakoa zen eta nola lortzen zuten aipatzen du. Errazionamenduko ogia jaten zuten, eta lau bat ogi tokatzen zitzaizkien. Egunero banatzen ziren ogi haiek, baina horrez gain, garia eho eta estraperloan ere ibiltzen ziren ogi gehiago lortzeko. Errazionamendu-liburuxka edukitzen zuten, eta familiaren beharren arabera jasotzen zuten janaria.

4. Azokara saltzera joaten zirenekoa (AZP-013/007)

Lehen azokara joaten ziren etxeko janaria saltzera, eta gerora esnea etxez etxe saltzen hasi ziren. Zenbatean behin joaten ziren azokara saltzera, eta azokako postua izateko zenbat ordaintzen zuten azaltzen du.

5. Etxean arropa nola egiten zuten (AZP-013/008)

Lehen arropa askoz gutxiago izaten zuten; normalean kaletik erosten zuten, baina bere amak garai batean hariak egiten zituen, eta gero harekin arropak egiten zituen, bai baitzituen hartarako makinak.

6. Ermandadeen funtzionamendua (AZP-013/009)

Ermandadeek nola funtzionatzen zuten, zertarako balio zuten eta nork osatzen zituzten azaltzen du.

7. Auzolana eta gari-jotzea (AZP-013/010)

Lehen auzolana askotan egiten zen: bideak egiteko, garia jotzeko... Gari-jotzeko eguna nolakoa izaten zen azaltzen du. Garia nola jotzen zuten aipatzen du, eta dena aprobeztatzen zutela dio.

8. Arropa garbitzeko egin beharrekoak (AZP-013/012)

Etxean ez dute beti izan argia eta ura. Ura oso berandu ekarri zuten, eta ordura arte nondik ekartzen zuten azaltzen du. Iturrian arropa garbitzen zuten, eta arropa nola garraiatzen zuten aipatzen du. Lixiba nola egiten zuten azaltzen du. Arropa zuria aparte garbitzen zuten.

9. Lehengo gaixotasunak eta haien sendabideak (AZP-013/015)

Ama gaixotu zenean, minbizia zuela esan zioten, eta denbora gutxi geratzen zitzaiola; azkenean 20 urte gehiago bizi izan zen. Lehen zer gaixotasun izaten ziren aipatzen du.

10. Baserritik kalerako bidea egin zutenekoa (AZP-013/016)

Oinatzetik kalerako bidea egin zutenekoaz gogoratzen da. Materiala lortzeko eta garraiatzeko, kamioia erabiltzen zuten. Bidea egindakoa, alde handia nabaritu zuten, lehenago astoz joan behar izaten baitzuten herrira.

11. Oinatzeko eskolako gorabeherak (AZP-013/017)

Eskolara Oinatzera joan zen, baina etxean lana zegoenean, ezin izaten zuen joan. Neskak eta mutilak batera joaten ziren eskolara. Maistra euskalduna zen, baina erdaraz irakastearren, zigorrak jartzen zizkien euskaraz egiten zutenean. Eskolan gehienbat dotrina ikasten zuten, eta euskaraz izaten zen. Eskola goizez eta arratsaldez izaten zen.

12. Elizara derrigor joan behar (AZP-013/018)

Oinatzten eliza bazegoen lehen ere, eta igandetan nahitaez joan behar izaten zuten hara, bestela zigorra izaten zuten eta. Lehen apaizak meza latinez eta aldarera begira ematen zuen, jendeari bizkarra emanda. Dotrinan ikasitakoak bete egin behar izaten ziren.

13. Erromeriak Oinatzen eta matxismoa gizartean (AZP-013/020)

Oinatzen egiten ziren erromeriak. San Juanetan tabernak jartzen zituzten, eta jende asko inguratzen zen. Egun horietan zer egiten zen azaltzen du. Iluntzerako etxera joan behar izaten zuten. Neskak ez ziren tabernara sartzen, hori lotsagarria baitzen lehen. Erre ere ez zuten egiten emakumeek; gizonek, ordea, dena zuten libre.

14. Lagunekin egiten zituzten planak (AZP-013/021)

Lagunekin zer egiten zuten azaltzen du. Funtziora derrigor joan behar izaten zuten emakumeek. Kalera ez ziren jaisten, inguruko auzoetara bakarrik. Dena oinez egiten zuten lehen.

15. 13 ume hazteko nola moldatu ziren (AZP-013/025)

Lehen umeak izatea betebeharra zen, eta ez izatea bekatua. Umeek lehen lan handia ematen zuten, eta nola zaintzen zituzten azaltzen du. Hainbeste ume hazteko nola moldatzen ziren aipatzen du.

16. Jendearen arteko liskarrak nola sortu ziren (AZP-013/028)

Ganadua ez zuten ezkutatu beharrik izan; baina bailaran bai aritu zirela soldaduak ganadua biltzen. Horrek baserritarren arteko liskarrak eragin, eta denak sakabanatu zituen.

17. Kaletarrek baserritarrei burla (AZP-013/032)

Kaletarrek beti egiten zieten burla baserritarrei, janzkeragatik, besteak beste.

18. Hika, zuka eta berorikaren erabilera (AZP-013/034)

Etxean ahizpekin zuka egiten zuen; anaiei, ordea, gazteei bakarrik hika, zaharragoei zuka. Lagunartean hika egiten zuten, eta seme-alabei ere hika egiten die. Gurasoei zuka egiten zien. Berorika apaizari eta medikuari hitz egiteko erabiltzen zuten.

19. Baserriko lanetik bizitzeko eramaten zuten bizimodua (AZP-015/003)

Baserritik bizi ziren, baina aita kanpoan ere egiten zuen lan han eta hemen. Baserrian gehienbat baratzea lantzen zuten. Azpeitiko plazan egunero egoten zen merkatua, eta ama egunero joaten zen hara barazkiak saltzera. Ganadu gutxi izaten zuten. Amak askotan haurdun jaitsi behar izaten zuen plazara. Beren lurak nolakoak ziren azaltzen du.

20. Etxean garia urri eta artoa ugari (AZP-015/004)

Gerra ostean, garia entregatu egin behar izaten zuten. Baina beren lurak ez ziren onak garia egiteko; bai, ordea, artoa egiteko. Garia berehala gastatzen zitzaenez, artoa jan behar izaten zuten. Imanol jatun eskasa izan zen. Otorduetan, janaria gustukoa ez izan arren, brometan ibiltzen ziren, eta ondo pasatzen zuten.

21. Ogi motak eta ogia nola egiten zuten (AZP-015/005)

Ogia etxean egiten zuten, garia gastatzen zen arte. Asteko ogia egiten zuen amak, eta umeek lagundu egiten zioten. Ogia nola egiten zuten azaltzen du. Amak Gabonetarako gordetzen zuen gari klase bat, ogi zuria jan zezaten. Oso gustura jaten zuten ogi hura, gainerakoan ogi beltza jaten baitzuten.

22. Gari-jotzea eta auzolanak (AZP-015/006)

Gari-jotzeko egunei buruz hitz egiten dute. Auzolanetara gustura joaten ziren lanera, jaten ematen baitzuten. Garia nola jotzen zen azaltzen dute, eta zer tresna erabiltzen zituzten horretarako.

23. Ur-korrontea etxera iritsi arteko pausoak (AZP-015/008)

Otordua egiteko garaia iristean, gari-jotzea bukatzen zenean, hautsez beteta egoten ziren, eta nola garbitzen ziren azaltzen dute. Etxean ez zuten beti izan ur-korrontea: lehen iturri batetik ekartzen zuten ura marmita eta erretiluetan. Amari behin ura zekarrela gertatutakoa kontatzen du Juanek. Gerora, ura garraiatzeko, astoa erabiltzen hasi ziren; eta azkenean, ur-korrontea jarri zuten etxean.

24. Garbiketatarako lixiba eta ura (AZP-015/009)

Lehen etxeko ur gehiena ganaduak gastatzen zuen. Arropa garbitzeko, iturrira joan behar izaten zuten astoarekin. Lixiba-harriaz eta lixiba-putzuaz hitz egiten dute: zertarako balio zuten eta nola funtzionatzen zuten. Hildako behiaren seboarekin egiten zuten xaboia etxean.

25. Argindarra etxean pixkanaka hobetzen (AZP-015/011)

Argindarra beti ezagutu izan dute etxean, baina hasieran oso potentzia gutxi zeukan. Gero hobetu egin zen, eta beste tresna bat jarri zuten etxean, potentzia gehiago sortzeko. Gizon batek argiaren funtzionamenduari buruz zeukan ideia xelebrea aipatzen du Imanolek.

26. Kinkeak argitarako, eta haizeak zekarren arriskua (AZP-015/012)

Kinkeak zer eta nolakoak ziren azaltzen dute. Haize pixka bat egiten zuenean, argia joan egiten zen. Argizaria erabiltzen zuten argitarako, eta behin sutea gertatu zen Juanen ganbaran, argizaritako sua itzaltzea ahaztu zitzaiolako.

27. Soroko lanak idiekin (AZP-015/014)

Soroko lanak idiekin egiten zituzten. Lur-jasotzeari buruz hitz egiten dute.

28. Bideak egiteko lanak eta komeriak (AZP-015/016)

Berastegirako bidea noiz egin zuten aipatzen dute. Iturbiderako bidea egitea asko kostatu zitzaien, eta bidea egiten laguntzen ez zuenarekin arazoak egoten ziren. Materiala nondik lortzen zuten azaltzen dute. Diru-laguntzarik ez zen egoten, baina udaletxeak ardoa ematen zuen herri-bideak egitearen truke.

29. Eskolan, Olatzen eta maristetan (AZP-015/018)

Eskolan non ibili zen azaltzen du Juanek. Txikitan, Olatzeko ermitan ikasi zuen: andereñoa euskalduna zen; euskaraz ikasten zuten; eta neskek eta

mutilek elkarrekin ikasten zuten. Geroago, maristetan ibili zen: erdaraz ikasten zuten orduan.

30. Eskola eta zigorrak (AZP-015/022)

Imanolek non ikasi zuen azaltzen du: hasieran baserri batean, eta gero maristetan. Zer-nolako zigorrak izaten zituzten azaltzen du. Zigorrei buruzko anekdotak kontatzen dituzte.

31. Apaizei ematen zitzaaien tratua (AZP-015/026)

Apaizei berorika egiten zitzaaien lehen, baina tratu hori galtzen joan da. Bazegoen apaiz bat hari berorika egitea gustatzen ez zitzaiona. Txapela ere kentzen zuten apaiza ondotik pasatzean.

32. Eskolako ikasgaiak eta dotrina (AZP-015/028)

Eskolan dena liburu bakarretik ikasten zuten: matematikako oinarrizko eragiketak, eta ortografia ikasten zituzten gehienbat. Historia ez zen horren garrantzitsua. Garrantzitsuena dotrina zen. Loiolan dotrina ondo erakusten zela esaten zen. Dotrina eskolatik kanpo ere ikasi behar izaten zuten batzuek, Juanek adibidez.

33. Konfesatzean, apaizari beldurra (AZP-015/035)

Loiolako apaiz batek erreakzio gogor samarrak izaten zituen konfesatzera joaten zen jendearekin. Imanolek eta lagun batzuek jendea beregana bidaltzen zuten nahita, erreakzioa entzuteko.

34. Arrosarioak eta haiei buruzko anekdota (AZP-015/036)

Arrosarioa egunero errezatzen zuten etxean afaldu aurretik. Soldadutzan ere Imanolek egunero errezatzen zuten. Imanolek arrosarioak errezatzean bere etxean gertatutako anekdota kontatzen du.

35. Etxeko txikia (AZP-018/002)

Aita Azkoitikoa zuen; eta ama, berriz, Azpeitikoa. Zazpi mutil eta neska bakarra ziren: denetan gazteena zen Patxi. Etxeko txikiena izateak dituen gorabeherak aipatzen ditu.

36. Goiko kalea eta Hotel Kasino (AZP-018/003)

Goiko kalean hazitakoa da Patxi. Garai batean, Hotel Kasino zegoen bere etxearen aurrean. Kasinoa nolakoa zen kontatzen du. Jendea jokora eta kafea hartzera joan ohi zen.

37. Maristetan ikasitakoa (AZP-018/005)

Maristetan egin zituen ikasketak. Etxetik oso gertu zegoen eskola, plazan. Dena erdaraz egin behar izaten zuten, baita dotrina ere. Eskolako kontuak kontatzen ditu.

38. 15 urterekin 'Agur'-en hasi lanean (AZP-018/006)

15 urte zituela, ama hil zitzaion eta ikasketak utzi egin zituen. Construcciones Agur-en hasi zen lanean, eta han tornulari lanetan aritu zen.

39. Laneko kontuak (AZP-018/007)

Patxik lan egiten zuen tokian, tornu biragarriak egiten zituzten. Laneko kontuak aipatzen ditu. Zaragozan hilabete egin zuen erakustazoka batean. Orduko pasadizo bat kontatzen du.

40. Laneko ordutegia eta soldata (AZP-018/008)

Lanean zer ordutegi egiten zuten azaltzen du. Soldata nola negoziatzen zuten kontatzen du. 41 urterekin hartu zuen erretiroa. Soldadutzatik libratzen zenean ere, lanera joan ohi zen.

41. Burgosen soldadu (AZP-018/009)

Burgosen egin zuen soldadutza. 19 urte zituen orduan. Kapitain baten laguntzaile egon zen. Goizetan, esnea eta ogia erosi behar izaten zituen, eta eguerdi partean, berriz, kapitainaren alaba bat eskolatik jaso behar izaten zuten. Arratsaldetan bizikletan ibiltzen omen zen.

42. Kapitainak antxumea hiltzeko agindu (AZP-018/010)

Soldadutzako pasadizoak. Behin, kapitainak antxume bat hiltzeko agindu zion. Orduko gorabeherak kontatzen ditu.

43. Burgostik etxerako buelta (AZP-018/011)

Lizentzia eman ziotenean, Patxik etxera bueltatzeko trena galdu zuen, eta bizikletan abiatu zen. Miranda parean, trena hartu zuen Gasteizeraino, eta handik, berriz, bizikletan bueltatu zen Azpeitira. Anaiak kamioilariak ziren, eta haiei esker bueltako bidea ezagutzen zuen.

44. Soldadu lagunak balentria (AZP-018/013)

Soldadutzan, Etxaniz esaten zioten. Bizikletan enkarguak egiten aritzen zen. Soldadu lagunak txerriaren ilea ohean jarri ziotenekoa kontatzen du. Kale jantzian ibili ohi zen, eta ez zuen jornalik jasotzen.

45. Opor egunak lanerako (AZP-018/014)

Etxera joateko lau baimen izan omen zituen soldadutzan zen bitartean. Etxeratzen zenean, tailerrera joaten zen lanera.

46. Soldadutzan, goseak (AZP-018/015)

Soldadutzan gose handia pasa zuen. 18 kilo galdu zituen. Soldadu euskaldunak biltzen zirenean, karta-jokoan aritzen ziren. Behin, soldadu beterano batzuekin liskar bat izan zuten, eta kapitainak euskaraz ez hitz egiteko ohartarazi zien.

47. Bi urte soldadutzan (AZP-018/016)

Bi urte egin zituen soldadu Burgosen. Herrira bueltatu eta hurrengo egunean, Patxiren anaietako bat ezkondu egin zen.

48. 'Kinttela' ezizenaren jatorria (AZP-018/017)

Kinttela ezizenaren jatorria zein den kontatzen du. Amaren aita arkitektoa zen, eta hari deitzen zioten Kinttela.

49. Anaia zaharragoak (AZP-018/019)

Anaiak zaharragoak ziren, eta kamioiarekin ibiltzen ziren. Patxik haiekin ibili nahi izaten zuen, baina ez zioten uzten.

50. Lagun Onak taldeko atezain (AZP-018/020)

Umetan, beti futbolekin ibiltzen zen. Lagun Onak taldean atezain jokatuakoa da. Taldeko gorabeherak kontatzen ditu.

51. Oinutsik pilotan (AZP-018/021)

Frontoi Txikian pilotan ibili ohi zen egunero. Pilotan ibiltzeko oinetakoak kendu egiten zituen; ez puskatzeko. Pilotak Xubeldianean erosten zituen.

52. Garai bateko Frontoi Txiki (AZP-018/022)

Lehenengo Frontoi Txiki nolakoa zen kontatzen du. Frontoi irekia zen; goian estaldurarik gabea. Zorua lauzaz egina zen. Maristetako haurrak hara joaten omen ziren jolas-orduan. Pilotei buruz ere hitz egiten du.

53. Bizikletarako zaletasuna (AZP-018/023)

Bizikletan asko ibiltzen zen. Tailerretik irtendakoan entrenatzen zen. Amateurrentzako antolatzen ziren lasterketetan parte hartutakoa da.

54. Ondo zaindutako bizikleta (AZP-018/024)

Bizikleta asko zaintzen zuen. Nolako bizikleta zuen azaltzen du: plato bakarrekoa, lau pinoirekin, gurpil tubularrak...

55. Kintzena etxean entregatu behar (AZP-018/025)

Lanean irabazitako kintzena etxean entregatzen zuen.

56. Perretxikotarako afizioa (AZP-018/027)

Perretxikoak biltzeko afizioa izan du. Izarraitz eta Urraki aldean bildu izan ditu perretxikoak.

57. Luminor zinema (AZP-018/028)

Herrian zegoen zineak Luminor izena zuen, eta 'Acción Católica'-k zuen haren ardura. Pelikulen kartelak Patxik egin ohi zituen. Jendaurrean filma bota aurretik, apaizek eta epaile batzuek ikusten omen zuten bota edo ez erabakitzeko. Filmak larunbat eta igandetan botatzen zituzten.

58. Erromerietara bizikletan (AZP-018/029)

Erromeriazalea izan da. Inguruko erromerietara bizikletan joan ohi zen. Arroa Behera, Zestoara... joaten zen. Baltseoan egitea galarazita zegoen, eta harrapatuz gero, kongregaziotik botatzen zituzten.

59. Elizako obligazioak (AZP-018/030)

Kongregazioko kontuak aipatzen ditu. Hilean behin izaten zen funtzioa, eta derrigor joan behar izaten zen.

60. Elizaren indarra (AZP-018/031)

Igandero joaten zen parrokiako mezara. Astegunean ere joan ohi zen mezara, lanera joan aurretik. Azpeitian indar handia zuen Elizak.

61. Dena bekatu (AZP-018/032)

Gogo-jardunetara joan behar izaten zen. Lehen, dena bekatua zen. Erlijio kontuei buruz hitz egiten du.

62. Umea beti ume (AZP-018/033)

Gerra denboran, gosea pasatu zuen. Patxik sei urte zituen orduan. Soldaduek herriko berdura plazan egiten zuten lo, lasto gainean. Patxik eta lagun batzuek lastoari su eman zioten. Soldaduen balak hartu, eta traperoari saltzen zizkioten... dirua lortzeko.

63. Parrokiako kanpandorrea lau metrailadore (AZP-018/035)

Gerra denboran, Azpeitian ez zen txikiziorik izan. Parrokiako kanpandorrea lau metrailadore egon omen ziren.

64. Soldadutzan janaria lortzeko arduraduna (AZP-022/010)

Soldadutzan eskatu zioten janaria lortzen zuen arduraduna izateko, eta kargu horretan nola moldatu zen azaltzen du.

65. Soldadutzan zuen funtzioa eta balioa (AZP-022/011)

Soldadutzan San Markosen zegoela, bere funtzioa zein zen azaltzen du: Errusiara Dibisio Urdinarekin joandako soldaduen artean, "indeseables" moduan bueltatutakoak (gay izateagatik zigortutakoak) zaintzen egoten zen. Berak lan hori uztean, beste ordezkari batzuk jarri zituzten, baina nagusiek faltan botatzen zuten Inazio.

66. Bizkarrezurrean izandako istripua (AZP-022/013)

Istripu bat izan zuen bizkarrezurrean, eta hura sendatu artean pasatako komeriak kontatzen ditu.

67. Lantegia sortu aurreko pausoak (AZP-022/014)

Bizkarreko istripua izan eta gero, ez zen baserriko lanak egiteko gauza. Lehenengo, astoa erosi zuen, baina ziria sartu zioten, oso zaharra baitzen; geroago, furgoneta erosi zuen, eta oso txarra atera zitzaion. Kamioia erostea garestiegia zen, baina azkenean lortu zuen hura ere erostea, eta pixkanaka lantegi bat sortu zuen.

68. Sagarren negozioa nola bideratu zuen (AZP-022/016)

Negozioak estutzen hasi zirenean, lurrak erosi zituen. Sagarrak leku bakoitzean nola estimatzen zituzten aipatzen du. Lurrak nola aprobetxatu zituen azaltzen du, horrela negozioa aurrera eramateko.

69. Sagar motak (AZP-022/017)

Zer fruta klase izaten zituen azaltzen du, eta nolakoak izaten ziren deskribatzen du. Merkatuan ere oso estimatuak ziren bere sagarrak.

70. Sagar mota desberdinak nola landatu (AZP-022/018)

Sagar mota desberdinak nola landatzen diren azaltzen du.

71. Sagarrarentzako lurra nola landu (AZP-022/019)

Sagarrarentzako lurra nola landu behar den azaltzen du. Teknika batzuk aipatzen ditu.

72. Sagarrak ureztatzeko eta babesteko teknikak (AZP-022/020)

Lurra prestatzeko prozesuaz hitz egiten du. Lurra ureztatzeko zer teknika egon izan diren, eta orain zein erabiltzen den azaltzen du. Harria egiten duenerako, sarea jartzen da fruta babesteko.

73. Landatzean kontuan hartu beharrekoa (AZP-022/023)

Fruta bakoitza landatzeko kontuan hartu beharrekoaz hitz egiten du.

74. Lurrarentzako ongarriak (AZP-022/025)

"Aliete" hautsari buruz hitz egiten du: zer funtzio duen eta zer on egiten dion lurrari.

75. 9. kategoriako sagarren arrakasta (AZP-022/026)

9. kategoriako sagarra jartzea erabaki zuen, eta arrakasta handia izan du sagar mota horrekin. Sagar horiei zer ongarri botatzen dioten azaltzen du.

76. Sagarrak nola kontserbatu (AZP-022/028)

Azpeitiko jendeak sagarrak ondo bereizten dituela kontatzen du. Zer-nolakoak izan daitezkeen sagarrak deskribatzen du. Sagarrak nola kontserbatzen diren azaltzen du.

77. Ongarrien onurak eta ezaugarriak (AZP-022/029)

Sagarrei botatzen dizkien ongarriei buruz hitz egiten du: zer osagai dituzten, noiz erabiltzen diren, zer emaitza ematen dituzten, zergatik diren garrantzitsuak... Hemengo lurrak Lleidakoak baino hobek eta aberatsagoak direla aipatzen du.

78. Zuhaitzentzako ongarririk onena (AZP-022/031)

Zuhaitzei ongarria bota zien behin, eta minbizia izan zuten horregatik. Hori ikusita, lurra prestatu zuen, eta hori da bere ustez ongarririk onena.

79. Lleidako lurretarako ongarria (AZP-022/032)

Lleidan ongarriak nola botatzen diren azaltzen du.

80. Hemengo lurrak artifizialki ureztatu beharrik ez (AZP-022/033)

Hemengo lurrei ez zaie urik botatzen normalean, nahikoa izaten baitute.

81. Sagarrak noiz eta nola landatu (AZP-022/034)

Sagarrak landatzeko sasoirik onena noiz izaten den azaltzen du. Landatzeko teknika batzuez hitz egiten du.

82. Kimatzeko teknikak (AZP-022/035)

Kimatzeko teknika berriei buruz hitz egiten du.

83. Enborearen gaixotasunak eta sendabideak (AZP-022/038)

Enborearen gaixotasunei eta haien sendabideei buruz hitz egiten du.

84. Eskolan non ibili zen (AZP-024/002)

Eskolara joaten ziren, baina askotan egiten zuten piper. Zer eskolatara joan zen azaltzen du. Eskolatik gertu bizi zen bera.

85. Azokako kamioitik lapurretan (AZP-024/004)

Plazako azokara etortzen zen kamioitik lapurtu egiten zuten. Laranja lapurtzean, batzuetan, harrapatu egiten zuten maristek, eta orduan izandako anekdota batzuk kontatzen ditu.

86. Azpeitian gosea pasatzetik, Zestoako Torraberri baserrira morroi (AZP-024/005)

Oso bihurria izan zen Juan. Lehen gosea zegoenez, janaria lapurtzen zuen. 7-8 urterekin Zestoako Torraberri baserrira joan zen morroi. Han zer lan egiten zituen azaltzen du.

87. Gasteizera garia ebakitzera (AZP-024/006)

Gasteizera joaten zen garia ebakitzera. Garia nola ebakitzen zuten azaltzen du, eta zer tresna erabiltzen zituzten.

88. Behietatik lortutako esnea (AZP-024/008)

Behien esnea kalean saltzen zieten bezero gutxi batzuei. Esnea eskuz biltzen zuten, balde batera.

89. Soroko lanen nondik norakoak (AZP-024/009)

Soroan lan egiteko, idiak eta eskuak erabiltzen zituzten; ez zuten traktorerik. Soroan zer eta nola landatzen zuten azaltzen du. Landatutako arbia nola ateratzen zuten aipatzen du. Aitzurrarekin behatzak moztu zituenekoa kontatzen du.

90. Morroi zeneko ohiturak (AZP-024/010)

Morrori zebilela, normalean baserrian egoten zen. Igandetean mezetara joaten ziren, eta bitartean pilotan aritzeko aprobeztatzen zuten. Oinez egiten zuten bidea. Dirurik ez zioten ematen morroi zegoela. Gerora, Torraberritik San Bizente baserrira joan zen morroi.

91. Morroi zela ere, ehizarako zaletasuna (AZP-024/011)

Morrori zela, oso ondo egon zen. Denek maite zuten eta nahi zuena egin zezakeen. Ehizara joatea gustatzen zitzaion, eta ehizara joan ohi zen lagunekin. Erbitarako garai onena zein den azaltzen du.

92. Eskopeten zatiak eta baimenak (AZP-024/012)

Eskopeta erabiltzeko baimenik ez zeukan adinean, nola moldatzen zen eskopetak lortzeko kontatzen du. Lehen eskopetak nolakoak izaten ziren azaltzen du.

93. Erbiak harrapatzen (AZP-024/013)

Erbiak harrapatzeko, erbi-lekuak nola bilatzen zituzten azaltzen du. Hemengo erbiak eta kanpokoak alderatzen ditu.

94. Ehizarako txakur motak (AZP-024/014)

Harrapatu nahi zenaren arabera, txakur mota bat erabiltzen zuten.

95. Ehizarako teknikak eta harrapatutakoaren erabilera (AZP-024/015)

Oilagorrek eta erbiak nola harrapatzen zituzten azaltzen du. Harrapatutako erbiak beraiek jateko erabiltzen zituzten. Erbien larrua ez zen ezertarako erabiltzen; basakatuen larrua bai, ordea.

96. Basakatuak harrapatzeko egin beharrekoak (AZP-024/016)

Basakatu gutxi harrapatzen zuten, zaila baitzen haien harrapatzea. Basakatuak nondik ibiltzen diren eta nolakoak izaten diren azaltzen du. Basakatuak harrapatzeko kontua izan behar izaten zen, tiroa eginda haien salneurria jaitsi egiten baitzen; horretarako zer teknika erabiltzen zituzten aipatzen du.

97. Basurdeak harrapatzen zituztenekoa (AZP-024/017)

Basurdeak harrapatzen zituzten. Kanpora joaten ziren ehizara, eta zer teknika erabiltzen zuten azaltzen du. Harrapatutakoa noren artean banatzen zuen aipatzen du.

98. Usotara joateagatik lanetik bidali zutenekoa (AZP-024/018)

Usotan ibilitakoa da. Behin tailerrean bajaran zegoela, usotara joan zen; baina tailerrean horretaz enteratu zirenean, kalera bidali zuten.

99. Lehenengo lana Damasoren tailerrean (AZP-024/019)

16-17 urterekin hasi zen arotz lanetan. Damasorenean aritu zen lanean, aitarekin batera. Ingururako egiten zituzten lanak, eta zer makinarekin jarduten zuten azaltzen du. Langile asko izaten ziren, baina soldata ez zen handia izaten.

100. Tailerrak vs baserria (AZP-024/020)

Damasoren tailerretik beste zer tailerretara joan zen lanera azaltzen du. Hala ere, baserrira itzuli zen lanera, kanpoko lana gehiago gustatzen baitzitzaion barrukoa baino. Morroi zela, zer lan-baldintza zituen aipatzen du.

101. Gerra Azpeitira iritsi zeneko eguna (AZP-024/023)

Gogoan du Azpeitian gerra hasi zen eguna, eta han ikusi eta bizitakoa kontatzen du.

102. Gerrako eta gerra osteko gosea (AZP-024/024)

Azpeitian ez zen txikizio handirik izan bonbak egon ziren arren. Gosea pasa zuten, baina berari soldaduek ematen zioten jaten. Errazionamenduan banaketa nola egiten zen eta zer ematen zuten azaltzen du.

103. Estraperloan ibilitakoa (AZP-024/025)

Estraperloan laguntzen ibili zen, eta orduan poliziak konplize zituztela, nola moldatzen ziren azaltzen du.

104. Gerra garaian etxeakoak nola atera ziren aurrera (AZP-024/027)

Gerra hasi zenean, jendeak ez zuen Azpeitik alde egin behar izan. Bere aita gerran ibili zen kanpoan; eta, bitartean, etxean aurrera ateratzeko nola moldatu ziren azaltzen du.

105. Soldadutzan gustura ibilitakoa (AZP-024/028)

Soldadutza Burgosen egin zuen, eta oso gustura egon zen han, ukuiluko arduraduna zela.

106. Soldadutzan, janaria banatzeko funtzioa izandakoa (AZP-024/030)

Soldadutzako egunerokoa nolakoa izaten zen azaltzen du. Jendeak ez zuen goserik pasa han. Berak banatzen zuen janaria, eta orduan egiten zituen bihurrikeriak kontatzen ditu.

107. Soldadutzako zalditegiak (AZP-024/031)

Soldadutzan, zalditegiak albaiariarenak izaten ziren, min hartutako zaldiak sendatzeko.

108. Soldadutzako giroa eta janaria (AZP-024/032)

Soldadutzan nongo jendea zegoen aipatzen du. Han zegoen bitartean, izaten zituen etxera itzultzeko baimenak. Dirua lortzeko zer egiten zuen. Soldadutzan gizendu egin zen.

109. Herriko atariak itxi (AZP-025/004)

Antzina, kalean bi atari zeuden, eta gauez itxi egiten ziren. Bere gurasoek ezagutu zuten hori.

110. Erdi kaleko dendak lehen (AZP-025/005)

Erdi kaleak beti izan du garrantzia. Txikia zenean bertan zeuden denda batzuk aipatzen ditu.

111. Perez abizenaren jatorria (AZP-025/007)

Perez abizenaren jatorria kontatzen du. Amona Azpeitiko zen, ama Huescako zen, eta haren aita Huescako karabineroa. Amak anaia bat zuen, eta Huescan jaio ziren. Bi urterekin umezurtz gelditu ziren. Eta orduan amonak erabaki zuen Azpeitira etortzea.

112. Arsuaga medikua (AZP-025/008)

4. abizena Arsuaga du. Abizen bera zuen mediku on eta ezagun bati buruz hitz egiten du.

113. Komertzioko ikasketak (AZP-025/010)

Gerora komertzioa ikasi zuen. Bi maila zeuden orduan. Hilabetean duro bat ordaintzen zuten. Ordurako gauza handia zen komertzioa ikastea. Maristek kontabilitatea eta aritmetika oso ondo irakatsi izan dute beti.

114. Don Manuel Ferrer irakaslea (AZP-025/013)

Manuel Ferrer irakasleari buruz hitz egiten du. Oso ona zela dio. Karroza bat dedikatu zion hari. Udaletxeak egindako omenaldia aipatzen du. Herriaren alde lan asko egindako gizona zen. Artista zen. Mexikon karikatura bat egin izanagatik alde egin behar izan zuen handik.

115. Margotzen bakarrik ikasia (AZP-025/014)

Ez du maisurik izan inoiz; margotzen ez dio inork erakutsi. Akuarelan ere egiten zuen. Teknika zailagoa da akuarela. Gaztetan ikatz-ziriarekin ibiltzen zen gehienbat.

116. Marrazketako saria (AZP-025/015)

Urtero marrazketako lehenengo saria irabazten zuen. Saria aipamena bakarrik izaten zen. Baina gustura horrela. Inbidiarik ez zen izaten lagunaren artean, oso ondo konpontzen ziren eta.

117. San Pedro eguneko erromeria (AZP-025/020)

San Pedro egunean erromeria handia egiten zen lehen. Musika-bandaren lehen entsegua non egiten zen azaltzen du. Dantza non egiten zen azaltzen du.

118. Misioak (AZP-025/022)

Misioei buruz hitz egiten du. Orduko bi apaizek umeei egindakoa kontatzen du.

119. Azpeitiko kaletarren arteko harremana (AZP-025/023)

Kalerik batuena Errebala zen lehen. Norbait oso gaixo zegoenean, kaleko jendea elizara joaten zen kandela piztera gaixo zegoenaren alde. Errebaleko jendea asko mugitzen zen halakoetan. Kaleen artean ez zegoen lehiarik normalean. Ume bihurriak bazeuden, ordea, eta haiek gaiztakeriak egiten zituzten.

120. Corpusak Erdi kalen (AZP-025/024)

Lehen festak egiten ziren Erdi kalen: Corpusak. Nola ospatzen zituzten azaltzen du.

121. Testuinguruaren arabera tratamenduak (AZP-025/029)

Apaizari berorika egiten zitzaion. Lagunartean hika egiten zen, eta etxean (berak behintzat) zuka. Lagunarteko hizkerako esamolde batzuk aipatzen ditu.

122. Danborradako karrozen egilea (AZP-025/038)

Dendari esker, danborradako karroza egiten hasi ziren. Egindako karroza bat erakusten dio elkarrizketatzaileari. Urtetik urtera karroza hobekiak egin izan ditu.

123. Gernikako arbolari buruzko karroza (AZP-025/041)

Behin Gernikako Arbolari buruzko karroza egin zuten. Hura prestatzeko, Gernikara joan ziren arbola marraztera, baina gizon batek esan zien debekatuta zegoela. Ordurako, hala ere, buruz ikasia zeukan irudia, eta geroago marraztu ahal izan zuen.

124. Aita Urola treneko makinista (AZP-026/002)

Rosaren aita Urola treneko lehenengo makinista izan zen. Trenak Azpeititik Donostiarako bidea zenbat denbora egiten zuen jakiteko proba egin zutelakontatzen du. Aita 37 urte zituela hil zen, meningitis harrapatuta.

125. Ama lanera, umeak miseriakordiara (AZP-026/003)

Aita hil zenean, Rosa eta bere anai-arrebak miseriakordiara joan ziren. Amak, berriz, lana egiten zuen zumitzak egiten. Miseriakordian, arropak garbitzen ere aritzen zen. Arropak nola garbitzen zituen kontatzen du.

126. Igandetan, amarengana (AZP-026/004)

18 urtera arte miseriakordian egon zen. Igandetan, amarengana joan ohi zen. Anai-arreben ibilerak kontatzen ditu.

127. Miseriakordian: ikasi eta lana egin (AZP-026/005)

Miseriakordian egin zituen oinarrizko ikasketak. Umetan oso gustura ibiltzen zen. Urteak aurrera egin ahala, miseriakordiako lanetan lagundu behar izaten zuen: babak biltzen, patata ereiten...

128. Miseriakordiako kontuak (AZP-026/006)

Miseriakordiako mojak onak ziren. Josten ikasi zuen haiekin. 18 neska zeuden miseriakordian.

129. Kirola egitea gustuko (AZP-026/007)

Umetan, kirola egitea asko gustatzen zitzaion. Mutilekin ibili ohi zen. Don Jose Maria apaizarekin pilota jokatzen ikasi zuen. Umetako jolasak aipatzen ditu: kinkirrinean, tortoloxetan, kaniketan, zapoketan... Miseriakordian txerri-hiltzea egiten zuten.

130. Eskolako uniformeak (AZP-026/009)

Eskolan uniformeak ibili ohi zuten. Aste Santuko prozesioetan beloa jantzita ateratzen ziren. Nola jantzen ziren kontatzen du.

131. Josten ikasi (AZP-026/010)

Miseriakordian, moja batekin ikasi zuen josten. Behin, inauterietan, aingeruz jantzita atera zen, eta arropa berak josi zuen.

132. Belaetxera, pikuak jatera (AZP-026/011)

Eskolako egunerokoa nolakoa izaten zen kontatzen du. Piku garaian, Belaetxe aldera joaten ziren pikuak jatera.

133. Bazkaritan lanak... (AZP-026/012)

Bazkaritan behin tranpa egin zuela kontatzen zen du. Baba handiak zeuden bazkaltzeko, eta Rosari ez zitzaizkion gustatzen...

134. Liburu bakarra (AZP-026/013)

Entziklopedia handi bat ibili ohi zuten. Liburu bakarra erabiltzen zuten ikasgai guztietarako. Musika, josten... irakasten zuten Miserikordian.

135. Bainua hartzera (AZP-026/014)

Noiz edo noiz hondartzara joan ziren egun pasa, baina gehienetan "paseo de los curas"-era joan ohi ziren bainua hartzera. Ez zuten bainujantzirik, eta bestelako arrokekin sartzen ziren uretan.

136. Txapa fabrikako kontuak (AZP-026/022)

Txapa fabrikan zer soldata irabazten zuen aipatzen du. 14 neska aritzen ziren han lanean.

137. Xoxoteko eguna (AZP-026/023)

Xoxoteko egunaz hitz egiten du. Lehen ez zegoen aterpetxerik, eta bakoitzak bere jatekoa eraman ohi zuen.

138. Lehenengo San Inazioak (AZP-026/027)

San Inazioetan Burgosko musika banda militarrek jotzen omen zuen. Garai bateko festei buruz hitz egiten du. Prozesio elegantea egiten zen. Suzko erroberak Zelai luzetik botatzen ziren.

139. Garai bateko alde zaharra (AZP-026/036)

Garai bateko Azpeitiko alde zaharra nolakoa zen kontatzen du. Udaletxea, alondegia, sastreria, anbulategia... aipatzen ditu.

140. Soledadeko kaperari (AZP-026/045)

Soledadeko kaperari buruz hitz egiten du. Lehen, jaiotza han jartzen zen.

141. Etxe inguruko lurra lantzeko modua (AZP-027/010)

Baserri inguruko lurretan artoa eta garia lantzeko, idiekin moldatzen ziren. Gurdiak erabiltzen zituzten lurra lantzeko, eta gurdiak nolakoak izaten ziren deskribatzen du.

142. Eskola bukatutakoan, idiekin lanean etxean (AZP-027/011)

11 urterekin komunioa egin zuen, eta etxean aritu zen lanean idiekin hamar bat urtetan zehar. Lan hori jornalaren truke egiten zuen.

153. Gaia jartzeak ekarritako aldaketak (AZP-027/029)

Lehen zortziko handian abesten ziren bertsoak, eta gairik gabe ibiltzen ziren. Gaia jartzen hasi zirenean, beldurrez egoten ziren. Baina azkenean, gaia jartzea nahiago izaten zuten.

154. Bertsolari batzuk atxilotu zituztenekoa (AZP-027/030)

Gerra garaian oraindik ez zen Joxe bertsotan ibiltzen. Baina gerra ostean, Francoren diktaduran, behin atxilotu egin zituzten zenbait bertsolari, eta bera haietako bat. Orduko komeriak kontatzen ditu: guardia zibilek beste Joxe Agirre bat eraman zuten lehenengo komisariara, eta akatsaz konturatu zirenean, hura etxera eta Joxe bera barrura joan ziren. Joxe Lizasorekin batera jarri zuten gelan bukaeran, eta orduan lasaiago egon zen.

155. Antiguako kuartelean bizitakoak (AZP-027/031)

Antiguako kuartelean egon ziren atxilotuta, eta poliziek zer-nola tratatu zituzten kontatzen du. Beren delitua autoritatez gaizki esaka ibiltzea omen zen.

156. Kuarteletik ateratakoan, oraindik sustoa gainean (AZP-027/032)

Kuartelean libre utzi zituzten, eta "Bodegón Alejandrora" joan ziren jatera. Han janari onenak atera zizkieten, baina halako sustoa pasa eta gero, ez zeukaten jateko gogorik ere. Azkenean, jandako denak bota zituen gauean.

157. Beren delitua zein izan zen (AZP-027/033)

Zergatik salatu zituzten azaltzen du.

158. Atxilotu zituztenean pasatakoak (AZP-027/034)

Guardia zibilak atzetik zituela abisua pasa ziotenean, etxean egon zen, eta irten egin zen emaztea eta umeak negarrez utzita. Guardia zibilak zain zituen, eta Antiguara eraman zuten. Bertan pasatakoak kontatzen ditu.

159. Txapelketetako epaimahaia (AZP-028/001)

Bera epaimahai izan bazen ere, bera izan baino lehenago lan hartan aritu zirenak aipatzen ditu. Denak ez ziren bertsolariak izaten, baina bai bertsozaleak.

160. Emakume bertsolaririk bai? (AZP-028/002)

Emakume bertsolaririk ez zuen berak ezagutu plazan, baina baten bat zegoenik entzun zuen.

161. Lazkao Txikiri buruz (AZP-028/003)

Buru azkarreko gizona omen zen Lazkao Txiki. Saio guztietan uzten zuen bere arrastoa.

162. Lazkao Txiki, jenio biziko gizona (AZP-028/004)

Lazkao Txikiri adarra askotan jotzen bazioten ere, jenio bizikoa zen. Behin txisteren bat kontatzeko eskatu eta "konta itzak hik" erantzun eta alde egin zuen elkartetik.

163. Lazkao Txiki euskararekin kezkatuta (AZP-028/006)

Euskararekin kezkatu ibiltzen zen Lazkao Txiki, eta behin Lakuntzara bertsotan joan eta bertako andereiñoarekin izan zuen ika-mika.

164. Bertsolari ezagunen ezaugarriak (AZP-028/008)

Martin oso joatalaria zen, Xalbador, berriz, serioa. Uztapide jatorra eta gozoa.

165. Lasarte zuen eredutzat (AZP-028/009)

Joxek eredugarria zen bertsolaritzat zuen Lasarte.

166. Estuasunak gaiaren inguruko bertsoa egiteko (AZP-028/010)

Irakurritakoa baino, entzundakoa erabiltzen zuten jarritako gaiaren inguruan bertsoa botatzeko.

167. Joxe Lizasorekin gustura bertsotan (AZP-028/011)

Joxe Lizasorekin urte mordoa pasa zuen bertsotan. Lagun ona ere bazuen.

168. Gaur egungo bertsolariak (AZP-028/012)

Mendiluze, Arzallus, Irazu... aipatzen ditu Joxek.

169. Bertsolaritza zertan aldatu da? (AZP-028/013)

Bertsoen doinua eta luzeerarako joera hori aldatu egin dela dio, lehen doinu asko erabiltzen baziren ere, neurriak beti antzekoak ziren.

170. Uztapideren bertsoa (AZP-028/014)

Uztapidek potu egindako bertsoa, bederatzi puntukoa egiteko eskatu baitzioten.

171. Bederatzi puntuko bertsoen kontra (AZP-028/015)

Eibarren bederatzi putuko bertsoa egiteko eskatu, eta Basarrik eta Uztapidek protesta egin zuten, eta ez zuten bertsoa bota. Mitxelenak, ordea, bertsoa bota zuen.

172. Bertsotan, batuan ala euskalkian? (AZP-028/016)

Joxek nahasketa bat egin ohi zuen bertsotarako, lazkaoko hizkeraren eta batuaren artekoa.

173. Bertso batzuk ulertu ez (AZP-028/017)

Batzuetan gaur egungo bertsolarien bertsoa ulertu gabe gelditzen dela dio Joxek. Garai bateko bertsolaritza "tabernakoagoa" omen zen.

174. Imanol Lazkanorekin batera (AZP-028/018)

Herrietara bertsotan joaten berandu xamar hasi zen Joxe, gazteagoa zen Imanol Lazkanorekin batera, alegia.

175. Goizetik goizera Santa eskean (AZP-028/019)

Santa eskean urte mordoa pasa ditu Joxek, askotan hogeita lau orduz ere aritzen zen bertsotan.

176. Ustekabean Andoaingo asto-janera (AZP-028/020)

Iluntze batean, ohera zihoala, Lazkanok Andoainera eraman nahi zuen Joxe, asto-jana zela eta.

177. Bertsolarien arazoa: eztarria (AZP-028/021)

Eztarria izan zuen arazo sarritan Joxek.

178. Loiolako abadearen indizioa (AZP-028/022)

Eztarria zela eta, bertso saioak baino lehen indizioa hartzera joaten zen Joxe. Behin Imanol Lazkano ere eraman zuen.

179. Altutik abesteko ohitura (AZP-028/023)

Mikrofono gabe hamaika aldiz abesten zuten, horregatik garrantzitsua zen eztarri ona izatea.

180. Bertsoak (AZP-028/025)

Aitziber Otegi (elkarrizketatzaileari) botatako bertsoak.

181. Jolasean erdaraz kantuan (AZP-029/008)

Behin eskolan jolas-orduan erdarazko kantak abesten ari zirela, andereñoaren senar tolosarra pasa zen, eta hari ez zitzaion gustatu erdaraz aritzea.

182. Loiola eta inguruetara kanpotik etortzen ziren turistak (AZP-029/011)

Lehen Loiola nolakoa zen eta zer zegoen deskribatzen du: tabernak, hotelak... Lehen udan jende asko etortzen zen Loiolara kanpotik. Eta Albinaren familiak jende hari saltzen zizkion barazkiak.

183. Etxeko lanen banaketa (AZP-029/012)

Etxean ganadua izaten zuten, baina etxeko gizonak bakarrik egiten zuten han lan. Emakumeek etxea garbitzen zuten. Garbiketak egiteko, etxetik gertu zegoen errekarra joaten ziren. Garbiketa egiteko sutako hautsa erabiltzen zuten. Astean behin egiten zuten garbiketa. Izarak oraingoak baino sendagoak izaten ziren.

184. Loiolan ibiltzeko ohitura handia lehen (AZP-029/014)

Loiolako basilikara oso maiz joaten ziren, askotan mezetara. Lehen orain baino fede gehiago zegoen.

185. Baserriko bizimodua eta garbitasuna (AZP-029/018)

Beti egin izan du lan baserrian. Igandetan etxea garbitzen zuten, eta nola egiten zuten azaltzen du.

186. Gernikako bonbardaketa eta senarraren gerrako bizipenak (AZP-029/021)

Gerra garaiaz tristura besterik ez du gogoratzen. Gernikako bonbardaketaren berri nola izan zuen kontatzen du. Senarra orduan frontean zegoen, eta hark nola ibili behar izan zuen kontatzen du.

187. Soldaduak etxea errebisatzera pasatzen (AZP-029/024)

Soldaduak etxera sartu zitzaizkien etxea errebisatzeko. Xaboa etxean egiten zuten, eta ezkutatu egiten zuten soldaduak etortzen zirenerako.

188. Kafea landatzea debekatuta (AZP-029/026)

Kafearen landarea hazten zuten etxean, baina bizilagunen batek salatu egin zituen, eta guardia zibilak landareak moztera behartu zituen.

189. Lehengo bizimoduko ohiturak: aisialdia eta bizikletak (AZP-029/027)

Lehen gizonezkoek erretzen zuten purua, baina bestela jendeak ez zuen tabakorik erretzen. Loiolako lagunak zituen, eta inguruetara joaten ziren oinez. Albinaren senarrak bazuen bizikleta, baina gehienek ez, eta jendeak inbidia edukitzen zuen.

190. Erromeria bakoitzak bere arauak (AZP-029/028)

Dantza librean egitera joaten ziren erromeriara. Aizpurutxon hasi ziren lehenengo aldiz dantza lotuan egiten. Baina apaizek harrapatuz gero, zigorra zeukan horrek. Erromeria arratsaldean izaten zen.

191. Etxean ura eta argia bai, baina edateko ura kanpoan (AZP-029/029)

Argia eta ura betidanik ezagutu izan ditu Albinak etxean. Edateko ur freskoa, baina, Iturtxotik ekartzen zuten.

192. Jesuiten frontoia eta garbitasuna (AZP-029/031)

Jesuiten frontoiari buruz hitz egiten du. Jesuita ugari zeuden orduan, eta haien arropak nola garbitzen eta jasotzen zituzten azaltzen du.

193. Arropa egiteko, tela erosi eta josi (AZP-029/032)

Josten ibili zen Azpeitian. Etxeko arropak beraiek josten zituzten. Patroiak erabiltzen zituzten arropak josteko. Josteko makinak nolakoak izaten ziren aipatzen du. Behin semearentzat jositako galtzekin zer gertatu zen kontatzen du.

194. Orrazkeraren araberako errespetagarritasuna (AZP-029/036)

Ilea luzea eramaten zuen lehen Albinak. Behin gizon batek esan zion ilea mozteko, bestela ez zutela errespetatuko eta. Buruan lasto-txapela erabiltzen zuten. Gaztetan ez ziren ile-apaindegira joaten. Ilea moztu ziotenekoa kontatzen du.

195. Tratamendu desberdina pertsonaren arabera (AZP-029/038)

Etxean hika egiten zuten anai-arreben artean; gurasoei zuka; meza ematen zuten apaizei eta medikuei, ordea, berorika. Autorik ez zegoen garaian, medikua zaldiz joaten zen.

196. Lehen jaten zutena (AZP-029/040)

Lehen zer jaten zuten azaltzen du.

197. Baratzeko anekdotak (AZP-029/042)

Baratzean lanean izandako anekdotak kontatzen ditu.

198. Zume-lantegiko lana (AZP-031/009)

13 urterekin hasi zen lanean tailerrean, "Dionisio Etxeberria" zume-fabrian. Lantegi hartan, zumearekin zer gauza egiten zituzten azaltzen du. Hasieran zer lan egin behar izan zuen aipatzen du, eta zenbat ordaintzen zioten. Eskuz egiten zuten lana, eta nola egiten zuten lan azaltzen du. Egun osoa ematen zuen lanean.

199. Gerra aurreko eta ondorengo krisia (AZP-031/010)

Gerra hasi zenean, 18 urte zituen. Gerra aurretik krisia bazegoen; baina gerra ostean, are handiagoa, eta lana bilatzeko pasatakoak kontatzen ditu.

200. Basoko lanaren nondik norakoak (AZP-031/013)

Basoan lanean ibili zenean, zer lan eta nola egin behar izaten zuen azaltzen du. Lortutako egurra Zaragoza aldera bidaltzen zuten.

201. Egurraz jakin beharrekoak (AZP-031/014)

Egurra zertarako erabiltzen zen azaltzen du. Egurrik onenak pagoa eta haritza izaten ziren. Zuhaitzak mozteko zenbat urte itxaron behar izaten diren azaltzen du.

202. Gerran preso, eta geroago Langileen Batailoian (AZP-031/016)

Gerran, 1937an, preso hartu zuten, eta 11 hilabete egon zen kontzentrazio-esparru batean. 1940-1943 bitartean, Afrikara eraman zuten Langileen Batailoiarekin.

203. Preso egon zenean pasatako gosea (AZP-031/017)

Preso eduki zuteneko oroitzapenez hitz egiten du: gosea pasa zuten, gotzainak janaria eman zien...

204. Lau anaien zoria (AZP-031/018)

Lau anaiak errepublikaren aldeko soldaduak ziren, eta bakoitzak izandako zoriari buruz hitz egiten du. Anaia bat eta bera Pirinioetan egon ziren.

205. Pirinioetatik behera izandako fusilamenduak (AZP-031/019)

Anaia bat eta bera Pirinioetan egon ziren gerra garaian: jateko nola moldatzen ziren azaltzen du. Geroago, beste herri batera joan zirenean, suntsituta zegoen ingurua; eta gudukatzeko deia egin zieten. Beldurra pasa zuen orduan, Ebroko borroka gogorak gogoan baitzituen; baina soldaduetako bat ezagutu egin zuen: lehenago melokotoiak ematen zizkiena zen. Hala ere, fusilatu egin zituzten. Hurrengo egunean, greba egin zuten soldaduek.

206. Gerra hasiera Urrestillan (AZP-031/021)

Gerra hasi zenean, Urrestillan zegoen Basilio. Orduko oroitzapenak gogora ekartzen ditu: nafarrak herrira sartu zirenean, Basiliok eta gainerako gudariak Zumaia eta Ondarroara egin zuten alde. Urrestillan ez zen bonbarik izan.

207. Gasteizko eraso (AZP-031/023)

Basilioren alderdikoek Gasteiz hartu behar zuten, baina azkenean ezin izan zuten, eta bere anaia han hil zen.

208. Santanderren kontzentrazio-esparruan (AZP-031/024)

Santanderren kontzentrazio-esparruan eduki zituzten preso. Milizianoek eguneko 10 pezeta jasotzen zituzten.

209. Santandertik Karrantzarako bidea (AZP-031/028)

Santandertik Karrantzara bueltatzeko pasatakoak kontatzen ditu. Gerran gosea pasa zuen. Baina, bestela, Bizkaian ez du uste gose handirik pasa zenik orduan.

210. Urrestillako lantegiak (AZP-031/029)

Urrestillan egurrarekin lan asko egin izan da. Urrestillan egondako lantegiei buruz hitz egiten du.

211. Urrestillatik kanpora lanera (AZP-031/030)

Urrestillako jendea Azpeitira eta Zestoara joaten zen lanera. 1900 irte inguruan jende asko Ameriketara joan zen lan bila, krisiaren ondorioz. Hala joandako osaba bati buruz hitz egiten du.

212. Marturio eta Isuola baserriak (AZP-032/002)

Joxe Marturio baserrian jaio zen. Baserri txikia zen, eta errenteroak ziren. Jabeei buruz hitz egiten du. Joxek zazpi urte zituela, Isuolara joan zen familia. 10 urtez errentero bizi izan ziren baserri horretan, eta urtean 1.000 pezetako errenta ordaintzen zuten. 1941ean familiak erosi egin zuen baserria.

213. Bolintxo paperetan, Isuola auzoan (AZP-032/003)

Baserriak berezko izena Bolintxo du, baina inguruetan Isuola izenez ezagutzen da. Garai batean, Bilbotik minerala ekarri eta baserrian burdina egiten zuten. Baserriak 500 urte inguru izango dituela dio.

214. Burdina eta ikatza egiteko toki aproposa (AZP-032/006)

Garai batean, burdina egiten zen Isuola baserrian. Gerra ondorenean, berriz, ikatz asko egiten omen zen. Baserria ola zen lehen, eta gisa horretako eraikinen ezaugarriak ditu: erreka ondoan, etxeak arku batzuk ditu...

215. Bederatzi senideko familia (AZP-032/007)

Bederatzi anai-arreba ziren. Anaia bat mutil koskorra zela hil zen, arropak su hartuta. Beste anaia bat, berriz, "garrotillo" izenez ezagutzen zen gaitzarekin hil zen. Gurasoek anaia zaharrenaren kargu utzi zuten Joxe.

216. Zazpi seme-alaba (AZP-032/008)

Ezkondu eta zazpi seme-alabako familia osatu zuen. Garai hartan, elizak pisu handia zuela dio; "gogor" egiten zutela.

217. 25 urte behi-esnea ekoizten (AZP-032/009)

Haragitako zein esnetako behiak izan zituen baserrian. Gurelesa esne ekoizlearen kooperatiban bazkide egin, eta 25 urte egin zituen behi-esnea ekoizten; bost esne-behi zituen. Esnea aluminiozko tanke edo depositu batean biltzen zuen, eta gero, mangera bidez zisternara pasatzen zuten. Depositua instalatzeko Aldunditik jasotako laguntzak aipatzen ditu.

218. Esnea aztertzeako, inspektorearen bisita (AZP-032/010)

Aldian behin, inspektorea baserrira joan ohi zen esnea analizatzera. Esnearen kalitatea nola kontrolatzen zuten kontatzen du. Ez da aritu esnea dendetan edo etxez etxe saltzen.

219. Esnea: lana eta prezioaren gorabeherak (AZP-032/011)

Esnea saltzea errentagarriagoa zen txahalak saltzea baino. Goizean, bostetarako jaiki behar izaten zuen, seiak hamar gutxirako kamioia joaten baitzen esnea biltzera. Esnearen prezioaz hitz egiten du: litroa 4 pezetatan egon zeneko garaia gogoratzen du; Joxek lana uzterako garaian, esne litroa 12 pezetan zegoen.

220. Gurelesako bazkide izateari utzi (AZP-032/012)

Gurelesa esne-ekoizlearen kooperatiban bazkide izateari utzi, eta egindako ekarpenak jaso zituela kontatzen du. Bazkide izateko baldintzei buruz hitz egiten du.

221. Esnea ondutakoan, txahalak saldu (AZP-032/013)

Txahalak jaio eta behien esnea ondo jarri bezain pronto, zortzi-hamar egunera, kentzen omen zituen txahalak. Auzoko baserritarrei saltzen zizkien. Esnea zer egoeratan zegoen jakiteko alkohol tanta bat botatzen zion. Alkohola bota eta ez bazen mozten, behi-esnea baldintza onetan zegoen seinale.

222. Behiak zaindu beharra (AZP-032/015)

Behiak edukitzeak lana ematen du Joxeren hitzetan. Behin gaixotu zeneko pasadizoa kontatzen du.

223. Behiak jezteko makina (AZP-032/016)

Behiak jezteko makina zuen. Aurrenetakoa izan zen makinak jartzen. Hasieran, jendea makinekin mesfidatia zela dio. Behiek izaten duten errapeko min edo mamitisari buruz hitz egiten du.

224. Alpapa (AZP-032/018)

Alpapa maiatzeko aurreneko egunetan sartzen zuten. Astoa, atzean gurdia zuela, erabili ohi zuten alpapa kargatzeko. Lehenengo urtean, gutxi ematen omen du alpapak; sustraiak ez baitu indarrik izaten.

225. Gari-jotzea, San Inazio ondorenean (AZP-032/019)

Makinarik ez zegoen garaian, garia losa batzuen kontra jotzen zuten. Gero, makinekin hasi zirenean, auzolanean egiten zuten. Gari-jotzea abuztuan egiten zen, San Inazio ondorenean.

226. Amaren ogi "ederra" (AZP-032/020)

Joxeren amak ogi "ederra" egin ohi zuen. Otarrea bete ogi egin ohi zuen: zortzi egunerako ogia. Aurreneko hiru egunetan ogia ona egoten zen, baina zortzigarren egunerako lehortu egiten zen, gogortu egiten zen.

227. Buztinazko labea (AZP-032/021)

Baserrian buztinaz egindako labea zeukaten. 1935ean egin zuten labea. Labea nola egin zuten azaltzen du.

228. Ogia eta labean erretako artoa (AZP-032/022)

Larunbatetan egin ohi zuen Joxeren amak ogia. Artoa ere erretzen zuten labean, esnearekin jateko; arta-zopak egiteko. Gerra ondorenean talo asko egiten zen.

229. Auzoko errota (AZP-032/023)

Auzoan zegoen errota bati buruzko istorioa kontatzen du. Errotariak alea ehotzeagatik hainbesteko bat kentzen zien. Ehuneko horri laka esaten zitzaion.

230. Errezil sagarra eta sagardoa (AZP-032/024)

Bi sagasti on zituzten. Errezil sagarra sagar gazia izaten zen. 3.000 eta 4.000 mila kilo sagar artean biltzen zituzten. Kolkora biltzen zituzten sagarrak kasaka batzuekin. Urriaren azkenetan jaso ohi zuten sagarra. Matxinbentako dolare bakarra Isuolan zegoen, eta, beraz, sagardo ugari egiten zuten bertan.

231. Sagardoaren gozoa (AZP-032/025)

Sagarra nola jotzen zuten azaltzen du. Frutaren zukuari muztioa esan ohi zaio, eta gozoa izaten da. Otorduetan sagardoa edan ohi zuten. Sagardoa botilaratu egiten zuten. Botilak eta kortxoak Azpeitian erosi ohi zituzten.

232. Otarregintza, etxekoan ofizioa (AZP-032/026)

Aitari laguntzen, haren pintxe gisa hasi zen Joxe saskiak egiten. Joxeren aitona ere otarregilea zen.

233. Saskigintza (AZP-032/027)

Saskiak nola egiten diren azaltzen du. Zumitzak nola ateratzen diren, saskiari forma nola ematen zion... Lanerako zer tresna erabiltzen zituen ere kontatzen du.

234. Motorra eta automobila (AZP-032/029)

1953an ezkondu, eta handik bi urtera motorra erosi zuen. Geroago, vespa ekarri zuen. Eta beranduago, berriz, automobila erosi zuen, baina etxean inork ez zuen gidatzeko baimenik. Lehenengo, semeak atera zuen baimena, eta Joxek, gero.

235. Azpeitirako joera (AZP-032/030)

Isuola baserria Azpeitiko partean dago, eta Azpeitirako joera izan dute familian. Isuola atariko erreka egiten du Matxibentako lurren muga: alde bateko baserriak Beasainen daude, eta bestekoak, berriz, Azpeitian.

236. Orbelak bidea estali (AZP-032/031)

Errepideak asko hobetu dira urteekin. Lehen udazkenean orbel gainean ibili ohi zirela dio.

237. Eskolara "tarteka" (AZP-032/033)

Matxinbentako eskolan ibili zen. Elizaren kontra dago oraindik ere eraikina. Baserriko lanetan lagundu behar izaten zuen, eta ez zen beti joaten eskolara. Denborarekin, gogo gabetu egin zela dio. 13 urtera arte, eskolara "tarteka" joaten zela dio. Maisu asko pasatu ziren Matxinbentatik, erdaldunak gehienak. Gau-eskolan ere ibili zen. Dotrina apaizek ematen zuten.

238. Gerra garaiko oroitzapenak (AZP-032/034)

Gerra garaiko oroitzapenak kontatzen ditu. Gerra piztu eta bi egunera, komunistak Matxinbentatik pasatu omen ziren. Egunero albisteren bat izaten omen zen. Irratiak eta eskopetak konfiskatu zituzten Matxinbentan.

239. Gerra garaiko oroitzapenak II (AZP-032/035)

Gerra garaiko oroitzapenak kontatzen ditu. Santio egunean, Murumendira joan zen Joxe zerbait ikusteko asmotan. Santa Ana egunean, berriz, Beasain aldetik ihesi jende andana bildu omen zen Matxinbentan. Handik bi egunera, zubiak bota omen zituzten.

240. Gerra ostean taloa eta esnearekin salbu (AZP-032/036)

Gerra ostean, ez zuten goserik pasa baserrian. Taloa eta esnea nahikoa izaten zuten. Txerria ere bazuten, eta ez zuten txerrikirik falta izaten. Garia kendu egiten zien "junta de abastos" delakoak.

241. Aisiladia lehen Azpeitian: erreka eta zezen-plaza (AZP-033/013)

Azpeitian hondartzarik egon ez arren, erreka joaten ziren bainatzera. Pausoz pauso igerian ikasten nola joaten ziren azaltzen du. Zezen-plazan ere apustu ugari egiten ziren.

242. Eskolako liburua, zigorrak eta ohiturak (AZP-033/014)

Umetan zer eskolatan ibili zen aipatzen du. 5-6 urte zituela hasi, eta 14 urtera arte ikasi zuen han. Eskolan liburu bakarria erabiltzen zuten gai guztietarako, eta zer ikasten zuten azaltzen du. Erdaraz ikasten zuten eskolan, baina ez zuten zigorrik izaten euskaraz egiteagatik; mojatzen ibili ziren neskek, ordea, frantsesez ikasten zuten. Iñakiren eskolan ez zuten uniformerik erabiltzen.

243. Eskolako maisuaren nortasuna eta zigorrak (AZP-033/015)

Eskolan, astean behin irteten ziren jolastokira. Garai hartan, gosea zegoen, eta jolastokira irtetean, fruta lapurtzen zuten batzuek. Maisua begira egoten zen; eta gero, klasera sartzean, lapurretan ibili zena harrapatuz gero, jo egiten zuen. Maisu hark ondo irakasten zuen, baina gogorra zen, eta okerreko erantzuna emanez gero, muturrekoa ematen zuen. Maisua langile handia zen: maila ezberdinetako 100 ikasle zituen, eta denei ematen zien klase; baina haserretzen zenean, ahulenak ordaintzen zuen. Eskolan zer ordutegi zuten azaltzen du.

244. Eskolarekin irteerak egiteko trabak (AZP-033/017)

Eskolan ez zuten txangorik egiten: 100 ikasle izanda, sakabanatu eta galdu egingo lirateke. Lehen jendea basatiagoa zela dio. Udan izaten zituzten oporrak, baina baserrira joan behar izaten zuten orduan lanera.

245. Udako oporretan itulan (AZP-033/018)

Udako oporretan itulan egin behar izaten zuten. Itula zer zen eta zertarako egiten zen azaltzen du. Kaleko umeek ere baserriko lanetan aritu behar izaten zuten beren gurasoak baserritarrak baziren.

246. Gaztetako lanak eta lan-baldintzak (AZP-033/020)

Eskola bukatutakoan, harategi batean hasi zen lanean. Han zer eginkizun zituen azaltzen du, eta oso diru gutxi irabazten zuela dio, 14 urtekoei oso gutxi ordaintzen baitzitzaien helduen aldean. Hain gutxi irabazita, eta Eibar aldean langileak behar zirenez, jende asko hara joan zen diru gehiago irabazteko asmoz.

247. Azpeitiko organo-fabrikaren inportantzia (AZP-033/021)

Iñakiren gurasoek organoen fabrika egiten zuten lan. Fabrika inportantea zen hura, eta non zegoen azaltzen du. Han egindako organo batzuk aipatzen ditu.

248. Azpeitiko lantegiak eta lan-prozesuak (AZP-033/022)

Harategian nola hasi zen kontatzen du. Azpeitian otarrak eta aulkiak egiteko lantegiak zeuden. Lehen, ordea, ez zegoen mekanikarekin lotutako lanik Azpeitian; hori gerora hasi zen. Burdinarekin egiten zen lanaz hitz egiten du: txatarra trenean iristen zen, eta hainbat tresnarekin eskuz lantzen zuten; orain, ordea, askoz arinagoa eta automatikoagoa da prozesua. Burdinarekin lan egitean egondako istripu batzuk aipatzen ditu. Egurrarekin nola egiten zen lan azaltzen du.

249. Umetako koadrilen ohiturak eta haien arteko hierarkia (AZP-033/023)

Gaztetako koadriletan kaleko lagunak elkartzen ziren. Futbolean eta pilotan non jolasten zuten azaltzen du. Adinez nagusiagoak zirenek lehentasuna izaten zuten frontoiak edo futbol-zelaiak erabiltzeko garaian.

250. Etxean egindako pilotak eta baloiak (AZP-033/024)

Pilotak salgai egoten ziren, baina garestiak izaten zirenez, amak jositako pilotekin jolasten zuten beraiek. Baloiak ez ziren gaur egungoak bezalakoak, baizik eta paperez eta lokarritz egindakoak. Azpeitian izan zen lehenengo gomazko pilota karratua izan zen.

251. Kotxerik ez, eta kamioiaren atzean kateatzen (AZP-033/026)

Azpeitian kotxeak arruntak ez ziren garaian, Donostiatik kamioi bat etortzen zen noizean behin, eta umeak haren atzean kateatzen ziren.

252. Eskopetekiko zaletasunik ez, eta soldadutzara joatera behartu zutenekoa (AZP-033/028)

Ehizara joateko zaletasunik ez du izan inoiz. Soldadutzan bota izan ditu bota dituen tiro bakarrak. 21 urte zituela joan zen soldadutzara, eta urte eta erdi eman zuen han.

253. Soldadutzan lagunak uretara bota zituenekoa (AZP-033/030)

Soldadutzan bi lagun uretara bultza zituzten; aldatzeko arroparik ez zutenez, egun librea eman zieten. Garai hartan, dirurik ez zutenez, beren ilusio handiena jatekoa lortzea zen. Bergarako lagun bat aipatzen du.

254. Orduko arropak, ondo aprobetxatutakoak (AZP-033/032)

Orduan etxean josten zen arropa janzten zuten. Arreba jostun ona zen, eta hark egiten zizkieten jantziak. Iñakik ezin zuen jaso anaiaren arropa, haren arropa handiegia baitzen beretzat. Arropa puskatu arte erabiltzen zuten; eta aste osoan arropa bera.

255. Umetan garbitzeko errekan bainatzen (AZP-033/034)

Umetan errekan non eta nola bainatzen ziren kontatzen du.

256. Gurrpilak birziklatuta lortutako abarkak (AZP-033/035)

Abarkak egiteko, autoen gurrpil zaharrak erabiltzen zituzten. Gomazko abarkak gerora hasi ziren egiten.

257. Denbora aurrera, eta janaria hobea (AZP-033/038)

Lehen sardina zaharrak jaten zituzten. Pixkanaka-pixkanaka hobetzen joan zen jaten zuten janariaren kalitatea.

258. Herriko festetako "baimen" bereziak (AZP-033/040)

San Inaziotan bakarrik izaten zen libre dantza lotuan egitea. Herriko festen bilakaerari buruz hitz egiten du.

259. Azpeitiko Santo Tomasetako giroa lehen eta orain (AZP-033/045)

Santo Tomasetan lehen giro hobeagoa egoten zen Iñakiren ustez. Lehen baserriaren eguna zen; orain, ordea, kaletarra. Lehengo eta gaurko Santo Tomasen arteko aldeak aipatzen ditu.

260. Aisialdian paseatzen zinea Azpeitira iritsi zen arte (AZP-033/047)

Lehen paseatzen ibiltzen zen jendea aisialdian, ez baitzegoen zinerik garai hartan. Lehenengo zineak noiz eta non ireki ziren azaltzen du.

261. Eztei-bidaian Valle de los Caídos bisitatzera joandako eguna (AZP-033/050)

Eztei-bidaian Madrilen zeudela, Valle de los Caídos ikustera joan ziren behin emaztea eta bera, bikote tolosarrarekin batera. Txangoko anekdota batzuk kontatzen ditu. Bidaia hartan ezagututako bikote tolosarrarekin bizi guztirako lagunak egin ziren.

262. Euskaraz bizitakoa, hika eta zuka nori egin izan dien (AZP-033/054)

Euskaraz hitz egitea debekatuta egon arren, beraiek ez zekiten erdaraz hitz egiten, eta ez zioten debekuari kasurik egiten. Lagun artean hika egin izan dute beti. Emakumeei, anai-arrebei, eta seme-alabei, ordea, ez die hika egiten. Apaizari zuka egiten dio.

263. Komunioa egin ahal izateko azterketa (AZP-033/057)

Lehen komunioa nola izaten zen azaltzen du. Azterketa moduko bat egiten zuten apaizek, eta hura gainditzeko ez bazen, bi aukera egoten ziren komunioa egin ahal izateko: batzuek oparia eman behar izaten zuten; eta besteek urtebete itxaron behar izaten zuten.

264. Baserriko bizimodua eta herrirako bidea (AZP-034/002)

Umetan baserriak bizi ziren. Lanerako behiak izaten zituzten. Diru gutxi zuten, eta oiloei esker aurrera ateratzen ziren. Ama joaten zen azokara jeneroa saltzera astoarekin. Baserriak herrirako bidea egin zutenean, Santiagok 4-5 urte zituen. Mutrikuar batzuk eta inguruko baserriko lagunak aritu ziren bidea egiten.

265. Laian ibilita, behin gertatutako istripua (AZP-034/003)

Baserri inguruan baratzea zuten eta laian aritzen ziren. Denek batera egiten zuten laian. Behin, laian zebiltzala, gizon bat zauritu eta hurrengo egunean hil egin zen.

266. Garia erateko prozesua (AZP-034/005)

Garia nola egiten zen azaltzen du Santiagok. Garia erateko aleak aurreko urtetik gordetakoak izaten ziren. Gerora, aleak txikitu egiten zituzten, eta handik 15 egunetara, hazten hasten zen. Hazitakoan, igitaiarekin ebakitzen zuten. Jasotakoan, garia jo egiten zuten, eta zakutan biltzen zuten.

267. Dukearen etxeko erreteroz izatetik, etxearen jabe izatera (AZP-034/006)

Artoa errotara kutxan eramaten zuten. Garai hartan, etxearen jabea duke bat zen eta hari erretera ordaintzeko garia eraman behar izaten zioten. Gerora, gariaren ordez, dirua ematera behartu zituzten. Dukea ez zuten ezagutzen, haren administratzaileekin baitzuten tratua. Azkenean, dukeak saldu egin zituen bere jabegoak eta orduan erosi ahal izan zuen baserria Santiago eta Pedroren familiak. Dukearen administratzailea Zarautzen zegoen, eta hara joan behar izaten zuten tratua egitera.

268. Maizterraren eskubideak (AZP-034/007)

Aratz Erreka inguruko etxe guztiak dukearenak ziren. Ondasun asko zituen duke hark. Azkenean, ondasun haiek saltzera atera zituen lege bat jarri baitzen orduan. Etxean bazuten erreformak egitea, horretarako baimena bai baitzuten. Urteren batean gariarekin iritsi ezinik ibiltzen baziren erretera ordaintzeko, erosi egin behar izaten zuten.

269. Guardia zibilak etxean jokoan lasai eta aita estraperloan (AZP-034/008)

Gerra ostean, estraperloa zegoen garaian, guardia zibilak binaka ibiltzen ziren guardia egiten, eta hainbat etxetara joaten ziren. Beren etxera etortzen zirenean, haiekin jokoan aritzen ziren, eta bitarte horretan aita errotara joaten zen estraperloan egitera.

270. Gerra ostean, erroten egoera (AZP-034/009)

Gerra ostean, errazionamendua zegoen eta errota itxi egin zituzten. Horregatik, estraperlora jotzen zuen jendeak. Nuarbeko errota hiru funtzio zituen.

271. Ogia eta otorduetako janaria (AZP-034/010)

Ogia etxean egiten zuten gerra ostean, eta aste gutzirako balio zuen. Udan lizundu egiten zen ogia azkenerako, baina besterik ez zegoen. Otorduetan zer jaten zuten azaltzen dute. Gaztainak danbolinean prestatzen zituzten.

272. Sagarrak jasotzen zirenetik sagardoa egin arteko pausoak (AZP-034/012)

Sagar-denboran zer egiten zuten azaltzen du: sagarra zuhaitzetik lurrera bota, otarrean jaso, zakua bete, makinarekin txikitu, eta barrikatan sartzen ziren. Errege sagarrak eskuz biltzen zituzten, mailatu ez zitezen. Kamioiek sagar onez betetako kaxak ekartzen zituzten. Sagarra ondo ordaintzen zen lehen. Sagardoa egiteko sagar klase asko erabiltzen zuten.

273. Barrikak garbitzeko moduak (AZP-034/014)

Dolarean egiten zuten sagardoa barrikatan gordetzen zuten. Sagardoa egin aurretik, barrikak garbitu egiten zituzten ur beroarekin. Beste batzuetan, sua erabiltzen zuten.

274. Patsetako sagardoa (AZP-034/015)

Patsetako sagardoa ez zuten egiten beraiek. Sagardo hura nola egiten zen azaltzen dute.

275. Iberdueroren argindarra iritsi aurretik nola moldatzen ziren (AZP-034/017)

Argiarekin gaizki ibiltzen ziren baserrian. Errotatik jasotzen zuten argia, eta batzuetan batere gabe egoten ziren. Argindarra Iberduerorekin jarri zutenekoa kontatzen dute. Ordura arte, argindarrrik gabe zeudenean, karburua eta kandelak erabiltzen zituzten.

276. Ura etxean eduki arte egin beharrekoak (AZP-034/018)

Hasieran ez zuten urik etxean. Ondoko errekatik balde batean ekartzen zuten ura etxera. Arropa garbitzeko, ama nola moldatzen zen azaltzen dute. Dutzarik ez zegoenean, erre kara joaten ziren bainatzera, eta bestela terreina handi batzuetan garbitzen ziren.

277. Gerra hasieran, ganadua konfiskatzen (AZP-034/020)

Santiagok ezagutu zuen gerra eta orduko oroitzapenak gogoan ditu. Tropak etorri eta txahalak eraman zizkietenekoa kontatzen du. Gordeta zeuden gizonek ihes egin zuten orduan.

278. Giroa txartuta gerra hasi zenerako (AZP-034/021)

Gerra etorri zenerako, giroa oso txartuta zegoen alderdien artean: batak besteari botoak kendu nahi zizkion. Beren aita Nuarbeko alkatea izan zen, karlisten aldekoa.

279. Baserriko senide guztiei jaten emateko egin beharrekoak (AZP-034/023)

Amak baserrian egiten zuen lan: zortzi ume hazten, gurasoak zaintzen... Etxeko denei jaten emateko, amak Santiago ardi bila mendira bidali zuenekoa kontatzen du.

280. Eskolan gaztelaniaz egin behar, baina gaztelania gutxi ikasi (AZP-034/024)

Santiago gutxi joan zen eskolara; Pedro 10-12 urtera arte ibili zen. Dotrina buruz ikasi behar izaten zuten; entziklopedia irakurtzen zuten, baina ez zuten ezer ulertzen gaztelaniaz baitzegoen. Maistrak euskaraz egiten zien; euskaraz hitz egiteagatik eraztunaren zigorra jartzen zien ordea, gaztelaniaz ikasten ez bazuten ere. Eskolara neskak eta mutilak joaten ziren.

281. Bi anaiak akolito ibilitakoak (AZP-034/026)

Akolito ibili ziren bi anaiak, mezan lagundu behar izaten zuten. Dirua ematen zieten lan horrengatik. Mezara nahitaez joaten ziren. Santiagok poz handiena mezako ardo goxoa etxera eramaten zuenean hartzen zuen.

282. Santiago basora lanera 13 urte zituela (AZP-034/027)

13 urterekin Santiago basoan hasi zen lanean. Han ogi zuri nahikoa jaten zuen eta ardoa edaten zuen. Basoan egurra nola pasatzen zuten azaltzen du.

283. Basoko lana eta tresnak (AZP-034/028)

Zuhaitzak botatzeko, trontza erabiltzen zuten. Egur hura okindegietarako izaten zen. Trontzak eta basoko lan-baldintzak nolakoak izaten ziren azaltzen dute.

284. Arrebari erditzen lagunduko zion medikuaren bila (AZP-034/030)

Arrebak umea izan behar zuela, Santiago Urrestillara joan zen medikuaren bila. Medikuak, ordea, emaztearekin eztabaida gogorra izan zuen, emazteak ez baitzion uzten etxetik irteten gauez. Azkenean, Santiago Beizamara joan zen bizikletaz, praktikantearen bila. Azkenean Nuarbera iritsi ziren; amak jatekoa prestatu zien eta praktikanteak arrebari erditzen lagundu zion.

285. Arrebak meningitisa pasa zuenekoa (AZP-034/032)

Behin arrebak meningitisa harrapatu zuen. Santiagok arreba zaldi gainean jarri zuen, baina beldur zen erori egingo ote zen, zaldi baldarra baitzen. Azkenean dena ondo irten zen, eta botikak ere lortu zituzten.

286. Pedrok egindako lanak: tailerra vs basoa (AZP-034/034)

Pedrok Urkizu tailerrean egin zuen lan, gero Azkoitiko beste fabrika batean, eta azkenik 30 urte Zubiola kooperatiban. Basoko lana baino hobea zen tailerrekoa. Basoan zer lan egiten zituzten azaltzen du.

287. Zumarragara oinez lanera (AZP-034/035)

Santiagok Zumarragako Irimon egin izan du lan, eta oinez egiten zuen harako joan-etorria. Mendiz zer bide egiten zuen azaltzen du. Behin nagusiarekin haserretu zen eta gehiago ez zela etorriko esan zion Santiagok; azkenean, konpondu ziren.

288. Erromerietako ohiturak lehen (AZP-034/036)

Gaztetan, Aratz Errekako erromeriarara joaten ziren. Erromeriarara joan aurretik, etxeko lanak eginda uzten zituzten. Erromeriarara joatean, lagunekin afaldu ohi zuten. Erromerian kanpaia jotzen zuenean, neskek etxera joan behar izaten zuten, eta orduan izaten zen neska-laguntzea. Erromeriarara soinu-jotzailea etortzen zen. Lehen gehienbat inguruko mendietan egiten ziren erromeriak.

289. Dantza lotuak ematen zituen buruko minak (AZP-034/037)

Dantza lotua ez da beti libre izan. Behin Aratzerrekako erromerian apaizak ez zuen nahi neska-mutilek kontakturik izan zezaten, eta korroan egiteko ere zapia jarri behar izan zuten tarteko. Zapirik jarri ez zutenei izena hartu zien, gero kongregaziotik botatzeko. Zumarragako Santa Lutzietan ere antzera. Salatariak ere izaten ziren.

290. Ganadua erabiltzea debekatua zegoen egunak (AZP-034/038)

Behin gurasoak jaunari guardia egitera joan ziren Ostegun Santuan. Egun hartan arreba eta Santiago gelditu ziren etxean, eta ganaduekin lan egitea debekatuta egon arren, lan egin zuten. Ama konturatu zen eta errieta egin zien gero.

291. Umetako jolasak: tiragoma, zibota, txorien habi bila... (AZP-036/009)

Frontoian ibiltzen ziren jolasean; pilotan, futbolekin, lasterka... Udazkenean, usopasa garaian, tiragoma hartuta mendira joaten ziren helduek egiten zuten

moduan, ehizan egin nahian. Zibotarekin ere ibiltzen ziren jolasean. Txori kabi bila ere ibiltzen ziren.

292. Tabernako lana eta alpargata josketa (AZP-036/011)

Aitaren tabernan otorduak ematen zituzten. Sagardoa ere egiten zuen. Taberna atzean lokal bat zegoen, eta han sagardo barrikak egoten ziren. Sasoi hartan diru gutxi zegoen, eta tabernetan ez zen jende asko ibiltzen; horregatik aita alpargata josten aritzen zen.

293. Hiletaren ondoren bazkaria tabernan (AZP-036/013)

Hiletaren bat izaten zenean, bazkaria egiten zuten hiletan bildutakoek. Bazkaritik erdi txispatuta irteten ziren. Hildakoaren familiak ordaindu behar izaten zuen bazkaria, eta askotan komeriak izaten zituzten.

294. Ardo beltza, likorea eta tabakoa... tabernako egunerokoa (AZP-036/014)

Ez zen txikiteorik egiten. Tabernan biltzen zen jendea karta-jokoan ibiltzen zen; tutean, musean... Botila bat ardo ateratzen zuten, eta galtzen zuenak ordaindu behar izaten zuen botila. Nafarroako ardo beltza edaten zela dio. Torranoko (Dorrao, Nafarroa) bi ardo banatzaile ibiltzen ziren inguruetan. Ardoa larruzko zahagietan ekartzen zien. Likoreak ere edaten ziren. Tabakoari buruzko kontuak ere aipatzen ditu.

295. Igandeetan tripaki zopak zerbitzatzera (AZP-036/015)

Tabernan ez zen emakumerik ibiltzen. Tabernan era guztietako lanak egin behar izaten zituen. Igande eguerdian jendea mezatik irtendakoan tripaki zopak jaterra joaten zen tabernara. Zerbitzatzeko nola ibiltzen zen kontatzen du. Urrestillan ze taberna zeuden aipatzen du: 'Txikuri'-nekoa, 'Kapain'-goa eta 'Agustina'.

296. San Joan festak eta Aste Santuko prozesioak (AZP-036/017)

San Joanetan aizkolariak, trikitilariak... izaten ziren Urrestillan. Beraiek ez zuten tabernan trikitilaririk jartzen, baina 'Txikuri' tabernakoek bai, eta jende asko izaten zuten. Aita ez omen zen musikazalea. Aste Santuan prozesioa izaten zen. Kanean aldareak jartzen zituzten. Prozesioa nolakoa izaten zen azaltzen du. Aste Santuan karta-jokoan egitea bekatu zen.

297. Aste Santuan karta-jokoa bekatu (AZP-036/018)

Aste Santuan taberna irekita egoten zen, baina karta-jokoan egitea bekatua zen. Gizon batzuk taberna atzeko lokalean, sagardoa edukitzen zuten tokian, aritzen ziren jokoan.

298. Armeria eskolan ikasitakoak (AZP-036/020)

14 urterekin Eibarko Armeria eskolara joan zen. Hiru urte egin zituen Ermuko lehengusu txiki batzuen etxean. Linan, ajustean, fresadoran, taladroan... ibiltzen ikasi zuen. Hasieran zizelarekin kolpe asko hartzen zituen, gero begiratu ere egin gabe jotzen ikasi zuen. Ikasketak bukatutakoan lana eskaini zioten Eibarren bertan, baina etxera itzultzeko gogoia zuen. Gero, sei lagunengan artean Landetan lantegia ireki zuten.

299. Landetako lantegia (AZP-036/021)

Tornuak egiten hasi zen beste sei lagunekin Landetan. Inlasa zuen lantegiak izena. Alemaniara, Mexikora ere egin zuten lana.

300. Lantegiko kontuak (AZP-036/023)

Lantegia martxan jartzeko makinaria Zumaiatik ekarri zuten. Piezak nola egiten zituzten azaltzen du. Katalogoak bidaltzen zituzten makinak saltzeko. 35 urtean aritu zen lantegian lanean. Soldata txikiak izaten zirela dio, nahiz eta gabon garaian-eta langile arruntek baino zertxobait gehiago kobratzen zuten.

301. Urrestilla inguruko lantegiak... (AZP-036/025)

Urrestilla inguruan altzari lantegiak zeuden: 'Agirre', 'Damaso Azkue', 'Azkue & Compañía'... Egurra lantzen zela dio. Soraluzen mekaniko tailerrean ibilitako batekin hasi zen lantegi txiki batean lanean, baina mekaniko tailerrak Azpeitian ez duela indarririk dio. Urrestilla inguruan zerra txikiak ziren, baina urteekin desagertu egin dira.

302. Gortina atzetik soldaduei begira (AZP-036/027)

Gerra denboran, sei urte zituen. Beasain aldetik zetorren soldadu kuadrilla Urrestillatik pasatu zela gogoratzen du. Bera gortina atzetik begira egon zen soldaduak pasatzen ziren bitartean. Soldaduak Urrestillako plazan bildu ziren janaren banaketa egiteko: kontserbak ematen zizkien.

303. Toalleko errotatik irina estraperloan ekarri (AZP-036/028)

Gosete handia egon zen. Ogia hauts egiten zen, eta patatarik ez zegoen; haren ordeez, batata jaten zuten egosita. Jose Mariren aitak Toalleko errotatik estraperloan ekartzen zituen garia eta irina tabernarako. Errotak zarata egiten zuen, eta, gauez eho ahal izateko, zerbait egiten zuten hura isildu ahal izateko. Gero, etxean ogia egiten zuten.

304. Estraperloa eta errazionamendua (AZP-036/030)

Aste barruan ez zuten otordu asko ematen tabernan. Estraperloan lortzen zuten tabernarako janaria. Jatekoa izanez gero nahikoa izaten zen. Beizamako eta Nuarbeko txahala estraperloan erosten zuten jan ahal izateko.

305. Solfeoa eta latinezko abestiak (AZP-036/032)

Koruan ibili zen 14 urtera arte. Urrestillan ba omen zen organista bat eta herriko gazte guztiek ikasi zuten solfeoa harekin debalde. Elizako kantuak latinez abesten zituzten.

306. Zestoara helduan dantza egitera (AZP-036/034)

Erromerian dantza soltean egin behar izaten zen, "dultzemeneoa" galarazita baitzegoen. Zestoan dantza heldua libre izaten omen zen, eta hara joaten ziren dantzara. Zestoan neska bati dantza egiteko eskatu zion, eta berriketan hasi zirenean non jakin zuen bere Zumaiako lehengusua zela.

307. Erromeriak eta Zumarragako Santa Luziak (AZP-036/035)

Oinatz, Nuarbe eta Matxinbentako erromeriatara joaten ziren, eta Santa Luzia jaietan Zumarragara trenez joaten ziren. Urolako tren "sinpatikoa" zela dio, asko mugitzen omen zen.

308. "Cine Luminor, Potxolo timador" (AZP-036/036)

Azpeitira askotan joaten ziren zinera. Soreasu zinemara joango ziren. Lehenago beste areto txiki bat bazen, Luminor izenekoa "cine Luminor, Potxolo timador" esaten zioten jabeari garai hartan zinea bekatu zelako. Gregorio Segurola "Potxolo" bere familiako zela dio, eta gerra garaian emazte eta semeekin kanpora joan behar izan zutela dio.

309. 18 urterekin neskame joandakoa (AZP-037/009)

Eskola 11 urterekin utzi zuen, eta baserrian egin zuen lan 18 urtera arte. Azkenean, neskame joan zen lehengusu baten etxera, eta bi urte eman zituen han. Zer lan egin behar izaten zituen aipatzen du.

310. Baserritarren eta kaletarren arteko aldeak (AZP-037/012)

Baserritarren eta kaletarren arteko aldeaz hitz egiten du. Askoz lan gehiago egin behar izaten zen baserrian, eta kaletarrek burla egiten zieten baserritarrek izateagatik.

311. Kanean ibili eta gero, iluntzerako etxera (AZP-037/013)

Neskame joaten ez bazinen, ez zen lanik egiten etxetik kanpo. Lagunekin ez zebilenean, mutilarekin irteten zen. Iluntzerako etxera joan behar izaten zuen.

312. Azpeitiko zineko gorabeherak (AZP-037/015)

Zinera Azpeitira joaten ziren. "El milagro de F´tima" ikusi zutenekoa kontatzen du. Zinea nolakoa zen deskribatzen du, bai eraikina, bai filmak. Erdaraz izaten ziren filmak, eta ondo xamar ulertzen zituzten, kanean ere erdara dezente hitz egin behar izaten baitzuten. Zinera sartzeko, sarrera ordaintzen zuten, baina apaizak kontrolatzen zuen nor sartzen zen eta nor ez. Nortasun agiririk ez zegoen garaian, ez zegoen zorrotz kontrolatzerik jendearen adina.

313. Lagunekin egiten zituzten planak (AZP-037/017)

Lagunekin non ibiltzen zen azaltzen du: erromerian, bezperetan... Bezperetan zer errezatzen zuten aipatzen du. Erromerietan zer egiten zuten kontrolatu nahi izaten zuen apaizak.

314. Loretoko mendiko giroa (AZP-037/018)

Loretoko mendian taberna nola muntatzen zuten azaltzen du. Taberna haren inguruan zer-nolako giroa egoten zen aipatzen du.

315. Dantza egiteagatik pasa beharrekoak (AZP-037/019)

Dantza lotua lehen ez zen libre. Dantza soltea eginda, makina bat alpargata puskatu zituzten. Baserritik erromeriarara bide luze xamarra zegoen, baina hala ere, egin egiten zuten dantza egiteagatik.

316. Umetako jolasak (AZP-037/020)

Lehen zer jolasetan aritzen ziren aipatzen du: sokadantzan, karta-jokoan, pilotan... Panpinak izaten zituen, baita beraiek trapuekin eta makilekin egindakoak ere. Hala ere, ez zuten denbora askorik edukitzen jolasteko.

317. Gerra osteko oroitza (AZP-037/021)

Gerra ondorenaz gogoratzen duena aipatzen du: errazionamendua zegoen; errota itxita zeuden eta ezin izaten zuten irinik egin; irina egiteko hainbat buelta eman behar izaten zituzten; estraperloan ibiltzen ziren; urtero gari mordo eman behar izaten zuten baserriarrek...

318. Dukearen baserriko maizter (AZP-037/022)

Beren baserria dukearena zen, beste hainbat baserri bezalaxe. Duke harekin zer harreman zuten azaltzen du. Errenta ordaintzeko ondo moldatzen ziren. Azkenean, anaia batek erosi egin zion baserria dukeari.

319. Etxean inguruko telefono bakarra (AZP-037/024)

Beren etxean zegoen inguru haietako telefono bakarra. Beste baserrietara enkargua emateko, telefono horretara deitzen zuten.

320. Zestoako hotelean lanean (AZP-037/026)

18 urterekin neskame ibili zen Azpeitian. Gerora, Zestoako Hotel Arozenan egin zuen lan, sukaldean laguntzen; lo han bertan egiten zuen. Hotel hartako nagusiei eta bezeroei buruz hitz egiten du. Jantokian lan egitea eskaini zioten, baina ez zuen onartu, erdaraz hitz egin beharko zuelako.

321. Hoteleko lanaren egunerokoa (AZP-037/027)

Sukaldean zer lan egin behar izaten zituen azaltzen du. Lehen dena eskuz egin behar zuten, ez baitzegoen hartarako makinarik. Zer jantzi eramaten zuten deskribatzen du. Goizean goiz hasten ziren lanean, eta han bertan jaten zuten. Hotelean lan egiten zuten beste pertsonen zereginei buruz hitz egiten du.

322. Hoteleko janaria (AZP-037/028)

Hotelean zer janari jartzen zuten azaltzen du.

323. Hoteleko lan-baldintzak (AZP-037/029)

Jasotzen zuten soldatei buruz eta inguruko hoteletako soldatei buruz hitz egiten du. Ez zuten egun librerik edukitzen astean zehar.

324. Hotelean arropak garbitzeko (AZP-037/030)

Arropak beraiek garbitu eta konpondu behar izaten zituzten. Zerbitzariei ematen zieten uniformeak, baina sukaldariei ez. Hoteleko arropak garbitzeko garbitoki handi bat zegoen, baina norbere arropak norberak garbitu, lehortu eta plantxatzen zituen.

325. Cadillac bat eta bizikleta batzuk (AZP-037/031)

Hotelaren inguruan zelaiak eta garajeak zeuden. Behin Cadillac bat etorri zeneko anekdota kontatzen du. Azpeitian lanean zebilela, aitak bizikleta oparitu zion. Bizikletekin nola moldatzen ziren azaltzen du. Azpeitian bazegoen bizikletak alokairuan uzteko zerbitzua.

326. Hotelean lanean, senargaia motorrean bisitan (AZP-037/032)

Hotelean lanean zebilela, senarrak motorra erosi zuen, eta bisitan joaten zitzaion hotelera. Hala ere, ez zuten edukitzen elkarrekin egoteko denbora askorik.

327. Etxean diru gutxi, baina zoriontsu (AZP-037/033)

Neskame lanetan irabazitakoa etxean ematen zuen, eta diru harekin ordaintzen zen baserriaren errenta. Garai haietan diru gutxi zeukaten, baina oso pozik eta gustura bizi ziren.

328. Azpeitiko San Inazioetako giroa (AZP-037/034)

Azpeitira San Inaziotara joaten ziren. Han zer-nolako giroa egoten zen azaltzen du: tabernak, soinu-jotzaileak, tiobiboak, txurro-dendak, tonbolak...

329. Lehengo janzkera eta orrazkerak (AZP-037/035)

San Inazioak inportanteak ziren orduan ere. Ahal zuten dotoreen janzten ziren. Lehen oso arropa gutxirekin moldatzen ziren urte osoan. Lehengo orrazkereei buruz hitz egiten du

330. Urrestillako merkataritza lehen (AZP-037/037)

Urrestilla lehen nolakoa zen eta zer denda zeuden azaltzen du.

331. Medikuak eta haurdunaldiko gorabeherak lehen (AZP-037/038)

Lehen Urrestillan bazegoen medikua; Atzerrekan etxera joaten zen medikua. Lehen haurdun gelditzean, 7 hilabeterekin joaten ziren emakumeak medikuarengana, eta orduan zer egiten zieten azaltzen du. Umeak nola izaten zituzten, eta bere 6 seme-alabak nola jaio ziren kontatzen du. Lehen umeentzako fardelak nolakoak izaten ziren azaltzen du.

332. Ezkondu arteko bizimodua (AZP-038/003)

Komunioa egin bitartean, umetako maistra batekin ikasi zuen. Urrestillan bere etxean ematen zituen klaseak. Komunioa egin eta gero, Donostiara eraman zuten bere ahizpa zaharrenaren umea zaintzera, eta bitartean eskolara joan zen. 16-17 urte zituela, jaiotetxera itzuli zen. Bere gogoa ile-apaintzailea izatea zen arren, aitak ez zion utzi hartarako ikasten. Zerbitzari joan zen, eta 22-23 urte zituela ezkondu zen.

333. Urrestillako eskolako oroitzapenak (AZP-038/005)

Urrestillako eskolako maistrari buruz hitz egiten du: dotrina erakusten zien gehienbat, kale-etxe batean ematen zien eskola, goiz eta arratsalde joaten ziren eskolara... Eskola etxetik urruti xamar zegoen, eta etxetik eramaten zuen bazkaria. Gerora, Donostiara joan zen ikastera, han bizi baitzen ahizpa, eta aitak hari laguntzea nahi zuen.

334. Donostian zegoeneko bizimodua (AZP-038/006)

Donostian zegoela, goizez baserriko lanetan eta umea zaintzen ibiltzen zen; eta arratsaldetan, Antiguako moja batzuen eskolara joaten zen ikastera. Mojekin erdaraz ikasten zuten, eta berak hasieran arazoak izan zituen ez baitzuen ulertzen; gerora, hala ere, ikasi zuen. Uniformea eramaten zuten, eta nolakoa zen deskribatzen du.

335. Debekatutako janzkerak (AZP-038/007)

Garai hartan ezin zuten mahukarik gabeko kamisetarik eraman.

336. Donostiako bizimodua eta aisialdia (AZP-038/009)

Donostian egon zen bitartean, umeak zaintzen ibiltzen zen. Donostian aisialdian zer egiten zuen kontatzen du. Pixka bat koskortu zirenean, erromerietara joaten ere hasi ziren.

337. Donostiako aisialdia: hondartza eta antzerkia (AZP-038/010)

Donostian zeudela, ez ziren joaten hondartzara, bekatu larria baitzen. Lehengo bainujantziak nolakoak izaten ziren deskribatzen du. Zinea bazegoen, baina beraiek ez zuten dirurik izaten joateko. Elbira Zipitria andereñoak behin Kursaalera eraman zituen teatroa ikustera. Lehengo eta oraingo Kursaala alderatzen ditu.

338. Donostiako giroa (AZP-038/011)

Donostian lagun euskaldunak zituen, nahiz eta Donostian euskara asko ez zen egiten. Oinez joaten zen alde batetik bestera. Etxean txikienak bakarrik izan zuen bizikleta.

339. Urrestillatik Castillora lanera (AZP-038/016)

Donostiatik Urrestillara itzuli zenean, Castillora joan zen lanera. Lan hura nola lortu zuen eta zer lan-baldintza zituen azaltzen du. Lan asko egin zuen hotel hartan.

340. Hoteleko lanak eta uniformea (AZP-038/018)

Castillo hotelean zer jende klase ibiltzen zen azaltzen du. Zer lan egin behar izaten zituen han ere aipatzen du. Bere uniformea nolakoa zen deskribatzen du.

341. Elizatik piper egiteko asmatutakoa (AZP-038/023)

Igandetan bezperatara joaten zirenez, ez zuen denborarik izaten zinera joateko. Behin zinera joan eta elizara ez joatearren egindakoa kontatzen du.

342. Emakumeen eta gizonen arteko diferentziak (AZP-038/025)

Emakumeek ez zuten tabernara joateko ohiturarik, eta sartuz gero, gaizki ikusia zegoen. Etxean ere arau desberdinak zeuden mutilentzat eta neskentzat. Ilunpetan ibiltzeko zer argi erabiltzen zuten azaltzen du.

343. Berrikuntzak baserrian: bidea, ura eta argia (AZP-038/026)

Bidea oso berandu egin zen. Lehen gurdibidea zegoen, eta gerora egin zen autoentzako errepidea. Bera Donostian zegoen bitartean jarri zituzten baserrian ura eta indarra. Hori baino lehen ura nondik eta nola ekartzen zuten azaltzen du. Arropa garbitzeko, sukalde bazterrean eduki ohi zuten hartarako lekua.

344. Telefonoa jarri aurreko komunikazioa (AZP-038/028)

Telefonorik ez zuten izan baserrian 1980 ingurura arte. Bitartean, kaleko kabinatik deitzen zuten. Mutilarekin hitzordua jartzeko nola moldatzen zen azaltzen du.

345. Mutil kontuak etxean (AZP-038/029)

Mutil-lagunarekin hasi zenean, 19 urte inguru zituen. Familian aurkezpenak nola egin zituzten azaltzen du. Gurasoekin ez zen mutil kontuez hitz egiten normalean.

346. Baserrian landatu eta azokan saldu (AZP-038/031)

Azokara saltzera joandakoa da. Donostiako etxean barazki asko zeudenez, azokan saltzen zituen; eta gerora etxean, negutegia zutenez, ohiturekin jarraitu zuen. Negutegian zer landatzen zuen azaltzen du.

347. Negutegiekin nola moldatu izan den (AZP-038/033)

Negutegiekin nola moldatzen zen azaltzen du. Lurrarentzat ongarriak erabili izan ditu: lehen simaurra, orain bestelako produktu bat. Lehen erreka ura erabiltzen zuten.

348. Euskara irakasten baserrian (AZP-038/035)

Urtero etorri izan zaie norbait etxera euskara ikastera. Ohitura hori duela 25-30 urte hasi zuten, eta nola hasi zuten azaltzen du.

349. Eskolatik kalerako bidean erabiltzen zituzten oinetakoak (AZP-043/005)

Eskolan Milagrosetan ibili zen 6 urtetik 12 urtera arte. Oinatzetik Azpeitira ordubete inguruko bidea egiten zuten oinez. Basabidea zen, eta zapatak ez zikintzeko, egunkari-paperetan biltzen zituzten kalera iritsi arte; bidean ibiltzeko, abarkak janzten zituzten.

350. Orduko janzkera: emakumeek galtzak janztea debekatuta (AZP-043/007)

Orduan janzten zuten arropa nolakoa zen azaltzen du: eskolako uniformeak, igandetako arropa, negurako arropa... Neska bat kalera galtzak jantzita jaitsi zen egunean, isuna ordaindu behar izan zuen. Gaizki ikusia zegoen emakumeek galtzak janztea.

351. Eskolako bizimodua mojekin (AZP-043/008)

Eskolan koloretako bandak ematen zituzten: hiru koloretakoak zeuden, eta kolore bakoitzak esanahi bat zuen. Mopak jartzen zituzten bandak. Maistrak mojak ziren, eta denak kanpokoak ziren. Lehen, hala ere, bertako moja asko zegoen. Mopekin dena erdaraz ikasi zuten, baina ez zieten zigorrik jartzen euskaraz hitz egiteagatik. Eskolan dena liburu batetik ikasten zuten. Eskolako eraikinen egitura nolakoa zen azaltzen du. Neskak bakarrik joaten ziren eskola hartara, goizez eta arratsaldean.

352. Josteko teknikak eta maistrak (AZP-043/009)

Bordatzen ibiltzen ziren: ahozapiak eta mahai-zapiak bordatzen zituzten. Mopak erakutsi zieten, eta hari gutxi jartzen zuten josteko.

353. Gernikara neskame taberna eta gozogintzako lantegi batera (AZP-043/010)

12 urterekin Gernikara joan zen neskame denda batera. Denda hartan pastelak, jangaiak eta kafea saltzen ziren. Maria Jesus denda garbitzen, nagusien umeak zaintzen eta pastelak egiten ibiltzen zen. Pastelak nola egiten zituzten azaltzen du; gauean egiten zuten lan. Garbiketarako egiteko, eskuz eta eskuila latzaz egiten zuten dena.

354. Harategiko tresnak eta lanak (AZP-043/014)

Neskame lanetan ibili ostean, Azpeitiko harategi batean hasi zen lanean. Han zer lan mota egin behar izaten zuten aipatzen du. Harategiko tresnez hitz egiten du: haragia gordetzeko hozkailua zeukaten, haragia pisatzeko baskula, eta txorizoak egiteko makina. Odolkiak nola egiten zituzten azaltzen du.

355. Harategiko salmentak eta haragiaren jatorria (AZP-043/015)

Txorizoa eta odolkia saltzen ziren gehien harategian. Txuletak gutxi, jendeak merkea erosteko joera baitzuen. Ganaduaren haragia baserrietatik erosten zuten harategiko jabeak. Lehen ez zen ikuskapenik egiten harategietan.

356. Esnearen salmentaz eta banaketaz arduratzen (AZP-043/018)

Beren baserrian beti eduki izan dute haragitarako ganadua. Maria Jesus arduratzen zen plazara saltzera joateaz, bai esnea, bai fruta, bai eta barazkiak ere. Goizero joaten zen esnea banatzera eta nola saltzen eta banatzen zuten azaltzen du.

357. Azokako salmentaren nondik norakoak (AZP-043/019)

Asteartetan azokara joaten zen. Estalia zegoen lekua. Azokan, hegaztiak lurrian edukitzen zituzten hankak lotuta zeuzkatela. Prezioak saltzaile guztien artean adosten zituzten, eta prezioa jakiteko galdetu egin behar izaten zen, ez baitzuten etiketarik jartzen. Eragiketak buruz egiten zituzten.

358. Maiatzeko loreak eta elizara joateko ohitura/ betebeharra (AZP-043/020)

Maiatzeko loreetan meza bereziak izaten ziren. Loreak eramaten zitzaizkion orduan Ama Birjinari. Gainerakoan, elizara nahitaez joan behar izaten zuten. Goizeko seietako mezetara joaten zirenean, kuadrillan joaten ziren. Eta baserri batetik bestera bidean abiatu zirela abisatzeko, lastoa erretzen zuten. Igandero joaten ziren mezetara.

359. Elizako jardunak eta arauak (AZP-043/021)

Elizan urtean behin egiten zituzten jardunak, eta horiek zer izaten ziren azaltzen du. Azpeitiko aitorleku guztiak beteta egoten ziren orduan; eta mezan komunioa jaso ahal izateko, batzuk Loiolara joaten ziren goizean goiz konfesatzera. Komunioa hartzeko, nahitaezkoa zen konfesatzea eta aurreko gaueko 12etatik aurrera ezer ez jatea. Ostia lurrera eroriz gero, apaizak bakarrik jaso zezakeen.

360. Elizako mezak eta konfesatzeko ohiturak (AZP-043/022)

Oinatzen eliza egon arren, Maria Jesusen familiakoek Azpeitiko elizara joateko joera zuten. Elizan emakumeak eta gizonak batera esertzen ziren; konfesatzeko, ordea, banandu egiten zituzten. Konfesatu ostean, penitentzia ematen zien apaizak. Arrosarioa etxean errezatzen zuten.

361. Mezako hizkuntzak eta dantza lotuan egiteak zekartzan arazoak (AZP-043/024)

Meza euskaraz izaten zen, baina latinez ere egiten zuten zati batzuetan. Aitagurea latinez esaten du. Bera kongregazio batean egon zen eta ez zuen arazorik izan; bere lehengusu bat, ordea, kongregaziotik bidali eta isuna jarri zioten dantza lotuan egiteagatik. Leku batzuetan uzten zuten dantza lotuan egiten; eta hara joateko, trikimailuak erabiltzen zituzten gazteek.

362. Jolasak eta Gabonetako opariak (AZP-043/025)

20 urterekin hasi ziren kalera irteten. Zertara eta nola jolasten zuten kontatzen du. Jostailurik ez zuten izaten; janaria izaten zen Erregeetako oparia. Umeei Erregeei jatekoa eta edatekoa uzten zieten. Eskolan zegoela konturatu zen opariak nondik zetozen.

363. Jaiegunetako plana: kalean bueltaka eta elizako eginkizunak betetzen (AZP-043/027)

20 urterekin hasi ziren erromeriatara joaten. Bestela, Azpeitira joaten ziren kalean paseatzera: Azpeitiko bezperatara joaten ziren, San Inaziori bisita egiten zioten, kalean buelta bat ematen zuten, eta etxera joaten ziren. Hori egitea betebeharra izaten zen beraientzat.

364. Mutilarekin hastean, zer-nolako planak egiten zituzten (AZP-043/028)

23 urterekin hasi zen mutilarekin, eta paseatzera joaten ziren. Ondo ikusia zegoen bikoteak elkarrekin egotea; ez, ordea, elkarri musu ematea edo eskutik heltzea. Asteburuko plana egiteko, nola komunikatzen ziren azaltzen du. Mutilek neskek baino askatasun handiagoa zuten.

365. Berrikuntzak iritsi aurretiko bizimodua baserrian (AZP-043/030)

Etxean argia eta ura ez ziren beti egon Oinatzan. Argia egiteko, lehen olioak erabiltzen zuten. Goian zegoen iturri batetik lortzen zuten ura. Baina udan ez zen denentzako urik egoten, eta auzotik ekarri behar izaten zuten astoz. Nola dutxatzen ziren azaltzen du. Arropak eskuz garbitzen zituzten, eta horretarako lixiba nola egiten zuten azaltzen du.

366. Bere ezkontza eta ezkondu osteko bizimodua (AZP-043/031)

30 urterekin ezkondu zen Loiolan, goiko kaperan. Bere ezkontzako soinekoa josi egin zioten; gonbidatu ugari izan zituzten, lagunak ere izan ziren han; eta eztei-bidaian Madrilera joan ziren. Ezkondutakoan, senarraren baserrira joan zen bizitzera, eta han senarraren senide ugari bizi ziren orduan.

367. Maiorazkoa eta haurrak etxean jaiotzea (AZP-043/033)

Nora ezkondu erabakitzeke, maiorazkoa nor zen hartzen zen kontuan. Bere senarra seme zaharrena zenez, haren baserrira ezkondu zen Maria Jesus. 3 seme-alaba izan dituzte, denak etxean. Haurra izaterakoan, emaginak etortzen ziren etxera Azpeititik.

368. Odriako eskolako maistrak baserriz baserri bizitzen (AZP-047/003)

Odria auzoan eskola txiki bat zeukaten. Eskola hartako sistema nolakoa zen azaltzen du: maistra aste osorako joaten zen Odriara, eta baserriz baserri ibiltzen zen, aste bat pasatzen baitzuen baserri bakoitzean. Bi maistra ezagutu izan ditu Manuelek, azpeitiarrak biak.

369. Odriako familietan ume asko (AZP-047/004)

Odrian gazte ugari ziren, familia bakoitzak gutxienez 6 seme-alaba baitzuten.

370. Odriako eskolaren azpiegiturak (AZP-047/005)

Odriako eskola bi baserriren erdian dago eginda.

371. Maristetan mutilak eta gaztelania bakarrik onartzen (AZP-047/008)

Maristetan mutilek bakarrik ikasten zuten, eta Jesuitinetan neskek bakarrik. Marista gehienek ez zekiten euskaraz; ikasleei euskaraz egitea galarazi egiten zieten, nahiz eta batzuek ia jakin ez gaztelaniaz.

372. Goizero 'Cara al Sol' plazako arkupetan (AZP-047/009)

Auzoko adiskide batekin joaten zen eskolara oinez. Eskolara sartzean, egunero plazako arkupean Cara al Sol abestera behartzen zituzten. Kaletik abesten entzuten zituztenek ez zuten ezer esaten, errepresioa baitzegoen.

373. Aitonak egunero egunkaria irakurtzeko ohitura (AZP-047/011)

Aitonak eskola zuen eta egunero egunkaria irakurtzen zuen. Garai hartan ez zen arrunta egunkaria erostea.

374. Zergatik jarraitu zuen seminarioan ikasten (AZP-047/013)

12 urterekin Hondarribira joan zen ikastera seminariora; izan ere maristek izebari esan zioten Manuelek erraztasuna zuela ikasteko. Han ikasi zuen 18 urtera arte. Betarrandarrei buruz hitz egiten du.

375. Seminariora joatean, bizimodua aldatu (AZP-047/014)

12 urterekin seminariora joan zen ikastera Hondarribira. Manuelentzat gogorra izan zen hara joatea, oinarriko zenbait gauza oraindik ez baitzekizkien: hala nola, ohea egiten, zapatak garbitzen... Goizero mezara joaten ziren zazpitan. Berari ez zitzaion gustatzen fraide izatea; gainera, etxean bere beharra zutenez, itzultzea erabaki zuen.

376. Betarrandarren sistema pedagogiko aurreratua (AZP-047/015)

Seminarioko bizimodua ona zen, serioa. Betarrandarrekin ikasi zuen, eta Frantziako sistema jarraitzen zuten haiek: ez zuten jotzen, baizik eta zigorrak jartzen zituzten. Ikasleak taldeka antolatzen zituzten. Seminario hartan pentsamolde irekiagoa zuten garai hartako gainerako maisuek baino. Zigorrak nolakoak izaten ziren azaltzen du.

377. Seminarioko ikasgaiak eta kaligrafiaren garrantzia (AZP-047/016)

Seminarioan gehienbat erlijioa ikasten zuten, baina horrez gain baita beste zenbait gai ere. Kaligrafiari garrantzia ematen zioten. Seminarioan hasi zen gaztelania ikasten, gerora soldadutzan, eta azkenik baserritik kanpo emandako denboran.

378. Landa-garapen elkarteko lana (AZP-047/018)

1990ean hasi zen landa-garapen elkartean lanean. Elkarteari buruz hitz egiten du: sorrera, parte hartzen zuten herriak, eginkizuna, proiektuak lantzeko eta onartzeko modua...

379. Landa-garapen elkarteko batzordea (AZP-047/019)

Landa-garapen elkartearen osaeraz hitz egiten du: bazkide kopurua eta batzordearen ezaugarriak.

380. Landa-garapen elkartean nola hasi zen lanean (AZP-047/020)

Manuel landa-garapen elkarteko kudeatzailea izan zen. Elkarteko lehendakariak beti baserritarrak izan dira, eta haietako batek, Txuekak, kudeatzaile izateko lana eman zion. Lan hura hartzeagatik, baserrian zituen esne-behiak kendu zituen Manuelek eta larrekoak jarri zituen.

381. Baserrian bizi vs baserritik bizi (AZP-047/021)

Landa-garapen elkartean sartu zenean lanean, Azpeitian zegoen Gipuzkoako nekazaritza-jarduera handiena. Ez da berdina baserrian bizi eta baserritik bizitzea. Gaur egun baserritar askok baserriko lana hobby moduan dauka.

382. Baserriko arazo handiena lehen: azpiegitura falta (AZP-047/022)

Lehen baserrian dena eskuz edo astoekin eta idiekin egin behar izaten zen; norberak egiten zuen norberak jaten zuena. Lehen baserritarren arazo handiena azpiegiturak ziren; ez zegoen, ordea, diru-laguntzarik bideak egiteko, besteak beste. Francoren garaia pasa zenean hasi ziren diru-laguntzak ematen, bai aldundia, bai udaletxea, bai eta Jaurilaritza ere.

383. Landa-garapen elkartearen eginkizuna: kudeaketak egitea (AZP-047/023)

Baserrietako azpiegiturak egiteko, enpresak kontratatzen zituzten. Landa-garapen elkartearen eginkizuna kudeaketak egitea zen.

384. Baserrietarako bideak egiteko gastuen banaketa (AZP-047/024)

Baserrietarako bideak egiteko, denen artean ordaintzen zen obra. Ordainketa egiteko, mailak zeuden baserritarren artean, bakoitzak bere ondasunen arabera ordain zezan. Maila horiek zirela medio, ika-mikak egoten ziren baserritarren artean. Hala ere, bidea egiteko gastuen %80 erakundeek hartzen zuten beren gain. Gerora, baserritarrei diru kopuru finkoak ezartzea erabaki zuten.

385. Landa-garapen elkarteak kudeatzen zituen gaiak (AZP-047/025)

Ura, argia eta bideak ziren landa-garapen elkartean gehienbat kudeatzen zituzten gaiak; gerora, landa-etxeekin hasi ziren. Elkarteko Udalek bazuten sentiberatasuna baserri munduarekiko.

386. Hainbat kudeaketa baserrietara ura eramateko eta bideak egiteko (AZP-047/027)

Ura baserrietara eramateko egindakoa azaltzen du: ura auzo osora eramaten saiatzen ziren, eta ahal bazen, herriko ura izaten saiatzen ziren. Izan ere, herriko ura tratatu egin behar da legez. Udaletxearekin tratua egin zuten, bai urak pasatzeko, bai bideak egiteko eta mantentzeko.

387. Ganadua barruan edukitzeko ohitura okerra zela konturatu zirenekoa (AZP-047/030)

Lehen ganadua beti lotuta edukitzen zen eta haientzako janaria etxera eramaten zen; baina kanpora egindako bidaietan konturatu ziren okerragoa

zela horrela egitea. Danimarkara joan zirenean ikusitakoa kontatzen du. Orduan konturatu ziren hemengo behiak baserri barruan egonda "ustelduta" zeudela.

388. Ganaduaren osasuna kontuan hartzen hasi zirenekoa (AZP-047/031)

Kanpotik ingeniariak etortzen zirenean hemengo abeltzaintza-teknikak begiratzera, barregarria egingo zitzairen. Teknika okerrak erabiltzen ziren hemen, ohituragatik soilik erabiltzen baitziren, onak izango ote ziren zalantzan jarri gabe. Behien osasunari lehen hemen ez zitzaion garrantzirik ematen, baina gaixotasunak bazituzten. Espainian ganadu guztia zegoen kutsatuta, baina gaitz horiek ez zioten behiari eragiten behin pasatakoan, nahiz eta gaixotasuna barruan izan. Asko kostatu zitzairen baserritarrei ideia horretaz konbentzitzea, baina orduan goitik beherako garbiketa egin zen.

389. Esne-behiak eta Gurelesa (AZP-047/034)

Manuelek 40 behi inguru zituenean, esnetarako ziren denak. Gurelesara saltzen zuen lortutako esnea. Esnea eramateaz Manuel arduratzen zen. Behiak jezteko, gasolinazko makina erabiltzen zuten, etxeko argindarrak ez baitzuen horrenbeste potentzia. Esnea haragia bezain diru-iturri ona zen baserritarrentzat.

390. Esnea Gurelesara ala kalera saldu? (AZP-047/035)

Baserritarrentzat hobe zen kalera saltzea Gurelesara saltzea baino; baina horretarako bezero finkoak behar ziren eta dena eskura saldu behar zen. Gurelesak, gainera, lehia egiten zuen.

391. Lehen elkartasuna auzoan (AZP-047/037)

Garia eta artoa idiekin egiten ziren. Artoa eskuz jorratzen zen. Auzolana izaten zen lehen. Ganaduen ermandadea zegoen auzoan, galdutako animalienengatik dirua jasotzeko. Diru-kontuak nola funtzionatzen zuen azaltzen du.

392. Kanpotik ikasitako hobekuntzak hemen sartzen (AZP-047/038)

Kanpoan ibili izan denean denetik ikusi izan du: hemen baino hobeto eta okerrago zeudenak. Hemen 80ko hamarkadan hasi ziren nekazaritzako eta abeltzaintzako aldaketak. Makinak ekartzen hasi ziren orduan kanpotik. Baserritarrentzako diru-laguntzak ematen hasi zirenean, batzuek ez zuten behar bezala neurtu hark ekar zezakeen onura eta galtzen atera ziren.

393. Matxinbentako eskolako materiala (AZP-048/004)

Matxinbentako eskolan berrogei ikasletik gora egoten ziren. Mahaiak onak ziren eta lekua izaten zuten liburuak uzteko eta tinta jasotzeko.

394. Dotrinara joan egin behar nahitaez (AZP-048/005)

Matxinbentan egoten zen apaizak erakusten zien dotrina. Bihurrikeriatan harrapatuz gero, zigortu egiten zituen. Dotrinara joaten ez baziren, etxean zigortzen zituzten. Dotrina eskolatik kanpo ematen zuten. Bi komunio egiten ziren: txikia eta handia. Aldea zegoen bi komunioen artean.

395. Pilotarako zaletasuna Matxinbentan (AZP-048/007)

Pilotan aritzen ziren frontoian. Pilotak Azpeitiko azokatik ekartzen zizkien amak, larruzkoak izaten ziren. Pilotarako zaletasun handia zegoen orduan.

396. Baserri inguruko lurretatik egurra ekartzen (AZP-048/010)

Baserri inguruan lur asko zituzten, eta landu egiten zituzten. Simaurra falta izaten zitzairen. Umea zela, ez zegoen baserrirainoko biderik. Egurra arrastaka ekartzen zuten idiekin. Sutarako egurra ekartzen zuten gehienbat. Egurra ekartzeagatik, dukeari ordaindu behar izaten zitzaion, haren lurretatik ekarria baitzen.

397. Matxinbenta eta Nuarbe arteko muga (AZP-048/013)

Matxinbenta eta Nuarbe arteko muga non egiten den azaltzen du. Gazteek Nuarberako joera zuten. Eskolara joaten ziren garaian, beraiek etxera etortzen ziren bazkaltzera.

398. Nuarbeko urtegia egiteko, inguruan egondako aldaketak (AZP-048/014)

Nuarbeko urtegia egin zutenean, ardiak lekuz aldatu behar izan zituzten. Urtegia egiteko, zenbait baserri bota zituzten. Urtegiak haien lurra harrapatu zituen.

399. Baserriko jabearekin, dukearekin, zuten harremana (AZP-048/015)

Soroan garia egiten zuten lehen, eta dukeari 28 anega eman behar izaten zizkioten errenta ordaintzeko. Dukea ez zuten ezagutu, haren administratzaileekin baitzuten harremana.

400. Uztak antolatzeko sistema (AZP-048/016)

Uzten sistema nolakoa izaten zen azaltzen du: garia, baba, artoa, arbia... ereiten zuten.

401. Arbia ereiteari buruzko zertzeladak (AZP-048/017)

Arbia nola ereiten zen azaltzen du. Arbi-hazia Azpeititik ere ekartzen zuten; ale txikia izaten zen arbiaren hazia. Lurra ganadurekin prestatzen zuten arbia landatzeko.

402. Lurra lantzeko tresnak (AZP-048/018)

Lurra lantzeko tresnei buruz eta haien funtzionamenduari buruz hitz egiten du.

403. Arbiaren prozesua eta ezaugarriak (AZP-048/020)

Arbiak hazteko zenbat denbora behar izaten den aipatzen du. Arbia ganaduari ematen zaio jateko. Patata egindako lekuan botatzen da arbia.

404. Aldaketak patata ereitean (AZP-048/021)

Patata nola ereiten den azaltzen du: lehen patata hazitik ereiten zen. Gerora, hazitako patatarekin landatzen hasi ziren.

405. Azokan saltzen eta soroa ureztazen (AZP-048/022)

Etxean ereiten zuten jeneroa soberan bazegoen, azokara eramaten zuten saltzera. Lehen ez zen horrenbeste soberakin egoten. Soroa ureztatzeke euriaren menpe egoten ziren, eta bestela, ontziekin botatzen zuten ura. Ura lortzeko, iturrira joan behar izaten zuten lehen. Argindarra hasieran errotatik lortzen zuten; gerora, Errezildik; eta azkenik, Iberduerotik.

406. Hainbat herritako azokatarra, eta ahal zenean autobusez (AZP-048/023)

Azpeitira joateko joera izan dute beraiek. Asteartero Beasainen azoka izaten zen eta hara joaten ziren; asteazkenetan Ordiziara joaten ziren. Hara joateko zer bide pasatzen zuten azaltzen du. Ahal zutenean, autobusez joaten ziren.

407. Matxinbentatik pasatzen ziren autobusak (AZP-048/024)

Matxinbentatik pasatzen zen autobusa nolako zen aipatzen du. Lehen bi autobus-konpainia zeuden Matxinbentan, eta orain bat bera ere ez.

408. Gaztetan izandako bizikletak (AZP-048/026)

14 urterekin ekarri zuen bizikleta eta 19 duro kostatu zitzaion. Gerora beste bizikleta batzuk izan zituen, eta nolakoak ziren haiek guztiak aipatzen du.

409. Lan bila Goierrri aldera (AZP-048/033)

Lanerako, Goierrri aldera joateko joera zegoen lehen: CAF, Patricio Echeverría... Jende asko joan zen Urrestillatik hara, ez baitzegoen autobusik langileentzat.

410. Zumea eta haren inguruko lanak (AZP-048/035)

Zume-lanetik bizi ziren gehienbat Urrestillan. Zume-lana zer zen azaltzen du. Zumea sorotik lortzen zen; igitaiarekin mozten zen.

411. Gari lantzea (AZP-049/003)

Garia nola lantzen zuten azaltzen du. Behiekin lurra goldatu, lurra berdindu eta garia bota, area pasatu lurra nahasteko eta horrela etortzen garia. Behiei gurdia eta goldea... jartzen zizkien.

412. Kalera oinez joan beharra (AZP-049/005)

Kalera oinez joaten ziren. Baserri inguruko bideak harri librekoak izaten ziren. Baserriko jeneroa behorra eta gurdiarekin eramaten zuten. Azpeitiko plazara joaten ziren, eta Azkoitian esne-bezeroak zituzten.

413. Tratuak dirua ematen zuen, lana ere bai (AZP-049/007)

Plazako azokan saltzen zuten jeneroa. Tratuak dirua ematen zuen, baina lan asko egin behar izaten zen. Sasoian sasoikoa saltzen zuten. Jeneroaren prezioaz hitz egiten du.

414. Litro esnea hiru pezetatan (AZP-049/008)

Behi-esnea saltzen zuten Azkoitian: egunean 30 litro inguru. Esne gehiena kale etxetako bezeroei saltzen zien; sobratutakoa, berriz, plazan. Esnea marmitatan eramaten zuten. Baserria toki lauan egonda, gurdiarekin ibiltzeko egon zitekeen toki onena zen. Litro esnea hiru pezetatan saltzen zuen.

415. Nola biltzen zen esnea (AZP-049/010)

Esnea eskuz biltzen zuten. Aurrerago makina erabiltzen hasi ziren. Ukuiluan, behi bakoitza bere lekuan lotuta egoten zen. Esnea baldetan jasotzen zuten. Esnea plazara eraman aurretik, neurtu eta iragazkian pasatzen zuten. Bero handiarekin kontuz ibili behar izaten zen esnea ez zoratzeko.

416. Esnari ura botatzeagatik multak (AZP-049/011)

Kanpoko inork ez zuen esnea errebisatzen. Ez zen hainbeste kontrol. Esnari ura botatzeagatik multak jartzen zituzten. Nahiz eta bere esnea garestiago izan, berak sekula ez ziola urik botatzen dio.

417. Errotara ilunpean joan beharra (AZP-049/012)

1941-1942 inguruan, etxean ogia eta artoa egiten zuten labean. Astero-astero egiten zuten. Gosete handia izan arren, baserrian ez zuten goserik pasatu. Ehotzen gaizki ibiltzen ziren. Gauetan Guardia Zibila ibiltzen zen. Loiolako Munategi eta Igara-berri errotek lan asko egin zutela dio.

418. Gosetea (AZP-049/013)

Jendea jan eskean ibiltzen zen. Eskela asko zegoen. 1938-1949 urte artean kaleko jendeak gosea pasatu zuen. Miseria ikaragarria zela dio. Baserrian moldatzen ziren, nahiz eta gari pixka bat kendu.

419. Herrian hiru-lau auto besterik ez (AZP-049/015)

Inguruan ere baserrietik bizi ziren. Ez zuten ez bizikleta, ez eta autorik ere. Azpeitia osoan hiru-lau auto omen ziren. Azkoitian ere beste horrenbeste izango ziren.

420. Jaiegunetan Loiolara jolasera (AZP-049/016)

Jaiegunetan inguruko baserrietako umeekin Loiolan ibiltzen zen. Pilotan, futbolean, zapoketan, harrapaketan... ibiltzen ziren 15-16 urtera arte. Baloi gutxi izaten omen zen; trapu mordoila elkar jositako pilotaren bat. Komentu barruan frontoia zegoen, baina ez omen zuten sartzen uzten.

421. Eskola eta erlijioa (AZP-049/017)

Eskolan Olatzen, Errentarikoan eta maristetan ibili zen. Garai hartan bi komunio egin behar izaten ziren; komunio txikia eta handia. Azken hori 10-11 urterekin egiten zen.

422. Maristak eta Olatzeko eta Errementariko eskolak (AZP-049/018)

Olatzen eskola non ematen zuten azaltzen du. Maistra azpeitiarra zen. Garai hartako ikasketa dotrina zela dio. Errementariko eskolan ere horrela omen zen. Euskaraz ikasten zuten. Erdaraz ez zuela hitzik ikasi dio. Bakoitzak bere liburua izaten zuen. Katona deituriko liburua erabiltzen zuten, irakurtzen

ikasteko. Neskak eta mutilak batera ikasten zuten, baina banatuta egoten ziren. Maristetan irakurtzen gehiago ikasi zuen.

423. Loiolara bonbak botatzen zituzten (AZP-049/020)

Zazpi urte zituen gerra denboran. Loiolara bonbak botatzen zituzten, eta beldurrez baserrian egon ziren. Mendira, lehengusuen etxera joanda ere egon ziren. Txapel gorrien tropak pasatu zirela gogoratzen du. Soldadu asko pasatu omen zen; 4.000 mutil inguru.

424. Lehengusuen baserrira, bonben beldurrez (AZP-049/021)

Bonben beldurrez, ihes egin zuten baserritik. Lehengusuen baserrian, Agiten, 15 egun pasa zituzten. Baserri hori bakartuta zegoen. Beren baserrira ez zuten bonbarik bota, baina Loiolara bai. Loiolan milizianoak egon ziren, eta bertan zuten janarien gordailua.

425. Ganadua konfiskatzen zuten (AZP-049/022)

Baziren ganadua kendu zieten etxeak. Beraiei ez zioten ganadurik kendu. Loiolan ez zen txikiziorik izan, pasatu bakarrik egin ziren.

426. Loiolan bi taberna (AZP-049/025)

Loiola inguruan bi taberna ziren; Amenabarrekua eta Kiruri. Orduan tabernan jateko ez zegoen dirurik. Tabernan ez zen aukera handirik egoten. Mutil koskorra zen eta ez zuen tabernara joateko dirurik.

427. Argia eta ura baserrian (AZP-049/031)

Beti ezagutu ditu argia eta ura baserrian. Argindarra Azpeitiko Orbegozonetik iristen zitzaien, baina indar gutxi izaten zuten. Hilean 12 pezeta kobratzen zien. Argia garestia zen. Uraren faltarik ez zuten izaten inguruan. Etxe barruan ura 1942an jarri zuten.

428. Uholdeak etxe aurreko zubia bota (AZP-049/032)

Etxe atarian dagoen zubia 1954an egin zuten. 53an izugarritzko uholdeak izan ziren, eta urak zubia bota zuen. Gero, estatuak egin zien zubia, eta 44.000 duro kostatu zen. Urak etxe atariraino iritsi ziren. Soroetan kalte handiak egoten ziren.

429. Soldadutzan zaldia zaintzen (AZP-049/033)

16 hilabete egin zituen soldaduskan. Iruñean, Irunen, Oiartzunen, Beran eta Elizondo ibili zen. Ondo ibili omen zen soldadu zen bitartean. Ez zuten kolperik jotzen, eta ez zuten goserik eta egarririk pasatzen. Soldadutzan zaldia zaintzen ibili zen. Dirua eman beharrean zigarroak ematen zizkieten, baina berak ez zuen erretzen.

430. Soldadutzako kontuak (AZP-049/034)

Ez zen ziegan egon. Goserik ez zuen pasatu. Etxera joaten baimena izan zuten. Soldaduska ondo bizi izan zen.

431. Andregai kontuak (AZP-049/035)

Sekula zitzaion kalean ibiltzea gustatu, baina urtea bitan joan eta orduan aurkitu zuen andregaia. Zortzi egunean behin elkartzen ziren. Andregaiei etxelaguntza egiten zien.

432. Eskolako orotzapenak (AZP-050/004)

Mojekin eskolan zigor gutxi jasotakoa da bera. Noiz eta zer errezatzen zuten azaltzen du; erdaraz errezatzen zuten, eta euskaraz eginez gero, mojak gainean izaten zituzten.

433. Eskolan laboreak ikasten (AZP-050/005)

Lagunak nongoak zituen azaltzen du. Eskolan arratsaldetan laboreak egiten zituzten, eta gustura aritzen zen. Zer labore egiten zituzten aipatzen du. Nola bordatzen zuten azaltzen du. Etxeko joste-lanak berak egiten zituen.

434. Abarkak eta haien materiala (AZP-050/009)

Abarkak egiteko larrua nola lantzen zen azaltzen du. Abarka-sokak erosi egiten zituzten.

435. Artilezko galtzerdiak eta abarkak gustuko arropa (AZP-050/010)

Galtzerdiak artilezkoak izaten ziren, eta nola egiten zituzten azaltzen du. Artilezko galtzerdi eta abarkekin oso gustura ibiltzen ziren. Eskolara joateko, beste zapata pare bat eramaten zuten, eta bidean ezkutatuta uzten zituzten abarkak.

436. Azpeitian josten ikasten ibili zenekoa (AZP-050/011)

Eskola bukatutakoan, Azpeitian ibili zen hiru urte josten ikasten. Orduko josteko makinak nolakoak ziren deskribatzen du.

437. Gasteizen neskame 18 urte (AZP-050/012)

23 urte inguru zituela, Gasteiztik bila etorri zitzaizkion, eta han pasa zituen 18 urte etxeko lanak egiten. Etxeko andrea gaixo zegoenez, medikuarengana ere harekin joaten zen.

438. Gasteizko eguneroko bizimodua (AZP-050/013)

Gasteizko eguneroko bizimodua nolakoa izaten zen azaltzen du. Gasteizen egon zen 18 urteetan etxera etortzen zen noizean behin, eta kotxez ekartzen zuten.

439. Lan-baldintzak Gasteizen (AZP-050/014)

Gasteizen soldata ona irabazten zuen. Etxekoei ematen zien dirua inoiz falta bazen.

440. Gogo-jardunak eta bertan egindako lagunak (AZP-050/017)

Gogo-jardunetara joaten ziren, eta zer izaten ziren azaltzen du. Bera hiru aldiz egon zen Arantzazun gogo-jardunetan. Jardun haien bitartez ezagutu zituen bere Gasteizko lagunak. Igandetan haiekin ibiltzen zen, eta zer plan egiten zituzten aipatzen du.

441. Baserriko lanak egiten gustura (AZP-050/019)

Gasteiztik etxera itzuli zenean, ganadua bazegoen. Baserriko lanak gustatzen zitzaizkion. Soroko lanak ganaduekin egiten zituzten, eta nola moldatzen ziren azaltzen du. Baratzean landatutako barazkiak etxerako izaten ziren.

442. Baserrian garia nola lantzen zuten (AZP-050/020)

Garia ere egiten zuten, eta horretarako zer egin behar izaten den aurretik azaltzen du. Garia noiz eta nola biltzen zuten, eta nola jotzen zuten aipatzen du.

443. Ogia etxean egiten (AZP-050/021)

Ogia etxean egiten zuten, etxe atzeko labean, eta noiz eta nola azaltzen du. Ogia etxerako izaten zen.

444. Elosiagaren itxura lehen eta orain (AZP-050/028)

Lehen inguruan zer baserri zeuden aipatzen du; gaur egun baserri haietako asko hustu egin dira. Lehen Elosiagan zer eraikuntza zeuden azaltzen du.

445. Erromeriara joaten hasi zirenekoa (AZP-050/031)

Ez ziren erromeriatarara joaten atrebitzen, baina azkenean "derrigortuta" joan ziren. Erromeriak non eta noiz izaten ziren azaltzen du. Etxera garaiz etorri behar izaten zuten, bestela errieta egingo zieten eta. Erromerian dantza egiten zuten, baina dantza lotua ez zen libre.

446. Aisialdian taberna eta mendia (AZP-050/032)

Inguruan zegoen taberna ganbara batean egoten zen. Tabernan gizonak jokoan egiteko elkartzen ziren, eta emakumeak paseatzera joaten ziren. Orbela eta garoa biltzera mendira joaten ziren, eta nora zehazki azaltzen du.

447. Gerra garaiko oroitzapenak (AZP-050/034)

Gerra garaiko kontuez gogoratzen da, nahiz eta 3 urte zituen orduan. Orduko oroitzapenak aipatzen ditu. Lehen ogia jaten zuten, baina orain ohitura galdu du.

448. Gaixotzen zirenean, praktikantea (AZP-050/035)

Gaixotzen zirenean, praktikantea etortzen zitzaaien etxera. Berak tifusa pasa zuen, eta pilula batzuk ematen zizkioten hura sendatzeko.

449. Kongregazioak eta Elizak zuten eragina (AZP-050/040)

Mariaren kongregazioan zegoen, eta dantza soltea egiten zuten. Gustatu ere nesken artean dantzatzea gustatzen zitzaaien. Kongregaziora ez ziren hilero-hilero joaten, ez zen nahitaezkoa. Mezara igandeetan joaten ziren, eta meza noiz izaten zen azaltzen du.

450. Ura etxean ez, eta iturrira joan behar (AZP-050/042)

Lehen etxean ez zuten urik, eta iturrira joan behar izaten zuten ur bila. Ura baldetan eta marmitatan ekartzen zuten. Arropa nola garbitzen zuten azaltzen du.

451. Argindarra etxera iritsi baino lehenagoko argia (AZP-050/043)

Argindarra beti ezagutu izan du Itziarrek etxean. Baina lehen, ez zenean, argia egiteko beste tresna batzuk erabiltzen zituzten.

452. Baserria 5.000 duroren truke (AZP-052/002)

Aita Azkoitiko Martite auzokoa eta ama Azpeitiko kalekoa zituen. Gurasoek 5.000 duroren truke erosi zuten baserria.

453. Bizitzeko baserria erosi (AZP-052/004)

Orkazarre bizitza bakarreko baserria da, baina garai batean bi bizitza zituen. 86 urte baino gehiago dira Julianen gurasoek baserria hartu zutela. Aita morroi eta basoan ibilitakoa zen. Bederatzi senide ziren etxean.

454. Morrontza, erdara eta eskola (AZP-052/005)

Julianen aita basoan eta morroi ibilitakoa zen. Aratz Errekan, Elgoibarren... ibili zen morroi. Mendiko eskoletan euskara bakarrik egoten zen, erdararik ez.

455. Aita Afrikan gerran (AZP-052/007)

Ama kale ondoan zegoen baserri batekoa zen; erdaraz moldatzen zen, eta eskolara joandakoa zen. Aitak 3 urte eta 9 egun pasatu zituen Afrikan gerran. Hildako soldadu baten pasarte kontaktatu du.

456. Baserriko bizimodua (AZP-052/009)

Baserrian garia, artoa eta arbia lantzen zuten. Neguan, ganaduarentzat lastoa arbia eta artaburuak erabiltzen zituzten. Baserrian orain hobeto bizi dela dio.

457. Artoa, arbia, erremolatxa eta alpapa (AZP-052/010)

Abuztuaren 20 aldera egin da arbia; erremolatxa, berriz, maiatzaren aurrenean. Arbia eta erremolatxa nola egiten diren azaldu du. Behiei, ardiei eta txekorrei emateko izaten zen arbia. Alpapari buruz ere hitz egiten du.

458. Alpapa eta arbia nola lantzen diren (AZP-052/011)

Alpapa eta arbia nola landu behar diren azaltzen du. Alpapa goldatu egin behar izaten da. Alpapa bakantzen hasten zenean, lurra biratu eta berria egiten zuten lur berrian. Lurra aldatzea ona dela dio.

459. Alpapa nola egiten zuten (AZP-052/012)

Alpapa egiteko hazia kanpotik ekartzen zuten. Lurra preparatu eta hazia zabaldu behar izaten zen. Alpapa jasotzeko idiak edo behiak erabiltzen zituzten. Pare bat hilabete behar izaten zituen hazteko.

460. Kare-harria, karea egiteko (AZP-052/013)

Lurrari simaurra botatzen zioten, bai eta karea ere. Karea lurrarentzako elikagaia da. Karea kare-harriarekin nola egiten den azaltzen du. Arauntzan kare-harria egiteko haitza dago. Karea egiteko zenbat denbora behar izaten zen azaltzen du. Bi edo hiru lagun behar izaten ziren; batek karobia zaindu, besteak egurra edo otalorea ekarri.

461. Karea beharrezkoa (AZP-052/014)

Kare-harria udaberrian egiten zen. Igeltseroek ere baserriko karea erabiltzen zuten, baita etxea margotzeko ere. Karea karobian nola gordetzen den azaltzen du. Auzoko baten pasarteaz kontatzen du.

462. Probarako idiak prestatzen (AZP-052/016)

Baserrian behiak, idiak... zituzten. Baserrian beste baten probarako idiak zaintzen zituztela dio. Idi onak omen ziren. Probarako nola prestatzen zituen azaltzen du.

463. Idien ferraketa (AZP-052/018)

Probako idiek nolakoak izan behar duten azaltzen du. Idien indarra, pisua... aipatzen ditu. Baserrian ferratokia zuten eta ferratzailea kanpotik ekartzen zuten.

464. Pagoa, urpean ere usteltzen ez den egurra (AZP-052/020)

Uztarrria zer egur motarekin egiten den azaltzen du. Pagoa lur eta urpean usteltzen ez den egurra dela dio. Idi probetan biko uztarrria erabiltzen zuten, behin ere ez zuen hirukorik ikusi.

465. Idien kopetakoak indarra egiteko (AZP-052/022)

Idien kopetakoak enkarguz egiten zizkieten. Kopetakoak idiek indarra egiteko erabiltzen dira. Nolakoak eta zerez egiten diren aipatzen du.

466. Ganaduaren larruarekin egindako zintak (AZP-052/024)

Zintak ganaduaren larruarekin egiten ziren, eta hede esaten zaie. Zintak ganadua uztarrira lotzeko erabiltzen ziren.

467. Adarrik gabe, idia tontotu (AZP-052/026)

Ganaduari adarrak moztuz gero tontotu egiten dela dio. Jendeak adarrak adornurako izaten ditu. Ganaduak indarra egiteko funtzioa du. Distira ateratzeko urarekin eta eskuilarekin garbitzen zuten ganadua. Ondo gobernatutako ganaduak ile motza izaten du.

468. Barrenolako eskola, idazten ikasi beharra eta erdara (AZP-052/028)

Eskola Barrenola baserrian zegoen. Maisu-maistrak anai-arrebak ziren, baina gerra etorri zenean dena bukatu zen. Soldadu joaterako bi negutan Azpeitira joan zen idazten ikastera. Erdara gutxi ikasi zuen, eta baserrian ikasitakoa ahaztu egin zitzaion. Erdara zela-eta bi emakumerekin izandako pasarteaz kontatzen du.

469. Hiru kanoikada Barrenolan (AZP-052/029)

Gerra garaian, bederatzi urte inguru zituen. Azpeitian ez zen gerrarik izan, soldaduak gauetz pasatu ziren. Eibarren kanoikadak izan zirela dio. Barrenolan hirukanoikada izan ziren, zuhaitzak bota eta errepidea itxi zuten. Arreba zaharragoei entzundako pasarteaz kontatzen du.

470. Soldadutzan eskiatzen ikasi (AZP-052/030)

Guadalupen, Hondarribian, Irunen, Aiako Harrietan, Jaizkibelen eta Nafarroako Orbaitzetan ibili zen soldadu. Eskalatu eta eskiatu egin zuen. Fusilari-granadari kargua zuen soldadutzan. Granadak nolakoak ziren eta nola funtzionatzen zuten azaltzen du. Lehengusuarekin batera egon zen soldadu.

471. Soldadutzan, "gosea bakarra" (AZP-052/032)

Guadalupen mendiko zulo batean egiten zuten lo, soldadu zegoela. Hezetasun handia zegoen han. Buzoa, galtzontziloak eta abarketak zituzten uniforme gisa. Erreal biko jornaia zuten. Gosea pasatzen zuten, eta etxetik jakiz betetako paketea jasotzen zuen.

472. 45 egun ospitalean, eskiatzen min hartuta (AZP-052/034)

Soldadutzan eskiatzen ari zireneko pasadizoa. Komandantea erori egin zen, eta hanka hautsi zuen. Kapitainari buruz hitz egiten du. Eskiatzen min hartu eta 45 egun Donostiako ospitale militarrean eman zituen. Kapitainak baimena eman zion. Soldaduari fusila kenduta ondo ibiltzen dela dio.

473. Zunuzdegirentzako lanean (AZP-052/035)

Zunuzdegi lantegian zazpi urte egin zituen soldatu joan aurretik. Nagusia Zestoakoa zen. Aitzurrean aritzen zen, eta patata, erremolatxa, azukre-erremolatxa... egiten zituzten. Lursail handiak zen: 65.000 kilo patata lantzen omen zen bertan.

474. Aitzurrez egindako bideak (AZP-052/036)

Auzoko bideak aitzurrez egin ziren. Materiala harrobitik ateratzen zen. Lana eskuz egiten zuten. Kare-harria erabiltzen zuten errepideak egiteko. Bailaran aurreneko land roverra beraiek ekarri zuten. Gero, beste bat ere ba omen zen. Aurretik dana oinez ibiltzen ziren.

475. Mezara joan beharra (AZP-052/037)

Elizara joatea derrigorra zen. Igandero joan behar zen mezara, Azpeitiko parrokiara. 06:00etako edo 09:00etako mezara joaten zen. Bost edo sei apaiz ziren herrian.

476. Emakumeak eta eliza (AZP-052/039)

Kongregazio kontuak nola ziren azaltzen du. Valsean egiten zuen emakumea kongregaziotik botatzen zuten. Emakumeak burukoarekin eta galtzetak belauetik gora joaten ziren elizara. Apaiz batek esandakoa gogoratzen du.

477. Erromeriak eta erretiroa (AZP-052/040)

Erdoizta, Santa Engrazi eta inguruko erromerietan ibiltzen zen. Kalera gutxi joaten zen, barregarria omen zen-eta. Martitera joateko, lehenengo Azkoitira trenez joaten zen. Emakumea iluntzean ez zen kalean ibiltzen. Alkateak ematen zuen erretiratzeko abisua.

478. Esnea kalerako, ura baserrirako (AZP-052/042)

Bederatzi urte zituela jarri zuten baserrian argia, baina indarra falta zuen. Ura, berriz, berandu jarri zuten. Kandela eta petroliozko ontziak erabiltzen zituzten

argia egiteko. Kalera esnea jaisten zuten astoan, eta gorakoan, ura igotzen zuten.

479. Esnea etxez etxe saltzen (AZP-052/044)

Etxez etxe saltzen zuten baserriko esnea. Emakumeak joaten ziren marmitekin esnea banatzera. Oinez joaten ziren kalera.

480. Oilaskoa eta arrautzak diru-iturri (AZP-052/045)

Baserriko oilaskoa eta arrautzak saltzen zituen Azpeitiko azokan. Diru gehiena oilaskoarekin eta arrautzekin irabazten zuen. Hiru-lau oilasko pare eta arrautzak lau-bost dozena saltzen zituen.

481. Gosea, estraperloa eta janaria entregatu beharra (AZP-052/047)

Gose denboran artoa eta irina etxean eduki arren gosea pasatzen zuten. Ez zen ehotzen. Urtean behin, udaletxera entregatu behar izaten zuten. Landetako bi auzotarrek baba entregatu ez zutelako Gasteizera eraman zituztela kontatzen du.

482. Orkazarreko taberna (AZP-052/049)

Hamar urte inguru zituela, baserrian taberna jarri zuten. Mendizale asko joaten zen bertara. Arreba gazteena ezkondu bitartean eduki zuten taberna. Hango gorabeherak kontatzen ditu.

483. Familia handia, 11 anai-arreba (AZP-054/002)

11 anai-arrebako hazi zen Bitoria. Etxean ganadua zuten; behiak, ardiak... Baserritik bizi ziren. Gurasoak ez ziren kanpora joaten lanera. Jan kontuetan, taloa nahikoa izaten zuten.

484. Eskolan euskaraz (AZP-054/005)

Bitoriren maistra Bergarakoa zen, eta politika zela medio, maistrak alde egin behar izan zuen. Maiuskulak, letra batzuk eta irakurtzen ikasi zuen. Euskaraz ikasi zuen, orduan ez zen erdararik. Eskolan auzoko neska eta mutilak ibiltzen ziren, denak batera. Maistra joan zenean ikasteko interesa zuenak beste norabait joan behar zuen. Batzuk Lasaura, bere anaiak Tuterara joan ziren.

485. Dotrinaren garrantzia (AZP-054/006)

Bitorik dotrina ikasten zuen, baina zenbaki konturik ez. Dotrina etxean ikasten zuten. Maistrak ere ematen zuen, eta euskaraz ikasten zuten. Dotrinak komunioa egiteko balio zuen.

486. Baserritik behera errepiderik ez (AZP-054/008)

Komunioa Azpeitiko parrokian egin zuen Bitorik. Odrian ez zen eliza edo ermitarik. Eskola zahar bat aipatzen du, berehala desegin zena. Frontoirik ere ez zegoen auzoan, bailara pobrea baitzen. Politikari buruz hitz egiten du. Odriatik gertuena Azpeitia zuten, eta oinez joaten ziren hara. Garai hartan ez zen errepiderik, eta astoan ibiltzen ziren enkarguak egiteko. Azokan arkumea eta oilaskoak saltzen zituzten.

487. Umea bezala mimatutako gazta (AZP-054/010)

Eskuz egindako gaztarekin sariak ateratakoa da Bitori. Burdinazko ontziak erabiltzen zituzten. Umetan gazta saltzen zuen. Aita ardizalea zen. Gazta nola egiten zuten azaltzen du. Gazta umea bezala mimatu behar dela dio. Gazta nola eta zer egurrerekin ketzeko zuten azaltzen du.

488. Baserriko ogia kalekoa baino hobea (AZP-054/012)

Etxean egiten zuten ogia. Lagun asko ziren etxean, eta egun bakarrean ogia eginda ez zen nahikoa izaten. Ogia nola egiten zuten azaltzen du. Irina Goiko errotatik ekartzen zuten. Kaleko ogia lehor-lehorra izaten omen zen.

489. Goiko errota eta inguruko errota txikiak (AZP-054/013)

Irin bila Goiko errotara joaten ziren; izan ere, auzoan zauden errota txikiak kendu egin zituzten. Inguruko erroten izenak aipatzen ditu. Zestoako Alberdi errotara ere joaten ziren. Zenbat arto, hainbeste ordaindu behar izaten zen.

490. Irina, estraperloa eta inspektoreak (AZP-054/015)

Askotan joaten zen errotara, baita anaia ere. 50eko zakuetan eramaten zuten irina etxera. Behin astoarekin zela irina erori zitzaioneko gertakizuna kontatzen du. Egunez joaten ziren errotara; gauez, berriz, estraperloan ibiltzen ziren.

491. Dolarea eta etxeko sagardoa (AZP-054/016)

Baserriko dolarean egiten zuten sagardoa. Sagardoa nola eta zer sagar motarekin egiten zuten; non gordetzen zuten. Jatorduetan sagardoa edaten zuten.

492. Txerri-hiltzea eta txerri-erregaloak (AZP-054/017)

Etxekoen artean egiten zuten txerri-hiltzea. Odolkiak eta mondejuak egiten zituzten. Mantentzeko hoztegian gordetzen zituzten txerrikiak. Txerria gazitu eta eseki egiten zuten. Gero, auzoko beste baserri batzuetan banatzen zuten txerrikiak; txerri-erregaloa esaten zioten horri.

493. Arrautzak eta oilaskoak bedeinkazioaren truke (AZP-054/018)

Apaizari oilaskoa eman behar izaten zitzaion baserrira bedeinkatzera joaten zenean. Auzoko baten pasartea kontatzen du. Urtean behin, egun jakinean, bailara pasatzen zuten apaizek. Orduan arrautzak edo oilaskoak ematen zizkien. Apaizek pulpitutik ematen zuten abisua, bisita noiz izango zen jakiteko.

494. Gari-biltzea eta gari-jotzeko auzoko makina (AZP-054/019)

Garia azaroan egiten zuten, eta horretarako, laia eta golda erabiltzen zituzten. Lan hori egiteko bi lauko (zortzi) lagun biltzen ziren. Auzolanean ere egiten zuten. Lur berean, txandaka, artoa ere lantzen zuten. Garia eskuekin bildu, makinarekin jo eta errotara eramaten zuten. Errotan kobratu egiten zieten. Auzoan garia jotzeko makina zutela azaltzen du, eta etxe batetik bestera ibiltzen zuten. Garia nola jotzen zen azaltzen du.

495. Etumeta eta Iturriozko erromeriak (AZP-054/020)

Auzoan bazen taberna bat; Orkazagirren. Auzoan lagunak aipatzen ditu, baina ez zuen haiekin festara joateko astirik. Festara Etumetara joaten ziren, baserriak ordu erdira. Iturriotzeko erromeria ere aipatzen du. Dantza lotua ez zen libre. Dantza lotuan eginez gero kongregaziotik botatzen zituzten. Gazteak zaintzeko apaizak norbait jartzen zuen. Azpeitian bazen Kaxiano izeneko apaiz nafar bat, eta gogorra zela dio.

496. Amak etxean egindako artilea (AZP-054/021)

Bitorik ez zuen haririk egiten, baina bere amak bai. Ardiaren ilea nola egiten den azaltzen du. Artilea kardatzeko burdinazko eskuarea erabiltzen zen. Oinetan alpargatak eta gomazko abarkak erabiltzen zituen; bere aitak, berriz, larruzkoak. Jai arratsaldetan ere abarkak, distira aterata, jantzen zituzten.

497. Txapel gorrien tiroak auzoan (AZP-054/022)

Gerra garaian dozena bat urte izango zituen Bitorik. Behin mezatik irten eta bailaran gora zetozen batzuek estutasuna kontatzen du. Gazte batzuk soro barrenean zerbait ikustera hurbil ziren, eta txapel gorriek tiroz jo zituzten. Ez zen bonbarik, baina hegazkina sumatzen zutenean lasterka hasten ziren ezkutatzeko. Taloa jaten zuten, eta ez zuten goserik pasatu.

498. Taloa janda goserik ez (AZP-054/023)

Taloea eta gazta jaten zuten. Etxean esnea ere bazuten. Orain gutxira arte ez duela arrainik ezagutu dio. Azpeitian ez zuen arrandegi bat bera ere ezagutu. Plaza Txikian zegoen elikagaien dendan erosten zituen Bitoriren amak jakiak. Ez du gogoan zer izen zuen. Berdura plaza ere aipatzen du.

499. Praktikantea behorren baserrira (AZP-054/026)

Etxera praktikantea joaten zitzaien. Orain gutxira arte Bitorik ez du ezagutu du anbulatoriorik. Azpeitian zegoen medikua Beizamakoa zen. Behorrekarekin joaten zen baserrira. Umeek, noizean behin, anginak pasatzen zituztela aipatzen du. Umeen mediku espezialista Donostiatik herriko denda batera etortzen zen.

500. 11 anai-arreba eta 12 seme-alaba (AZP-054/027)

Bitorik 11 anai-arreba zituen, eta berak, berriz, 12 seme-alaba izan zituen. Bi seme-alaba kanpoan izan zituen, eta gainerako guztiak etxean jaio ziren. Ahal zen moduan moldatzen ziren.

501. Umeak, janaria eta etxeko garbiketa (AZP-054/029)

Umeak nola hazi zituen azaltzen du. Etxean esne ederra zuten, eta ogia ere bertan erretzen zuten. Umeei gasak jartzen zizkien. Arauntzan ez zuten argirik izan; kandelak, farolak... Ura ere ez zuten, astoan kantinek hartuta bila joan behar izaten zuten. Arropak garbitzera ere errekarara joaten ziren. Lixibari buruzko azalpena ematen du. Sutako hautsa erabiltzen zuten arropen kolorea emateko. Etxeko zorua erratzarekin garbitzen zuten. Etxean usain ona edukitzeko menda-erratza jartzen zuten. Menda-erratza nola egiten den azaltzen du.

502. Lana ahoz gora, norbaiten bisita (AZP-054/030)

Tximistak ez sartzeko kandela pizten zuten. Egurrezko gurutzeak jartzen zituzten baserrian erramua bedeinkatutakoan. Ateetan eta lursailetan ere jarri ohi ziren. Labana eta ogia ahoz gara baziren etxera norbait joan zela esaten zieten.

503. Goizeko seietako mezara (AZP-054/032)

Egunero errezatzen zuten arrosarioa. Bitoriren amak artoa zuritzen ari zen bitartean ere arrosarioa esan ohi zuen, gehienetan iluntzean. Igandean seietarako Azpeitira joaten ziren mezara. Mezak nolakoak izaten diren azaltzen du. Konfesatu ere egiten ziren. Neskak eta mutilek ezberdin konfesatzen zuten.

504. Otarretarako egurra Beizamatik ekartzen (AZP-055/004)

10 urterekin otarregintzan lanean hasi zenean, otarreak baserriko lan ugaritarako erabiltzen ziren. Otarretarako egurra Beizamako herriaren baso sailetatik ekartzen zuten mando gainean. Enkantea egiten zen basoko egurra nork ustiatuko zuen erabakitzeko.

505. Basotik egurra lortzeko egin beharrekoa (AZP-055/005)

Basora egur bila joaten zirenean, egurra aukeratzeko zer irizpide izaten zituzten aipatzen du. Egurra mozteko eta garraiatzeko nola moldatzen ziren azaltzen du.

506. Egurrik onena: gaztainaren txertaka (AZP-055/006)

Egurra biltzean, gaztainaren txertaka bilatzen zuten, hura izaten baitzen onena; zergatik den onena azaltzen du.

507. Txertakek izan beharreko ezaugarriak (AZP-055/007)

Txertakek 6-7 urte izatea komeni zen, lodiak izan behar zutelako. Otarreko zati bakoitzerako neurri zehatzeko egurrak behar izaten dira.

508. Egurra basotik putzura (AZP-055/008)

Egurra lortutakoan, etxera ekartzen zuten putzuan sartzeko. Putzuan pilan uzten zituzten, harriz kargatuta, ur gainera igo ez zitezen. Uretan egonda, egurra ez zen lehortzen, eta labera sartzeko moduan egoten zen.

509. Zumitza uretatik labera (AZP-055/009)

Zumitza uretatik ateratzean, sutan sartu eta bigundu egiten zen. Labeak nolakoak izaten ziren lehen azaltzen du.

510. Egurra laurdentzen (AZP-055/010)

Egurra labetik ateratzean, punta mozten zaio, eta egurra laurdendu egiten da. Egurra nola lantzen duen erakusten du, eta egurraren zati batzuen izenak aipatzen ditu.

511. Zumitz motak eta haien zatiak (AZP-055/011)

Otarre klasearen arabera zumitz meheagoa edo lodiagoa mozten da. Zumitz meheak zertarako erabiltzen diren azaltzen du. Zumitzaren bihotz aldea zer den azaltzen du.

512. Otarrea muntatzen hasteko azken ukituak (AZP-055/013)

Zumitzak moztean, leundu egin behar dira. Eta orduan, zehar-zumitzak prestatzen dira.

513. Otarrearen moldea eta tamainak (AZP-055/014)

Otarrearen erdian moldea jartzen da. Otarrearen tamainaren arabera, molde bat edo beste erabiltzen da. Matxetearekin zumitzaren gainean emanda, gogortu egiten da hura. Zumitzaren zabaleraren arabera, ilara kopurua aldatu egiten da.

514. Otarrearen ezpatak zorroztea (AZP-055/015)

Otarrea egiten amaitzeko, "ezpatak zorrozten" dira, eta erakutsi egiten du nola egiten den hori.

515. Aulkiak eta oheak ere egindakoa (AZP-055/017)

Otarreak egiteaz gain, aulkiak eta oheak ere egin izan ditu. Aulkiak egiteko, baina, material gozoagoa behar izaten da.

516. Otarreen erosleak lehen eta orain (AZP-055/018)

Lehen, otarreak egiten zituztenean, erosle asko izaten zituzten. Nongo bezeroak izaten ziren aipatzen du. Lehen otarre gehiago behar izaten ziren; gaur egun, ordea, beste material batzuk erabiltzen dira gehiago. Otarreak egiteko, denbora asko behar izaten da; prozesu guztia laburtzen du.

517. Gizonak eta emakumeak otarreak egiten (AZP-055/019)

Lehen jende asko aritzen zen otarreak egiten. Gizonek zumitza ateratzen zuten; emakumeek otarreak josi eta zumitzak apaintzen zituzten.

518. Gaztainak lehen eta orain (AZP-055/020)

Gaztainak ez zuen gaitzik edukitzen lehen; orain, ordea, bai. Gaitzak zuhaitzari zertan eragiten dion azaltzen du. Lehengo eta oraingo gaztainak alderatzen ditu. Gaur egun oraindik gaztaina Beizamatik ekartzen du.

519. Otarregintza ikastea eta egurra garraiatzea (AZP-055/022)

Lehen ez zegoen irakaslerik otarregintza erakusten zuenik. Norbera bere kontura ikasita etortzen zen lanera tailerrera. Orain egurra traktorearekin ekartzen dute, baina lehen nola ekartzen zuten azaltzen du.

520. Otarregintzaren etorkizuna (AZP-055/024)

Beti egin izan du lan otarregintzan. Baina orain ez dio etorkizunik ikusten. Gainera, zenbat eta zaharragoa izan, orduan eta makalago egiten dira otarreak.

521. Nuarbe eta otarregintzaren arteko lotura (AZP-055/026)

Nuarbetarrek otarregintzarekin izandako loturaz hitz egiten du. Otarregintza, hala ere, lanbide gogorra da: zer ordutegi izaten zuten azaltzen du.

522. Otarregileen arteko batasuna. (AZP-055/028)

Otarren prezioak ez jaisteko, otarre-saltzaileak elkartu egiten ziren, eta adostu egiten zuten zenbatean saldu. Otarregileen elkarte bat ere bazegoen lehen Nuarben, eta haiek zer funtzio izaten zituzten azaltzen du.

523. Eskola, irakasleak eta ordutegiak (AZP-056/002)

Umetan Nuarbeko eskolara joan zen ikastera. Eskola non zegoen azaltzen du. 67 ikasle izaten ziren klasean, eta denak ez ziren adin berekoak izaten. Maistrak izan zituzten hasieran, baina gerora maisuak etorri ziren. Maisu horiek erdaldunak izaten ziren, eta oso zaila izan zen umeentzat erdaraz ikastea. Eskola goiz eta arratsaldean izaten zuten.

524. Eskolako ohiturak eta ikasleak (AZP-056/004)

Maisuei eta maistrei zer-nolako tratamendua ematen zitzaaien azaltzen du. Eskolan sartzean Cara al Sol abestu behar izaten zuten. Eskola barrutik nolakoa zen eta ikasleak nondik etortzen ziren aipatzen du.

525. Urrestilla eta Nuarbeko parrokiak banandu zirenekoa (AZP-056/005)

Lehen Nuarbe Urrestillaren mende egon zen, ez baitzeukan bere parrokia. Parrokia egin zenekoa gogoratzen du Patxik. Urrestilla eta Nuarbe banandu zirenean, muga non jarri zen azaltzen du.

526. Nuarbeko eskolatik Urrestillako eskola partikularrera (AZP-056/006)

13-14 urtera arte ibili zen eskolan Nuarben. Gerora Urrestillara joan zen eskola partikularrera: opor garaian 6 bat ikasle joaten ziren hara, eta zerbait gehiago ikasi ahal izan zuten.

527. Eskola bukatutakoan, saskigile sartu aitarekin (AZP-056/008)

Eskola bukatutakoan, etxera itzuli zen aitari laguntzera. Aita saskigilea zen eta etxean bertan egiten zuen lan. Aita izan zen lehenengoa familian lanbide horretan aritu zena. Inguruan saskigile ugari zeuden, eta Patxiren familiak otarre haiek bildu, eta nora eta nola bidaltzen zituzten azaltzen du.

528. Saskietarako egurra nondik eta nola lortzen zuten (AZP-056/009)

Saskiak egiteko egurra nola lortzen zuten azaltzen du. Egurra moztean, komeni izaten zen saskigilea bertan egotea, hobeto baitzekien nondik moztu behar zen. Egurra mozteko aizkora erabiltzen zuten, eta egurra garraiatzeko kamioia. Saskiak egiteko egurrik onena gaztaina izaten zen.

529. Egurra lantzeko lehenengo pausoa: putzuetan sartzea (AZP-056/010)

Egurra etxera ekarritakoan, putzuan sartzen zuten. Egurra nola sailkatzen zuten azaltzen du. Hilabete egoten zen egurra uretan. Zuhaitza zenbat denbora izan behar zuen botatzeko azaltzen du.

530. Zumitza ateratakoan, otarreak egiten (AZP-056/012)

Zumitza ateratakoan, nola apaintzen zuten azaltzen du. Otarrea egiteko zenbat denbora behar izaten zuten eta zer otarre klase egiten zituzten aipatzen du. Beren tailerra estalpe zahar bat zen.

531. Otarregintza utzitakoan, fabrikatara lanera (AZP-056/014)

Otarregintza utzi zuenean, Azpeitira joan zen fabrika batera lanera. Baina fabrika hura ere itxi egin zen, eta tailer ugaritan egin behar izan zuen lan ordutik. Garagarzan eta Fagorren zer lan egin zituen azaltzen du.

532. Fagorreko makineriaren funtzionamendua (AZP-056/016)

Fagorreko makineriari buruz hitz egiten du. Mundu guztirako produkzioa zuen Fagorrek.

533. Lan-baldintzak fabrikan (AZP-056/017)

Lanean bi txanda izaten zituzten. Soldata ona izaten zuten. Irabazitako dirua etxean entregatu behar izaten zuen, baina zorionez gurasoek erretiroa kobratu ahal izan zuten.

534. Nuarbeko dendak eta tabernak (AZP-056/019)

Nuarben lehen hiru taberna zeuden. Janari-denda batzuk ere bazeuden, baina arropa-dendarik ez. Azokara joateko ohitura bazuten, eta autobusa bazegoen hara joateko. Autobusari buruz hitz egiten du.

535. Nuarbeko urtegia egin zenekoa (AZP-056/022)

Orain urtegia dagoen lekuan lehen baserriak zeuden. Urpean geratu zirenerako, ordea, hustuta zeuden, eta beste norabait joan ziren haiek bizitzera. Urtegia egitean, jendeak zer harrera izan zuen azaltzen du.

536. Ura eta argia umetatik etxean (AZP-056/023)

Umetatik ezagutu izan du ura etxean; baina bera baino lehenagokoek ez. Argia ere beti izan du etxean, zentraletatik lortutako argindarrarekin.

537. Nuarbeko festa-giroa (AZP-056/025)

Nuarbeko festetan, Trinitateetan, erromeria egiten zen plazan. Bestela, igandero soinu-jotzailea etortzen zen Nuarbera taberna batera. Gizon hari buruz hitz egiten du.

538. Bizikleta hartu eta inguruko erromerietara (AZP-056/026)

Inguruko herrietara joan behar zutenean, bizikletaz edo oinez joaten ziren. Bizikletak alokatzeko Azpeitian egoten zen postua. Bizikletaz nora eta noiz joateko ohitura izaten zuten azaltzen du.

539. Sozietateko otorduak eta bisiguaren gorakada (AZP-056/029)

Gizonek beti izan dute ohitura sozietatera etorri eta sukaldean aritzeko. Zer otordu egiten zituzten azaltzen du. Bisiguaren prezioa asko igo da lehendik. Lehen Getariako arrantzaleak etortzen ziren arraina saltzera, eta bisigua jatea oso arrunta zen.

540. Ehizarako zaletasuna lehen ere Nuarben (AZP-056/030)

Ehizarako zaletasuna bazen lehen ere Nuarben. Erbia asko harrapatzen zen, baita usoak ere. Ehizara ia egunero joaten zen jendea.

541. Nuarbeko euskara inguruko hizkeren aldean (AZP-056/031)

Nuarbetik Urrestillara gutxi aldatzen da hizkera; Beizamara, ordea, gehiago. Azkoitiko hizkera segituan antzematen da. Azpeitia eta Azkoitia artean lehen ika-mika gehiago zegoen gaur egun baino. Errezilgo eta Tolosaldeko euskara asko gustatzen zaizkio.

542. Harrobiko lanak eta garraioa (AZP-057/003)

Harrobia non dagoen azaltzen du. Harrobi hartatik atera zuten Zaragozako aldare nagusirako marmola. Bost idi pare behar izan ziren hura garraiatzeko. Idirik ez zenean, gizonek eraman behar izaten zuten harria.

543. Eskolako kontuak: ordutegia, zigorrak... (AZP-057/010)

Eskola ez zen gogorra. Zigorrik ez zuen izan berak, baina besteei jarritakoak ere ez ziren zigor gogorrak izaten. Goiz eta arratsalde joaten ziren eskolara, eta etxeke zereginak egiteko nola moldatzen ziren azaltzen du.

544. Eskolan josten ikasten (AZP-057/011)

Eskolan josten ikasten zuten. Zer josi zuen eta zer tresna erabiltzen zituen azaltzen du. Josten ikasteko materiala etxetik eramaten zuten. Normalean abizenaren hasierako letra bordatzen zuten. Gerra garaian, askotan ezin izaten zuten eskolara joan, eta baserriko ganbaran ibiltzen ziren bordatzen.

545. Estraperloan zebilen mutila anaiarekin nahastu zutenekoa (AZP-057/015)

Guardia zibila kontrabandoan zebilen mutil bat harrapatu nahian zebilen, eta Pakitaren anaiarekin okertu ziren hasieran. Guardia zibil batek, ordea, baserritarrekin tratu ona zuen, eta hura berehala konturatu zen akatsaz. Azkenean, bilatzen ari ziren mutila harrapatu eta zigortuta eduki zuten.

546. Errazionamendu garaiko estraperloa (AZP-057/016)

Ogiaren estraperloa egiten zen, eta zer bidetatik ibiltzen ziren azaltzen du. Ogiaren errazionamendua bizi zuten, eta ogia nola jasotzen zuten aipatzen du.

547. Aurrerapenak baserrian: bideak eta argia (AZP-057/017)

Lehen baserrian ez zegoen orain dagoen bidea; bidezidorrarekin moldatzen ziren. Argia izateko zer egiten zuten azaltzen du.

548. Izen ugariko iturrira ur bila (AZP-057/019)

Lehen etxean ez zuten urik, eta beheko iturrira joaten ziren ur bila, Tomas Iturrira. Izena nondik datorren azaltzen du. Mojek, ordea, "la fuente del Pilar" esaten zioten iturri hari. Iturriak zer itxura zuen deskribatzen du.

549. Mojak, jesuitak eta Olatzeko ermita (AZP-057/021)

Mojak eta jesuitak nondik ibiltzen ziren azaltzen du. Olazko ermita zuten beraiek. Egunero joaten ziren mezara, goizean. Orduko apaizari buruz hitz egiten du. Olazko elizara lehen edozein herritatik etortzen ziren.

550. Lehengo eta oraingo ikasteko moduak (AZP-057/024)

Etiket kanpo ez du lanik egin izan. Jesuitek kanpora ikastera eraman nahi izan zuten, baina etxean gelditu behar izan zuten, bere beharra zuten eta.

551. Lagunekin egiten zituzten planak (AZP-057/025)

Hainbat lekutako lagunak zituen, eta normalean Azpeitira joaten ziren kuadrillan. Kongregaziora ez zen asko joaten bera. Azpeitian zer egiten zuten azaltzen du.

552. Dantza egiteko, erromerietara (AZP-057/026)

Dantza egiteko mendira joaten ziren, mendiko erromerietara. Erromeria haiek nolakoak izaten ziren, non egiten ziren eta zer giro egoten zen azaltzen du. Erromeriara joateko bide luzexka egin behar izaten zuten.

553. Senarra ezagutu zuenetik ezkondu arteko ibilerak (AZP-057/028)

Senarra morroi egon zen Olatzeko mojetan, eta hala ezagutu zuten elkar. Nobio zirenean, noiz elkartzen ziren azaltzen du.

554. Kanta batzuen letrak (AZP-057/030)

`Donostiako hiru damatxo` eta beste kanta baten letrak esaten ditu.

555. Euskara nola erabili duen bere bizitzan (AZP-057/032)

Eskolan mojekin erdaraz egiten zuten, erdaldunak baitziren haietako asko. Ez du sumatzen alde handirik Olatzeko jendearen eta kaletarren arteko euskararen. Berak hika asko egiten zuten, baita helduagoei ere.

556. Eskolan sartzean eta irtetean abesten zituzten kantak (AZP-057/033)

Eskolan abesten zituzten gaztelaniazko kantak abesten ditu.

557. Umetako jolasak (AZP-057/034)

Umetan zer jolasetan ibiltzen ziren azaltzen du: txuloketan, txapetan, "arraskatean"...

558. Olatzeko Ama Birjinaren eguneko prozesioa (AZP-057/037)

Olatzeko Ama Birjinaren egunean prozesioa egiten zen, abenduaren 18an, eta nola izaten zen ibilbidea azaltzen du.

559. Kantuan artoa zuritu bitartean (AZP-057/038)

"Atxiketan, potxiketan, negu azkena, Elorrioko kalia..." eta "Neskazaharrak joaten dira Madalenara..." kantatzen ditu. Arta-zuritzen aritzen ziren bitartean, kantuan egiten zuten.

560. 10 seme-alaba aurrera ateratzeko izandako bizimodua (AZP-057/041)

10 seme-alaba izanda, ondo moldatu zen denak hazteko, osasuntsuak baitziren. Denak mantentzeko, senarra hiru lanetan ibiltzen zen. Bitartean, Pakita etxean egoten zen umeekin.

561. Esaera zahar batzuk (AZP-057/046)

Esaera zaharrak aipatzen ditu.

562. Bertso zaharrak kantatzen (AZP-057/048)

"Itsasuan ari dira arbolak aldatzen..." hasten den bertsoa eta `Xenpelar`en bertso sorta baten zati batzuk kantatzen ditu.

563. Esne-behiak (AZP-058/003)

Baserritik bizi izan da beti. Behiak eta idiak eduki izan ditu. Azpeitian esne-bezeroak zituzten. Etxeko emakumeak aritu ohi ziren esnea partitzen.

564. Esne partiketa (AZP-058/004)

Esnea eskuz biltzen zuten. Esnea etxez etxe partitzen zuten. Banaketa lana emakumeek egin ohi zuten, eta lan gogorra izaten zen. 10-12 litroko marmitak erabiltzen zituzten. Astoarekin, lehenengo, eta bizikletarekin gero, joan ohi ziren herrira.

565. Idiak, lanerako (AZP-058/005)

Idiak erabiltzen zituzten soroko lanetarako eta belarra kargatzeko. Garia, artoa eta patata landatzen zuten.

566. Etxeko ogia (AZP-058/006)

Etxean egiten zuten ogia, labesuan. Astean behin egiten zen ogia. Kaleko ogia errazionamenduan zegoen, eta ez zen jateko modua izaten.

567. Dotrina euskaraz ikasitakoa (AZP-058/007)

Herriko eskolan egin zituen ikasketak. Denbora gutxi egin zuen eskolan. Dotrina ondo ikasi behar izaten zen. Eskolatik irtendakoan, auzoko 9 neska-mutil Azpeitiko emakume baten etxera joaten ziren dotrina euskaraz ikastera.

568. Eskolan ezin euskaraz egin (AZP-058/008)

Eskolan ezin zen euskaraz hitz egin. Euskaraz hitz egiten harrapatuz gero, jo edo zigortu egiten zituzten.

569. Eskolara oinez joan behar (AZP-058/009)

11 urtera arte ibili zen eskolan. Auzoko 10 mutilek oinez egiten zuten eskolako joan-etorria.

570. Garia jotzeko, Urbitetxoko makina (AZP-058/011)

Garia eta artoa nola lantzen den kontatzen du. Urte baten garia, eta hurrengoan, berriz, artoa egin ohi zuten, txandaturaz. Garia jotzeko, auzoko Urbitetxo baserriko makina ibiltzen zen etxez- etxe.

571. Belarra moztea (AZP-058/012)

Belarra segaz moztzen zuten. Belarra ondu ondoren, sardea eta eskuarearekin gurdian biltzen zuten. Ganbaran jaso ohi zuten belarra, neguan ganaduari emateko.

572. Esne-behiak pentsua behar (AZP-058/013)

Esne-behiari belarraz gain, pentsua ere eman behar izaten zaio. Behiak ondo jan behar du esnea emango badu. Bestela, hark emandako esne kopurua erdira jaitsi daiteke. Pentsua Azpeitiko Jaka almazenetik erosten zuten.

573. Esnearen kalitatea (AZP-058/014)

Lehen, ez zen inor ibiltzen esnea kontrolatzen. Ez zuten esne-bezeroen kexarik izaten. Esnearen prezioari eutsi egiten zioten, baina esnea bere horretan ematen zuten. Esnari ura nahasteaz hitz egiten du.

574. Esnea, diru-iturri (AZP-058/015)

Esnearen salmentatik bizi ziren baserrian. Emakumeek lan asko egin behar izaten zuten.

575. Egurrezko askak (AZP-058/016)

Lehen, ganaduentzako askak egurrezkoak izaten ziren. Gero egin zituzten hormigoizkoak. Esne-behia ondo zaindu behar izaten dela dio.

576. Behien zaintza (AZP-058/017)

Behien zaintzaz hitz egiten du. Animaliak eta gizakiak antzekoak garela dio.

577. Atxabaletazar, Oinatz behean (AZP-058/019)

Atxabaletazar baserria Oinatz auzoan dago, Oinatz behean. Auzoko baserrien izenak aipatzen ditu.

578. Landetan, lantegirik ez (AZP-058/020)

Azpeitian, Damaso eta Agirre lantegiak ziren handienak. Altzarigintzan aritzen ziren biak. Landetan ez zegoen lantegirik.

579. Garai bateko Landeta (AZP-058/021)

Landetan lehen dena soroa zen. Soro onak omen ziren; artoa eta garia landu ohi zen.

580. Auzoko errotak (AZP-058/022)

Auzoan hainbat errota ziren: Gazte, Atxubiaga, Oranda, Toalla... Gerra denboran, gaez joan ohi ziren errotara. Galarazita zegoen garia eta artoa ehotzea; harrapatuz gero, isuna ordaindu behar izaten zen.

581. Aita Altzagara alde eginda (AZP-058/023)

1934an, Joxe Mariren aita Altzagara joan zen senide batzuen etxera, ezkutatzerara.

582. Gezarretatik Atxabaletazarrera (AZP-058/024)

Joxe Mariren aita Goiazko Gezarreta baserrikoa zen. Familiaren jatorriaz hitz egiten du. Gezarretako errenta igotzen hasi zirenean, familiak Azpeitiko Atxabaletazar baserria erosi zuen. Zazpi mila duro eta erdian erosi zuten baserria.

583. Baserritik ihesi (AZP-058/025)

Gerra denboran, auzoko bat arto soroan hiru egunez ezkutatuta egon zela kontatzen du. Baserritik ihes egin behar, eta Joxe Mariren aitak auzoko batzuk Ordiziara eramane zituen.

584. Taloa eta ogiarekin salbu (AZP-058/027)

Gerra garaian, taloa eta ogia izaten zuten baserrian, eta ez zuten gosarik pasa.

585. Jendea ihesean eta soldaduen iritsiera (AZP-058/028)

Beasain, Elosiaga eta Errezil aldetik jende ugari ihes egin omen zuen Azpeitia aldera. Errepidea bete soldadu nola pasatu zen gogoratzen du. Tropak nola iritsi ziren kontatzen du: soldaduek errepidea hartu omen zuten.

586. Konfiskatutako ganadua, Loiolara (AZP-058/032)

Soldaduek, txahalak konfiskatu zizkieten. Konfiskatutako ganadu guztia Loiolara eramaten zuten. Loiolan, basilikaren bi aldetan, egurrezko estalpetan gordetzen zuten ganadua.

587. Soldaduak miaketan (AZP-058/033)

Ihesean zebilen Urrestillako gizon bat ezkutatuta zuten baserrian. Joxe Mari eta lau anaia amarekin logela batean egon ziren, beldurtuta. Soldaduak miaketan aritu omen ziren.

588. Lehenengo Oinatz (AZP-058/034)

Oinatz goiko eliza ondoan, frontoi txiki bat dago. Bertako santua San Juan da. Festetan erromeria izaten zen. Eskola ere bazegoen. Maisuak taberna omen zeukan.

589. Patxi Atxabaletako soinujolea (AZP-058/035)

Atxabaletazerren bazen soinujole bat Patxi izenekoa. Haren kontuak aipatzen ditu.

590. Bizikletarekin batera eta bestera (AZP-058/036)

Gaztetako kontuak aipatzen ditu. Bizikletan joan ohi ziren Urrestilla, Nuarbera, Matxinbenta, Errezilera... Azpeitian, gauza gutxi egoten omen zen.

591. Azpeitiko Kasinoa (AZP-058/038)

Azpeitiko Kasinoari buruz hitz egiten du. Jokorako tokia zen. Dirua zuenari uzten omen zioten sartzen.

592. Gurasoekin zuka, lagunekin hika (AZP-058/042)

Oinatzen eta Azpeitian, antzera hitz egiten da. Gurasoei zuka hitz egiten zien, eta gurasoek berari, berriz, hika. Lagun artean, hika hitz egin izan du beti.

593. Gaztetatik txapelarekin (AZP-058/043)

Beti ibili izan du txapela. Apaizaren aurrean txapela kendu egin behar izaten zen.

594. Misioak (AZP-058/044)

Mezara, Azpeitira joan ohi zen. Misioetan, neskak eta mutilak aparte ibili behar izaten zuten.

595. Nobiotako kontuak (AZP-058/046)

Emaztea nola ezagutu zuen kontatzen du. Aste barruan, gutxi ikusten zuten elkar. Urrestillakoa zen, baina Azpeitian ibiltzen zen neskame. Nobiotan, Beizamara edota Oinatzerara joan ohi ziren mendi buelta egin eta mokadutxoa jatera.

596. Aratz Errekako eskola (AZP-060/002)

Eskolan, adin desberdineko jendea ibiltzen zen elkarrekin. Eskola non zegoen azaltzen du. Eskolara goizez joaten ziren. Eskolako maistrari eta liburuari buruz hitz egiten du. Zer ikasten zuten azaltzen du.

597. Eskolako zigorrak (AZP-060/004)

Eskolan zer zigor jartzen zizkieten aipatzen du. Eskolan orain baino errespetu gehiago izaten ikasi zutela uste du. Apaizak ematen zituen zigor latzenak.

598. Apaizarekin organoa jotzen ikasten (AZP-060/005)

Apaizak erakusten zuen organoa jotzen, eskolako orduetatik kanpo. Non, nola eta nolako organoarekin ikasten zuten azaltzen du.

599. Tabernako lanaren gorabeherak (AZP-060/006)

Taberna eduki izan du beti, aitonak hasitako negozioa. Umetatik hasi zen lanean tabernan, eta ganaduarekin ere ibiltzen zen lanean. Tabernako prezioei buruz hitz egiten du. Lehen konfiantza gehiagorekin hitz egiten zen tabernan.

600. Tabernan ematen zituzten otorduak (AZP-060/007)

Normalean tabernan zer otordu ematen zituzten azaltzen du. Goizetan ere gosaltzera etortzen zen jendea.

601. Lehen edaten eta erretzen zena (AZP-060/010)

Lehen zer eta noiz edaten zen aipatzen du. Purua erretzeko ohitura bazegoen lehen, bai eta pipa ere, baina 40 urtetik gorako gizonen artean bakarrik.

602. Emakumeak oso gutxitan tabernara (AZP-060/011)

Emakumeak lehen ez ziren sartzen tabernetara. Aste Santutan, ordea, bai, txokolatea jatera. "Eztayei" buruz hitz egiten du: ezkondu aurretik emakumeek egiten zuten merienda.

603. Emakumeen "arrea" (AZP-060/013)

Emakume bat ezkontzen zenean, apaingarriak ("arrea") eramaten zen neskaren etxetik. Zer izaten zen hori azaltzen du, eta nola erabiltzen zen. Tabernan okasio horietan zer janari jartzen zuten azaltzen du.

604. Lagunekin irteerak eta musikaren garrantzia aisialdian (AZP-060/018)

Lagunekin mendira joaten zen, dantzan ibiltzen ziren, herriz herri izaten ziren festetara joaten ziren... Tabernan ere soinu-jotzailea izaten zuten neguan, eta jendeak ematen zuen borondatearekin ordaintzen zitzaion hari. Lehen jendeari asko gustatzen zitzaion dantza egitea.

605. Dantzak eta etxeratzeko ordua (AZP-060/019)

Dantza lotua lehen ez zen libre; dantza lotua egiten zuena kongregaziotik bidaltzen zuten. Debekua kendu zutenean, ordea, denek dantza soltea egiten zuten. Mendiko zer erromeriatara joaten ziren azaltzen du. Oinez joaten ziren, eta 9etarako etxera etortzen ziren. Etxera iristean, kanpaia jotzen zuten etxean.

606. Erromeriatik etxerako bidea (AZP-060/020)

Iluntzean erromeriatik etxera itzultzeko, zer argirekin moldatzen ziren azaltzen du. Bidea oinez egiten zuten, eta gerora bizikletarekin ibiltzen hasi ziren. Erromeriara neskak eta mutilak joaten ziren.

607. Umetako jolasak eta jolaslekuak (AZP-060/022)

Umetan zer jolasetan aritzen ziren aipatzen du: erregetan, pilotan, txorro-morro... Bero handia egiten zuenean, jolasera errekarara joaten ziren.

608. Etxetik kanpora lana eta soldata (AZP-060/024)

Etxetik kanpora egin zuen lan 15-24 urte zituen bitartean. Non ibili zen lanean aipatzen du. Gustura joan zen etxetik kanpora lanera, eta uniformeak erabili behar izaten zuen. Lehen ere bazegoen eskupekoak uzteko ohitura. Irabazitako dirua etxean eman behar izaten zuen.

609. Bere lehenengo bizikleta (AZP-060/026)

Erosi zuen lehenengo bizikleta nolakoa zen deskribatzen du.

610. Eskolara joateko zaletasuna eta amaren babesa (AZP-061/003)

Itulan egitea zer zen azaltzen du. Berari ez zitzaion gustatzen baserriko lana, eta eskolara joan nahi izaten zuen. Amari esker joan ahal izaten zen, aita ez baitzion garrantzi handirik ematen hezkuntzari. Aita bera auzoko alkatea izan zen, baina ez zekien idazten eta irakurtzen. Jesusa ikasle ona zenez, Olatzeko eskolan ibili eta gero, jesuitinatarara bidali zuten ikastera; eta, gerora, gerra hasi artean, andereñoa izan zen. Asko gustatzen zitzaion umeekin lan egitea.

611. Bokaziozko andereñoa, dena ematen zuena umeen alde (AZP-061/007)

Eskola txikiegia zen hainbeste umerentzat, eta bazirudienean handitu egingo zutela, gerra iritsi, eta bertan behera gelditu zen asmoa. Beraiek euskaraz eta erdaraz irakasten zuten, txikienek ez baitzekiten erdaraz hitz egiten ere. Berak zer erakusten zuen azaltzen du. Umeei maite zuten Jesusa. Gerra iritsitakoan, beste maistra batzuk jarri zituzten, eta eskola pixkanaka beheraka joan zen, desagertu egin zen arte.

612. Eskolako ohiturak: uniformeak, txangoak, zigorrak (AZP-061/008)

Eskolan uniformeak erabiltzen zuten. Nolakoak ziren azaltzen du. Txangoak egiten zituzten eskolarekin: nora eta nola joaten ziren azaltzen du. Oporretan ere eskolara joateko gogoa izaten zuen, pozik bizi baitzen andereñoa; gisa. Umeei zer-nolako zigorrak jartzen zizkieten azaltzen du.

613. Gerra hasieran mojetan josten ikasten (AZP-061/012)

Gerra hasi zen uda hartan, bera jesuitinetan zebilen josten ikasten. Gerra hasierako egunetako giroa nolakoa izan zen eta zer-nolako beldurra pasa zuen kontatzen du.

614. Gerran ahizpak kartzelan "Gora Euskadi Askatuta" idazteagatik (AZP-061/015)

Gerra irten zenean, bi ahizpa kartzelan izan zituen Donostian. "Gora Euskadi Askatuta" idatzita zegoen gutun bat zuten etxean; eta, horregatik, gutun hura idatzi zuen ahizpa bi urte egon zen kartzelan.

615. Gerra osteko gosea latzagoa kaletarrentzat baserritarrentzat baino (AZP-061/020)

Errazionamendu garaian, baserrian janari gehiago zegoen kalean baino. Kaleko jendea aurpegian nabarmentzen zitzaion kalekoa zela, asko argaldu baitziren.

616. Gerra ostean, jostunen irakasle bihurtu (AZP-061/022)

Gerra ostean, Donostiako akademia batera eraman zuten jantzigintza ikastera. Ezkontzatarako soineko asko josi izan ditu. Josten ikasteko akademia sortu zuen, eta han ibili zen irakasten, bere bokazioa hori baitzen.

617. Etxeko atariko erreka (AZP-061/028)

Etxeko atarian Iturtxulo erreka igarotzen zen, eta ur freskoa zenez, kaletik etortzen ziren ur bila. Beraiek etxean edateko ura ere handik hartzen zuten.

618. Igandetako plana mojekin (AZP-061/029)

Azpeitian erromeriak egiten ziren, baina bera eta beste neska batzuk mojekin joaten ziren "dominikaletara". Han zer egiten zuten azaltzen du. Joateagatik saria ematen zuten, eta ez joateagatik zigorra.

619. Janzkerak eta antzinarik nola garbitzen zituzten zapatak (AZP-061/031)

Lehenengo janzerari buruz hitz egiten du: neskek ez zuten galtzarrik eramaten, baina zapatak bai. Bere amonaren garaian, zapatak garbitzeko zer egiten zuten kontatzen du.

620. Orduko orrazkerak eta ile motzaren moda (AZP-061/033)

Lehenengo orrazkerari buruz hitz egiten du: neska gutxi eramaten zuten ile motza; Jesusa berak bi txirikorda eramaten zituen. Bere amarentzat, ilea moztea nahigabe handia izaten zen. Behin Jesusak ilea motz moztu zuen, eta errieta egin zion amak. Pixkanaka, ordea, orokorra bihurtu zen ile motzaren moda.

621. Lehenengo kapelak (AZP-061/034)

Kapela erabiltzen zuten lehen, eta nolakoa izaten zen azaltzen du. Denborarekin aldatzen joan ziren kapelak.

622. San Inazioetako giroa Azpeitian (AZP-061/035)

Azpeitiko San Inazioetan zer egin ohi zuten kontatzen du: zezen-plazan korrida zegoenean, umeak sarreran egoten ziren bateren batek sartzen lagunduko zien zain; prozesioak ere izaten ziren; musika-bandak plazan jotzen zuten...

623. Aisialdian antzerkirako zaletasuna (AZP-061/037)

Bi ahizpa zaharrenek kalerako joera handiagoa zuten bi ahizpa gazteenek baino. Jesusa eta ahizpa Olatzera joaten ziren antzerkira, eta pozik bizi ziren horrela. Zer antzerki mota egiten zuten aipatzen du. Antzerki gehienak erdaraz egiten zituzten. Kaleko jende asko joaten zen antzerki-emanaldiak ikustera.

624. Jaunartzea eta konfesatzeari buruzko kontuak (AZP-061/040)

Sei urterekin egin zuen jaunartzea Olatzen. Geroago, 10-11 urterekin jaunartze garrantzitsuagoa egin zuten parrokan. Astero joan behar izaten zuten konfesatzera.

625. Gabonetako poza eta ohiturak (AZP-061/041)

Gabonetan oso ondo pasatzen zuten eta ilusio handia izaten zuten. Jaiotza jartzen zuten, eskean irteten ziren. Santa Ageda egunean ere eskean irteten ziren. Gabonetako kantak gogoratzen ditu eta haietako bat abesten du. Santa Ageda eskerako berak asmatutako koplak ere kantatzen ditu.

626. Urolako trenaren inaugurazioa (AZP-061/047)

Urolako trenaren inaugurazioa garrantzitsua izan zen: erregea etorri zen, kotxe-tokiak bedekatu zituzten, musika bandak etengabe jo zuen... Eskola guztietako umeak ere han izan ziren, banderatxoak eskuan hartuta.

627. Serenoa, zorroztailea, barkileroa eta zapata garbitzaileak (AZP-061/050)

Lanbide zaharrak aipatzen ditu: goizez mezetara bidean serenoak beti agurtzen zituen; zorroztailea zetorreanean euria egingo zuenaren ustea zegoen; barkilleroak erruleta bat izaten zuen eta hura eraginda tokatzen zen zenbakia adina barkillo jasotzen zuten; zapata garbitzaileak beste lekurik ezean beraien etxe atzeko garotegian gelditzen ziren lotan.

628. Baserrian janari faltarik ez (AZP-061/052)

Soro handiak zituzten eta artoa, baba, arbia... landatzen zuten. Baba ia eguneroko otordua zen, baina berari ez zitzaion batere gustatzen. Ogia etxean egiten zuten. Inoiz ez zuten janari faltarik izan, ezta gerra denboran ere.

629. Estaziotik etxera bidean, takoiekin komeriak (AZP-061/054)

Donostiako kartzelan zegoen ahizpa bisitatzera joan zireneko anekdota: bero izugarria egiten zuen eta, etxera bidean, trenean zapatak erantzi zituzten. Iritsi zirenean, Jesusak amarekin aldatu zituen zapatak. Baina ama ez zegoen takoietara ohituta!

630. Amaren erdara traketsa... baina baita ulertu ere! (AZP-061/056)

Gurasoak aitaren arreba bat bisitatzera Santa Agedako ospitalera joan zireneko pasadizoa: mojak euskaraz jakin ez, eta Jesusaren amak erdara xelebrea esan zizkionak.

631. Etxean otarra egiten I (AZP-065/002)

Baserrian bizi ziren eta otarra egiten aritzen ziren bertan, aita otarregilea baitzen. Baserrian toki bat zuten otarrak egiteko propio prestatuta, labe eta guzti zuena. Egurra edukitzeko putzua ere bazuten. Josefak azaltzen du otarrak nola egiten zituzten; putzutik ateratako egurra labean sartu eta berotu, eta gero, eskuekin zumitza ateratzen zuten. Mandazainak egurra Beizama inguruko mendietatik ekartzen zien. Zumitza ateratzeko egur aproposena gaztaina izaten dela dio.

632. Etxean otarra egiten II (AZP-065/003)

Beizamako herriak baso sail handiak zituen, eta enkantean erosten zuten egurra. Egurra etxera eramandakoan putzu batean gordetzen zuten; putzuan sartu aurretik, ordea, otarrak zer neurritakoak egin nahi ziren horren arabera mozten zuten egurra. Behin egurra sutatik ateratakoan, zumitzak ateratzen ziren aizkorarekin; eserita egiten zuten.

633. Etxean otarra egiten III (AZP-065/005)

Behin zumitzak ateratakoan, otarrantzako nahi zen ipurdiaren araberako moldea jartzen zen, eta gero, moldea hankartean hartuta, zumitzak, gurutzatuta, haren bueltan igotzen ziren.

634. Etxean otarra egiten IV (AZP-065/007)

Otarra nola errematatzen diren eta "kaela" zer den azaltzen du. Otarraren neurriak batetik hasi eta zortzira artekoak izan daitezke; zortzikoak da otarra handiena. Bidezainek, "egurzaleek", arrantzaleek... erabiltzen zituzten otarrak. Otarrak egiteko eskaeran etxean jasotzen zituzten.

635. Etxean otarra egiten V (AZP-065/009)

Otarra handi

636. Baserri inguruko bideak egin zirenekoa (AZP-066/002)

Lehen ez zeukaten biderik baserriaren inguruan; noiz eta nork egin zituzten azaltzen du.

637. Zumarraga nahiz Azpeitira joateko ohitura (AZP-066/003)

Beren etxetik Azpeitira nahiz Zumarragara joaten ziren. Zumarragara iristeko zer bide egiten zuten azaltzen du. Mezara joan bitartean, azokara ere joaten ziren.

638. Maiorazgoari buruzko azalpenak (AZP-066/004)

Maiorazkoari buruz hitz egiten du: mutil zaharrena izaten zen oro har maiorazkoa; eta mutilik ez bazegoen, alaba zaharrena.

639. Baserriko lanak: ganadua eta soroa (AZP-066/006)

Baserrian ganadua edukitzen zuten. Beren inguruko lurak ez ziren onak ganadua hazteko, baina ahal zutena egiten zuten. Nekazaritzan ere aritzen ziren: artoa eta garia lantzen zituzten.

640. Garia jotzeko moduak (AZP-066/008)

Garia nola jasotzen zuten azaltzen du. Arropa garbitzeko eta garia jotzeko tresna bera erabiltzen zuten. Afrikan soldadu egon zenean, garia jotzeko beste modu bat ikusi zuen han. Eta Nafarroan ere beste sistema bat erabiltzen omen dute.

641. Errotak non-nahi (AZP-066/009)

Garia jo eta gero, errotara eramaten zuten. Artoa ere ehotzen zuten beste errota batean. Lehen erreka bazterretan errota ugari zeuden, eta haietako batzuk aipatzen ditu.

642. Denentzako ogia baserrian (AZP-066/010)

Astean behin egiten zuten ogia baserrian, eta etxeko senide guztientzat iristen zen.

643. Argia eta ura etxean jarri aurretik eta jarri ondoren (AZP-066/013)

Argia eta ura ia beti ezagutu izan du etxean. Neguan, ura zegoenean, argi dezente izaten zuten; udan, ordea, ez. Ur gutxi zegoenean, argia beste era batzuetara lortzen zuten. Ura gertuko errekatik ekartzen zuten, harik eta 12 urte zituela etxean jarri zuten arte.

644. Baserriak eraikitzeko materiala (AZP-066/014)

Baserria egurrezkoa eta harrizkoa da. Haritza erabiltzen zen lehen etxeak eraikitzeko.

645. Baserriaren egitura eta antolaketa (AZP-066/015)

Ukuilua baserrian bertan, sukaldearen ondoan, izaten zuten lehen. Baina gerora pentsatu zen, suteak gertatzeko arriskua kontuan izanda, hobe zela aparte egotea ukuilua eta baserria. Ardiak goiko bordan edukitzen zituzten oro har. Baserriko ganbaran lastoa, belarra eta artoa gordetzen zuten.

646. Etxeko abereei ematen zieten erabilera (AZP-066/016)

Txahalak azokan saldu ohi zituzten. Abereekin zer egiten zuten eta janaria nola gordetzen zuten azaltzen du.

647. Eskolara joan, baina jolasteko irrikan (AZP-066/019)

Eskolara joaten ziren garaian, jolasean aritzeko irrikan egoten ziren. Nola jolasten zuten azaltzen du.

648. Eskolako ordutegia eta maistra (AZP-066/021)

Eskolara goizez bakarrik joaten ziren. Asteartetan, ordea, arratsaldean joaten ziren, maistra goizetan Azpeitiko azokara joaten baitzen. Maistrak eskolara joateko zer bide egin behar izaten zuen azaltzen du.

649. Soldadutzara Melillara (AZP-066/023)

12 urterekin eskola utzi zuen, adin horrekin lanean hasi behar izaten baitzen. Baserritik kanpo gerora egin zuen lan. Soldadutzatik itzuli zenetik basoan egin zuen lan. Soldadutza Melillan egin zuen, eta zer egin behar izaten zuen azaltzen du. Han euskaldun asko zegoen.

650. Soldadutzan ikasitakoak eta pasatakoak (AZP-066/025)

Soldadutzako instrukzioetan zer egin behar izaten zuten azaltzen du. Bera soldadutzan zegoela, Indiako gerra hasi zen, eta euskaldun batzuk ere eraman zituzten hara gudukatzera. Soldadutzan ez zuten goserik pasa, eta non jaten zuten kontatzen du.

651. Soldadutzako trajea (AZP-066/026)

Soldadutzako trajea nolakoa zen deskribatzen du.

652. Soldadutzako bizimodua (AZP-066/027)

Soldadutzan euskaldunak elkartzen ziren, eta hainbat plan egiten zituzten. Hilean 15 pezeta ematen zizkieten, eta gutunak idazten zituzten etxera dirua eskatzeko. Gutun horiek euskaraz idazten zituzten. Etxera itzultzeko baimena izan zuen, eta 2 hilabete eman zituen etxean. Guztira 15 hilabete iraun zuen soldadutzak beretzat.

653. Basoko egurraren erabilerak (AZP-066/029)

Soldadutzatik itzuli zenean, basoan hasi zen lanean. Basoan ateratzen zuten egurra zertarako erabiltzen zen azaltzen du.

654. Egurra lortzeko prozesua eta tresnak (AZP-066/030)

Egurra lortzeko zer prozesu eta tresna erabiltzen zituzten azaltzen du.

655. Egurra lehen eta orain (AZP-066/031)

Egur klase ugari lantzen zituzten. Gaur egun egur gutxiago erabiltzen da. Egurra idietan garraiatzen zuten, aldiko tona bat gehienez.

656. Egurrari ematen zitzaion tratamendua (AZP-066/032)

Egurra botatakoan, soildu egin behar izaten zuten. Pinuak, gainera, zuritu egiten zituzten paper-fabrikara eramateko.

657. Egurra mozteko aizkorak eta trontzak (AZP-066/033)

Aizkorak eta trontzak Elizondotik ekartzen zituzten, Frantziatik estraperloan iritsitakoak. Izan ere, haiek hobekak izaten ziren. Trontzek zer neurri izaten zuten aipatzen du.

658. Egurra mozteko kableen funtzionamendua (AZP-066/034)

Egurra mozteko kableak erabiltzen zituztenean, zer motatakoak zeuden eta nola funtzionatzen zuten azaltzen du.

659. Egurra han eta hemen saltzen (AZP-066/036)

Egurra nora saltzen zuten azaltzen du. Frantziako basoak eta han erabiltzen zituzten tresnak hemengoekin alderatzen ditu.

660. Basomutilen lan-baldintzak lehen eta orain (AZP-066/037)

Basomutilen lanorduei buruz hitz egiten du. Gaur egungo eta lehengo basomutilen lan-baldintzak alderatzen ditu.

661. Gerra garaian eroritako hegazkinaren oroitzapena (AZP-067/015)

Gerra garaiko oroitzapenak kontatzen ditu: gerrako hegazkin bat erori zen, eta hura ikustera joan ziren. Azpeitia inguruan ez zuen troparik ez bonbarik ezagutu.

662. Olioia falta zela, ezin edozer gauza jan etxean (AZP-067/017)

Behin oliorik ez zuten etxean, eta amak haragia erostera bidali zuen, oliorik gabe ere prestatu ahal izateko janaria. Harategian, ordea, haragirik ez, eta arraina erosi zuen Juanitok. Etxera iritsitakoan, amak errieta egin zion arraina ekarri izanagatik, eta aitak ardirik onena hil zuen etxean jatekoa izateko.

663. Etxean morroi fina izan zutenekoa (AZP-067/022)

Etxeko morroiari buruz hitz egiten du. Morroiari mantenua eta diru pixka bat ematen zitzaion lan egitearen truke. Mutil txukuna eta fina zen, baina tailer batera joateko garaia ere iritsi zitzaion; pena handia hartu zuten etxean horregatik, eta ahal zutena egin zuten morroia etxean gera zedin.

664. Baserriko bidea egin eta autoa falta (AZP-067/023)

Juanitok beti egin izan du lan baserrian. Ugartetik baserrirako bidea Juanitok berak egin zuen aurreztutako diruarekin. Bidea bukatutakoan, ordea, ez zitzaion dirurik geratu autoa erosteko, eta denbora bat itxaron behar izan zuen hura aurreztu zuen arte.

665. 16 urterekin Donostiara ikastera (AZP-067/025)

16 urte zituela, Donostiara bidali zuten ikastera; izan ere, berak ezin izan zuen eskolara joan txikitan, baserrian lan egin behar izaten zuelako. Donostiako eguneroko bizimodua nolakoa izaten zen eta zer lan egiten zituen azaltzen du.

666. Donostiatik etxera noiz eta nola etortzen zen (AZP-067/027)

Donostian ikasten egon zen bitartean, etxera herriko festetan bakarrik etortzen zen. Etxera iristeko zer garraio bide erabiltzen zuen azaltzen du. 2 urte egon zen Donostian ikasten, eta lagun euskaldunak zituen han.

667. Soldadutzan sukaldari ibilitakoa (AZP-067/028)

Soldadutza Gasteizen hasi zuen eta Huescan jarraitu zuen. Gasteizen sukaldari izatea tokatu zitzaion, eta zer lan izaten zuen azaltzen du.

668. Soldadutzan prestatzen zituzten menuak (AZP-067/029)

Soldadutzan, menua otorduaren eta urtaroaren arabera izaten zen. Menutik kanpo zeuden janariak nahi izanez gero, gehigarri bat ordaindu behar izaten zuten. Soldadutzan gustura ibili zen, nahiz eta lan asko egin behar izan zuen.

669. Soldadutzan tripakiak erre zitzaizkionekoa (AZP-067/030)

Tripakiak prestatzen zituzten noizean behin. Haietako batean, tripakiak erre zitzaizkion eta estualditik ateratzeko zer egin zuen kontatzen du.

670. Eskola eta maistrak (AZP-068/002)

Urrestillako eskola non zegoen azaltzen du. Ikasleak klasetan nola banatzen zituzten azaltzen du. Maistra asko pasa zituen, eta haietako batzuen izenak aipatzen ditu.

671. Eskolan gustura maistra onarekin (AZP-068/003)

6-14 urte bitartean ibili zen Maria eskolan. Maistrak erdaldunak izaten ziren. Carmen Cimorra maistrari buruz hitz egiten du. Hainbeste umerekin maistrak nola moldatzen ziren azaltzen du.

672. Laboreak ikasten: materialak, teknikak, egindako eskulanak (AZP-068/005)

"Lasarte" tela zuriak erabiltzen zituzten lehen laboreak ikasteko. Etxetik eramaten zituzten telak. Inizialak josteko, "Mouliné" hari zuria erabiltzen zuten. Dena eskuz josten zuten, euskarri bat erabili. Era askotako laboreak egiten zituzten. Gaur egun lehen baino askoz errazagoa da jostea.

673. Jostun izateko non ikasi zuen (AZP-068/006)

Josteko makinak ere baziren lehen, eta gerora josten jarduna izan da. Gaztetan sukaldean ibiltzen ikasi zuen; arratsaldetan Nikasi jostunarenera joaten zen josten ikastera; eta ebaketa eta jantzizigintza Ramonita Arratibelekin ikasi zuen.

674. Gona vs galtzak / Mahuka luzeak vs motzak (AZP-068/009)

Beren garaian ez ziren gona motzak eta galtzak eramaten. Eskolan zebilen garaian, mahuka luzeak eramaten ziren; baina geroago hori aldatu egin zen, eta mahuka motzak iritsi ziren.

675. Enkarguak nola betetzen zituen (AZP-068/010)

Josteko enkarguak etxean egiten zituen: jendea etxera etortzen zitzaion, neurriak hartzen zizkien, eta josi egiten zuen arropa. Zer josteko makina izan zituen eta nola funtzionatzen zuten azaltzen du.

676. Lehengo materialak: hariak eta telak (AZP-068/011)

Lehengo hariak buruz hitz egiten du: oraingoak baino errazago eteten ziren; zuri-beltzak asko zeuden, baina koloretakoak txikiak izaten ziren. Telak eta arropak non erosten ziren, eta zer tela klase erabiltzen zuten azaltzen du.

677. Gerrikoak, gorbatak eta trajeak (AZP-068/013)

Gerrikoak nolakoak izaten ziren azaltzen du. Gorbata asko erabiltzen zuten mutilek, baina tximeleta-begiztak ("pajaritak") ez. Alkandora zuriak nola plantxatzen zituzten aipatzen du.

678. Nesken trajeak eta barruko arropa (AZP-068/014)

Nesken lehengo janzkeraz hitz egiten du: trajeak eta barruko arropa (kortseak, noiz erabiltzen ziren, zer abantaila ematen zituen...).

679. Emakumeen jantziak: haurdunaldirako, lotarako eta komuniorako (AZP-068/015)

Haurdun zeuden emakumeentzako ere josten zituzten arropak, eta nolakoak izaten ziren deskribatzen du. Lotarako kamisoiak erabiltzen zituzten, eta nola josten ziren azaltzen du. Komuniorako jantziak nolakoak egiten zituzten azaltzen du.

680. Bataioetarako jantziak (AZP-068/016)

Bataioetarako arroparik ez du josi izan, baina nolakoak izaten ziren azaltzen du. Berak bataioan erabilitako jantzi bera erabili izan dute bere alabak eta bilobek ere.

681. Igandeetarako arropa berezia (AZP-068/017)

Lehen, botoia erabiltzen zen. Igandeetarako arropa berezia janzten zuten, eta ondo zaintzen zuten hura. Anekdota bat kontatzen du: igandeetako arropa plantxatzean, erre egin zitzaion, eta nola-hala moldatu zen hura janzteko.

682. Gonaren azpiko galtzerdiak (AZP-068/019)

Gonaren azpitik galtzerdi luzeak janzen zituzten, eta haiek ligara kateatzen zituzten. Galtzerdiak zer materialetakoak izaten ziren aipatzen du.

683. Zapata mingarriak eta alpargata erosoak (AZP-068/020)

Zapatak erabiltzen zituzten, baina hanketako mina ematen zuten. Berak izandako zapata batzuk deskribatzen ditu. Eguneroko bizitzarako alpargatak erabiltzen zituzten.

684. Abarketa-tailerreko lana (AZP-068/022)

Urrestillako abarketa-tailer batean aritu zen lanean, eta han zer lan egiten zuen azaltzen du. Makinak erabiltzen zituzten horretarako. Alpargatak josteko zer material erabiltzen zuten azaltzen du. Tailerra non zegoen aipatzen du.

685. Abarketa-tailerreko lana eta sutea (AZP-068/024)

Abarketa-tailerrean nolako alpargatak egiten zituzten azaltzen du. Tailer hartan egin zuen lan hura erre zen arte.

686. Urrestillako dendak egunerokorako, Azpeitikoak kontu berezietarako (AZP-068/025)

Urrestillan zer beste denda zeuden aipatzen du. Eguneroko erosketak Urrestillan bertan egiten zituzten, eta gauza bereziak behar zituztenean Azpeitira joaten ziren.

687. Urrestillako Euskal Jaietako jantziak eta karrozak (AZP-068/027)

Baserritarren jantziaz eta Urrestillako Euskal Festez hitz egiten du. Euskal Festetan karrozak egiten zituzten, eta nolakoak izaten ziren azaltzen du.

688. Urrestillako festak lehen eta orain (AZP-068/028)

Urrestillan San Juanak izaten dira, eta gazteak zirenean nola ospatzen zituzten kontatzen du. Erromeria zenean, beti egiten zuten dantza.

689. Emakumeen aisialdiko ohiturak (AZP-068/034)

Urrestillan emakumeak tabernan sartzen ziren batzuetan; kafea hartzeko ohitura gerora sartu zen. Emakume gutxik erretzen zuten zigarroa; Mariaren lagun batzuek hondartzan erretzen zuten.

690. Zumaiako hondartzara bainujantziekin (AZP-068/035)

Hondartzara asko joaten ziren Zumaiara, trenez. Zer-nolako bainujantziak izaten zituzten deskribatzen du.

691. Lehen aisialdia umilago eta alaiago (AZP-068/038)

Lehen askoz gutxiago behar izaten zuten pozik egoteko. Aisialdian zer egiten zuten aipatzen du: konpota, txokolatea, kartetara jokatu, jolasak... Plazan ibiltzen ziren jolasean. Sokadantzako abestiak kantatzen ditu.

692. Baserriko sagarrak eta gaztainak (AZP-071/004)

Errege sagarra izaten zuten eta Eibarrera eramaten zituzten saltzera otarretan. Baserrian sagar mordoa izaten zuten. Gaztainak ere bazituzten. Gaztainak danbolinean su baxuan prestatzen ziren; udazkenean biltzen zituzten zuhaitzetik, makilarekin jota. Gaztainak gurdian eramaten zituzten baserrira kaxatan, baina gero ez zuten saltzen ia.

693. Etxeko sagarrak saltzeko prestatzen (AZP-071/005)

Sagarrondoak aitak zaintzen zituen. Eguterako sagarra. Sagarrak multzokatu egiten zituzten, eta multzo bakoitzak bere prezioa izaten zuen.

694. Sagardoa etxean nola egiten zuten (AZP-071/006)

Sagardoa etxean egiten zuten, bai baitzeukaten dolarea. Sagardoa nola egiten zuten. 4-5 barrika betetzen zituzten aldiko. Botiletan ere sartzten zuten. Botiletarako kortxoak erosi egiten zituzten.

695. Sagarrak lasto gainean, ondo kontserbatzeko (AZP-071/007)

Sagarrak ez zuten inoiz saldu sagardotegietarako; bai, ordea, kapritxo eskatzen zuen jendearentzat. Sagarra lasto gainean izaten zuten etxean, horrela ez baitzen mailatzen. Sagar erreak jaten zituzten etxean. Labean ogia egin ostean, sagarrak sartzten zituzten eta oso onak ateratzen ziren.

696. Garia erein, jo eta ehotzeko egiten zituztenak (AZP-071/008)

Ogia etxean egiten zuten. Garia baserrian ereiten zuten. Garia jotzeko makina ekarri egiten zieten noizean behin etxera. Garia ehotzeko errota Landetan zegoen. Errotara astoarekin joaten ziren, baina estraperloan. Polizia-txakurra ere bazuten, eta laguntza handia ematen zien bidean. Inoiz ez zieten garia kendu.

697. Garia eta artoa ereiten (AZP-071/009)

Gari-sail handi xamarra zeukaten. Igitaiarekin auzolanean biltzen zuten garia. Artoa egiten zuten, eta hura jorrazteko behiak erabiltzen zituzten.

698. Ura lortzeko egin beharrekoak (AZP-071/010)

Ura oso gutxi edukitzen zuten etxean. Euri-ura depositu batean bildu eta aprobeixatu egiten zuten; edateko ura auzoan lortzen zuten. Mendi ondoan ura jaiotzen zen lekuetatik, buruan ontzi handi batean ekartzen zuten ura. Arropak garbitzera urrutira joan behar izaten zuten, Legazpi aldera.

699. Argia lortzeko baliabideak (AZP-071/011)

Argia petrolioarekin lortzen zuten; kandelak eta olioak ere erabiltzen zituzten.

700. Orkazarko eskola (AZP-071/013)

Orkazarko eskolan ikasi zuen, eta hara joateko bide luzea zegoen. Orkazarko maistrak kanpotik etortzen ziren, eta euskaldunak ziren. Auzoko baserrietako umeak joaten ziren eskola hartara. Maistra jatorra izan zuten, Elgoibarkoa, eta harekin zer ikasten zuten azaltzen du Mariak.

701. Azpeitiko lan-baldintzak vs Donostiakoak (AZP-071/016)

Azpeitiko dendan lanean aritu zenean, Hiru ogerleko jasotzen zituen hilabetean. Donostiara joan zen geroago neskame, eta han 300 pezeta ematen zioten. Irabazten zuen dirua etxean entregatzen zuen, gurasoei arropa erosten zien.

702. Ostatuan janaria mugatuta (AZP-071/018)

Mariak ostatu batean egiten zuen lan, zerbitzatzen aritzen zen. Ogi gutxi zegoen, eta zeukatena banatu egin behar izaten zuten bezero guztientzako adina egon zedin. Langileentzat ez zen egoten jatekorik, eta nola-hala konpontzen ziren zerbaiteko gordetzeko.

703. Ostatuko uniformeak eta zorrotasuna (AZP-071/019)

Ostatuan uniformeak erabiltzen zuten. Bezeroak izaten zituzten, baina nagusiak oso zorrotzak ziren: behin neska bat saltzaile batekin harrapatu zuten logelan eta kalera bidali zituzten.

704. Alargun geratu zenean, bizimodua aldatu behar (AZP-071/023)

27 urterekin ezkondu, eta handik urtebetera alargun eta haur jaioberria zuela gelditu zen. Orduan baserrira itzuli zen ahizparengana. Haurrak 3 urte zituela, Maria Casa Nicolasara joan zen lanera. Lanik egin behar ez zuenean, baserrira itzultzen zen semearekin egotera.

705. Berrito ezkondu eta Zumarragara bizitzera (AZP-071/024)

8 urte alargun eman ostean, berrito ezkondu zen Zumarragako gizon batekin eta Zumarragara etorri zen bizitzera. Taberna ireki zuten orduan.

706. Casa Nicolasak Francorekin zuen harreman ona (AZP-071/025)

Casa Nicolasako nagusia oso ondo konpontzen zen Francorekin. Franco Aieten egoten zenean, Casa Nicolasatik zerbitzatzen zitzaion. Jendeak kalean Casa Nicolasako uniformeak jantzita ikusten zituenean, erizainekin nahasten zituen.

707. Franco, Felipe eta atariko lanpara (AZP-071/026)

Mariak ez zuen inoiz izan traturik Francorekin. Inork ez zuen komentariarik egiten Francori buruz. Franco Donostiako zezenketetara joaten zen Felipe de Borbonekin. Ontziak garbitzen aritzen zen Maria, eta behin puskatu egin zitzaion lanpara bat. Donostia guztian bilatu zuten antzeko lanpara bat.

708. "Viva Franco" eta erreketen tiroak (AZP-071/027)

Gaztelaniaz nola-hala moldatzen zen. 20 urte zituela, oraindik ez zekien gaztelaniaz hitz egiten. Gerra hasi zenean, "Viva Franco" esan behar zutela esan zieten, eta buruz ikasi zuten. Erreketek tiro egiten zieten menditik.

709. Gerran erreketeeekin izandako tratua (AZP-071/028)

Gerra hasi zenean, anaiak mendian ziren; etxera deitu zituzten eta ezkutatuta edukitzen saiatu ziren. Francoren aldeko soldadu bat etxean izan zuten behin. Etxeko oilo guztiak kendu zizkieten erreketeeek.

710. Tabernako gorabeherak (AZP-071/033)

Tabernan barran egiten zuen lan Mariak. Ez zuten jatekorik ematen. Tabernagiroa lehen nolakoa zen azaltzen du: kartetan aritzen ziren, langile-jendea etortzen zen gehienbat, "bar Maritxu" zen denentzat... Lehen txikiteoa egiten zen. Barrikatan ekartzen zen ardoa, handik botilara bota, eta hortik zerbitzatu egiten zuten. Emakume gutxi sartzen zen lehen tabernan.

711. Tabernako goatekeak (AZP-071/034)

Taberna ixteko garaian, udaletxeak agindutako ordua errespetatzen zen. Pare bat aldiz goatekeak antolatu izan ditu Mariak tabernan; goatekeetarako udaletxean baimena eskatu behar izaten zen.

712. Tabernako bezeroekiko harremana (AZP-071/035)

Tabernako bezeroak normalean kamioilariak izaten ziren. Berak eraman izan du negozioa alabarekin; lehen errespetu gehiago zegoen.

713. Etxea bi urtea bi aldiz erre (AZP-072/004)

Etxea bi urtean bi aldiz erre zitzaien. Suteak nola gertatu ziren kontatzen du.

714. "Kaminburu"-ko Eduardo eta don Bitoriano maisuak (AZP-073/002)

Eskolan "pargulotan" hasi zen udaletxe azpian zeuden lokaletan. Zazpi urte zituela egin zuen komunio txikia. Zortzi urterekin, bertan, herriko eskolan hasi zen. Kaminburuko Eduardo ikasi zuen irakurtzen; 11 urtetik 13ra bitartean don Bitoriano "maixu beltza"rekin ibili zen. Dotrina ez beste dena erdaraz ikasten zuten. Irakasleak euskararik jakin ez arren dotrina euskaraz galdetzen omen zien.

715. Aitaren lantegira lanera (AZP-073/003)

Iñakiren aitak egur lantegia zuen beste bazkide batzuekin batera; "Fábrica de muebles Garitano Alberdi" zuen izena. 14 urte egiterako, San Inazio ondorenean, aitaren lantegian hasi zen lanean.

716. Maristetan marrazketa ikasten gezurra esanda (AZP-073/004)

Aitaren lantegian "pintxe" lanetan hasi zen. Maristetan marrazketa ikasi zuen; eskola horietara joateko 14 urtetik gogora eduki behar ziren, eta Iñakik egiteko zituenez, gezurra esanda hasi zen. Marrazketan ondo moldatzen zela dio.

717. Lanean sortu musikarako zaletasuna (AZP-073/005)

Tailan aritu zen aitaren lantegian. Mahai handi baten inguruan zortzi lagun aritzen ziren lanean, eta han ikasi omen zuen kantuan. Han sortu zitzaion musikarako zaletasuna. Gero, Joxemai Flako "Alemana" lankideak tentatuta hasi zen solfeoa ikasi eta bandan klarinetea jotzen.

718. Zaharregia tripletarako (AZP-073/006)

Lanera joan aurretik egunero joan ohi zen jesuitinetan Julian Barrenetxeak zazpi terdietan ematen zuen mezara. Behin, Barrenetxeak zenbat urte zeuzkan galdetu zion Iñakiri. 14 urte zituen; "zahartxue... tripletako!". Maristera joan ohi ziren tripletarako mutil bila, baina herriko eskolara ez.

719. Musika bandan hasiberria (AZP-073/007)

Pako Gurrutxaga musika bandako zuzendari zela sartu zen Iñaki Azpeitiko bandan; 16 urte zituen. Otsailean hasi eta San Inazioetan jo zuen lehenengo aldiz klarinetea bandarekin. Bandarekin hasiberrian bizitako pasadizoak kontatzen ditu.

720. Banda desegin zenekoa (AZP-073/010)

Iñaki musika bandan hasi eta urtebete ingurura banda desegin egin zen. Musikariek ehuneko ehuna eskatzen omen zuten; hilea 20 duro. Udalak erdian eman nahi zien, eta horrela, bandan zuzendaria bakarrik gelditu zen. Zuzendaria pixkanaka-pixkanaka jendeari bandara joateko hots egiten hasi eta urte hartako koroatzerako banda osatu zuten.

721. Pazko bigarrenez Loiolara (AZP-073/012)

Pazko bigarrenean musika banda Loiolara joan ohi zen jotzera goizeko zazpietako mezara. Meza bukatu ondoren hiru bat pieza jo eta sakristian mokadutxoa izaten zuten; gailetak eta anisa. Loiolatik Madalenaraino kalejiran joan ohi ziren gero. Behin Madalengan zirela, beste pieza batzuk jo eta mokadutxoa ematen zien. Behin baino gehiagotan joan omen zen anisa edan eta Eskuztara lo egitera; 17 urte zituen artean eta.

722. Erdi kalean pilotan (AZP-073/013)

Umetan Erdi kalean jolasten zuen. Etxeetako pareten kontra jolasten zuten pilotan, debekatuta zegoen arren. Erdi kalean ez zen trafikorik izaten; noizean behin Damaso Azkue lantegiko kamioia pasatzen zen soilik. Jendea bizikletaz ibiltzen zen. Sokadantzan, "zapoketan", "kinkirriñean"... jolasten zuten neska zein mutil. Amu aldera joaten zen igeri egitera.

723. Estraperloko ogi zuria eskaileratan (AZP-073/015)

Iñakiren aita baserritarra zen eta lantegiaren atzealdean baratzea zeukaten. Patatak, berdurak, txermenak... biltzen zituzten bertatik. Ez zuten goserik pasatu, baina ogia errazionamenduan zegoen eta hura jateko gogoa izaten zuen. Etxepean okindegia zegoen, eta Iñakiren portalean gordetzen zuten estraperloko ogi zuria. Ogia hartzeko tentazioa izaten zuen.

724. 'Sakabi'ri solfeatzen (AZP-073/020)

Faustino Azpiazu Sakabi soinu-jotzaileari musika piezak irakasten aritu zen. Sakabik ez zekien solfeorik eta Iñakik, berriz, ez zekien soinua jotzen; hala, notak banan-banan abesten zizkion trikitilariari. Gero, hark soinuarekin jotzen zituen, pieza atera arte. Sakabi azkarra zela eta soinua jotzeko hatz egokiak zituela dio.

725. Soldadutza amaitzean penatan etxera (AZP-073/023)

1955an Donostian egin zuen soldadutza. Donostian, Loiolako kuartelean eta Orio gainean, instrukzioak egiten, egon zen. Sei hilabete egin zituen soldadutzan. Azkenerako penatan bueltatu zen etxera.

726. Azkoitira dantzara (AZP-073/024)

Azpeitiko musika bandak hamabostean behin jotzen zituen "bailableak" plazan. Bandarekin jotzen ez zuen igandetan, Azkoitira joaten zen dantzara; han ikasi omen zuen dantzan. Azkoitiko andregai bilatu zuen.

727. Urrestillara neska-laguntzera (AZP-073/025)

Komunoron erromeria egiten zen. Bolatokia ere ba omen zen bertan. Erromeriatik bueltan, Urrestillara egin zuen neska-laguntza kontatzen du. Bidean txakur bat zaunkaka hasi eta tokian bertan agurtu omen zuen neska.

728. Pelaioak eta anaiaren danborra (AZP-074/002)

Gerra garaian, mutil gazteak pelaioetan ibiltzen zirela kontatzen du. Bere anaietako batek danborra jotzen zuen, eta danborraren uztaiak metalezkoak ziren. Joxinek danborra desmuntatu eta piezak saldu egin zituela kontatzen du.

729. Eskolara joatea baino nahiago... (AZP-074/003)

"Mixikordian" eta aristetan egin zituen ikasketak. Ez zitzaion eskolara joatea gustatzen, eta bera eta beste ikaskide batzuk eskolatik bota zituztela kontatzen du. Maristetatik kanporatuta, herriko eskolan hasi zen. 15 urte zituela lanean hasi zen.

730. Zaragozako katedralera lanera (AZP-074/004)

16 urte egiteko zituela, Zaragozara joan zen. Zaragozan hiru hilabete egin zituen hango katedralean lanean. Orduko pasadizo bat kontatzen du.

731. Maristetan egindako gaiztakeriak eta zigorrak (AZP-074/005)

Maristen eskola non zegoen eta nolakoa zen azaltzen du. Eskolan egindako gaiztakeriak eta irakasleek zer zigor jartzen zizkieten kontatzen du.

732. 15 urtean soka-mutil (AZP-074/006)

Sokamuturrari buruz hitz egiten du. 17-18 urte zituela hasi zen soka-mutil moduan ateratzen, eta 15 urte egin zituen eginkizun horretan. Zezenarekin zer ibilbide egiten zuten, pilotalekuan zezena nola ibiltzen zen... azaltzen du.

733. Zezena etxe barruraino (AZP-074/007)

Zezena pilotalekuan zebilela, Ilunpe elkarteko karreran sartu eta lehenengo solairura igo zela kontatzen du. Etxekoak, zarata sumatuta, atea ireki eta zezena barrura sartu omen zen.

734. Zezenak plazan harrapatu (AZP-074/008)

Artean soka-mutil hasteko zela, zezenak plazan harrapatu zueneko kontatzen du. Praka gabe utzi omen zuen.

735. Inauterietan, zezenarekin festa (AZP-074/009)

Inauterietan mozorrotzea gustuko izan du gaztetatik. Frankismo garaian, mozorrotzea galarazita egon zen, baina Azpeitian zezena beti atera ohi zen, eta horrek, festa sortzen zuen.

736. Astoarekin txikiteora (AZP-074/010)

Inauteri batzuetan, astotegian proba bat antolatu zuten astoarekin egiteko. Probaren ondoren, astoa txikiteora eraman zuten, eta astoarekin izandako gorabeherak kontatzen ditu.

737. Neskaz jantzita zezenean (AZP-074/011)

Frankismo garaian, inauterietan mozorrotzea galarazita zegoen, baina Joxin eta lagun talde bat neskaz jantzi zirenekoa kontatzen du. Zezenean ibili ziren gomak jantzita. Udaltzainekin gorabeheraren bat izan zuten.

738. 'Oro norte' eta 'Leon' zerbezak (AZP-074/013)

Aguazilekin inauterietan izandako gorabeherak kontatzen ditu. Inauterietan 'Oro norte' eta 'Leon' zerbeza markak zirela eta, herrian sortutako liskarra kontatzen du.

739. Zezenik ateratzen utzi ez (AZP-074/014)

Astelehen karnabal batean ez zuten utzi zezena ateratzen.

740. Sokamuturrerako afizioa (AZP-074/015)

Lehen, jende asko ibiltzen zen sokamuturrean. Azpeitian, sokamuturrerako afizioa aspalditik dagoela dio.

741. Oinatz bailarako zezenketak (AZP-074/016)

Oinatz bailaran antolatutako zezenketa batzuei buruz hitz egiten du. Itxitura nola egin zuten, kapoteak nondik lortu zituzten... kontatzen du.

742. Oinatz bailarako zezenketak II (AZP-074/019)

San Joanetan Oinatzen egiten zituzten zezenketetan ez zuten zezenik hiltzen.

743. Aurreneko danborradan ateratakoa (AZP-074/021)

Aurreneko danborradan irten zen. Bi talde atera ziren: Inpernu eta Iraurgi. Inpernuoak sukaldariz jantzita atera ziren; eta Iraurgikoak, berriz, Napoleonez. Hirugarren talde bat suhiltzailez jantzita atera zela kontatzen du.

744. Festazalea (AZP-074/023)

San Sebastian egunari, lehen, "gazteen eguna" esaten omen zitzaion. Umetako oroitzapenak kontatzen ditu. Herrian festa baldin bazen, Joxin han izaten omen zen.

745. Ceutara soldadu (AZP-074/024)

Ceutan egin zuen soldadutza. Soldadutzako kontuak aipatzen ditu.

746. Lasterketa-apustua (AZP-074/026)

Soldadutzara joan aurretik egindako lasterketa-apustu bat kontaktzen du. Apustua jokatu gabe irabazi omen zuen.

747. Soldadutzako kontuak (AZP-074/027)

Soldadutzako kontuak aipatzen ditu. Urte eta erdi egon zen Ceutan soldadutza egiten. Gabonetan, 20 eguneko baimena eman zioten etxera joateko. Azpeitiko Euskal Jai egunean lizentziatu zen.

748. Uda partean Aizarnako baserrira (AZP-075/003)

Eskolan jesuitinetan ibili zen hasieran, eta zortzi urterekin maristetara joan zen. Opor garaian, Aizarnako Aranguren baserriko senideengana joaten zen baserriko lanetan lagundu eta "tripa betetzera"; kalean gosete handia baitzegoen.

749. Tropak Aizarnara sartu zirenekoa (AZP-075/004)

Aizarnako Aranguren baserrian zegoen 1936ko irailaren 19an, San Pelaio ermitatik goitik behera tropak sartzen ikusi zituen. Arratsaldeko ordu bi eta erdiak ziren, eta etxeok lo-kuluxka egiten ari ziren soldaduak agertu zirenean. Bi batailoik inguru haiek nola hartu zituzten kontaktzen du. Tropa horiek zer ibilbide egin zuten azaltzen du: bata, Altzolatik Granadaerrekara jaitsi eta handik San Pelaio gainera igo zen; eta bestea, berriz, Iturriotz aldetik Etumetara joan, eta handik Zestoara jaitsi zen.

750. Gerra garaiko giro politikoa (AZP-075/005)

Azpeitian nazionalistek irabazten zituzten hauteskundeak. Azkoitian, berriz, karlistek. Herrian tropak sartu zirenean, karlistak agintean jarri zirela azaltzen du.

751. "Pelaio"-ekin soldadu (AZP-075/006)

Gerra denboran, 2.000 soldadu galiziar egon ziren Azpeitian. Soldaduek San Agustingo elizan egiten zuten lo. Logelak libre zituzten etxeetan ere lo egin ohi zuten soldaduek; Joxeren etxean bi soldaduk lo egiten omen zuten. Umea zela, CEDAtan, falangistetan eta "pelaio"etan izena ematen saiatu zen, soldaduen uniformeak erakarrita. "Pelaio"ekin Zarautzera desfilatzera joan zeneko pasartea kontaktzen du. Gibert zenarekin eta Saturno Eliasekin instrukzioak egitera joaten ziren Eskuztara. Joxek 10 urte zituen orduan.

752. Eskola kontuak: tiragoma eta "sekantea" (AZP-075/008)

Jesuitinetan neskak eta mutilak banatuta ikasten zuten. Maristetan, ostera, mutilak bakarrik zeuden. 14 urtera arte ibili zen maristetan. Eskolan, Cara al Sol abestu behar izaten zuten. Ikasgela Francoren horma-irudiz beteta omen zegoen, eta Joxe haiei tiraka aritzen zen "sekantea" (xukagarria) eta tiragomarekin.

753. Tiragoma eta irakaslearen begia (AZP-075/009)

Oñtzko ikaskide batek tiragomarekin zerbait bota eta irakasleari begian jo zioneko pasadizoa kontaktzen du. Denek Joxe izan zela esaten zuten, baina ez omen zen bera izan.

754. Makinaz idazten ikasten (AZP-075/010)

Makinaz idazten ikasi zuen. Eskolan ikasitakoak aipatzen ditu: hiruko erregela, erro karratua, erro kubikoa... Zigorak nolakoak izaten ziren azaltzen du. Orduan, eguerdietan zigortuta gelditzen baziren "sin comer" esaten zioten; jan gabe uzten baitzituzten. Eskolako kontuak aipatzen ditu.

755. "Kotxeratan" 13 urtean (AZP-075/011)

Aurrena, Imaz egur lantegian hasi zen lanean. Urtebetean "pintxe" lanetan aritu zen, eta gero, tailan. Lau urte egin zituen lantegi horretan. 19 urterekin, berriz, "Muxugorri"-ren lantegira joan zen beste lagun batekin batera. Soldadutza egin eta lantegi horretara itzuli zen. 27 urte zituela Urola tren-estazioko "kotxeratan" (garajea), bagoiak konpontzen eta mantenu-lanetan hasi zen. 13 urte egin zituen eginkizun horretan. Handik Euskalduna kooperatibara joan zen lanera, eta erretiroa hartu bitartean Danonan aritu zen.

756. Donostian, Lezon eta Beran soldadu (AZP-075/012)

Soldadutzan, lehenengo, Donostian egon zen, eta gero, Lezora bidali zuten. Lezon soldadu zela Guadalupe gainera doan bidean aritu zen lanean. Handik, Nafarroara, Berara, joan ziren eta metrailadore-tokiak eta gerra-gurdien aurkakoak egiten aritu zen.

757. Pirinio aldera maniobratara (AZP-075/013)

Soldadutzan Pirinio aldean ibili zen maniobratan. Egunean 30 kilometro egiten zituzten oinez. Maniobratara joan aurretik Irunen mando bana eman zien soldaduei. Joxek zorte txarra izan zuen mandoarekin. Guadalupen lizentziatu zen.

758. Diru kontuak (AZP-075/014)

Diru gutxi ibiltzen zuten, baina aukera zenean parranda egiten zuten. Zazpi eguneko oporrak hartzen zituzten eta hirugarren egunerako lanean hasi behar izaten zuen, zeuzkan diru apurrak gastatu zituelako.

759. Etumetako erromeriatik bueltan (AZP-075/016)

Etumetako erromerian soinujolea, bertsolariak eta aizkolariak egoten ziren. Behinola, Etumetan merienda legea eta dantzan ibili ondorenean, etxera bueltan, ekaitzak arrapatu zitueneko pasadizoa kontatzen du. Apreten zorua gasta-gasta eginda itzuli zen etxera. Santa Engrazin eta "Orkazarre"-n (Orkazagirre) ere erromeriak egiten ziren.

760. Iganderoko erromeria Orkazagirren (AZP-075/017)

Odria auzoko "Orkazarre" (Orkazagirre) baserrian taberna zegoen eta erromeria izaten zen igandetan. Auntsa soinujole urrestildarrak girotu ohi zuen dantzaldia. Errezildarrak Zurrnzolako erromeriara joaten omen ziren. Etumetan urtean bi-hiru aldiz egiten ziren erromeriak.

761. Bi begiko aurpegia tailatzen (AZP-075/021)

Tailan ez omen zen oso trebea. Panelak, aulkiak... tailatzen zituzten. "Muxugorri"-ren lantegian lan egiten zueneko pasadizo bat kontatzen du: bi begiko aurpegi bat tailatu behar zen armairu bateko friso baterako, eta inor ez zen ausartzen lan hori egiten. Joxek hartu zuen lan horren ardura.

762. Txistea: "Molinero" (AZP-075/023)

Neska ezkonberri bati amak eztei-bidaian zer moduz ibili den galdetzen dio. Alabak amari esaten dio senarra sexu-kontuetan oso abila dela; "moliner" delakoa dela ederrena...

763. Txistea: "Erraldoiak Aizpurutxora" (AZP-075/024)

Aizpurutxoko festei buruzko txiste bat kontatzen du.

764. "Lau parolen gaiñian, bi makilla gora, okotzen bizarra..." (AZP-075/025)

Zumaiako arrantzaleak Zestoara joan ohi ziren arraina saltzera. Gero, Aizarnara joaten ziren han saltzen ez zuten arrainarekin. Inguruko baserrietara ere joaten ziren. Santa Engrazira bidean dagoen lehenengo baserrian, zumaiar haiek ikusitakoa kontatzen du: "Lau parolen gaiñian, bi makilla gora, okotzen bizarra, hanka arten poltsa... Zer dek hori holakua?".

765. Xaboa eta arrautzak (AZP-076/002)

Lehen xaboa etxean egiten zuten. Arrautzak karetan nola kontserbatzen ziren azaltzen du.

766. Amu baserrian jaioa (AZP-076/004)

1939ko irailaren 18an jaio zen Amu baserrian, amaren jaiotetxean. Aita gerrara joan zenean, kalean zuten etxea kendu zioten amari, eta baserrira bueltatu behar izan zuen.

767. Aita libre, baina etxean ezkutatuta (AZP-076/005)

Begoñaren aita nazionalisten bandoan ibili zen gerran. Gerra bukatu, eta denboratxo bat preso egin zuen. Libre utzi zutenean, ordea, baldintza batzuk jarri zizkieten: hiru urtean ezin zuen etxetik irten, eta ezkutuan egon behar zuen; karlistentzat egin zezakeen lana soilik.

768. Askatasunik ez (AZP-076/006)

Miserikoan ibili zen eskolan, 18 urtera arte. Eskolaz kanpo, frantsesa ikasi zuen. Lehen, igande eguerdira arte lan egiten zen. Igandetan, mojekin meza nagusira joaten zen. Etxean bazkaldu, eta arratsaldean Loiolara joaten ziren mojekin. Loiolatik bueltatutakoan, funtzioa izaten zen.

769. Pelikulen kalifikazioak (AZP-076/007)

Zineman botatzen zituzten filmek kalifikazioa izaten zuten. Soreasun zegoen zinema; beranduago ireki zuten Zelaixo.

770. Astero konfesatu behar (AZP-076/008)

Astero, ostegunetan konfesatu behar izaten zen. Hileko lehen ostiralean, eskolatik parrokiara joaten ziren konfesatzera. Konfesioetako gorabeherak kontatzen ditu.

771. Bordeletik Telefonicara (AZP-076/009)

Batxilergo mailako ikasketak egin, eta Bordeleko ikastetxe batera joan zen hizkuntzak ikastera. Han, bi ikasturte egin zituen. Amaren osasun-arazo bat zela medio, Azpeitira itzuli eta Telefonican hasi zen lanean.

772. Bordele, frantsesa eta aita (AZP-076/011)

Bordelen oso gustura egon zen. Frantsesa ondo menperatzen zuen. Etxean, aitarekin frantsesez aritzen zen. Begoñaren aita praktikantea zen. Aitak zer ikasketa zituen kontatzen du.

773. Tucuman hiriko titulutik, 'Trukuman' (AZP-076/012)

Trukuman ezizenaren jatorria zein den kontatzen du. Tucuman (Argentina) hiriko gobernadorea Zestoako bainuetxean zen gaixotasun bat sendatu nahian. Bainuetxean zela, Begoñaren aitona belarrekin aritzen zela jakin, eta harengana jo zuen sendatzeko asmotan. Gobernadoreak, esker onez, Tucumango hiriaren ohorezko titulua eman zion Begoñaren aitonari. Beraz, Tucumanetik dator Trukuman. Baserria Trukuman izenez ezagutzen bada ere, Palankadi da.

774. Aitona petrikiloa zen (AZP-076/013)

Begoñaren aitona petrikiloa zen, eta haren arreba ere bai. Ukenduak etxean prestatzen zituzten. Belarrak, berriz, Bartzelonako San Juan belar-dendatik ekarri ohi zituzten.

775. Telefonican, telefono-operadore lanetan (AZP-076/014)

Telefono-operadore lanetan aritzen zen Telefonicaren Azpeitiko egoitzan. 200 emakume aritu ziren Azpeitiko egoitzan lanean. Egiten zuten lanari eta lantegiari buruzko zehaztapenak ematen ditu.

776. Telefonica: lan motak eta grebak (AZP-076/015)

Teleficaren Azpeitiko egoitzan zer lan egiten ziren azaltzen du: formazioak, fakturazioak, errenta aitorpenerako agiriak, datu-prozesaketak... Lana beste egoitza batzuetara ez eramateko grebak egin zituztela aipatzen du.

777. Itsasontzietako deien fakturak (AZP-076/016)

Azpeitiko Telefonicaren egoitzan egiten ziren "itsas zerbitzua" esaten zioten lanak. Itsasontzietatik egiten ziren telefono-deien fakturak eta bertatik pasatzen ziren itsasontzienak egiten zituzten.

778. Etxeetako telefono-fakturak (AZP-076/017)

Etxeetako telefono-fakturak nola egiten ziren azaltzen du.

779. Telefonicako ordenagailuak, lan-baldintzak eta eginkizunak (AZP-076/019)

Lanaren modernizazioaz hitz egiten du. 1975ean hasi ziren lana ordenagailuz egiten. Ordura arte, konferentzia jar zezaketen soilik. Lan-ordutegiaz eta oporrez hitz egiten du. Zer sailetan egin zuen lan kontatzen du. Telefonicaren Bilboko eta Donostiako egoitzetan ere ibilia da lanean.

780. Lanean ezin euskaraz egin (AZP-076/020)

Lanean ez zioten uzten euskaraz hitz egiten.

781. Gabonetan, lan asko (AZP-076/023)

Gabonetan lan asko izaten zuten. Urteberri egunean, lan asko izaten zen, eta beti izaten zen arazoren bat: fusibleak erre...

782. Telefono-operadore lanaren fama (AZP-076/026)

Telefono-operadore lana gogorra zela dio, nahiz eta lan errazaren fama izan.

783. Goizeko txanda eta egutegia (AZP-076/029)

Goizeko txandan edo arratsaldekoan aritzen zen lanean. 25 urte egin zituen goizeko txandan lanean, eta gogorra egiten zitzaion. Arratsaldeko txanda gustatzen zitzaion. Otsailerako urte osoko oporren egutegia entregatu behar izaten zuten.

784. Trukuman baserria (AZP-076/032)

Trukuman baserria Aizarnako azkenengo baserria da. Lasao, Aizarna, Zestoa eta Azpeitiko mugen artean dago baserria.

785. Begoña izenaren gorabeherak (AZP-076/033)

Begoña izena zergatik jarri zioten kontatzen du. Familian, izen hori jarri izanak zer gorabehera sortu zituen kontatzen du. Azken momentuan, zozketa egin zuten zer izen jarri erabakitzeko.

786. Balkoitik salto eginda, goizeko zezenera (AZP-076/038)

Aitari ez zitzaion gustatzen seme-alabak zezenean ibiltzea. Lehenengo solairuan bizi zirenez, balkoitik salto eginda joan ohi zen Begoña goizeko zezenera.

787. Lasako eskola (AZP-077/002)

Azpeitiko Lasao auzoko Badiolegi baserrian jaio zen. Baserria eskolatik 2 kilometro ingurura zegoen, eta hara oinez joan ohi zen. Lasako eskolari buruz hitz egiten du. Negu partean bazkaria etxetik eraman ohi zuen. 30 ikasle inguruko eskola omen zen.

788. Sakamantekas-en kontuak (AZP-077/003)

Eskolatik etxera bidean inoren automobilean ez sartzeko esaten zioten. Sakamantekasen kontuak entzun eta beldurra izaten zuen. Eskolatik etxera bidean zer entretenimendu izaten zituzten aipatzen du; marrubiak biltzen, pilotan jolasten... aritzen ziren.

789. Badiolegitik kalera (AZP-077/004)

11 urte zituela Enparan Gaingo baserri batean egon zen bizitzen familia denbora batean. Handik Eliz kalera joan ziren. Behin Azpeitian bizi zela "mixikordira" joaten zen eskolara. Juanitarentzat aldaketa handia izan zen, eta ez zuen eskolara joateko gogorik izaten. Eskolara joan baino nahiago izaten zuten mendira loreak biltzera joan. Umetako kontuak aipatzen ditu.

790. Umetako jolasak (AZP-077/005)

Umetako jolasak aipatzen ditu: "arrakaskate"-n, kaniketan, sokadantzan, mozorroketan, tortoloxetan... Etxean ez zuen jostailurik izan.

791. Umetako kontuak (AZP-077/006)

Erregetan zer opari jasotzen zuten azaltzen du. Neguan elurra egin zuelako eskolara joan gabe geratzen zirenean, txoriak harrapatzen aritzen zen anaia zaharrenarekin. Igandetan ez zen zinera joaten, baina asmatzen zuten nola entretenitu.

792. Ikasi nahi ez, eta baserrira lanera (AZP-077/007)

13 urterekin utzi zuen eskola. Aurretik ere ez zen asko joaten eskolara, eta hori horrela, anaiaren baserrira lanera bidali zuten. Baserriko lanak aipatzen ditu; artoa eta garia lantzen zuten. Itulan ere aritzen zen.

793. Jan kontuak (AZP-077/009)

Goizetan, baba gorria jan ohi zuten. Garbantzukak, berriz, igandetan jaten zituzten. Txerriak ere jaten zuten. Juanitaren amak beheko suan egin ohi zituen taloak. Etxean ez zuten urik. Ganadu haragia noizean behin jaten zuten.

794. Bi eguneko ezteiak (AZP-077/010)

Sasoi batean, ezteiak bi eguneko ospakizunak izaten omen ziren. Anaia zaharrena baserrira ezkondu zeneko oroitzapenak kontatzen ditu Juanitak. Etxekoak, auzokoak eta lagunak biltzen ziren ezteietan.

795. Lixiba (AZP-077/011)

Lixiba nola egiten zen azaltzen du. Juanitaren ama ibaira joan ohi zen lixiba egitera. Enparan Gainen bizi zirenean, berriz, baserri atarian zegoen askan garbitzen zituzten arropak.

796. Etxean egindako xaboia (AZP-077/012)

Juanitaren amak etxean egin ohi zuen xaboia txerri-gantza eta soda kaustikoarekin. Ez zen xaboi apartsua izaten. Arropak lehertzeko zintzilikatu egiten zituzten; kanpotarrek, berriz, belarretan lagatzen zituztela dio.

797. Labesuan egindako ogia eta sagar eta patata erreak (AZP-077/014)

Labesuan aste guttirako ogia egiten zuten. Ogia egiteaz gain, sagarrak eta patatak kazola batean jarri eta labean sartzen zituzten brasatan egin zitezen. Jaki horiek "oparia" zirela dio Juanitak.

798. Txapa fabrikara lanera (AZP-077/015)

Eskola utzi eta txapa fabrikara hasi zen lanean. Egur lantegi horretan zer lan egiten zuen azaltzen du.

799. Donostiara neskame (AZP-077/016)

Donostiara neskame joan zen. Sukaldeko lanetan eta garbiketetan aritzen zen Gurutze Gorriak Ondarretan zuen egoitzan. Etxetik kanpora joaten zen lehenengo aldia zuen, eta orduko oroitzapenak kontatzen ditu.

800. Zumaiako herriko hondartzeko oroitzapenak (AZP-077/017)

Umetan Zumaiako herriko hondartzara joaten zireneko oroitzapenak kontatzen ditu. Bainujantziak zintzilik egoten ziren nahi zuenak alokatzeko. Bainua hartzeko soka batekin jaitsi behar izaten omen zen uretara. Juanitak ez zuen bainujantzirik eta arrokekin bainatzen zirela dio.

801. Gurutze Gorrian neskame (AZP-077/018)

Uda sasoian joan zen neskame Donostiara. Gurutze Gorriak Ondarretan zuen egoitzan egon zen neskame. Erlijio kontuak aipatzen ditu.

802. Erlijio kontuak (AZP-077/019)

Umeek igandetan apaizari aurreztutako dirua ematen zioten, eta gero, hark sartzen omen zuen diru hura aurrezki kutxan. Konfesatzera joaten zireneko kontuak aipatzen ditu: esne "tela" harrapatu zuela, amari txokolatea kendu ziola, sagar-lapurretan ibili zela lagunekin... esaten omen zituen konfesatzerakoan.

803. Festak eta mutilekin dantzak (AZP-077/020)

Landetako festetara etxean ezer esan gabe joan zenekoa kontatzen du. Mutilekin dantza egiteagatik etxean errieta jasotzeko beldurra izaten zen.

804. Landetako festak (AZP-077/022)

Landeta auzoa nolakoa zen eta hango festak nolakoak izaten ziren azaltzen du. Kaxionaren erromeria gogoratzen du.

805. Trena ezkutuan hartu behar (AZP-077/023)

Trenez joan ohi zen igandetan Azkoitira lagunekin. Estaziotik gertu bizi arren, etxean ez zuen ezer esaten. Trenean ezkutuan joaten omen zen.

806. Zinera joateko dirurik ez (AZP-077/024)

Xoxote eta Oinatz aldera arratsaldetan egiten zituzten mendi bueltak aipatzen ditu. Zuhaitzetatik fruituak harrapatzen zituzten. Jatekorik ez zuten faltarik izan, baina ez dirurik izaten arropak eta oinetakoak erosteko. Ez zuen zinera joateko dirurik, baina besteei filma nolakoa izan zen galdetzen zien, eta gero, haren ideia eginda, bera ere zinean izan zela esaten omen zuen.

807. Inauterietako zezena (AZP-077/025)

Inauterietan pilotalekuan izaten ziren zezenak. Zezenak librean ibiltzen ziren. Mozorrotzea debekatua zegoen. Herriko mutil batzuk neskaz janzten ziren, eta udaltzainak atzetik izaten zituztela dio. Juanita eskolatik irten eta gero zezenera joaten zen. Elizkizunak ere izan ohi ziren.

808. Herriko denda eta tabernak (AZP-077/026)

Garai batean herrian zeuden janari-dendak aipatzen ditu. Harategi eta taberna dezente omen zegoen.

809. Aste Santuko kontuak (AZP-077/027)

Aste Santuan prozesioak izaten ziren. Juanita ez zen prozesioan ibiltzen, baina ikustera atera ohi zen. Bazkal ondorenean, kristoren zazpi hitzak, eta iluntzean, berriz, ordu santua izaten ziren.

810. Herritik kanpora egindako irteerak (AZP-077/030)

Gaztetan aukera gutxi izaten zen herritik irteteko. Juanitak anaia bat Legazpin bizi zuen eta hango festetara joan zenekoa ondo gogoan du. Uda partean, lagunekin Urola tren hartu eta Zumaiara joan ohi zen noizean behin. Lehengo eta oraingo garaiak alderatzen ditu.

811. Arropa garbiketa eta lixiba (AZP-077/031)

Arropak eskuz nola garbitzen ziren azaltzen du. Amu baserrian sutarako hautsarekin lixiba nola egiten zuten gogoratzen du.

812. Arropa konponketa (AZP-077/033)

Emakumeak arropa konponketan aritzen ziren. Lanerako arropak, eskolako galtzerdiak... konpontzen zituzten.

813. Txapa fabrika eta altzarigintza (AZP-077/034)

Txapa fabrian emakumeak aritzen ziren lanean gehien bat. Makinetan, ordea, gizonezkoa jarduten zuten. Emakumeek lan arinagoa egin ohi zuten. Garai bateko altzarigintza nolakoa zen azaltzen du. Altzariak kanpora eramateko trenaz baliatzen ziren.

814. "Oriyo"-neko etxea eta inguruak (AZP-078/002)

Azpeitiko "Oriyo"-neko etxea esaten diotenean jaio zen. Gaur egun Joan XXIII kalea da, baina Eskarne jaio zenean "Arrabal de monjas" izena zuen. Inguru horretan bakartuta zegoen etxea zen, ez zen beste etxerik inguruan. "Arrabal de monjas" kalea nondik nora zen azaltzen du: astotegian hasi, Frantziskanetako komentua, Enparan dorretxea, Belokineko etxea (gaur egun Arauntza elkarte dagoen ingurua) eta "Oriyo"-nekoa.

815. Eskarne izenaren nondik norakoak (AZP-078/003)

Eskarne izena zergatik jarri zioten azaltzen du. Bere amonak Mercedes izena zuen eta aitak amonaren euskal izena batzokian lortu eta jarri ziola dio. Gerra aurretik familiar euskal izenak zituztela dio. Euskal izena zuelako eta moja batekin izan zituen tirabirak kontatzen ditu.

816. 14 urtera arte jesuitinetan (AZP-078/004)

Prefektua zer den azaltzen du. Eskolan jesuitinetan ibili zen. Erdaraz ikasten zuten. Goizean ikasi eta arratsaldean laboreak egiten zituzten. 14 urtera arte ibili zen eskolan.

817. Asteburuetan meza nagusia eta parrokiako zinea (AZP-078/005)

Eskola garaian larunbat eta igandetan ere eskolara joaten ziren. Igande goizetan meza nagusira joaten ziren mojekin. Handik bueltan, etxean bazkaltzen zuten, eta arratsaldean mojekin paseoan ibiltzen ziren. 12-13 urterekin parrokiako zinera joaten ziren. Herrian bazen beste zinema areto bat: Luminor. Areto hori, ordea, 16 urtetik gorakoentzat omen zen.

818. Gosea eta jenero falta (AZP-078/007)

Gose garaian, etxe bakoitzean kartila bat izaten zen, eta janaria errazionatuta ematen zuten. Dendetan ere ez zen nahikoa janari egoten eta ilaran egon behar izaten jeneroa eskuratzeko.

819. Litro olioia 20 duro (AZP-078/008)

Umea zela amonak oliotara bidali zueneko pasadizoa kontatzen du. Erdi kaletik Eliz kalera bitarteko kantoian dendak zeuden, eta horietako batera bidali zuen amonak. Olorik ez zegoela esaten bazioten bertan zain gelditzeko esan zion amonak. Eskarne dendatik joaten ez, eta holako batean behintzat, bete zioten botila olioiz. Eskarnek dendariari hogeiturokoa eman zion eta hark ez zion dirurik itzuli. Etxera itzulitakoan amona ezin sinetsita zegoen ez ziotelako bueltan dirurik eman; "sasoi hartan litro olioia 20 duro pagatzea zen... bueno!".

820. Olio preziatua (AZP-078/009)

Azpeitian denda dezente zeuden errazionamenduan ematen zutenak. Ogia, olioia, azukrea, potajea... errazionamenduan egoten ziren. Olioia oso preziatua zen. Jenero falta handia zegoen. Babak esne-gainarekin jaten omen ziren, oliorik ez zegoelako.

821. Estraperloko txerriak (AZP-078/010)

Urtero hiltzen zuten txerria, estraperloan bada ere. Bazkaritan babak jaten zituzten, eta gainean, bada, odolkia, urdaia edo txorizoa. Noizean behin arraina jaten zuten. Gozokiak oso noizean behin izaten omen ziren.

822. Enparan kaleko kooperatiban dendari (AZP-078/011)

18 urte zituela Enparan kaleko kooperatiban, janari-dendan, hasi zen lanean. Zortzi urtean aritu zen bertan dendan; ezkondu bitartean. Garai hartan jendea oso justu bizi omen zen. Jendeak astero kobratzen zen "kintzena", eta dendan jende gehien larunbat iluntzetan eta igande goizetan izaten zutela kontatzen du.

823. Ezin baltsa dantzatu (AZP-078/014)

25 urte zituela ezkondu zen. Bandak plazako kioskoan hamabostean behin jotzen zuen; beti pasodobleak. Garai hartan, pasodoblea soltean egiten zen dantza. San Inazio jaietan "banda de brujos" joaten omen zen herrira. Haiek jotzen zituzten piezekin "baltsean" egiteko aukera izaten omen zen, baina baltsa dantzatzeko zuena kongregaziotik botatzen zuten.

824. "Baltsean" egin nahi zuen kuadrilla (AZP-078/015)

Ba omen zen herrian kuadrilla bat dantzan, "baltsean", egin behar zela esaten zebilena. Aurretik giroa berotu eta hasi ziren batzuk dantzan plazan,

baina berehala aguazilak banatu egin zituzten. Plazan egundoko iskanbila egon zela azaltzen du Eskarnek. Gauzak horrela, alkateak banda erretiratu arazi zuen. Handik bi astera bandak berriz jo zuen plazan, baina jende ez zen ausartu dantzaz egitera.

825. Erromeriak (AZP-078/016)

Urrestillako festetara joan ohi zen. Dantza lotuan egitera Elosura, Aizpuruxora edo Xoxotera joan behar izaten zen. Jendea bizikletan joaten zen erromeria horietara, baina oso jende gutxi joaten omen zen. Eskarne kalean ibili ohi zen.

826. Neska-jantzian ibiltzeagatik atxilotu zituztenekoa (AZP-078/017)

Inauterietan zezena izaten zen pilotalekuan. Urte batean, inauteri festa batzuetan hiru mutilek garbitokitik eta "Olki" tabernara arteko bidea neska-jantzian egin omen zuten. Hiru gazteak "ixpixiyora" (udaltzaingora) eraman zituzten. Orduan, gazte asko "ixpixiyo" aurrean jarri eta barruan zeudenei kantuan egon omen ziren. Ez zituzten hurrengo goizera arte askatu. Jesuitek herrian botere handia zutela dio.

827. Dantza egiteagatik alkateak kargu hartu (AZP-078/018)

Inazio Egaña alkateak, Gaztelumendi jesuiten kongregazioko zuzendariak eta udaleko hiru zinegotzik epaimahai moduko bat egin zuten plazan dantzaz egin zutenei kargu hartzeko. Bezperan gutunak bidali zizkien jendeari udaletxean presentatzeko esanez. Mutilei zein neskei egiten zien hori.

828. "Barrura" sartzeko mehatxua (AZP-078/019)

Inauterietan pilotalekukoan zezena zebilela hiru mutil neska-jantzita gertu ziren. Batzuek txaloka hartu zituzten. Beste batzuk, berriz, txistu jo zein, baina txaloak gehiago omen ziren. Lehen zerbait eginez gero "barrura" sartzeko mehatxua azkar botatzen omen zuten.

829. Osaba espetxean sartu zutenekoa (AZP-078/021)

Azpeitiko espetxeaz hitz egiten du. Gerra denboran, Eskarneren osaba bat bertan egon zen atxilotuta. Antza, osabak iloba bati egunkaria ez saltzeko esan zion eta horregatik atxilotu zuten. Lau egunera askatu zuten. Amonari kartzelari buruz entzundako kontuak aipatzen ditu.

830. Enparan Gain baserrira irteerak (AZP-078/028)

Gazte denborako irteera guztiak Enparan Gain baserrira egiten zituzten, etxetik hurre baitzuten. Han taloak, gaztainak... jaten zituzten. Umetan ez zuen gose handirik pasa.

831. Eskutrapua andaratzat (AZP-078/029)

Sokadantzaz eta "kinkirriñean" jolasten zuten. "Kinkirriñean" nola jolasten den azaltzen du. Ez zuten andarerik; sukaldeko eskutrapua bilduta ibili ohi zuten panpina moduan. Ez zuten jostailurik.

832. Ezin euskaraz egin (AZP-078/030)

Eskolan ez zieten euskaraz hitz egiten uzten. Euskaraz eginez gero zigortu egiten zituzten. Kanean ere arreta deitu izan omen diote euskaraz hitz egiteagatik. Behin Lizarran (Nafarroa) pasatutakoa kontatzen du.

833. "Kaniketan" mutilak bezala (AZP-078/031)

Tortolosean eta kaniketan jolasten zuten. Torlosean nola jolasten den azaltzen du. Kaniketan ibiltzea mutilen jokoa zela esaten zioten, lurrean botata ibiltzen zirelako.

834. Matxinbentatik Azpeitira (AZP-081/002)

Maritxu zazpi senidetan hirugarrena da. Matxinbentako Arruti baserrian jaio zen, baina zazpi urte zituela Azpeitiko Urrekasoro baserrira (Odria auzoa) joan zen bizitzera familiarekin. Azpeitian, "Mixikordian" hasi zen eskolan. Ordura bitartean ez zen eskolara joaten. Komunio txikia Matxinbentan egin zuen. Azpeitira bizitzera joan eta bi urtera Maritxuren aita hil egin zen.

835. "Mixikorditik" Esklabatara (AZP-081/003)

Matxinbentan bizi zirenean, anaia zaharrenak eskolara joaten ziren, baina bera ez. Behin Azpeitian bizi zirela, Maritxu 12 urtera arte ibili zen eskolan. Hasierako urteak "Mixikordia"n egin zituen, eta, gero, Esklabatara joan zen ikastera. Han izeba bat zuten irakasle.

836. Karidadekoan neskame (AZP-081/004)

13 urterekin neskame joan zen Karidadekora. 17 urte egin zituen han lanean. Goizean zortzietarako ogi opilak banatzen zituen Elizgarai, Elorza... eta beste hainbat familiara. Hamarrak aldera, berriz, otarra bete ogi hartu eta haiek banatzen zituen beste neskame batek lagunduta. Etxeko lanak ere egiten zituen.

837. Leka-belarra ateratzen (AZP-081/005)

Baserrian lan asko egiten zen. Urrekasoron terreno asko zen, eta hura lantzeko ganaduarekin aritzen ziren lanean. Eskolatik baserrira bueltatzean, hango lanak egin behar izaten zituzten. Uda partean, zelaitik leka-belarra ateratzen aritzen ziren. Leka-belarra zer den azaltzen du.

838. Ganadua, esne-bezeroak eta laia (AZP-081/006)

Urrekasoron sei-zazpi behi eta txahalak zituzten. Berdura etxerako izaten zen; ez zuten saltzen. Esne-bezero dezente zituzten, eta etxez etxe ibiltzen ziren esnea partitzen. Soberan gelditzen zitzairen esnea plazan saltzen zuten gero. Laiarekin lan gutxi egiten zela dio.

839. Berdura eta haragia (AZP-081/007)

Etxean zutenetik jaten zuten; baba, aza... Baba zuria gustura jaten zuten. I Gandetan, haragia jaten zuten; aste barruan, inoiz ere bai.

840. Gerra aurretik amari boto eskean (AZP-081/008)

Gogoan du militarrek Landetatik sartu eta nazionalistak herritik joan zirela. Auzokoak Maritxuren amarengana boto eskean joan ziren; gerra aurretik egin ziren azken hauteskundeak izan ziren horiek.

841. Iluntzean, Nuarbeko errotara (AZP-081/010)

Gerra ondorenean ez zuten goserik pasatu, etxean ogia egiten baitzuten. Beldurrez egoten ziren inork ezin baitzuen irinik egin. Gauetan, Nuarbeko errotara joaten ziren irina lortuko bazuten.

842. Santa Engraziko erromeria (AZP-081/011)

Erromeria gustatzen zitzaion, baina Karidadenekoan neskame zela ez zuen joaterik. Lo eta guzti egiten zuen bertan, eta ondorioz, oso gutxi ibili zen erromeriatan. Behinola, Karmen lehengusuarekin Santa Engraziko erromeriara joan zela kontatzen du. Oinez egin zuten joan-etorria eta etxeratzerako ilundu egin zitzairen. Bueltan, etxeko nagusiak errieta egin ziola kontatzen du. Hernioko erromeriara ere joan ohi zen.

843. "Tortoloxetan" (AZP-081/012)

Kanikekin, txotxekin eta tortoloxekin ibiltzen ziren jolasean. Tortoloxetan nola jolasten den azaldu du.

844. Jesuitinetako gau-eskola (AZP-081/013)

Neskame zela gau-eskolara joaten zen jesuitinetara. Baserritik kalera joandako jendea ibili ohi zen gehiena gau-eskolan. Idazten, biderketak eta zatiketak egiten... ikasi zuen.

845. Premietxeberriko auzo-eskola (AZP-081/014)

Urrekasoron ez zen auzo-eskolarik, baina Premietxeberrin bai. Gaur egun ere han omen dago eraikina.

846. Gerra osteko beldurra eta gosea (AZP-081/017)

Gerra ondorenean, beldurra pasatzen zuten. Jendearekin denbora asko hitz egiten egonez gero zelatatu egiten zituzten. Artoa, garia eta baba entregatu egin behar izaten zuten udaletxera. Gerora, errazionamendua jarri zuten; "boniataoa" (batata) ematen zieten.

847. Etxeko xaboia eta lixiba (AZP-081/018)

Urrekasoron aska handi bat zuten, eta bertan garbitzen zuten arropa. Ur-biltegia zeukaten eta nahikoa ur izaten zuten. Udan, ordea, ur asko erabiliz gero agortu egiten zen. Ura agortzen zenean Bilitinera joaten ziren astoarekin. Xaboia etxean egiten zuten. Lixiba nola egiten zen azaltzen du.

848. Arropa lisatzea (AZP-081/019)

Arropak ikatzezko plantxarekin lisatzen ziren. Karidadekoan ogia egiten zuten, eta labeko brasak erabiltzen zituzten plantxa berotzeko. Kontuz egin beharreko lana omen zen.

849. Txerrikiak eta gazi-kutxa (AZP-081/021)

Urtero hiltzen zuten txerria. Txerrikiak gazi-kutxan jasotzen zuten ondo kontserba zedin. Hamabostean behin, jeneroa nola zegoen begiratu behar izaten zen ez zedin alferrik galdu. Txorizoak eta odolkiak nola egiten zituzten kontatzen du.

850. "Karraskillo" belarra katarroa sendatzeko (AZP-081/022)

Katarroa sendatzeko "karraskillo" belarra erabili ohi zuten. Belar hori egosi eta haren ura edaten zuten hotzeria sendatzeko. Berbena-belarra ere erabiltzen zuten.

851. Aitarentzako Urrekasoro "errege-etxea" (AZP-081/023)

Urrekasoron sukalde handia zegoen. Beheko suarekin berotzen zuten dena. Normalean, urez betetako pertza eduki ohi zuten sutan. Baserrria beraiena zen; ez zuten errentarik ordaintzen. Matxinbentan bizi ziren baserriaren eta Urrekasokoaren arteko aldeak aipatzen ditu. Matxinbentakoa oso baserri aldrebasa zen, eta Urrekasorora joan zirenean aitarentzat baserri hori "palazio reala" zela dio.

852. Garai bateko Landeta (AZP-082/002)

Garai bateko Landeta nolako zen kontatzen du. Artasoro onak omen ziren Landetan. Errezoa eta lana ziren nekazarien arma.

853. Landeta erriberako azken ardiak (AZP-082/003)

Landeta auzoko Antzibarrena "Artzaikoa" baserrian jaio zen. Imanolen aitona artzain ibilia zen Izarraitzen. Landeta erriberako azken ardiak Antzibarrenakoak izan omen ziren.

854. Auzoko errotak (AZP-082/004)

Baserrian ez zuten errotarik, baina inguruan baziren bi errota: Orandaundi eta Atxubiaga. Artoa garia baino gehiago lantzen zen.

855. Bederatzi anaia eta arreba (AZP-082/005)

Familia bakoitzean 10 ume izaten ziren. Bederatzi anaia eta arreba ziren Imanolen familian. Inguruko baserrietan ere familia handiak ziren. Elizako sinesmenei buruz hitz egiten du.

856. Auzolanean egindako eskola eta maristak (AZP-082/006)

Landetan bazen "eskola zaharra" esaten zioten eskola. Garai batean, mendiko ikatzak jasotzeko biltoki zahar bat auzolanean egokitu, eta eskola jarri zuten bertan. Kaleko emakume bat joan ohi zen eskolak ematera. Zazpi urtera arte ibili zen han. Zazpi urtetik 14ra bitartean, Azpeitiko maristetan ibili zen.

857. Urola erdialdeko bertsolaritzaz (AZP-082/007)

Azpeitia aldeko bertsolaritzaren historiari buruz hitz egiten du. Urola erdialdeko azken 100 urteetako bertsolaritzaren bilakaera du hizpide. Duela 100 urte, Azkoitia izango omen zen zonaldeko eta "seguru asko Euskal Herriko" herririk bertsolariena; "bertsolari on gehien zegoena". 'Etxeberritxo', 'Urkirolei', Atanotarrak, Aldazabal, 'Otsolarre', 'Olaberritxo', 'Bixko'... bertsolariei buruz hitz egiten du.

858. Azpeitia aldeko bertsolariak (AZP-082/008)

Orain dela 80 urte Azkoitiko bertsolaritzaren indarrak Azpeitia aldera egin zuen. Garai hartan, Txapel eta Zepai koinatuak, Uztapide zestoarra, Basarri

errezildarra, Loidisaletxe anaiak... aipatzen ditu. Txillarramendi auzokoak ziren Zepai eta Txapel, eta Joxe Lizaso ere bertan egin zen bertsolari, ama bertakoa baitzuen. Francisco Iturzaeta, Patxi Kostita, bertso-jartzailea eta Korostietako bertsolariak, Artañolatarrak... aipatzen ditu.

859. Gerra aurreko bertso-giroa (AZP-082/009)

Gerra aurrean, plazan gutxi egiten zen bertsoan. Azpeiti aldeko bertsoaritzaren tabernakoa zen, eta horregatik ez zegoen garai hartan emakume bertsoaririk. Emakumeak debekaturik baitzuen tabernara sartzea. Hitzarekin jolas baino, hitzarekin "borroka" egiten zuten; "azkena zein isildu, oilar gisa aritzen ziren". Horregatik, jende ikasiaren artean bertsoaritzaren gaizki ikusia zegoen, "mozkorren festa" esaten zioten.

860. Bertsoaren bilakaera: tabernatik antzokira (AZP-082/010)

1920ko hamarkadan, Manuel Lekuona apaizak Oñatin bertsoaritzaren aldeko agerpena egin zuen. Aitzol lagun zuela, 1935eko Txapelketa antolatzen zuen. Txapelketa hartako finalean parte hartu zuten, besteak beste: Basarri (txapelduna), Uztapide, Txapel, Zepai...

861. 'Zepai', bertsolari "okurrentea" (AZP-082/011)

Zepai bertsolariari buruz hitz egin du. Tinbre oneko bertsolaria zen. Bi doinurekin aritzen omen zen soilik. Bertsoan egindako ateraldiekin plaza bereganatzen zuen. Hizketan ere bizia eta umore onekoa zen, "berezia oso".

862. Santa eskeko saioak, txapela erantzekoak (AZP-082/012)

Imanol Lazkanoren mutikotako oroitzapenak. Landetako baserrietan bertsoa oso gertutik segitzen zen. Santa eskeko saioak aurretik iragartzen ziren: aurrez jakiten zen zein bertsolari eta zer kuadrilla izango ziren urte horretan. Bertsolariak ate ondoan egiten zuten lanari buruz hitz egiten du. Bertso-saio horiek hizketarako gai izan ohi ziren.

863. Bertso ibilerak (AZP-082/014)

Belaunaldi arteko zubi-lanaz hitz egiten du. Berak miresten zituen bertsolariarekin abestu izanaz, bertsolarien jarrera eta lanaz eta entzulearekin konektatzeaz aritzen da.

864. Bertsolari izatea (AZP-082/015)

Bertsolari izateaz eta sinistez hitz egiten du.

865. Oñatin, 10 bat saio urtean (AZP-082/016)

Plaza asko egin izan dituen garaian, ikastolen inguruan antolatzen ziren saioetan eta, Oñatin saio ugari izaten zituen. Urtean, 10 bat saio izaten zituen han. Oñatiarrak esker onekoak direla dio.

866. Bertsoarako gogo-aldarteak (AZP-082/017)

Bertsoan egin aurreko gogo-aldarteaz aritzen da. Saio batera joateko deitzen dutenean, gustura hartzen da abisua, baina garaia iritsitakoan, agian, ez da gogorik izaten edota alderantziz.

867. Norbere buruaren epaile (AZP-082/018)

Zaila da bertsoa bukatu gabe geratzea. Ezer asko esan gabe bada ere, bertsoak bukatu egin ohi direla dio. Saio baten aurrean, bertsolaria ez omen da bere burua epaitzeko egokiena, norberak sufritu duenaren arabera egiten baitu lanaren neurketa.

868. Bertsolari azpeitiarrek puntutan fama (AZP-082/020)

Bertsolari azpeitiarrek puntutan izan dute fama. Puntutan aritzeari buruz hitz egiten du.

869. Bertsokerak (AZP-082/021)

Bertsojera ezberdinei buruz hitz egiten du. Batera aritzen diren bertsolariak antzeko errima eta hizkuntza edukitzea garrantzitsua dela dio.

870. Bertsoarako euskara (AZP-082/022)

Bertsotan egiteko erabili izan duen euskara du hizpide. Euskara batua sortu aurretik, bertsolaritzak euskara batu bat bazuela dio. Elizak euskara lantzeko garaian izan duen eragina azpimarratzen du.

871. Bertsolaria, esponja bezala (AZP-082/023)

Bertsolaria esponja edo belakia bezala da; entzuten eta ikusten duen dena bere artxiborako jasotzen du. Hizkuntza da bertsolarien lehengaia, eta hori landu egin behar da.

872. San Agustinpean erositako bertso-paperak (AZP-082/024)

Bertso-paperak. Igandetan, meza ondorenean, Azpeitiko San Agustinpean bertsoak kantatu ondoren, bertso-paperak saltzen zituzten. Imanolek bertso-paperak erosi edota bertsoen bat buruan hartu ohi zuen.

873. Azkenengo bertso-paperen salmenta (AZP-082/025)

Azkenengo bertso-paperak, duela 50 urte inguru salduko ziren kalean. Aizarnako neska bati jarritako bertsoak ziren. Gero etorri ziren lehiaketarako bertso-paperak.

874. Bertsoa, baseritik kalera I (AZP-082/026)

Errepresio garaiko bertsolaritzaz hitz egiten du. 60. hamarkadan bertsolaritzak lan garrantzitsua egin zuen. Protesta giroan, bertsolaritzak bere bidea egin, eta baserri girotik kalerako saltoa eman zen. Azpillaga, Lopategi, Joxe Agirre eta Lizaso, Igartzabal, Lazkao Txiki eta Gorrotxategi bertsolariak aipatzen ditu.

875. Bertsoa, baseritik kalera II (AZP-082/027)

Bertso eskolen sorreraz hitz egiten du. Patxi Goikolea, Joanito Dorronsoro... aipatzen ditu. Bertso-eskolak, bertsolaritzarentzako bigarren bultzada izan ziren. Xabier Amurizaren 'Hiztegi errimatua'k jendea bertsoan egitera gonbidatzen zuen.

876. Bertsolarien kolektiboa (AZP-082/028)

Bertsolarien arteko harremanaz hitz egiten du. Elkarren artean ondo eramateko beharra du hizpide.

877. Bertsozale elkartearen sorrera (AZP-082/030)

Bertsozale elkartearen sorreraz hitz egiten du. 1986ko bertso txapelketaz hitz egiten du.

878. Hika eta zuka (AZP-082/031)

Senideek elkarrekin hika hitz egin izan dute, eta gurasoek seme-alabei ere bai. Seme-alabek gurasoei eta senar-emazteak elkarren artean, berriz, zuka. Imanolen gurasoek ezkondu ziren arte, elkarri hika egiten omen zioten.

879. Errezilen, gurasoei eta aitona-amonei "berori" (AZP-082/032)

Errezilen, "berori" esaten zieten gurasoei eta aitona-amonei . Apaizari ere berorika egin behar izaten zitzaion. Apaizari hika egiten zion mutil baten pasadizoa kontatzen du.

880. Arreba eta auzoko neskei hika (AZP-082/033)

Etxeko arrebei eta auzoko neskei hika hitz egiten zien. Behin herritik aterata, ordea, neskekin zuka egin ohi zuen. Gaur egungo kontuak aipatzen ditu: emazteak alabei hika egin izan die, eta Imanolek, berriz, zuka.

881. Apaizari eta medikuari "berori" (AZP-082/035)

Apaizari eta medikuari "berori" esan behar izaten zitzairen.

882. Kanean, euskara "narratsagoa" (AZP-082/036)

Landetatik gora eta Landetatik behera euskara ezberdin hitz egiten zen. Landeta zen muga. Kalekoan, beti egin izan da euskara "narratsagoa". Kaleko hizkeraz hitz egiten du.

883. Matxinbenta eta Urrestillako euskara (AZP-082/037)

Matxinbenta, Nuarbe, Urrestilla eta Azpeitiko euskara du hizpide. Elkarren arteko diferentziak nabarmentzen ditu.

884. Aita kartzelan, senide batek salatuta (AZP-086/002)

Nazionalak Azpeitia hartu zuten egunean, arratsaldean amarekin joan zen plazara zer ikusiko. Hurrengo egunean, senide batek salatuta, Maritxuren aita kartzelara eraman zuten bi erreketek eta guardia zibil batek. Bi ume geratu ziren amarekin. Mendira joaten ziren jateko bila. Gosea pasa zuten. Loiolan zeuden gudariak jatekoa ematen zien.

885. 10 senidetan gazteena (AZP-087/002)

10 senidetan (bost neska eta bost mutil) gazteena zen Julian. Anaia zaharrenak eta Julianek 20 urteko aldea zuten. Julianek gogoratzen duela familia "Arrabal de monjas" esaten zioten inguruan bizi izan zen, baina aurretik Enparan kanean eta "Santiyo" kanean ere bizi izan omen ziren.

886. Ardi artean jolasean (AZP-087/003)

Eskolan, "pargulotan", udaletxe ondoan ibili zen. Komunio txikia egin eta gero, sei urte zituela, maristetara pasatu zen. Eskolako oroitzapenak. Umetan, askotan joaten ziren Enparan Gain baserrira. Udaberrian, artzainak etortzen ziren Nafarroatik ardiekin, eta haiekin ibiltzen ziren ardi artean jolasean. Eguna ilundu aurretik, txistua jotzen zioten etxera joan zedin.

887. "Kalabazero" (AZP-087/004)

Eskolako oroitzapenak. Eskolak erdaraz izaten ziren, baina mutilen artean euskaraz hitz egiten zuten. Dotrina, berriz, euskaraz izaten zen. "Kalabazero" esaten zioten dotrina gainditzen ez zuenari.

888. Anaiaren oroitzapenik ez (AZP-087/005)

Julianek lau urte zituela hil zen bere anaia Xabin. 18 urte zituen Xabinek. Real Union futbol taldearen jarraitzailea omen zen anaia.

889. Tren eta bagoi artean jolasean (AZP-087/006)

Tren-geltokitik gertu bizi zen Julian. Mutikotan, estazioan ibiltzen zen tren eta bagoi artean jolasean. Ez zioten uzten "kotxeratan" sartzen.

890. Eskolarako gogorik ez (AZP-087/007)

Eskolako kontuak. Eskolan aspertuta, 13 urterekin ikasketak utzi eta familiako tailerrean hasi zen lanean.

891. Andres Arruti altzari lantegia (AZP-087/008)

13 urterekin eskola utzi eta aitaren altzari lantegian hasi zen lanean "pintxe" moduan. Lantegia etxearen beheko partean zegoen. Julianen aita 1933an hil zen, eta hura hil eta gero anaia zaharrenak eta koinatuak hartu zuten lantegiaren ardura. Ezkondu zen arte aritu zen lanean familiako lantegian.

892. Bi anaia gudari joan eta ama herritik bidali (AZP-087/010)

Gerra denborako oroitzapenak. Gerra piztu zenean, 10 urte zituen Julianek. Bere bi anaia gudari joan ziren Loiolako kuartelean izena emanda. Julianen amari isuna jarri zioten bi seme gudari joan zirelako: seme baikotzagatik 1.000 erreal. Isunaz gain, ama etxetik bota zuten. Julian etxeko txikiena izanik, amarekin joan zen. Tolosako baserri batean zortzi egun eta Etxarri Aranatzen 20 egun egin zituzten.

893. Erreketeak eta falangistak (AZP-087/011)

Gerra denborako kontuak. Eskola nolakoa zen. Pelaioak eta margaritak. Karlisten kanta bat aipatzen du. Falangistak. Erreketeen hiletetan izugarrizko iskanbilak sortzen omen ziren kalean.

894. Gudari joandako anaien kontuak (AZP-087/012)

Gerra denborako kontuak. Julianen anaia bi gudari joan ziren. Bat Castro Urdialesen geratu zen, eta bestea, berriz, Laredon. 1940ko eta 1942ko kintoak ziren.

895. Herriko giroa, gerra denboran (AZP-087/013)

Maristek ez zieten uzten euskaraz hitz egiten. Langileen lanuzteak. Grebalarien kanta: "Nagusiyak baino kulpa gehiago langile enbusteruak! Besteren bidez jornala jaso, postutzen ditu diruak!".

896. Milizianoek bi mutiko tirokatu (AZP-087/014)

Herriko giroa nolakoa zen gerra denboran. Gudariak Loiolan antolatzen hasi ziren... Eibartik eskopetekin joaten ziren Bidani aldera. 1936ko irailaren 20an Francoren aldeko tropak Azpeitian sartu ziren. Enparan Gain aldetik soldaduak nola jaisten ziren gogoratzen du Julianek. Milizianoek, mendian behera zihoazela, bi mutiko tirokatu zituzten Enparan Gaingo aldean. Mutiko horietako bat odolustuta hil zen. Bestea, zaurituta eraman zuten "mixikordira".

897. Abertzaleak eta mehatxuak (AZP-087/015)

Herriko giroa nolakoa zen gerra denboran. Abertzaleek mehatxuak jasotzen zituzten. Julianen anaia zaharrenak zortzi egun egin zituen kartzelan.

898. "Salvoconducto" a (AZP-087/016)

Gerra denborako kontuak. Bidaiatu ahal izateko "salvoconducto" a, baimena... eskatu behar izaten zen komandantzian. Familiako altzari lantegia berriz martxan jarri zutenean, altzariak saltzera joateko "salvoconducto" a eskatzera joaten zen Julian. Komandantzia bi tokitan egon zen: lehenengo, beterinarioaren etxean (errekisatu egin zioten), eta, gero, Enparan jauregian. Egunerokoan diruarekin zer arazo izaten ziren aipatzen du.

899. Gerra aurreko giroa eta joera politikoak (AZP-087/017)

Gerra aurreko giroa Azpeitian. Berdura plazan hitzaldi politikoak izan ziren. Nazionalisten, karlisten eta sozialisten arteko giroa eta harremanak nolakoak ziren aipatzen du.

900. Nazionalek herri bat hartzean, zezenak Azpeitian (AZP-087/018)

Gerra denborako kontuak. Nazionalek herri bat hartzen zutenean, zezenak ateratzen zituzten Azpeitian. Bizkaian borrokan ibilitako gudariak Ondarretako kartzelara eramaten zituzten.

901. Dentista fusilatu (AZP-087/019)

Gerra denboran Azpeitian fusilatu zuten dentista bati buruzko azalpenak. Norbaitek salatu zuen dentista, baina haren anaia omen zen errepublikarra.

902. Tropek Azpeitia hartu (AZP-087/021)

1936ko irailaren 20an Francoren aldeko tropak Azpeitian sartu ziren. Tropak nondik sartu ziren aipatzen du. Altxamenduaren kontrako batzuk Izarraitz aldetik egin zuten ihes. Erreketeko kuadrilla batek gizon bat hil omen zuen Izarraitz aldean.

903. "Asturiasko iraultza" (AZP-087/022)

1934ko urrian "Asturiasko iraultza" izenarekin ezagutzen den altxamendua izan zen. Orduko hartan, soldaduak pare bat egun egin zituzten Azpeitian. Herrian atxilotuak izan ziren, eta haien askatasuna eskatzeko "Amnistia" idatzi zuten berdura plazako paretan. Mutikoak soldaduen lagun egiten ziren.

904. Maristak eta eskola nazionala (AZP-087/024)

Maristei eta eskola nazionalari buruzko azalpenak. Udaletxe aldamenean zegoen herriko eskola. Errepublikara garaian, gurutzeak kendu zituzten ikasgeletatik eta maisu zibilak jarri. Ondarruko maisu nazional bati buruzko oroitzapenak.

905. Bonbardaketa (AZP-087/026)

Gerrako oroitzapenak. Gernikako bonbardaketa izan zenean, Azpeitian tiro- eta bonba-hotsa entzuten zen. Azpeitia ere bonbardatu zuten, eta mutil gazte bat hil zen.

906. Mateo pasiegoa (AZP-087/027)

Mateo pasiegoari (Kantabria) buruzko kontuak. Baserriz baserri ibiltzen zen tresnak eta telak saltzen. Euskaraz hitz egiten ere ikasi zuen. Pasiegoak Santa Kruz apaizari buruz kontatutakoak.

907. Boxeoa modan (AZP-087/028)

Julian umea zela boxeoa zegoen modan. Maristetan zebilela, arratsaldetan jolasean eta boxeoa ibiltzen ziren maisu batekin sotoan. Ikasleen eguneko jaialdian, boxeoa egin zuen beste kide batekin. Orduko boxeolariak: Uzkudun, Gaztañaga...

908. Organeroaren etxea errekiatu (AZP-087/029)

Zezen plaza aurrean zegoen organeria. Organeroaren familiari buruzko kontuak: gizona katalana zen eta emaztea donostiarra (Azpeitiko abertzaleen presidentea). Etxea errekiatu zien, eta haien etxeko abertzaleen "kolgaduriak" (oihal zintzilikariak) plazan erretzen ikusi zituen Julianek.

909. Oargi (AZP-087/031)

Oargi taldeak antzerkiak antolatzen zituen. Antzezlan batean "apuntadore" eta eskenatokia prestatzen aritu zen Julian. Eta gero, dantzarietzako tresnak egiten hasi zen.

910. Danborrak egiten hasi (AZP-087/032)

Urte askotan aritu izan zen Julian danborrak egiten. Danborgintzan nola hasi zen azaltzen du. Azpeitian danborrada nola hasi eta bilakatu zen kontatzen du. Danborrak eta "erraiak" (herrada edo suila: berez, ura eramateko ontzia).

911. San Pedroetan, Eskuztara (AZP-087/033)

Jai seinalatuetan musika-bandak jotzen zuen herriko plazan. San Pedroetan Eskuztan egiten zen erromeria, eta "tabernak" eramaten zituzten gurdietan. Jolasak ere izaten ziren. Jendearen esanak: San Pedroetan bikote berriren bat ikusten bazen, "San Inazioetarako preparatu dituk hoyek!". Santioetan, zezenak.

912. Karnabalak (AZP-087/034)

Karnabaletako giroa. Eibartik, Zarauztik... jendea joaten zen Azpeitira. Karrozak ateratzen ziren. Astearte karnabalean, eskean ibiltzen ziren neska-mutilak.

913. "Ama nere bila zatoz..." abestia (AZP-087/035)

Julianen anaia batek abestu ohi zuen Karnabaletako kanta: "Ama nere bila zatoz, ama berandua da! Nik lasai lo egin det mahai gainian etzanda! Zuaz zuaz etxera, zuaz zuaz lana egitera! Ilunabar aldian etorriko naiz zeurekin apaltzera!".

914. 10 sagardotegi inguru Azpeitian (AZP-087/036)

10 sagardotegi ba omen ziren Azpeitian. Sagardotegiak non zeuden aipatzen du. Korrale sagardotegiko giroa. Korralen dolarea zegoen. Erramuarekin bedeinkatzen zuten sagardoa, eta sagardoa irekitzen zen garaian bandoa jotzen zuten aguazilek. Azillerriko sagardotegian bola-tokia zegoen. Jendeak apustuak egiten zituen.

915. Ahari-jokoa (AZP-087/037)

Igandeetan, ahari-jokoa izaten zen. Eta urte garai batean, asteazkenetan (feria eguna), ere izaten omen zen ahari-jokoa plazan.

916. Apustuak eta desafioak (AZP-087/038)

Gerra aurretik, ia larunbatero apusteren bat izaten omen zen. Zezen plazari 50 buelta lasterka zeinek azkarrago eman. Apustuak eta desafioak. Aizkolariak.

917. Denek plater beretik jan behar (AZP-091/002)

Gerra hasieran, babak jaten zituzten, denek plater batetik.

918. Bederatziehun mila pezetako isuna aitari (AZP-091/005)

Aitari bederatziehun mila pezetako isuna ezarri zioten hauteskondeeetan boto abertzalea emateagatik. Isuna lau orduan ordaindu ezean, hil egingo zutela esaten zioten. Karlistak boto bila joaten ziren etxerik etxe.

919. Kaletarrak baserrietara lanean jatekoaren truke (AZP-091/007)

Kaletarrek ez zuten jatekorik. Horregatik, baserrietara joaten ziren gari-lanak egitera, jatekoaren truke. Eurenean, esaterako, ardi bat hiltzen zuten eta etxera eramateko jatekoren bat ematen zieten lanera etorri zitzaizkienei.

920. Eskolan, garrantzitsuena dotrina (AZP-091/008)

Mutikoek etxeko lanetan lagundu behar izaten zuten. Eskolara gutxi joaten ziren, baina dotrina ondo irakasten zieten. Apaizak Francoren aldekoak ziren, apaiz abertzaleak gerran hil zituzten eta.

921. Aipazari mezak ordaindu eta ogi bat eraman (AZP-091/009)

Hiletan ostean, bazkaria egiteko ohitura zegoen. Familiakoek eta lagunek mezak ateratzen zizkioten hildakoari. Meza horietatik diru asko kobratzen

zuen apaizak. Gainera, etxean baten bat hiltzen zenean, astean ogi bat eraman behar izaten zioten.

922. Dotrina euskaraz (AZP-091/010)

Mutikoak ardi-zainen joaten zirenean dotrina ikasteko aprobetxatzen zuten. Liburu handi bat zeukaten horretarako, euskaraz. komunioa egiteko, sakristiara joaten ziren astean behin, dotrina ikastera.

923. Dantza lotua egitea bekatu (AZP-091/011)

Neskek eta mutilek elkarrekin dantza egitea bekatua omen zen. Kizkitzara urtero joaten ziren, baina mutikoei Beasain aldera joatea gustatzen zitzairen bertan dantza lotuan ibiltzen zirelako. Gero, herriko neskek apaizari kontatu egiten zioten mutilak dantza lotuan ibili zirela. Honek pulpitutik esaten zituen "bekatarien" izenak eta kongraziotik bota egiten zituen.

924. Mutikoak falangista jantzita elizara (AZP-091/012)

Urrestillan bertan eduki zuten eskola, bata mutilena eta bestea neskena. Falangista jantzita joan behar izaten zuten eskola-mutikoei elizara. Eskolan maisu erdalduna zuten, gaiztoa. Eskola garaian zigorrak edukitzen zituzten euskaraz hitz egiteagatik eta baita soldaduskan ere.

925. Ferratzaile ofizioa ikasten (AZP-091/014)

Urrestillako ferratzailearekin hasi zen ofizioa ikasten hamasei urte zituela. Ferratzeaz gain, sutegian errementari-lanak egiten ere ikasi zuen.

926. Soldadutzan ferratzaile (AZP-091/016)

Soldadu joan zenean, "maestro herrador" bezala jarri zuten. Maniobretako mandoak ferratu behar izaten zituen. Loiolan egon zen soldadu. Oso ondo ordaintzen zioten ferratzaileari soldadutzan eta gainera etxea jartzen zioten debalde. Hala ere, Migelek ez zuen geratu nahi izan.

927. Ganadua potrora lotu (AZP-091/020)

Ganadua potrora lotu behar izaten zuten ferratzeko. Nola egiten zuten azaltzen du. Egurrezkoak ziren materialik gehienak.

928. Ferra mota ezberdinak (AZP-091/021)

Behiek eta idiek ferra ezberdinak dituzte atzean eta aurrean, kaskoa ere ezberdina da eta. Zaldia ferratzeko, oster, ferrak berotu egiten zituzten. Idientzako eta behintzako ferrak egiteko neurri zehatzak edukitzen zituzten. Ferrek zuloak edukitzen zituzten bertan iltzeak josteko.

929. Ingudea ferrak moldatzeko (AZP-091/022)

Ingudea ("txingura") ferra neurri egokira moldatzeko erabiltzen zuten, josi aurretik. Idientzako eta behintzako ferrak burdinazkoak izaten ziren; astoenak eta zaldienak, ordea, gomazkoak. Idi pareak ferratzeko ordu bete behar izaten zuten Migelek.

930. Ferratzaileak ganaduen zauriak sendatu (AZP-091/023)

Ferratzaileak ganaduen zauriak sendatzen jakin behar du. Migelek berak egiten ditu zauriok sendatzeko botikak. Belarrak baliatzen ditu horretarako,

berbenak. Lehen agoarrasa eta alkohola erabiltzen zituzten zauriak sendatzeko.

931. Ferra kiloko sei pezeta (AZP-091/024)

Azpiak "pujamantearekin" berdintzen zizkioten ganaduari. Tenazak Migelek berak egiten zituen tailerrean. Behi ferrak Mutrikutik ekartzen zituzten; eurek zaldi, asto eta mando ferrak egiten zituzten sutegian. Kiloko sei pezeta kobratzen zituzten ferrak.

932. Probarako idiei gantxodun ferrak (AZP-091/026)

Probarako idiei gantxodun ferrak ipintzen zizkieten. Galtzadak harriak ditu eta gantxoak behar dituzte ez irristatzeko. Probarako zaldiei ere horrelakoxe ferrak jartzen zaizkie. Ferratzeko errezena zaldia da eta zailena behia, kaskoa txikiagoa dute eta.

933. Txahala kendutakoan ordaindu (AZP-091/028)

Oso baserritar gutxik zeukaten dirua orduan eta askok ezin izaten zuten ordaindu. Apuntatu egiten zuten eta txahala kendutakoan-edo ordaintzen zuten. Goizetan ferratzen ibiltzen zen Migel eta arratsaldeetan fabrikan.

934. Erremintak kopontzen eta zorrozten (AZP-091/031)

Ferratzeaz gain, erremintak ere kopontzen aritzen zen Migel: txingak, kateak, laiak, aizkorak, aitzurrak... Erremintak zorrozteko "destera" erabiltzen zuen.

935. Egur-ikatza sutegirako (AZP-091/032)

Sutegia bizitzeko eskuarekin eragiten zion hauspoari. Egur-ikatza erabiltzen zuen sutegirako. Inguruko basoetan ikazkinak zebiltzan, nafarrak gehienak. Prezio altua zuen ikatzak orduan, baina ikazkinak ez zuen diru asko irabazten.

936. "Hori den iriñe alperrik gastatzie!" (AZP-092/003)

Bittori, ahizpa zaharragoa, gazta egiten zen abila. Taloa egiten Juanita, eta bera, berriz, ogia egiten. Ama hil zenean, bera hasi zen ogia egiten, hasieran ez zitzaion ateratzen, baina gero ez zitzaion gehiago txarrik atera. Ogizalea izanik, jan ere gehiena berak jaten omen zuen.

937. Kilometro eta erdi, ura etxera ekartzeko (AZP-092/004)

Bakoitzak bere lanak hartuta izaten zituen. Mezetatik etxera joanda, bakoitzak bere lana egiten zuen. Astegunetan, berriz, astoarekin joaten ziren "Manteka"ko iturrira, kilometro eta erdiko bidean. Udan ere, ganaduekin joaten ziren, haiei edanaraztera.

938. Ama hil eta ahizpak haren postua hartu (AZP-092/006)

Ama oso gazte hil zen, 52 urterekin. Orduan Marik 13 urte zituen. Ahizpa gazteena jaio zenean konturatu ziren minbizia zuela, eta gerora hil zen. Aitona-amonik ez zuen ezagutu; etxean senideak bizi ziren, eta Bittori ahizpak egin zituen amaren lanak, hura hil zenean.

939. Alde baten aberatsak eta bestean pobreak (AZP-092/007)

Ez daki familia noiztik bizi zen Arauntzan, baina bai garai batean baserria bi bizitzakoa zela. Fatxadaren alderdi bat bestea baino hobea zelako, batean aberatsak eta bestean pobreak biziko zirela esaten aritzen ziren euren artean. Etxeak lau logela behintzat bazituen, handienak 3 ohe zituen, anaien logela zen hura.

940. Azterketetan, janaren truke kopiatzen utzi (AZP-092/011)

Eskolan azterketa garaian, kalekoekin tratua egiten zuten. Kaletarrak goseak amorratzen egoten ziren eta sagarren edo ogiaren truke kopiatzen uzten zieten. Klean gosea omen zegoen, baina beraiek ez zuten horren kezkarik izan.

941. Behiak biltzea emakumeentzat gogorregi (AZP-092/016)

Arauntzan larreko behiak izaten zituzten. Behi pintoa ere jarri zuten, esne gehiago izateagatik, besteek gutxi izaten baitzuten. Bera ez zen aritzen behiak biltzen, aita-edo biltzen zituen. Ezkonduta, berriz, senarrak ez zion uzten lan hori egiten, emakumeentzat lan gogorregia omen zen. Gizonak ukuiluko lanak egin bitartean berak sukaldeko lanak zuzentzen zituen, eta gero esnearekin bera jaisten zen kalera.

942. Jende "kapritxosoak" ardi-esnea nahi (AZP-092/017)

Arauntzatik ardi-esnea ekartzen zuten kalera, "jende kapritxosoari", mamia egiteko. Ez zen esne askorik izaten, 10 edo 20 litro inguru. Batzuk baziren, igandero-igandero hartzen zutenak. Horretaz aparte, ez zuten kalera baserriko produkturik saltzen.

943. Egunean jositako soinekoarekin festara (AZP-092/018)

Ama zenak artilea egiten zuen, horretarako makina bat zuen. Beraiek ez zioten lan horri jarraitu, baina artilezko galtzetak egiten bai, asko aritu izan dira. Abarkak eta galtzerdiak, soinekoren bat eta aurreko mantala izaten ziren orduko arropak. Kalerako, zerbait hobea bazen, huraxe. Behin Martirietara egunean bertan jositako soinekoarekin joan zen.

944. Ijitoak eta apaizak etxean (AZP-092/020)

Gabonetan-eta barre asko egiten zuten, denak elkartzen zirenean. Behin ahizpa gazteena, ijitoz jantzita atera zen afalondoan. Beste anaiak, Anjelek, berriz, meza eman omen zuen, anaia batek lagunduta, beren logelan. Orduan lasai egiten omen zuten barre.

945. Orduko janariak eta amaren postreak (AZP-092/022)

Gabonetan denak elkartzeko ohitura zuten, bestela ez zuten egun jakinik. Gabonetan, ordea, neskame eta morroi joandakoak-eta etxera bueltatzen ziren. Gainera, turroia ekartzen zuten eta gustura egoten ziren. Horrelako egunetan zer jaten zuten kontatzen du. Ama esnezko postreak egiten zen ona, ahizko pastelak eta torradak esaterako. Ez zuten goserik pasa beraiek. Baserrian beti izaten zen babarruna eta patata behintzat; luxurik gabe, baina goserik ere ez. Txerria ere hiltzen zuten, eta ardikia, berriz, urte guztian izaten zuten.

946. Lanean baina umore onez (AZP-092/023)

Lehen aldiz irratia ahizpak ekarri zuen. Larunbatean sukaldeko apala txukundu eta igande goizean jarri zuten. Hura entzuten, ez zuten lanerako gogorik orduan. Arto-zuritzerakoan logelatik mahaitxo atera eta han jartzen zuten. Ganbaran kuadrilla elkartzten ziren, auzokoak-eta. Txisteak kontatu eta ateraldi ederrak izaten ziren.

947. Umeak astoarekin errotara; estraperloa (AZP-092/025)

Artoa eta garia ugari izaten zen orduan. Arauntzatik Estrara joaten ziren errotara, umeak, astoari lepoa zuzendu ezinik ibiltzen ziren aldapan behera. Beste batzuetan Lasaoko Alberdikora joaten ziren. Estraperloa ere bazen, eta gauzez ibiltzen ziren; bera ez, baina, anaiak bai. Hala ere, herrian omen zeuden lapurrik handienak, herriari entregatutakotik lapurtzen aritzen zirenak ba omen ziren.

948. Lursailen izenak. Arroita erromeria (AZP-092/029)

Arauntzan lursail asko ziren, ez oso onak baina asko bai. Hango lurren izenak aipatzen ditu. Etxaungo lurren izenak ere gogoan ditu. Arauntza esan arren, baserritik gorago dagoen mendia Arroita dela esaten du. Arroitan, San Ferminetan egiten zen erromeria, baina gutxi iraun zuen. Hara joaten zirenei afaria ematen zieten ahizpak eta. Zestoako lehengusuak, hara erromeriara joan eta Santa Engrazi aldetik bueltatu beharrean Lasaora jaitsi eta handik berriz Aizarnara. Bera ez zen izan oso dantzaria.

949. Aita Hernio zalea edo ardi zalea (AZP-092/030)

Ez daki zergatik zuen aitak Herniorako zaletasuna, mendian bizi zelako ala ardiak gustatzen zitzaizkiolako. Hara joanda ere, ardiak ikusten ibiltzen omen ziren. Goizeko seietako meza entzun, etxera bueltatu eta jateko zerbait hartuta, Sainu gaineratik joaten ziren Herniora, urtero. Aita San Antonio zalea ere bazen, urtean-urtean ume bat eramaten zuen hara, ama ere joaten zen. Ama hil zen urtean, bera joan zen aitarekin, beltzez jantzita. Lutoa nola izaten zen, osaba-izebena hiru hilabete eta gurasoena urtebete edo gehiago. Donostiako estropadetara ere joaten zen aita urtean behin, Urolako tren hartuta.

950. Poltsikoan gazta eta ogia (AZP-092/038)

Goserik ez zuten pasa. Lehengusu batek oraindik ere esaten dio, zenbat gazta jandakoa ote den bera. Baserrian, mantalaren poltsikoan beti ogia eta gazta izaten omen zituen.

951. Gerra zela eta, maisuak alde egin (AZP-093/002)

Etxean kuadrilla handia ziren. Eskolan auzoko eskola-etxe batean ibili ziren, eta han zebiltzala atera zen gerra. Marista bat zuten maisu, eta hura joan zenean eskola gabe geratu ziren. Gerora beste maistra gazte bat izan zuten, Claudia. 11 urtera arte ibili ziren eskolan, komunioa egin arte.

952. Etxez etxe lanean (AZP-093/006)

Gaztetan leku bat baino gehiagotan ibili zen morroi, aurrena Belaetxen, hiru urtez. Gero, soldadutzara joan zen eta handik bueltan etxean, Premietxeberrin, eta Urrekasoron ere ibili zen. Berriro ere etxera bueltatu zen, anaia ezkontuta kalera joan zelako bizitzera. Koinata kalean gustura ez eta senarra (Anjelen anaia) eta biak berriro baserrira joan ziren bizitzera, Etumetara.

953. Errazionamenduan emandakoa txahalentzat (AZP-093/008)

Ogirik ez zen izaten garai hartan, taloak jaten zituzten. Errazionamenduan "artokila" ematen zieten, familia handia zirelako, gogor-gogorrek izaten ziren eta aitak txahalak amarengandik apartatzeko erabiltzen zituen.

954. Aiako Harrietan eskalatzen eta Candanchun eskiatzen (AZP-093/012)

Soldadutzara joan zen, Nafarroa aldera. Eskalatzen eta eskiatzen ibiltzen ziren, eskiatzen ondo ikasi zuenean etxera etortzeko garaia iritsi omen zitzaion. Etxera etortzen zirenean gazta eramaten zuten, han jateko aukera handirik ez zuten izaten eta.

955. Inguru guztian festa, baina trikitilari txarrak (AZP-093/015)

Orduan, festa, erromeria Orkazagirren egiten zen. Etumetan, Santa Engrazin, Erdoiztan... orduan mendiko auzo guztietan izaten zen erromeria. Udazken aldera, Iturriotzera, Herniora... joaten ziren. Soinujoleak txarrak izaten omen ziren, ordea, Atxabaleta eta Mendizabal aipatzen ditu. "Etxeta" k neskei dantzan ikasteko esaten omen zien, bestela jertseei eusten egon beharko zutela-eta bazterrean.

956. Aizpurutxuko erromeria xelebrea (AZP-093/016)

Dantza lotua egitea debekatuta zegoen, baina izaten ziren "alkahueteak", apaizari esaten ziotenak. Kongregaziotik botatzen zituzten horrelakorik eginez gero. Aizpurutxon, mugarriaren alde batera dantza loturik egiterik ez eta beste aldean bai, horrela ibiltzen omen ziren. Arratsalde aldean sueltoan aritzen ziren, eta iluntze partean lotu pixka bat egiten zuten.

957. Ardi bakoitzari bere izenez (AZP-093/018)

Ez du konparaziorik lehengo artzaintzak eta oraingoak. Orduan ardiak ez ziren gobernatzen, ezta klasifikatu ere. Ardiak izenez ezagutzen zituzten, ez zuten markarik edo izaten. Izen xelebrea asko ipintzen zizkieten, "Kurkumixe", "Ille kizkurre", "Txordue"... Ardia nolakoa zen, horren araberrako izena jartzen zieten.

958. Ardientzako uztaiak dotore prestatuta (AZP-093/019)

Azkoitiko "Arana"ren txabola erabiltzen zuten Izarraitzen. Inguruan nahiko larre ez omen zen izaten, mendia ere ez zegoen hesituta, eta janariaren esperantzan Izarraitzera joaten ziren. Ardiei dunbak eta zintzarriak ipintzeko Igokunde eguna izaten zuen aita zenak, ardi onenei jartzen zitzaizkien. Dunbarentzat mihia ganadu-adarra izaten da onena, hark du hotsik onena. Ardientzat gaztainazko uztaiak txukun prestatzen zituzten, goritutako burdinarekin markak egiten zizkieten, zein baino zeinek dotoreagoa.

959. Intseminazioa, kontu berria (AZP-093/020)

Arkumeak udaberri aldean jaiotzen ziren. Larreetan belarra izaten zela eta, ez zitzairen pentsurik ematen. Intseminazio artifiziala 1990 inguruan hasi zen, artaldeak hobetzeko. Orain, hala ere, ez du horrelakorik egiten.

960. Lehen azokan saltzeko arazorik ez (AZP-093/021)

Arkumeak plazan saltzen zituen; plazan segituan saltzen ziren orduan. Arkumeak bizirik eramaten zituzten, plazan bertan pisatu eta saltzeko; beste batzuek ordea, propio enkargatzen zieten eta haiei etxean hilda saltzen zitzairen. Arrautzak eta oilaskoak ere eramaten zituzten.

961. Artileak estimazio handia (AZP-093/022)

Ardi mozteko guraizeekin aritzen ziren, San Juanak aurretik edo inguru horretan. Lehen ardi ileak estimazio handia zuen. Traperoez gain, ezkontzen zen norbaitek ere erosten zuen artilea, koltxoia egiteko. Arto-zorroekin egindako "somierak" ere ezagutu zituen.

962. Ardien gaixotasunak (AZP-093/023)

"Gorrontzia" esaten zieten gaixotasun bati, "begimina" ere asko izaten zen, baina orduan ez zen orain adina gaixotasun izaten. Erremedio batzuk ere aipatzen ditu. Herrenak ere gutxi izaten ziren, batzuetan odol zikina aterata sendatzen dira haiek.

963. Jokurako ahariak etxean (AZP-093/024)

Jokurako aharietako izugarritzko afizioa zuen aita zenak. Berak ere izaten zituen pare bat ahari, anaiak ibiltzen zituen, jokurako prestatzen. Azpeitian ahari-jokurako afizio handia zegoen, igande arratsaldetan lau edo bost apustu izaten ziren.

964. Gatzagi naturalarekin egindako gazta (AZP-093/026)

Gatzagi naturala erabiltzen zen. Arkumea hildakoan, gatzagia lehortzen uzten zen, handik zati bat uretan jarri eta gero ur ura botatzen zitzaion esnari. Gazta eskuz egiten zuten, mamia txikitzeko gorostizko tresna bat izaten zen. Gaur egun trapua erabiltzen den bezala, garai hartan, azala egiteko ur beroa botatzen zitzaion gatzari. Egurrezko prentsa gerora ezagutu zuen, lehen eskuarekin estutzen zen dena. Oraingo gazta nahiago du, lehengoa oso lehorra zen. Gatzura ere aprobeztatzen zen, hari ateratzen zitzaion mamia ogiarekin edo taloarekin jaten zuten. Mami asko jaten zen, eta kanpoko jendeak ere oso gustura jaten zuen.

965. Dolarea jarri aurretik sagardoa egiten (AZP-093/033)

Etxean egiten zuten sagardoa. Etxean bazuten sagastia baina kanpotik ere ekartzen zuten. Dolarea jarri aurretik, etxe ondoan zegoen aska batean txikitzen zuten sagardoa. Sagastiak ondo zaintzen ziren orduan. Negu guztirako sagarra izaten zuten ganbaran.

966. Sagardoa egitera auzora; lehen auzolan gehiago (AZP-093/035)

Etxean dolarea egin aurretik Gerondo baserrian ere aritu izan ziren sagardoa egiten. Premietxeberrin eta Arauntzan batera samar egin ziren dolareak; Premietxeberrin non zen ere esaten du. Orduan auzolana gehiago izaten zen. Gari-ebakitzen zazpi lagun ere ezagutu izan ditu.

967. Sainuko elur-zuloa eta kontserbatzeko erak (AZP-093/036)

Eguraldi freskoarekin ondo kontserbatzen zen janaria; bestela gazitu ere egiten zen. Elur-zulo bat ere bazen inguruan, txikia. Elurra egiten zuenean hura bete eta gero handik hartzen zen izotza.

968. Eskuzko dolarea eta matxakea (AZP-093/038)

Garai hartako dolarea nolakoa zen azaltzen du. Tina bat izaten zen, eta haren barruan ardatza eta prentsarekin estutzen zen sagarra. Hasieran matxakari eskuz eragin behar zitzaion, baina gerora sega-makina jarri zuen. Urtean bi mila litro inguru sagardo egiten zen. Botilaratzea beti ezagutu izan du, botilak garbitzea izaten zen lantegirik txarrena.

969. Lehengo baserria eta oraingoa (AZP-093/040)

Lehen nekagarria zen baserriko lana, baina orain baino errentagarriagoa. Kaleko jendea ere baserrietara joaten zen bolada batean, janari truke. Egiten zen gehiena etxerako izaten zen, ganaduarentzat ere ez zen pentsurik izaten.

970. Astegun eta igandetako jatorduak; gonbidautzak (AZP-093/041)

Astegunetan baba gorriak jan ohi ziren, igandetan, berriz, zerbait desberdina izate aldera, baba zuria edo halakoren bat. Egun berezietan garbantzia ere izaten zen. Festetan, lehengusu edo sendikoak etortzen ziren eta etxean bazkalduta joaten ziren, urrutikoren bat bazen bertan geratzen zen lotan.

971. Herri-kiroletako txapeldunak (AZP-093/043)

Herri-kiroletan lehen ziren izen ezagunak aipatzen ditu; aizkoran, Korta, Arriya... Harri-jasotzen, Errekartetxo. Trontzan, berriz, apustuak ez baina, bera aritua da, basoan ibili zenetan.

972. Haragia saltzeko tratuak eta harakinak (AZP-093/044)

Aita Herniozalea zen. Zestoako feriara ere joaten zen. Tolosakoa ere gustukoa zuen, eta Herniotik zehar joaten zen. Abereren bat saltzeko bazuen eramaten zuen Azpeitira, baina bestela ikustera joaten zen. Irundik eta Donostiatik ere etortzen ziren harakinak. Anjel bera makina bat behi gizen saldutakoa da, orduan batek ez bazen besteak erosten zuen eta.

973. Gaztetako bihurrikeriak (AZP-093/049)

Gaztetako aldrebeskeriak kontatzen ditu. Apaizarena egiten, meza ematen ari balitz bezala ibili zenekoa kontatzen du.

974. "Hara, hori arto-zuritzekoa izango da" (AZP-093/051)

Askotan esan izan den esaera da, txisteren bat edo kontatutakoan "Hara, hori arto-zuritzekoa izango da". Orduan, arto-zuritzen kontu eta txiste ugari izaten baitzen. Bertsotan eta santa-eskean eta ibili izan da Anjel bera. Santa-eskean ateratako diruarekin, hiru egun egin zituzten Tolosako inauterietan.

975. Hainbeste bertsolariren tartean, bera ere bertsotan probatua (AZP-093/052)

Odria bailaran eta inguruetan bertsolari asko zen; Korostietan, Basarri zena, Txapel, Joxe Lizaso (Saberrin hazitakoa) eta Zepai behintzat bai. Anjel beheko mailakoa omen zen, ordea, ez zen haiekin aritu. Lizasorekin ibili zen eskolan, "karrera bera egindakoak gaituk" esaten omen zion Lizasok. Orkazagirren, Lazkanorekin aritu izan omen zen.

976. Arroitan "Santo Domingo" gurutzea eta San Ferminetan erromeria (AZP-093/053)

Arroitan egiten zen erromeria garai batean, San Fermin egunez, baina han ez zen bertsolaririk izaten; soinujoleak bakarrik. Lehengo gurutzeak "Santo Domingo" izena omen zuen, eta Sarralle errementariak gurutze berria jarri eta erromeria egin behar zela eta hasi omen zen. Urte asko iraun ez bazuen ere jende asko etortzen zen.

977. Bertsolariak ahots indartsua; emakumerik ez plazetan (AZP-093/054)

Lehen bertsolariek ez zuten mikrofonorik izaten, Azpeitiko udaletxeko balkoian kantatzen zuten. Ahots indartsua izaten zuten oraingoan aldean. Bertsolari ona izan arren, Txapelek ez omen zuen horren eztarri sendoa. Emakumeak ez ziren bertsotan aritzen, baina Pello Errotaren alaba bertsolaria zela esaten omen zuten. Gaizki ikusia zegoen orduan emakumeak bertsotan edo trikitiarekin aritzea.

978. Anaia tenientearentzat zigarroak egiten (AZP-093/056)

Gerra garaian anaia zaharrena ibili zen, zazpi urtez egon zen soldadu. Beste anaia, berriz, gerra ondorenean hiru urtez. Anaia zaharrak, Antoniok, zigarroak txukun egiten omen zituen, tenientea besoa hautsita, harentzat egiten aritzen omen zen. Gaztetan etxera joan aurretik ahoa garbitzen aritzen ziren, erre zutela ohar ez zitezen.

979. Gaztetako aldrebeskeriak, "Hanka-haundi"ren inguruan (AZP-093/057)

Sekula ez da izan inori kalterik egitekoa, baina aldrebeskeriak egiten zituzten. "Hanka-haundi"ren estatuaren inguruan egin zuten trakeskeria kontatzen du.

980. Auzokoen artean kooperatiba (AZP-093/059)

Odria eta Axangoa lagun zituela kooperatiba sortu zuten, Danimarkatik ekarritako esne-behiekin. Beraiek 33 behi ekarri zituzten, Etorra-ra beste

hainbeste, eta Aizarnara gehiago. Aurrena itsasontzian eta gero kamioietan ekarri zituzten. Gurelesa sortu zen garaian baserritar asko hasi zen esne-behiekin. Oraingo bariantea dagoen ingurura jaisten zuten esnea, eta han "letxeroak" hartzen zuten. Ia etxe guztietan ateratzen zen esnea, gutxi baina ia denetan.

981. Eroritako baserriak (AZP-093/064)

Badira auzoan eroritako etxeak: Salaberri, Munaundi... Lau edo bost. Eta ozta-ozta eusten diotenak ere bai zenbait.

982. Baserriak eutsi dio euskarari (AZP-093/066)

Herri batetik bestera asko aldatzen da euskara, baina dena da bat. Orain baino askoz okerrago egon zen euskara gerra ondoren. Baserriak eutsi dio euskarari neurri handi batean. Emakumeek erdararako joera handia izan dute. Azpeitia izango da herririk euskaldunena, eta hori bertako jendea gutxi nahastu delako. Azpeitian kanpoko jende gutxi sartu zen. Zumarragan, ostera, asko. Azpeitian industria berandu samar sartu zen.

983. Asko hazi da Azpeitia etxez, baina ez jendez (AZP-093/067)

Zeharo aldatu da Azpeitia aspaldian. Landeta eta Loiola aldean etxe berri asko egin da, baina kalean etxe huts asko dago. Biztanleria gutxi hazi da. Antzinako Azpeitiaren mugak.

984. Betidanik Azpeitian (AZP-100/005)

Bertan ikasi eta lagunak ere bertan dituzte biek.

985. Zein izan zen zuen lehen irteera lagunartean? (AZP-100/006)

Batez ere plaza inguruan mugitu izan dira.

986. Nolakoa da zuen kuadrilla? (AZP-100/008)

Juleneren kasuan, eskolan elkartutako neskek osatzen dute bere kuadrilla. Orhantzaren kasuan, kuadrilla "ofiziala" mutilek osatzen badute ere, gelako neskekin harremana mantentzen dute, eta lokala partekatu zuten beste zenbaitekin ere bai.

987. Mutilek kuadrilla irekiagoa izaten al dute? (AZP-100/010)

Azpeitian orokorrean kuadrillara mugatzen direla diote, kuadrillak garrantzi handia duela herrian.

988. Lehenengo parrandak (AZP-100/011)

DBH 2. maila bukaeran, 15 bat urterekin hasi ziren parrandan, Azpeitian. Garai batean larunbatetan jende gehiago zebilela diote.

989. Taberna guztietan musika antzekoa (AZP-100/013)

Bi giro bereizten ziren: behekoak eta goikoak. Orain, ordea, bi giroak nahastu direla diote, musika antzekoa taberna guztietan.

990. Tabernetan ibiltzetik lokara izatera (AZP-100/015)

Lokalekin beste aisialdi eredu bat sortu dela dio Orhantzak.

991. Inguruko herrietako euskara (AZP-100/017)

Zumaian Azpeitian baino euskara gutxiago hitz egiten dela diote, erdarakada askokoa gainera. Zestoan nahiko antzekoa omen da euskara.

992. "Egurra Ta Kitto" taldeko kide (AZP-100/019)

Leku askotara joateko aukera eman dio Orhantzari musika talde bateko kide izateak. Hala ere, euskarari dagokionez, kontraesanak ere ikusi dituzte.

993. Egurra Ta Kitto taldearen jarraitzaile motak (AZP-100/020)

Batez ere gazteak erakartzen ditu taldearen musika motak, eremu euskaltzaleetan.

994. Azpeitiarrek dantzarik ez egiteko fama (AZP-100/022)

Azpeitiko plaza txarra dela diote, azpeitiarrak lotsatiak omen baitira.

995. Hitz batzuk desagertu egin dira (AZP-100/026)

996. Teknologiaren erabilera eta mendekotasuna (AZP-100/028)

Mendekotasun eta erabilera handia dutela diote, batez ere WhatsApp, Facebook eta Twitterrekin.

997. Azpeitia oso herri mugitua (AZP-100/030)

Eragile asko daudela diote, eta oso antolatuak. Mugimendu handia duen herria dela.

998. Erlijoaren indarra eta sinesmenak Azpeitian (AZP-100/032)

Jende elizkoi handirik ez dute ikusten inguruan, baina Azpeiti oso erlijosoa izanak eragiten duela diote.

999. Azpeitiarrek asko ligatzen al dute? (AZP-100/034)

Lotsatiak direla diote biek, beste herri batzuekin konparatuz itxiak direla.

1.000. Herriko etxebizitzak (AZP-100/036)

Gaur egun alokairua da nagusi, lan falta eta etxe garestiak direla eta. Hala ere, laguntzak jarri dituztela nabaritzen dute inguruan.

1.001. Soldadutzatik irratira (AZP-104/002)

Umetatik maite zuen irratia, eta banketxe batean lan egiteko asmoa bazuen ere, irratian lan egiten amaitu zuen. Soldadutzara joan aurretik bi oposaketa atera zituen bi banketxetan, eta soldadutzatik bueltatu zenean bietatik egin zioten dei.

1.002. Loiola irratiko administrari (AZP-104/003)

Loiola Irratian administrari gisa sartu zen soldadutzatik bueltan. Garai hartan irratian lan egitea ez zen lan finkoa, baina hogeita bi urtez aritu zen Loiola irratian.

1.003. Gidoilari lanetan (AZP-104/004)

Etxeko lanen inguruko irratsaio baten gidoia idazten hasi zen, Andre-Gizonak izena zuen.

1.004. Bertsolari Gazteen Sariketa (AZP-104/005)

Berriak euskaratzen ere ibili zen Jose Mari. Garai bateko irratian lanak azaltzen ditu. Bigarren mailako bertsolariekin saio bat egiten zuten igandetan. Entzuleek aukeratzen zuten bertsolaririk onena. Txomin Garmendia izan zen lehen sariduna.

1.005. ETAko kidea zelako zurrumurrua (AZP-104/006)

Gipuzkoako Gobernari Zibilarekin arazoak izan zituen, talde armatu batean sarturik omen zegoelako.

1.006. Loiola irratia gaizki ikusirik (AZP-104/007)

Honda Media itxi zieten, kate bakoitzeko irratia bakarra egon behar zelako. Iluntzero Letaniak euskaraz egiten hasi ziren.

1.007. Garai bateko Euskal Herriko komunikabideak (AZP-104/009)

Euskal giroko komunikabideen egoera ez zen ona Iriondo irratian hasi zenean. Euskara baserriak salbatuko zuela pentsatzen zen, baina Loiola Irratian bestelako planteamendu bati eutsi nahi izan zioten, antzerkiak, bertsoak... etab. eginez.

1.008. Euskarari duintasuna eman (AZP-104/010)

Gaztelaniaz bezala, euskaraz ere irratsaioak egin zitezkeela adierazi nahi izan zuten Loiola irratian. Propaganda euskaraz egiten ere hasi ziren bertan, eta isuna jarri zieten "competencia desleal" eginagatik.

1.009. Espainiako Irrati Nazionalarekin konexioa (AZP-104/011)

Loiolako Irratiak gainontzeko irratiekin konexioa egin nahi izan zuen, haien artean, Iruñea, Bilbo, Donosti eta Arrateko irratiekin. Hori lortzeko baltzintza gisa jarri zieten egunena bitan Espainiako Irrati Nazionalarekin konexioa egitea.

1.010. Gerra aurreko irratigintzan: Union Radio (AZP-104/013)

Euskararen lehen planteamendu serioa egin zuten Loiola Irratiko kideek, euskararen erabilera beste hizkuntzen maila berera igotzeko asmoz. Gerra aurretik irratigintzan Union Radion aritu ziren Joseba Zubimendi, Orixe, Lauaxeta... etab. Zuzenean egiten zuten saio, ez baitzuten non grabatu.

1.011. "Charla con nuestros baserritarras" (AZP-104/014)

Epelde delako karlistak, Diputazioko langile izanik, baserritarrei zuzendutako irratsaio bat proposatu zuen. Saio honi "Charla con nuestros baserritarras" izena jarri zioten, eta de Artetxek, Bidegain, Maria Dolores Agirre, Basarri... ziren bertako langile.

1.012. Union Radiotik Argiara (AZP-104/015)

Union Radio Donostian martxan ipini zen. Bertan ibili zirenek ondoren Argia sortuko zuten.

1.013. "Euskararen etsaitzat" (AZP-104/017)

Euskara batuaren auzian, h-aren auzian, Loiola Irratia ez zen bataren ez bestearen alde agertu, eta batuaren aurkakoek euskararen etsaitzat hartu zituzten irratiko kideak.

1.014. Aurrerapausoak gaizki ikusirik (AZP-104/019)

Gerra aurreko eta ondorengo arteko auzia ez zen irratian bakarrik eman, beste alorretan ere gertatu zen, hala nola, antzerkian. Jarrai antzerki taldea antzerkiak bikoizten eta euskarara itzultzen hasi zen, eta oso gaizki ikusirik egon zen.

1.015. Euskal kulturari buruz, gaztelaniaz (AZP-104/020)

Prentsa idatzian Anaitasuna, Zeruko Argia eta Basarriren kronikak zeuden Iriondo irratian hasi zenean.

1.016. Prentsa idatziaren suspertzea (AZP-104/021)

Franco hil eta 77. urtearen buruan hasi zen suspertzen, diru-laguntzei esker.

1.017. Leintz eta Goierri bailarak euskararen alde (AZP-104/022)

Gaur egun dauden euskarazko idatzizko komunikabideak aipatzen ditu Iriondok pasarte honetan. Gainera, alor honetan herri aldizkariak nabarmentzen ditu, Goiena bezalako proiektuak, eta Goierriko bailaran egin den lana.

1.018. Eusko Jaurlaritzaren sorrera (AZP-104/024)

Oso lan-baldintza onak izan zituzten Loiola Irratian. Diru publiko asko bideratu zen irratietara. Zentsurarekin ere borrokan ibili behar izaten zutenla kontatzen du.

1.019. 60ko hamarkadako loraldia I (AZP-104/026)

Euskaraz idazten, euskal artistak biltzen, dantzarien mugimendua... Mugimendu handia hasi zen azaltzen garai hartan. Antzerkigintzan Jarrai eta Goaz taldeak aipatzen ditu Iriondok.

1.020. 60ko hamarkadako loraldia II (AZP-104/027)

Hamaika mailatan eman zen loraldia 60ko hamarkadan, euskara erdigunea zuela. Bertatik, antzerki taldeak, musika taldeak, idazleak... sortu ziren. Iriondok Donato Larrañaga, Joxe Mari Larrañaga, Lekuona... eraman zituen bileretara.

1.031. Ikili Mikili Klik eta Zazpiribai (AZP-105/008)

Ez Dok Amairu taldea desegin eta bi talde sortu ziren: Ikili Mikili Klik eta Zazpiribai. Zazpiribaik gutxi iraun zuen. Ikili Mikili Klikek gehiago iraun zuen, baina ikasle giroan batez ere.

1.032. Gerra aurreko bertsolaritza (AZP-105/010)

Bertsolaritzaren hasiera baserri girokoa zela dio Iriondok. Basarriren estiloak eta Amurizaren estiloak sortutako eskolez dihardu pasarte honetan.

1.033. Bertsolaritza basatitik urbanora (AZP-105/012)

Gerra aurreko eta gaur egungo bertsolaritzaz ari da Iriondo pasarte honetan. Baserri giroan hasi zen bertsolaritza urbanizatzen joan dela dio, eta bidean gauza batzuk galdu direla.

1.034. Txirritaren eskola (AZP-105/014)

Arrazoia bota eta besteari arrazoia kentzen zion Txirritak. Basarriekin bertsolaritza lasaiagoa etorri zen, errespetagarria. Gaur egungo bakarkakoak azpimarratzen ditu Irazuk.

1.035. Gai-jartzaileak bertsolariak baino aurrerakoiagoak (AZP-105/015)

Bertsolaritza modernizatu egin da, baina Irigoienen iritziz gai-jartzaileak hasi ziren lehenago, aurrerakoiagoak baitziren.

1.036. Librean kantatzea eta jartzeko gaiak (AZP-105/016)

Basarri eta Uztapide beti librean aritzen ziren, eta librean aritze hori itzuli behar dela dio Iriondok. Iriondok berak gai-jartzaile lanetan gaia bertsolariaren arabera egokitzen zuen.

1.037. Gaurkotasuneko gaiak jartzea (AZP-105/017)

Gai-jartzaile ibili denetan gaiaren aukeraketa ez da xamurra izan. Bertsolaria eta garaian gertatutakoa kontuan izan behar baita. 1962. urtean izan zen gai-jartzaile lehen aldiz.

1.038. Xabier Amurizaren errima hiztegia (AZP-105/019)

Amurizak kartzelan errimen hiztegia egin zuen. Asko landu zuen errimen eta euskararen alderdia, eta bertsolaritza landuago ekarri zuen.

1.039. Bertso-eskolen sorrera (AZP-105/020)

Amuriza hasi zen bertso-eskola bultzatzen. Hauetatik eskolarteko bertsolari txapelketak sortu ziren, hauen sorreran ibili zen Iriondo.

1.040. Bertsolaria, sortu ala egin? (AZP-105/021)

Bertso-eskolen sorrerarekin gatazkak sortu ziren, hauen alde eta kontra zeudenen artean.

1.041. Ahotsaren garrantzia bertsolaritzan (AZP-105/022)

Ahotsaren arabeko bertsolaritza zen mikrofonorik ez zegoen garaian. "Boz handia" izatea funtsezkoa zen.

1.042. Bertsoak: eztabaidarako aitzakia (AZP-105/023)

Txirritaren garaian oso ohikoa zen elkarri adarra jo eta eztabaidan aritzea bertsoan. Ohikoa zen bertsolariei errespetua galtzea, haien emaztearekin sartzea...

1.043. Emakume publikoak (AZP-105/024)

Ez zegoen ongi ikusirik emakume batek jardun publikoa izatea. Trikitilari eta pandero-jole izateko bidea ere gogorra izan zen.

1.044. Emakumea eta taberna (AZP-105/025)

Emakumeak bakarrik tabernatan ikustea arraroa zen.

1.045. "Las Romerías de Vixenta" (AZP-105/026)

Amezketako Vixenta delako bat koplaka aritzen omen zen. Emakumeek ahotsaren timbrea gorago zutenez gehiago entzuten zitzairen, baina gaizki ikusirik zegoen.

1.046. Trikitixa nondik dator? (AZP-105/027)

Lehenengo panderoa jotzen zen, eta gero trikitixa. Rafael Agirre Francoren teoria azaltzen du Iriondok pasarte honetan. Kanpotik etorritako musika-tresna bada ere, euskaldundu egin zen.

1.047. Union Radio San Sebastian (AZP-106/002)

Donostiako Udaleko zinegotzi batek jarri zuen martxan irratia, Union Radio Bilbao sortu eta urtebete beranduago. Hasierako eta bukaerako agurrak euskaraz egin zituzten nahiko hasieratik. Gero 32an Eusko Gaztedi taldea hasi eta ostegunero ordubetez euskarazko saio bat egiten zuten. Bertsolari bat zegoen saio bakoitzean. Herriko jendearen parte-hartzearekin osatzen zuten saioa.

1.048. Pello Kirten eta Eusko Gaztedi (AZP-106/003)

Baserritarren erdarari buruzko komedia egiten zuen Pello Kitenek Union Radio San Sebastian irratiko Eusko Gaztedi saioan. Gerra garaian Getari baserritik aritu behar izan zuten lanean, eta gero Bizkaitik, Mugerretik eta Venezuelatik.

1.049. Radio Euskadi Venezuelan (AZP-106/004)

Euskaraz baino, batez ere erdaraz egiten zituzten saioak. Iriondo Radio Paris entzun izanaz gogoratzen da, Francoren kontrakoak entzuten.

1.050. Irratigintza Iparraldean (AZP-106/005)

Iparraldean kontrola handiagoa zen irratiko frekuentzietan. Iparraldean Radio Paris zegoen, baina beti gaztelaniaz egiten zuten bertan.

1.051. Baserritarrentzat irratsaio berezia (AZP-106/006)

47. urtean Foru Aldundiko zinegotzi batek baserritarrentzat irratsaio bat egitea lortu zuen: "Charla con nuestros baserritarras". Astean ordu erdiz egiten zen hau.

1.052. La Voz de Guipuzcoa (AZP-106/007)

La Voz de Guipuzcoa "mugimenduko emisora" zen, eta baserriarrei eskainitako irratsaioa bertan egiten hasi ziren. Astero-astero euskarazko saioak egiten zituzten. Basarri bertsolaria joaten zen beti, eta bi-hiru bertsorekin amaitzen zuen beti saioa.

1.053. Eliza giroko irratiak (AZP-106/008)

Eliza inguruko irrati mugimendua hasi zen 57-58 urteen bueltan. Haien artean, Arrate, Segura, Tolosa eta Arrasateko irratiak. Nafarroan Beruete, Leitza, Elizondo... irrati txikiak sortu ziren. Egunero meza, errosarioa eta eskelak euskaraz ematen zituztenak.

1.054. Loiola irratia eta landutako saioak (AZP-106/009)

Loiolako Herri Irratia 1961. urtean hasi zen emititzen, Soldadutzatik itzuli zenean hasi zen bertan lanean Iriondo. Irratsaioak, gaztelaniaz bezala, euskaraz ere egin zitezkeela erakutsi naian, irratsaioak prestatzen hasi ziren. Donostiako Jarrai antzerki taldeak zuen saioa zen "Erein-erein hazia", baserriarrentzat. Gero Loiolako Irratiaren esku gelditu zena. "Jai-alai" izeneko saioa ere egin zuten Jarrai antzerki taldekoek.

1.055. "Andre-gizonak" irratsaioa (AZP-106/010)

Loiolako Irratian egiten zen irratsaioa zen hau, senar-emazteen arteko ikamikak oinarri zituenak. Iriondo hasi zen bertan, eta urteetan aritu zen.

1.056. Lehenengo zuzeneko saioa (AZP-106/011)

Zuzeneko saioak egiten hasi ziren Loiola Irratian, esate baterako, herri kirolen zuzenekoak.

1.057. Loiolako Irratiaren hasiera (AZP-106/013)

Eliza irrati gintzan hasi zen (COPE) eta Loiolakoa jesuiten esku gelditu zen. Elizaren esku zegoen irratia bazen ere, edukiaren aldetik askatasun handiz jokatzeko zuten irratiaren. Ordubeteko irratsaioarako hiru elkarrizketa egiten zituen Iriondok, hiru toki ezberdinetatik. Telefono bidez egiten zituzten hauek.

1.058. Loiola Irratiko langileak (AZP-106/014)

Iriondo hasi aurretik Karmelo Otaegi eta Luis Terrado ziren langile euskaldunak. Maritxu Martinez eta Justita Egaña esatari moduan.

1.059. Gidoiak baino, antzerkiak garrantzia (AZP-106/016)

Irratiko zuzendariak euskararekiko sentsibilizaziorik ez bazuen ere, euskarazko edukia sortzeko trabarik ez zuen jarri. Egindako gidoiak irakurri baino, jantzi egiten zuten esatariek antzerki bidez.

1.060. Nemesio Etxaniz eta euskara (AZP-106/017)

Iriondorekin harreman estua zuen Nemesio Etxanizek. Musika zaletasuna handia zuen eta lan handia egin zuen hau dokumentatuz.

1.061. Nemesio Etxanizek kantatu zuenekoak (AZP-106/019)

Gabirin antzerkia egiten ari zirela abestera joan zen Etxaniz.

1.062. Nemesio Etxaniz gidoigile (AZP-106/020)

Askotan laguntzen zien Nemesio Etxanizek Euskal Iztundeko kideei, gidoiak egiten. Argian ere aritu zen idazle gisa.

1.063. Euskal elizaren jarrera (AZP-106/021)

Iriondorentzat, euskalgintzan elizak izan duen garrantzia handia da, asko lagundu baitzuen euskararekiko beharra asetzen.

1.064. Bitartekoen falta eta zentsura (AZP-106/023)

Loiolako Irratiko lana egiteko bitartekoen falta azpimarratzen du Iriondok. Lan karga handia baitzuen, denetik egiten zuten langileek. Oztopo handiena zentsura izan zen ordea. Itzulpen mordera egin behar izan zuten lana aurrera eramateko. Behin bertso saio bateko itzulpena egiten arazoak izan eta salatu egin zituzten "madrilgo zerriak" kritikatzearatik.

1.065. Probintzian, kate bakotzeko irrati bat (AZP-106/025)

Loiola Irratikoek uhin ertainean ("Onda media") emititzen zuten, artean ez baitzen "FM"rik (frecuencia modulada). Gero lege bat iritsi zen probintzian kate bakoitzeko irrati bakarria arautzen zuena. Publizitatea euskaraz egiten zutenez, "competencia desleal" gisa zigortu zituzten Loiola Irratikoak.

1.066. Radio Nacionalekin konektatu beharra (AZP-106/026)

Radio Nacionalekin konektatu behar zuten egunea bi aldiz derrigor. Kexa moduan sintonia kendu eta profesionalak ez ziren jendeari parte hartzen utzi izana aurpegiratu zieten Loiolako Irratiko kideei. Denak bildu eta "fm" transmisioa egitea erabaki zuten.

1.067. Argindarra jarri zutenekoa (AZP-106/028)

Irratia jarri ahal izateko, argindarra jarri behar izan zuten Antzuolan. Lan nekeza eta garestia izan zen. Gastuei aurre egiteko jendearen laguntzaz egin zuten.

1.068. Loiolaren etsai gogorrak (AZP-106/030)

Loiola Irratiak etsai gogorrak izan zituela aipatzen du Iriondok, separatistak zirelakoan.

1.069. Kantariak: "recomendables" eta "no recomendables" (AZP-106/031)

Irratian jarri ahal ziren kantariak zerrendatuta zeuden, zentsura zela eta. "Euskadi" hitza adibidez ezin zen esan abestietan.

1.070. "Kanta berri" lehiaketa (AZP-106/032)

Loiola Herri Irratiak eta Arrasateko Danok Kultur Taldeak 1972an "Kanta berri" lehiaketa jarri zuten, kantu berriak sortzeko lehiaketa. "Guria" izeneko abestiak irabazi zuen. Musika Juan Carballorena zen eta hitzak Iturriarenak. Berez letrak (eta izenburuak) "herria" zioen, baina ezin zen "herria" hitza erabili eta haren ordean "guria" jarri behar izan zuten.

1.071. Oteiza elkarrizketatu zuenekoa (AZP-106/033)

Oteizak ez bazekien ere, mikrofonoz grabatu zuen Oteizari egindako elkarrizketa. Elkarrizketa gogorra izan omen zen, baina oso-osorik eman zuten gero irratian.

1.072. Jose Migel Barandiarani elkarrizketa (AZP-106/034)

1964. urtean egin zion elkarrizketa Saran Jose Migel Barandiarani. Eboluzioari buruz galdetu zionean, ordea, mutu gelditu zen. Barandiarani buruzko datuak aipatzen ditu Iriondok.

1.073. Lurdes Iriondo irratira eraman zuen (AZP-106/036)

"Baserri gazteria" mugimendua zegoen garai hartan, eta Lurdesi deitu zioten kanta zezan. Abestu zituen kanta horiek grabatu zizkion Iriondok.

1.074. Bileretatik Ez Dok Amairura (AZP-106/037)

Donostiako Iturriotz tabernako sotoan bildu ziren lehenengoz Iriondo eta gainotzeko euskaltzale eta artistak.

1.075. Egile eskubiderik ez zen (AZP-106/039)

Kantariak kantu berriak zituztenean, grabatu egiten zituzten segituan, Loiola irratian. Ez zen egilearen eskubiderik. Bertsoak grabatzen bazituzten ere, Iriondok irratian pоторik jarriko ez zutela agintzen zien.

1.076. Loiola Irratiak Euskal Herriaren onarpena (AZP-106/041)

1960-72 urte bitartean aberastasun kulturala handia izan zen. Lan handia egin zen garai hartan, ikastolak, antzerki taldeak, kantariak... sortu ziren.

1.077. "24 orduak euskaraz" ekimena (AZP-107/001)

1976ko "24 orduak euskaraz" ekimena Joxe Ramon Belokiren ideia izan zela dio. Belodromoan egindako jaialdian milaka lagun egon ziren, eta kanpoan gehiago. Jendearen berotasuna ikaragarria izan zen.

1.078. "24 orduak euskaraz" ekimena antolatzeko baimena (AZP-107/002)

Bilboko Herri Irratiak eta Iruñekoak konexio pare bat egin zituzten "24 orduak euskaraz" ekimenarenak, besterik ez. Informazio eta Turismoaren departamentuak joan zirenekoa kontatzen du. Han ezarri zizkieten baldintzak azaltzen ditu. Polizia asko egon zen ekitaldian.

1.079. Euskararen aldeko aldarria 1978ko manifestazioan (AZP-107/004)

1978an Euskararen Legearen aldeko manifestazioa egin zen. EITBren sorrera ordurako erabakita zegoen. Euskararekiko militantziaren atzerakadak pena ematen dio. Euskararekiko ardura handia izan dugula uste du.

1.080. Hizkuntza jarrera lotsagabeak (AZP-107/005)

Erdaraz ikasi gabe hilko ote zen beldur zen umetan. Hizkuntza jarrera lotsagabeak aipatzen ditu. Manuel Lekuonari egindako elkarrizketa batean gertatutakoa kontatzen du. Euskararen etorkizunaz.

1.081. Telenortera iritsi zenekoa (AZP-107/007)

1975ean hasi zen Telenorten. Maximiliano Alonsorekin izandako harremanaz eta eztabaidez hitz egiten du, "hatxe" izkiaren eta marxismoaren inguruan, esaterako.

1.082. Telenorteko bizipenak (AZP-107/008)

Telenorten lan egin zueneko esperientzia kontatzen du. 16 mm-rekin lan egiten zuten. Nagra magnetofonoari eta klaketari buruzko azalpenak ematen ditu. 1983ko martxoan egin zuen azken saioa.

1.083. "Al fondo el hombre" euskarazko elkarrizketa saioak (AZP-107/009)

"Al fondo el hombre" programa egin zuenekoa, Espainiako telebista publikoan. Euskal kulturako jende asko elkarrizketatu zuen, euskaraz. Ramon Labaienek eta Luis Iriondok Hanburgora bidali nahi izan zuten, beste batzuekin batera, telebistari buruzko ikastaro bat egitera, baina irratian gustura zegoen.

1.084. ETBko hasierako lanak (AZP-107/011)

1983ko apirilean hasi zen ETBn lanean. Asteburuetako informatiboak eta kirolak egiten zituen. Lankideak izendatzen ditu. "Plaza berri" kultura saioa martxan jarri zuen.

1.085. ETBko greba eta 1983ko uholdeetako baliabide falta (AZP-107/012)

ETBn asteburuetako grebak egin zirenean, 1994 eta 1995ean, oso gaizki pasatu zuen. 1983ko uholdeetako esperientzia kontatzen du, eskura zeuden baliabideak eskatu eta jaso ez zituenekoa.

1.086. ETBko zuzendaritza onartu zuenekoa (AZP-107/013)

"Plaza berri" saioa grabatzen ari zela, Jose Mari Gorordok jakinarazi zion ETBko zuzendari izendatuko zuela baina ezezkoa eman zion. Baina taldekoek animatuta, onartu egin zuen.

1.087. ETBko greba bukatzea lortu zuenekoa (AZP-107/014)

ETBko zuzendari zela, Jose Mari Gorordok baimena eman zion greba eteteko. Greba antolatu zuenari, Koldo Lizarralderi, zuzendari tekniko postua eman zion eta greba halaxe bukatu zen.

1.088. ETBko lehenengo urteak (AZP-107/016)

Loiola irratian soldata hobe zeukan ETBko lehenengo urteetan baino, baina baliabide teknikoetarako diru dezente izan zuten.

1.089. Futbol partidak telebistan emateko trikimailuak (AZP-107/017)

Europako telebisten elkartean sartu ezin, eta futbol partidak ETBn emateko zer-nolakoak egin zituzten kontatzen du.

1.090. Jose Mari Gorordoren garaiko lorpenak eta gorabeherak (AZP-107/018)

Jose Mari Gorordok ez zuen sinesten pilota partidek audientziarik izango zuenik baina lortu zuten. 1986ko Bertsolari Txapelketako finala ez zuten telebistan eman. Orduko gorabeherak kontatzen ditu. Igandetako meza ematen noiz eta zergatik hasi ziren azaltzen du.

1.091. Eusko Irratiko zuzendari nagusi (AZP-107/019)

Eusko Irratiko zuzendari nagusi izan zen, eta Radio Euskadiko zuzendari ere bai. 1988ko hauteskundeen ondoren, zuzendari nagusi Josu Ortuondo jarri zen eta Eusko Irratiko zuzendari nagusi izendatu zuten.

1.092. Eusko Irratiko zuzendaritza utzi (AZP-107/020)

1996an Iñaki Zarragoa zuzendari nagusi jarri zuten, eta edukietan sartu nahi izan zuelako, harekin ezin izan zuela konpondu azaltzen du. Dimisioa aurkeztu zion Jose Marik.

1.093. Bertsolari gazteen sariketaren antolakuntza (AZP-107/023)

Herri Irratitik bertsolari gazteen sariketa nola antolatu zuten azaltzen du. Epaila entzuleak jarri zituzten eta gutunez jasotzen zituzten irudiak.

1.094. Bertsolari gazteen sariketa hamar aldiz (AZP-107/024)

Fagor enpresari eskaini zioten Herri Irratiak antolatutako bertsolari gazteen sariketako publizitatea. Hamar txapelketa antolatu zituzten.

1.095. Trikiti txapelketaren antolakuntzaren gorabeherak (AZP-107/025)

"Gure Erromeria" saioak audientzia handia izaten zuen. Sakabirekin harremanetan jarri eta trikitalarien arteko txapelketarik ez egitea erabaki zuen. 1969ko Donostiako Euskal Jaien barruan antolatzekotan zebilela, salbuespen egoera etorri zen eta atzeratu beharregatik 1970ean egin zuten. Epaimahaikoak izendatzen ditu. Harrera ona izan zuenez, urtero hasi ziren antolatzen.

1.096. Trikitixa, euskal tresna (AZP-107/027)

Trikitixa euskal tresna zergatik den azaltzen du: kanpotik etorri eta euskaldundu egin dela dio.

1.097. Suprinua, artzainen musika tresna (AZP-107/028)

Suprinua musika tresna: urritzaren azalarekin egiten da. Artzaiek erabiltzen zuten.

1.098. Irrintzilari txapelketa, Primi Erostarbe (AZP-107/029)

Irrintzilarien txapelketa Primi Erostarbek irabazi zuen. Nola egiten zuen azaltzen du.

1.099. Trikiti txapelketa hogeita bat urtez (AZP-107/030)

1970ean egin zen lehenengo trikiti txapelketa eta 1991n azkenengoa. 1982an saiatu zen Laja eta Martini erronka jotzen, elkarrekin lehian jarriz, baina ez batak ez besteak ez zuen onartu. Trikitilariak asko aldatu direla dio.

1.100. Kepa Junkerari txistu jo zioteneko txapelketa (AZP-107/031)

1985ean aurkeztu zuen trikiti txapelketa azkenekoz. Orduko hartan Kepa Junkerari txistu jo zioten.

1.101. Jasotako omenaldi, sari eta izendapenak (AZP-108/002)

2010etik ohorezko euskaltzain da eta 1976tik urgazle. Jaso izan dituen sariak aipatzen ditu. 1973an omenaldia egin zioten Itziar Sagartzazurekin batera.

1.102. Idatzi dituen hainbat biografia (AZP-108/007)

Bidegileak saileko hainbat biografia egin ditu: Estitxu, Teodoro Hernandorena, Basarri, Mattin, Julian Lekuona... Auntxarena, Iturbidetarrena, Lajarena eta Aizterrazuko erromeriakoa ere eginak ditu.

1.103. Gasteizko seminarioko giroa, gerra aurrean (AZP-111/003)

Gerra aurrean, Gasteizko seminarioan euskal giroa. Barandiaran eta Lekuona apaizak zeuden han, besteak bestea. Jakakortajarena, Ramon Narbaiza...

1.104. Gerra aurreko "ikastola", EAJk sortua (AZP-111/004)

II. Errepublika garaian, EAJk eskola bat sortu zuen Gasteizen: erdaraz zen, baina euskara ere irakasten zuten bertan. Peli Romarategi (elkarrizketatua) eta Andoni Perez Cuadrado izan ziren ikasleetako bi, eta "ikastola" deitzen diote. Euzko Gaztetxu Batza ere bazegoen. 1936ko dokumentu bat aipatzen du.

1.105. 1963an, lehen ikastola; aurreko giroa eta haziak (AZP-111/005)

1963an sortu zen Gasteizko lehen ikastola, baina Izaskun Arrue andereñoa ez zen kasualitatez hasi lan horretan. Aurretik Andoni Urrestarazu "Umandi"-k euskara irakasten zuen bere etxean. Pedro Anitua eta Ramon Narbaiza euskaltzaleak aipatzen ditu, haiek egindako lana. Ofizio eskolak ("ikastun eskolak") ireki zituzten, mutilentzat zein nesKentzat, eta giro euskaltzalea zegoen bertan. Hango ikasleen umeak izan ziren ikastolako lehen ikasleak.

1.106. 40ko eta 50eko hamarkadetako giro abertzalea (AZP-111/006)

1941etik 1963ra zegoen euskal giroa eta abertzaletasuna. Pax Romana kongresuaren harira, gazte batzuek ikurrinak ipini zituzten. 1951n greba orokor batean "Umandi"-k ihes egin zuen, eta ikasleak irakasle gabe geratu ziren. Hala ere, ikasleek elkarri euskara erakusten jarraitu zuten.

1.107. Euskara ikasteko eskolak 1957an (AZP-111/007)

1953 urte inguruan Espainiako legedian zirrikitu bat zabaldu zen, eta "Umandi"-ren ikasleek euskarazko eskolak antolatu zituzten, 1957an. 244 lagunek eman zuten izena, eta eskolak abian egon ziren urte batzuetan. Arrakasta hori ikusita, Gobernadore Zibilak eskola horiek falanjearen etxean eman nahi izan zituen, kontrolatzeko, eta orduan ez zuen inork izena eman. Beste toki batzuk topatu behar izan zituzten, eskolak emateko (Ramiro Maeztu institutuan...).

1.108. Euskarazko gogo-jardunak 1959an; Gasteizko euskaltzaleen "nukleo gogorra" (AZP-111/008)

Euskarazko gogo-jardunak egin ziren 1959an Gasteizen. Pakita Abaitua da lekukoetako bat. Teresa Urrestarazu aipatzen du, hark egindako saretze lana. 60ko hamarkadaren hasieran Gipuzkoako hainbat tokitatik etorri zirenek ere eragin zuten Gasteizko euskal giroan, baina "nukleo gogorra" bertan zegoela dio. Izaskun Arrueren ikastola Olabide ikastola bihurtu zen gero.

1.109. Olabide ikastolaren hasiera, 1963an (AZP-111/010)

Olabide ikastolaren hasiera Izaskun Arrueren etxea izan zen. Izaskuni guraso batzuk joan zitzaizkion umeei eskolak euskaraz emateko eskatzen.

1.110. Euskara batuaren sorrerak ekarritako ezinegona (AZP-111/012)

Euskara batuaren sorrera askok ez zuten begi onez ikusi. 1968ko Arantzazuko batzarrean onartu zena ez zen 70eko hamarkadararte mugitu, Villasante euskaltzainburu bihurtu zen arte. Olabide ikastolan asko kostatu zen batua inplementatzea. Izaskun Arrue ez zegoen alde, eta berak sortutako ikastola utzi egin zuen, eta bere umeak bertatik atera.

1.111. Euskara batuaren sorrerak ekarritako ezinegona II (AZP-111/014)

"Umandi" ere euskara batuaren kontrakoa zen, Izaskun Arrue bezalaxe.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com